DENBORA ZARRETAKO EUSKAL-ELIZAREN EDESTIA
Irugarren Liburua



**Latiegi'ta Eraso'tar Bixente**
EUSKERAZAINTZAKOA

# Euskal Kristautasunaren Sendokuntza

SEIGARREN

ETA

ZAZPIGARREN

MENDEETAN

**Gure Asaben Arteko Kristautasuna**

Mari
nere arreba maitea:
Oraintxe, liburu au amaitzerakoan
alde egin didazu Jainkoaren altzora.
Berrogeitahamar urtez
izan zaitut aingeru zaindari
zintzoa.
Eskerrik asko Mari!



Argitaratzailea / Edita: Kultura Saila - Departamento de Cultura
Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Alava

Inprimatzailea / Moldiztegia: Arabako Foru Aldundiaren
Imprenta de la Diputación Foral de Alava

Azala / Portada: IBER SAENZ

Akitani Euskaldunea gotzai izan zan
Lupus {Otsoa) batera da.

*OARRA*

*NERE EUSKALERRIAREN MUGAK*

*Euskalerria da liburu onen -eta lengo bien- esparrua. Ez ordea, gaurko Euskalerri labur au, antziñako Euskalerri zar luze eta zabal ura baizik.*

*ORREGAITIK*

*Antziñako Euskalerri Zarraz iru liburu auetan esaten dana eskiertasun guztiz izan daiteke onartua. Ez ainbestekoz gaurko Euskalerriarenak izango ziran lurretaz esaten dana.*

*ALARE*

*Gaurko Euskalerriari dagokion guzia ere, ditugun dokumentu urrietan oiñarriturik, logikaren arauz zintzo aztertua izanaz gero, izan da liburuotara r t ua.*

*IZAN ERE,*
*Iru liburuok beren gaia Euskeraz itzegiten zuten lurralde guztietako Eliza Zarraren edestia dutelako, au izan zezaketen izenburu egokia:*

*LENENGO ZAZPI MENDEETAN*
*EUSKERAZ MINTZATZEN ZIRAN ERRIETAKO*
*KRISTAUTASUNAREN*

*SORKUNTZA*

*ZABALKUNTZA*

*SENDOKUNTZA*

# LIBURU ONTAKO GAIAK


- BIBLIOGRAFIA 13

- VI ETA VII MENDEAZ AURREKO GIZALDIEI AZKEN-BEGIRALDIA .................................................................................... 33

- II MENDEA: Euskalerri Zarrean kristautasunaren lenen-txinpartak? Kartago'ko Tertuliano'ren eta Lyon'go Ireneo Deunaren aitorpena. .................................................................................... 38

- III MENDEA: EuskaI-Kristautasunaren lenen-izpiak: Akitani' ko Eliza; Kalagurri'ko Emeter eta Zeledon martiriak. Prudentzio olerkariaren aitorpena. .................................................................................... 40

- IV MENDEA: Elusaberri Akitani'ko Elizaren metropoli. Kalagurri' ko Bataitegia. Galietako basilikarik zarrena Euskalerrian. Arkeologiaren aldetiko albiste txit garrantzitsuak. .................................................................................... 48

- V MENDEA: Gipuzkoa, Araba ta Akitani' ko ortako gure gotzaidia. Silbano Kalagurri'ko gotzai eta Ilario Aitasantua .................................................................................... 57

- VI ETA VII MENDEETAN EUSKALERRIKO GIROA. Amaigabeko gudatea, bai gure iparretik hai gure egoaldetik. 69

- VI MENDEA. Gizarteko ta Elizako gertakizunak. 73

- VII MENDEA. Gizarteko ta Elizako gertakizunak 135

- TAJON Salduba'ko (Zaragoza)'ko gotzaiaren eskutitza euskaldunen aurka ........................................................................... 154

- EUSKALERRI ZAR ARTAKO GOTZAIAK

Bisigoten eskubideak. ........................................................................ 177

- ANAKORET1TZA. Euskalerri Zar Zabaleko lekaideak. Ibero (Ebro) Garaieko ibarretan. Bureba'n. Errioxa'n, Aragoi'en, Katalauni 'n, Gaskuiña'n. ........................................................................ 193

- VI ETA VII MENDEETAKO EUSKALERRI ZAR ZABALA ERRI BEZALA KRISTAUTURIK. Eragozpenak,

- BI MENDE AIETAKO LAU ILLOBITEGI AUNDI MIRESGARRIAK. Naporroa'n Iruña koa ta Buzaga'koa. Araba'n Aldaieta'koa eta Buradongoa. Au IV eta V mendeetan asia.. 224

- ARABA'N ALDAIETAKO ILLOBITEGI AUNDI NAROA. Zergaitik orrenbeste gorputz? Zergaitik gizonezko danak gudariak? Zergaitik an? eta zergaitik orrenbeste? Nongoak ote? Danak Akitaniarrak? Izkillu ta tresnedi oro akitaniar kulturakoa. Ezer ez bisigotiar usaiekorik. Zergaitik eta zertara Akitani tikArabara etorriak? Zergaitik bi mendez emen bizitzen egonak? Kulturaz akitaniartutako arabarrak ote? kristauak? Jentillak? Siniskeri nabarmenez orbandutako kristauak? Bizitu ziran uri arigarriki aundiaren aztarna aurkitu-berriak. 227

- EUSKO-JENTILKERI ZARRA GURE KRISTAUTASUNAREN ALTZOAN ........................................................................ 241

- SINISKERIA TA SINISKERIAREN AURKAKO LEGE 251

EUSKALERRIAREN KRISTAUKETA ATZERATU NI IZAN DUTEN IDAZLEAK Nola'ko Paulino? Sebero Donea? Julio Caro Baroja. Manuel Risko. Gregorio Balparda. Zakarías Villada. J. Orlandis. J.M. Lacarra. Claudio Sánchez Albornoz. María Jesús Rubiera de Epalza. Cañada Fuste Echegaray. A. Barbero y M. Baroja (eta M.Lekuak eman zion erantzuna). Pierre Nabaitz' Estepa Díez ............................. 255

- EUSKALERRIAREN INGURU GUZTIAN JENTILTASUNA BIZIRIK ........................................................................ 307

- EUSKALERRI ZAR ARTAN GAURKO EUSKALERRIAREN MUGEN BARRUNGO LEKAIDETZA. Neskutsak ("Deo dicatae virgines"). AIargunemeak (viduae). Bakartiak ("solitarii"). Kukulla'ko Millian. Bilibio'ko Felize. Soria'ko Saturio, Armenti 'ko Prudentzio. Formerio. Bañares'ko beste Formerio. Naxera'ko Santa Koloma' Zenobitarrak 321

- ARABA'REN SORTALDEKO ANAKORETEN LEIZEZULO ARRIGARRIAK' Bakarti aiek zenobitarrak ote? An bakarti emerik bai ote? eta semetxo ta guzti sendi bakartirik? Eliza Zarreko bakarti-era arrigarriak. Aietakorik gure bakarti zarren artean bai? Bakarti zarren bizimodua. Sakramentuenganako eraspena ¿nolakoa? Eta, ¿liturgiaribuzkoa? 335

- ARABA`KO SARKALDEAN GOBIARAN'GO BAKARTIEN GOBIAK ........................................................................ 365

- NAPARROA'REN EGOALDEKO BAKARTIAK 367

- EUSKAL-LITURGIAREN MAMIA 377

BISIGOTEN LITURGIA ........................................................................ 379

- GALIETAKO ELIZEN LITURGIA 381

- AZKENITZA ........................................................................... 385

- ERASKIÑAK. Emeter eta Zeledon martirien omenez
Prudentzio kalagurritarraren iru olerkiak .................................. 387

- Tajon gotzai saldubatarraren eskutitza ..................................... 395

- Kontzilioetara joan bearra ......................................................... 397

Esparti'ko jentiltasunaz Toledo`ko III kontzilioa .................... 399

Erregearen alde otoitz egin bearra ............................................ 401

Lturgiari-buruz Toledo"ko XI kontzilioa ................................ 403

Iztegia ........................................................................................ 405

# BIBLIOGRAFIA

## ITURRI IZAN ZAIZKIDAN IDAZTIAK

Liburu ta aldizkari asko bear izan ditut ]an luzea eta oso asti luzea kosta zaidan idazki au bere elbururaiño eraman aal izatea. Liburu oietatik geien-geienak Gazteiz'ko gure seminarioko liburutegian aurkitu Besteak, Gazteiz'en bertan "Santxo Jakintsua" deritzan Frakundearenean.


- Anonymus Ravennae. Cosmographus ere esan oi zaio. Bere liburua izenburu onekin argitaratu zuan 1688'an Placido Poreheron izeneko lekaideak: "Anonymi Ravennatis, qui eirca saeculum VII vixit, de geographia libri quinque".

"Arehives de la Franco Monastique". Paris, 1905-1935. LiguO'ko Beneditarrek argitaratua. 41 liburu dira. Nik, idazki ontarako, II eta X erabilli ditut.

- "Archivo Español de Arqueologia". Consejo Superior de Investigaciones Cientffleas. Madrid.
- "Arkeoikuska". Arkeologi edo antziñiztiari-buruzko aldizkaria. Gazteiz'ko Husko-Jaurlaritzak urtero argitaratzen duana. Euzkadi'ren erdian, Gazteiz'ko Eusko-Jaurlaritzak jaurturik dagoan Euzkadi'ren erdian, ari diran aikeo-azterketen berri jakiteko berdiñik gabea.

Arrinda Donato, Estomba Manuel: "Historia General del País Vasco". Bilbao, 1.980.

- Aguirre (Saenz de), Cardenal Aguirre esan oi zaiona: "Notitia Conciliorum Hispaniae atque Novi Orbis". Salamanca 1.686
- "Antropologia de la Muerte". Askoren lana. Gazteiz, 1986

Aymeric Picaud: "V LIber Sancti Jacobi": "Jakoba Deunaren Bosgarren Liburua". "Gula del Pere g rino" edo "Erromesaren Esku-Liburua" ere esan oi zaio. Eta baita "Codes Cafixtinus. Liber V" edo "Kalisto'ren Bil-

dumako .Bosgarren Liburua". Izan ere, bera bait da bost l.iburuk osotzen duten Bilduma ortan bosgarrena. 1.1.24'ean il zan Kalisto Aitasantuak ez zuan Bilduma orrekin zer ikusirik izan, baiñan bere izena eman zitzaion gero, berari leporatutako itzaurre apokrifo baten erruz.

Nik, ileanne Vielliard' ek prantzeraz eta lateraz 1.938'an argira emandako "Le Guide du Velerin de Saint jacques de Compostelle" erabilli dut nere lan ontarako.

- Azkarate Garai-Olaun, Agustín: "Arqueología Cristiana de la Antigiledad Tardia en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya". Gazteiz'en; 1.988'an, 553 orri ta argazki ta marrazki askoz eratutako liburu mardul ederra. Gai oni-buruz, orain arte, liburirik onena. Egillea, Euskal-kristautasunaren etorrera atzeratzailleekin zerbaittxo bat legunagoa dala dirudi, aurreratzailleekin baiño.

- Azkarate Garai-Olaun, Agustin: "Francos, Aquitanos y Vascones. Testimonios arqueológicos al sur de los Pirineos. *Archivo Español de ArqueologÍa,* 1993.

Azkarate Garai-Olaun; García Camino: "Estelas e inscripciones medievales del País Vasco Occidental". Bilbao, 1996.

Azkarate Garai-Olaun, Agustin: "Waskon.i.a"; "Nosotros los Vascos. Gran atlas de Euskal Herria". Edit. LUR; Bilbao .1995

- Azcona, "La Escuela Hist6rica de Viena y la Antropologfa Vasca. (Cuadernos de Etnologia y Etnograffa de Navarra"). 43.1984. 137-153.

- Dom J.M. Besse, (Ligugé deritzan lekaidetxekoa): "Les Moines, Abbayes et Prieures de Ancienne France. Provinces Ecelesiastique d'Aueh et de Bordeaux". Paris 1910.

- "Bibliotheca Patrum et Veterorum Auctorum Ecclesiasticorum". Margarinum de la Bigne'k antolatua. Paris, 1..609. 8 liburu dira. Nik 8'garrena erabilli dut.

- "Bibliotheca Sanctorum. Instituto Giovani XXIII nella Pontificia Universita Lateranense". 24 liburu, 1.961'tik 1.969'ra. Geigarri bat badu; 1.987'koa; ia osoki "gorrien" aldean eraildakoen berri emanez osotua. Aipatzen dituan donegai oiek egiazko martiriak izan ziranik ukatu gabe, nere ustez oar bat eskatzen zuan zintzotasunak, Españi'ko gudu nardagarri artan "gorriek" aiña jende – edo geiago – "zuriek" ere erail zutela esanez.

Cange, lateraz, Cangius: Glossarium mediae et infimae con-ditum a Carolo Dufresne Domino du Cange. Cum suplementis integris mona-

chorum Ordinis Sancti Benedieti, D.P. Caminterii, Adelungii, allorum, suisque digessit G.A.L Henscher. Paris, 1.840-1.850. Zazpi liburu dira.

Cañada Fuste, Alberto: "Alava Frente al Islam". Onako bilduma ontan: "La Formacién De Alava", 1, 136-150. Gazteiz, 1985.

Caro Baroja "San Amando y los Vascones", "Principe de Vianan 22-123 (1971), 7-26.

- Caro Baroja, Julio: "Los Pueblos del Norte de la Península Iberica". Madrid, 1.943. Liburu ontako zatirik jak.ingarriena, 1.01' garren orrian. Oker dabil nere ustez Caro Baroja, ikusi aal izango dugun bezala, Bordele'ko Ausonio eta Nola'ko Paulino'ren olerki txit ezagunei berenez ez duten garrantzi a ematerakoan.

- Caro Baroja, Julio: "Los Vascos". Bere zuzendaritzapean, idazle askok burututako lau liburu.

"The Catholic Encyclopedia". Yorke Berrian 1.907'tik 1.912'ra bitartean argitaratua. 18 liburu dira eta 2 geigarri. Biotan azkenekoa, 1951 ' garren urtea. Gauza askorako egokia da, besteek ematen ez dituzten albistealc berak ematen dituelako. Badakit, orain oso-osoan, berriro, zearo aldaturik eta gaur-eguneraturik birr-argitaratzeko aSlnotan dabiltzala.

- "Catholieisme Hier, Aujourd'hui, Demain. Dirig& par G. jaquement, du clerge de Paris". VI liburuaz gero "Centro Interdisciplinaire des Faculte's Catholiques de Lille" izeneko bazkunaren zaintzapean agertzen zaigu. 1.948-'koa du lenen liburua. Eta, 1 1'garrenean, "propres" itzaraiño iritxi da. Oso Iztegi ederra; baiñan Frantzi'ko gauzei arreta geiago eta jaramon kuttunagoa ematen diela gogoan euki bearra da.

- Cbadwiek, Henry: "The Early Church". Portugaleraz, – "A Igreja Primitiva" izenez erabilli dut nik, Maria Helena Albarran de Carvalho'r.en itzulpenean.

- Cle"ment, J.M. (O.S.B.): "Lexique des Anciennes Règles Monastiques". Beernem, (Belgique), 1978. 2 libu ru.

- "Coneillorum Colleetio Regia Maxima, ad P. Philippi Labbei & P. Gabrielis Cossartii e Societate Jesu labores haud modica accessione facta & emendationibus plurimis additis, praesertim ex codicibus manuscriptis; cum novis & locupletissimis indielbus: Studio P. Joannis Harduini ex eadem Socictate Jesu presbyteri". XII tomo. Paris, 1.715.

- "Corpus Christianorum". Bilduma onek iru sail ditu: Aurrenekoa, erromatean lateraz idatzitako idaztiena, 1.954'ean asia. Bigarrena, erromatean

eleneraz idatzitakoena, 1..977'an asia. Eta, irugarrena, oraindik azalduz diarduna, erdiaroko idazliena. Belxika'ko Turnay urian ari del argitaratzen.

- "Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinormn". Biena. 1.882.

- Conineau (L. H): "Re'pertoire Topo-Bibliographique des Abbayes et Prieures". Macon, 1939. Bi liburu dituan lan ederra, Franborough'ko benedictar onena.

- "Dietionnaire de la Bible publio par Vigouroux. Bost liburu lodi dira. Paris'en I .895'a eta 1.912'areo artean argitaratuak. gero, geigarri asko argitaratu ditu: Amaika, orain artean. Eta argitaratuz jarraitzen du. Nik, lan eder orren 1CI liburua erabilli. dut, Erodes Antipas erregearen eta Erodias bere sasiemaztearen eriotza, Flabio Josefo'k aditzera eman zuan lez Euskaldunen artean gertatu ote zan ikusteko.

- "Dietionnaire EncycIopedique de Ia Liturgie". Iztegi au, italieraz izan zan argitaratua. Erroma'n, 1.984'ean: "Nuo y o Dizionario di. Liturgia". Guk frantzerazko itzulpena daukagu gure bibliotekan. Argitaratu da gaztelerazko itzulpen bat ere. Txit lan ederra da. "L" izkiraiño iristen da orain arte argitaratu duten 1 liburua.

- "Diccionario *de* Historia Eclesiastica de España dirigido por Quintin Aldea Vaquero, Marín MartÍnez y Jose Vives Castell. Instituto Enrique FlOrez. Consejo Superior de investigaciones Cientificas". I.975'era bitartean argitara azaldua. 4 Liburu dira eta geigarri bat. Au, I.987'koa. Garrantzizko albiste ta gai asko aipatu ere gabe utzi ditualako, ez da liburu atsegiñegia gertatzen. Gaiñera damaizkigun gaiak billatzeko, ez. du batere erreztasunik eskeintzen, eta, orregaitik zailla egiten da bere erabilketa. Ori, espaãi-zalee“ia dala esateke!

"Diccionario de Historia *de* España". Revista de Occidente'k Madrid•-en I .952'an argitaratua. Bi liburu dira. Egille askoren zitua. Edestiaurreari eta Aro Zanari dagozkien gai guztiak, Antonio Garcia Bellido'k idatziak ditu.

"Diccionario del Mundo Clasieo redactado por catedraticos y profesores de arqueologfa y arte clasico, filosofia griega y latina, especialistas en derecho romano, medicina y ciencias de la antigdedad, archiveros, bibliotecarios y eruditos escritores bajo la direeciOn delR y do. P. Ign.acio Errandonea S. J. (B. Lit. Oxford). 1.954". Bi liburu dira. Arras ezagungarriak.

"Dietionarium Morale et Canonieum". P. Pallazzini'k zuzenclua. 3 liburu dira, I.962'tik 1 .966'm Erroma'n argitaratuak. Priszilikeriari-buruz ikustal-

di batzuk eman dizkiot. Gai ontaz "Catholicisme" Iztegia duzu iturririk egokienetakoa.

- "Dictionnaire d'Archeologie Chretienne et de Liturgie publie par le R.P. Doin Fernand Cabrel abbe de Saint-Michel de Farmborough (Anglaterre)". 1.913' az gero asten da Don? H.. Leclercq ere zuzendaritza lanean. Azkenekoa H. Morrou'k zuzendua da. 1.907'an asi ziran iztegi bikain au argitaratzen, eta 1.953'an bukatu. Guztira 30 liburu mardul dira iztegi eder au osotzen dutenak.

"Dietionnaire de Droit Canonique publie sous la direetion de R. Naz, ancien professcur de la Faculte Libre de Lille". Zazpi liburu. Paris, 1.957.

"Diceionnaire de Geograpbie (Suplement au Mamuel du Libraire) ancienne et nioderne al'usage du libraire et de l'Amateur de Libres, par un Bibliophile". Paris. Urtearen aipurik ez du.

- "Dictionnairc d'Histoire et de Geographie Eeclesiastiques. Publio sous Ia direction de Mgr. Alfred Baudrillart, recteur de ]'Institut Catholique de Paris, M. Albert Vogt, docteur es lettres, profeseur I'Uni y ersite de Friburg, et M. Urbain Rouzies". 1.912' an asi zuan argitalpena. 24 liburu aundi irten dira, baiñan oraindik "Honolulu" itzara bakarrik iritxi dira. Zuzendari asko izan ditu Iztegi onek. Azkenekoa, R. Aubert, Lobaina'ko .Unibersitate Katolikoen irakasle eta Belxika'ko Akademian akademilari dana.

- "Dictionnaire *de* Sociologie familiale, politique, economique, spirituelle, generale". Guk, 1933'a ta 1937'a arteko lau liburuak dauzkagu. Laugarrenean "C" izkira iritxi zan.

- "Dietionnaire des Symboles". Gaztelerazko itzulpena badu,

- "Dizionario degli Istituti. *de* Perfezione". 1974'tk 1988'ra zortzi liburu argitaratu ditu. "S" izkiaii dago.

- Dueso, Jose: "Los Vascos". Lau liburu. Begientzat beintzat apaiñak eta polittak.

"Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Cuerpo A. Diccionario Enciclopedico Vasco. Editorial Auñarnendi. Estornes Lasa Hnos". Donosti'n 1.968'an asi, ta 34 liburu-zear "Orozko" itzaraifio iritxi da. Baditu gauza onak., eta baditu ain onak ez diranak ere. Agian laisterregi egiña dalako.

"Encyclopaedia Britannica". Edozein gauzetarako oso maiz erabilli oi dedan iztegia.

- "Encyclopaedia of the Social Sciences". Ycw York. 1.949'an, argitalpen berria. 15 liburu dira.

- Estornes Lasa, Bernardo: "Historia General de los Vascos. Epoca Romana: -22.1 a 476". Donosti. 1.967. Euskalerriaren edestiari dagozkion gaietatik ugari dira sakonki Estornes Lasa'tar Bernardo'k landu dituanak. Aipatu bearrak ditut bere "Origenes de los Vascos", eta berak zuzendutako Enciclopedia General Ilustrada del Pafs Vasco erraldoiean bere lumaz idatzi dituan lan ugariak.

Fabre, Pierre: "Saint Paulin de Nole et l'Amitie Chretienne". Paris, 1.949.

Fernandez Alonso, Justo: "La Cura Pastoral en la EspariaRomanovisi-uoda". Roma 1.955.

Fernandez de Navarrete, Eustaquio - Mantel.i., Sotero: "Sede Vascongada". Vitoria, 1863.

- Filloy, Idoia: Valles Occidentales y Llanada de ALava". "Arkeoikuska (vide), Gazteiz, 1992. 162 or.).

- Flérez, Enrique: "España Sagrada". Arras liburu-sorta ezaguna. Aurkezpenaren bearrik gabekoa, XVIII mendeaz gero atertzeke idazle orok erabillia izan dana.

Forcellini: "Totius Latinitatis Lexicon". Sneerbergae (Saxoni'ko Schneerberg). 1.831. Du Cange'ren iztegiarekin batera bee-laterazko itzak aurkitzeko egokia.

- "Gallia Christiana in Provincias Ecclesiasticas distributa, qua Series et Historia Archiepiscoporum, Episcoporum et Abbatum Franciae vicinorumque ditionum, ab origine Ecclesiarum ad nostra tempora deducitur et probatur ex authenticis Instrumentis ad calcem appositis. Opera et studio Domini Dionisii. Sammartani Presbyteri et Monachi e Congragatione Sancti Mauri. Parisiis, ex Typographia Regia, M.CC.XVI". 16 liburu dira, azkenekoa 1.865'ekoa.

- Gams P.P.B. "Series Episcoporum Ecclesiae Catholicae quotquot innotuerunt a Beato Petro Apostolo. - A multis adjutus edidit P. Pius Bonifatius Gams O.S.B. - Zweite Unvernderte Auflage. Leipzig 1.931.

García de Cortazar, J.A. "La OrganizaciOn del territorio en la formaciOn de Alava y Vizcaya en los siglos VIII a fines del XI". Bilbao 1981.

García Moreno Luis A. "La Monarqura Visigoda y Ia Iglesia de Levante". Hispania Sacra XLIX (1997), 253.

- Garcia Villada, Zacarras, "Historia Eclesia'stica de España", 5 liburu. Madrid, 1.929-1.936. Oso españi-zalea dala gogoan euki bearra da. Gizagai-

xoa, bere azkeneko liburua argitaratu zuan urte ortan bertan, izan zan Madriden "gorriek" erailla, Franco Enepublikaren aurka izkill jeiki izatearen ondorioz.

- García Villoslada, Ricardo. Bere zuzendaritzapean argitaratu ziran Madrid'en, I .979'an. "Historia de la Iglesia en España" baten 5 liburuak. Au ere, benetan espanolista.

- "GER (Gran Eneiclopedia Rialp)". Opus Dei'ren goi-gidaritzapean eratua. 24 liburu, danak 1.979'an argira agertuak. Gure liburutegian dugun iztegi onen geigarria, 1.987'kott da.

- Gonzilez Blanco, Antonio: "El Poblamiento de la Rioja en la Antiguedad Tardía".

- Goñi Gaztanbide, Jose: "Historia de los Obtspos de Pamplona". Ediciones Universidad de Navarra. 1.979.

- E. Griffe: "La Gaule Chretienne a l Epoque Roniaine. L'Eglise des Gaules au V'e See'cle". Paris 1965.

- E. Griffe: "La Gaule Chretlenne a l'Epoque Romaine. La Cite Chretienne. Paris 1965.

- "Historia de Euskal Herria", Idazle askoren artean egiña. Aurreneko tomoa Bilbao'n 1.980'ean argitaratu zuten. Zazpigarrena, 1.923' garren arteraiño iristen dana, 1.982' an. Ez dakit aurrera jarraitu duten. Axal politaz ta irudi askoz ederturik dago. Mamia ez dirudi ain eder oparoa duanik. Gaiñera idazle askoren lana izanik, ez digu atal bakoitza nork idatzia izan dan esaten. Izugarrizko akatsa, edesti-liburu batentzat.

- Heusca, Fr. Ratón de: "Teatro HistOrico de las Iglesias del Reyno de Arag6n". 1796'ean.

- Idatius Aquaellaviensis. Gaur Chaves esaten zaion eta len Aquae Flaviae zeritzan uri portugaldar ortako gotzaia izan zan V mendean. Ikus "Patrologiae Cursus Completus". Bilduma orren 51'garren liburuan erabilli bait dut nik Idazio'ren "Chronicon" izeneko edestia; naitanaiezkoa Ispanietako V mendea ezagutzeko.

- imbart de la Tour: "Les Origines Religieuses de la France, Les Paroisses Rurales du 4'e au ll'e Siecle". Paris. 1.900.

- "Instituto de Estudios Riojanos. VII semana de Estudios Medievales. 1997.

- Ildefonso Donea: "De Viris Illustribus". Liburu au eta "Etimologi"ena nik beste ontan aurkitu ditut: "SS. PP. Toletanorum Quotquot Extant Ope-

ra". "Tomus Primus". Madrid 1.782. Lenen torno ortan Toledo'ko ildefonso'ren "De Viris Illustribus"en aurretik dator Sebilla'ko Isidoro'rena; onen izen berdiñeko lana osotzeko idatzi bait zuan ark berea.

Isidoro Done Sebillatarra: "Historia de Regibus Gothorum, Wandalorum et Suevorum". Nik liburu au, 1803'an Erroma'n argitaratutako "S.Isidori. Hispalensls Episcopi Opera Omnia" deritzanean aurkitu dut.

- Isidorus Pacensis: "Chronicon". Nik idazti au Florez' en "España Sagrada"ren VIII liburuan aurkitu dut. 261. "garren orritik aurrera.

- Jaurgain (Jean de): "Vasconia. Estudio Hist6rico-crítico (S. VI-XI) Bi torno. Editorial Auñamendi. Donosti, 1978.

- Jedin, Hubert: "Manual de Historia de la Iglesia", Jedin'en zuzendaritzapean idazle askok antolatua. Nik, nere lan ontarako, Alejandro Lator Ross'ek gazteleratutako I1 liburua erabilli dut (Bartzelona, 1.980). Liburu au, Karl Baus, Hans-George Beck, Euren Ewig eta Hertman Josef Vogt'ek idatzia da.

- Juliano Donea, Toledo'ko gotzaia: "Historia Wambae Regis". Nik liburu au "España Sagrada"ren VI liburuan aurkitu dut; 539'gn. orrialdetik aurrera.

Labriolle (P. de): "Un episode de fin du paganisrne. La correspondance d'Ausone et de Paulin de Nole". Paris, 1.910

Labrousse: "Histolre de Ia Gaseogne des origines a nos jours". Roanne, 1.977.

- Laearra, J.M. Colección diplomática de irache". Zaragoza, 1965.

- A. Latreille (professeur a l'Universite de Lyon), E. Delaruelle (professeur i l' Institut Catholique de Toulouse), J. R. Palanque (professeur a l' Universite d' Aix-en-Provence): "Histoire du Catholicisme en Franee". Edltions Spes. Paris, 1957.

- Latxaga: "Errioxa'ko San Millan euskal iturri". Donosti, 1.974.

- Latxaga: "Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban". Bilbao, 1.976. Frantzerazko eta Gaztelarazko itzulpenak badaramatza. Merezimendu aundiko liburua da bideak urratuz idatzia izan zalako. Gaur, ordea, jakintzarako bide eta langaffluak asko obeagotu diralako, eta Araba'n, arkeologiari dagokion arloan garrantzi aundiko idoroketa berriak egin diralako, beste era batera idatziko liguke liburu ori, eginkizun oietarako ain ederki gerturik dagoan Joxemari San Sebastian "Latxaga"k. Paris'ko Ikastetxe Nagusietan irabazitako iru doktoradutzen jabe bait dugu Euskerazaintzako Akademilari bikain au.

Le Golf, Jacques - Remond, Rene: "Histoire de la France Religieuse". Paris 1988. Lau liburu.

- Mañarieua, Andres Eliseo: "IntroducciOn del Cristianismo en el Pais Vasco". Facultad de Teologia. Vitoria. I Semana de Historia Eclesiástica del Pais Vasco. Homenaje a D. Jose Miguel de Barandiaran y D. Manuel de Lecuona. Vitoria, 1.981. 27'garren orritik, 41'garrenera. Asko idatzi zuan Mafiarlkua'k gai ontaz. Baiñan beti aburu bera arrazoi berdiñen bidez babestuz. Orregaitik, aburu orren laburpen txukuna dan itzaldi au irakurtzea naikoa du irakurleak, gizon onuragarri aren oldozbideak ezagutzeko.

- Martínez Diez G. "Guipuzcoa en los albores de su historia (siglos .X-XII)". San Sebastian 1975

- Martinez Salcedo, Ana; Cepeda, Juan Jose: "Conjunto Arqueolt5gico de BuradOn". Arkeoikuska, 1996, pag. 183.

- Maurois, Andre". Nik, idazle onen "Frantzi'ren Edestia", María Luisa M.orales'ek gazteleratutako "Historia de Francia"n erabilli dut. Barcelona, 1958.

Menendez Pidal, bere zuzendaritzapean argitaratutako "Historia de España" oparoaren 111 liburua da nik erabillitakoa: Madriden ean argitaratua.

- Monreal .Jimeno, Luis Alberto: "Eremitorios Rupestres Altomedievales. (Alto Valle del Ebro). Bilbao, 1989". Laurejun da ogeitamar orrialde ederreko liburu Aipatzen dituan gaiak ezagutzeko, egokiena.

- Monreal Jimeno, Luis Alberto: "Arquitectura Religiosa de Oquedades en los Siglos Anteriores al Romanico".

- Morates, Anbrosio: "CrOnica General de España". Alcala de Henares".

- Narbaitz, Pierre: "La Cristianizaci6n del Pais Vasco-Frances". "Primera Semana de Historia Eclesiastica del Pais Vasco", 41'garren orritik 67'-garrenera. Gazteiz, 1.981.

- Narbaitz, Pierre; "Le Matin Basque ou Histoire Ancienne du Peuple Vascon". Paris, 1975. Idazti atsegiña. Egilleak, ordea, ardura geiegi artzen. du Euskaldunak basatiegiak uste dituztenen aldean bere burua agertzeko. "Progresikeri-zaleen" bildurrez?

Edestia, ordea, "progresista" oien etsai aurkezten zaigu, ikusiko dugun lez.

- "Nomina Hispanarum Sedium". Bere izen osoa au da: "Provinciale Visigothicum. seu Nomina Hispanarvm Sedivm de Provinciis Hispaniae. Nomina Civitatum Hispaniae Sedes Episeopalivm". Kordoba'n, 850' aren iguruan idatzitako "kodes" edo "larruki-bilduma" mozarabiar baten atal bat cia. Naiz IX mendekoa izan, IV eta V mendeko albisteak ere jasotzen omen ditu. Nik, "Españi'ko Gotzai-Uri-Zerrenda" ori "Corpus Christianorum" izeneko bilduman erabilli dut.

- "Notitia Dignitatum et Administrationum Omnium tam Civilium quam Militarium in Partibus Orientis ct Occidentis. Comentariis Indicique Illustravit Eduardus Weking. Bonnae, 1.885". V mendean idatzia izan omen da "Notitia Dignitatum" edo aro artako "Kargu Garaien" zerrenda au.

- "Notitia Galliarum" ("Notitia Provintiarum et Civitaturn Galliae"), 400'garren urtean edo lentxeago idatzia.

- Oihenart: "Notitia Utriusque Vasconiae tum Ibericae turn Aquitanicae. Parisiis M.DC.XXXVIII".

- Orlandis, J. "H.istoria de España", Madrid 1977. Nik "La España VisigOtica izeneko alea erabilli diot.

- Petri Pithorei Opera, Sacra, lvridica, Historica, Miseellanea. Parisiis, MDCIX.

- Prosperus Aquitanus: Ikusi ezazu "Patrologiae Cursus Completus". Bilduma orren 51'garren liburuan aurkitu bait ditut nik. Prospero'ren idazkiak. Prospero ori, olerkari ta edestilari ezaguna, V mendearen asieran Akitani'n jaio zitzaigun.

Rabi" Bell Zaid, Iliberis (Elbira)'ko gotzaia: 961'an idatzitako Donetegi Mozarabiar baten egillea. Ikus "Simonet".

- Richard, M.: "Collection des Auteurs Latins publiee sous la direction de M. Richard". 35 liburu lodi; zoritxarrez, zenbatu gabeak. 1.843'tik 1.885'ra Paris'en argitaratuak. Oso liburu egokia da, beste iñon aurkitu ezin dai.tezkean liburuak bertan bait datoz.

- Rogier, Aubert, Knowles. Iru edestilari oien zuzendaritzapeko "Nouvelle Histoire de L'Eglise" (Paris, 1.963).

- Rubiera de Epal.za, María Jestis: "Alava y los Alaveses en los Textos Arabes Medievales". FormaciOn de Alava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982). Ponencias. Congreso de Estudios Hisffiricos. Vitoria, 1984.

- Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Repoblación y Religiosidad Popular en el Oeste de Alava (S. Gazteiz 1.989. Izugarri españi-zalea da praille prantziskotar au. Alare xeetasun jakingarriak baditu. Badu beste idazti bat ere lengo onen antzekoa. Jarraian datorkizun au:

- Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Monasterios Altornedievales del 0e-cidente de Alava. Valdegovia. Como nacen los Pueblos". Biak argital-leku eta urtegarrenaren aipurik gabe.

- Sainz Ripa: "Sedes Episcopales de la Rioja. I. Siglos IV-XIII". Logro-ño, 1994.

- Sai.nz Ripa, Eliseo: "Primer Cristianismo en la Rioja". VII Sernana de Estudios Medievales. Instituto de Estudios Riojanos, 1997.

- L. Serrano: "El Obispado de Burgos *y* Castilla Primitiva desde el Siglo V ai XIII". III liburu. Madrid 1955-1936.

- Simonet, Francisco Javier; "Santoral Hispano-Mozkabe escrito en 961. por Rabl Ben Zaid Obispo de Iliberis". Madrid 1871.

- Tajon, Salduba'ko gotzaiaren lanak Manuel Risco'k "Espafia Sagrada"-ren, XXXI liburuan agertu zituan, 166 arritik aurrera: "Tajonis Caesaraugus-tani Episcopi Sententiarurn Iibri V. Liburu orren "Praefatio"an dago Tajon'-ek eusko-gudarien aurka Bartzelona'ko Kiriko'ri idatzi zion gutuna.

- Ubieto Arteta, Antonio: "Introduccicin a la Historia de España". Bartzelona 1.969. Nik erabillitakoa VI argitalpena da.

- Ubieto Arteta Antonio: "CrOnica de Alfonso III". Balentzi'n. 196I'-ean.

"Vetera Christianorum". Itali'n Bari'k.o Unibersitatearen "Litteratura Cristiana Antica" erakundeak argitaratzen duan bilduma. 28'garren urtea darama,

- "Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueologia y Filología Clasicas. Euskal Herriko Unibersitatei". Gazteiz.

- Vives, Jose: "Inscripciones cristianas de la España Romana y Visig6ti-ca", por el R.do. Dr. Jose Vives, Pbro. del Consejo Superior de Investigacio-nes Cientificas". Barcelona 1.942.

- Vives, Jose: "Concilios Visig6ticos e Hispano-Romanos". Barcelona.







()arra: bi mapa auek. aNtziñako Euskalerria erakusten digute.

- Goikoak, Ipar-Euskalerria, Dordoña, Rodano, Auñamendia la bi nxasoen artean edat/en zana.
  Beikoak Ego-Sortaldekoa. Sarkaldean, Asturi osoraiiio beintzat iritxiko bait zan. Mapa ontan, erdiko lerroa nerea da ta erromatekoan Euskeraren muga adierazi nai du. Beste biak, Estornes Lasa'renak dira ta erromatekoan eta erromate-aurrean Euskera noraiño iristen zan adierazi nai digute.

# ITZAURREA

Au da, Euskalerriko Kristautasunan-buruz, nere irugarren liburua. Ezagunak dituzu noski leenagoko biak: "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" eta "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza". Bi oietan aurreneko bost mendeetako arazo eta gertakizuna] aztertu ditugu. "Euskal-Kristautasunaren Sendokuntza" izen-daraman irugarren ontan VI eta VII mendeetakoak izanen ditut azterketa-gai.

Sarrerako "OARRA"ren bidez esanik utzi dedan bezala, liburu ontan ere antziñako EUSKALERRI. ZARRA izango dut nere azterketa osoaren alorra, ots, Kantauri Itxasotik Lurrantsasoraiño eta Iber'mendietank Garona ibaiaren ibarretaraiño edatzen zan Euskalerria. Aragoi'ko Euskerari-buruz jakin aal izan duguna ezkero, sinisturik bait nago ni, VI ela VII mendeetan Euskera, – bai beintzat mendi ta basoetan Itxasertzeraiño itzegiten zala Katalauni'n ere

Baiñan Euzkadi ere, ots, gaurko zazpiprobintzidun Euskalerri txiki au, antziñako Euskalerri Zar aren puskatxo bai bait da, naitanaiezkoa izango zait gure Euskalerri ontaz ere mintzatu bearra.

Baiñan bearrezkoa dut baitare, irakurlea atzipetu ez dezadan, sarreral«)an egiñik utzi dedan OAR ura birraipatzea.

Antziñako Euskalerri Zar zabal ortaz aurkeztuko duguna, idazki ta arrizko dokumentu zar ugariz oifiarritua egongo dalarik egiazko edestia izango dalako, eskiertasun askiz izan daiteke ontzat artua.

Gure Euskalerri ttipi ontako Knstautasunari-buruz esango dugunak ordea, adibidez Gipuzkoa ta Bizkai'ko mendi-jendea noiz, nola, ta zenbateraiño kri.stautua izan zitekeanari-buruz esan dezakeguna, ez da ain gauza ziurtzat artu daitekean gauza: VI eta VII mendeetako Euskalerri txikiari-buruzkoa, logikaren araura, bai, – ziurki ezaguna dugun pittifia oiñarritzat artuta – arrazoiketaren bidez nik eratutako iritzi-sorta izango bait da.

---

Aragoi.ko Euskerari-buruz, ikus gure azkeneko ikerketaz "EUSKERAZAINTZA" akclizkarian (XLV-XLVI <1999>. 12-34) argitaratu dedana.




ALKei'k erromatekoan
ILIBERRIS zuan izena

AUÑAMENDIAREN
ERDIALDEKO
IPAR-EUSKALERRIA

Nere iritzi oiek dokumenturik aski ez dutela, esango didate Euzkadi'ren mendialdera, adibidez Gipuzkoara, Kristautasuna oso berandu, ainzuzen X, XII edo XIII mendean etorri zala uste dutenek.

Neri ordea, dokumenturik eza, ez zait naiko arrazoia danik iruditzen, ezer esateke erabat ixilik gelditu bear izateko. Zillegi bekit kidetasuntxo jostalari bat: Beiak aragijale ez diran bezala, euskaldunak ere, ez dira sekulan munumentu-sor-zaleak izan.

Orregaitik, aragirik ¡jan-ez-Izatetik beien arazoei-buruz argumenturik ateratzea zillegi ez dan bezala, euskaldun aien kristautasuna ukatzeko ere, ez zaigu zillegi dokumenturik aurkitu ez izateaz baliatu nai izatea.

Ez dute lumaz deus idatzi; eztare, arriz deus eraiki. Ori ondotxo dakigularik, zentzugabekeri aundia litzake orrelako jendeen artera dokumentu billa sartzea. Ez bait dugu deus aurkituko. Orrek ordea ez digu euskaldun aiek jentillak zirala oiukatzeko eskubiderik ematen. Soilki, aien gurketakerari-buruz, ziurki ezer .askorik ez dakigula esatera beartzen gaitu.

Dokumenturik gabeko auzietan, logikaren bidetik jardun bear izan clute beti edestilari-guztiek. Ori egia dala ikusteko naikoa duzu izkuntza guztietan, "dirudi", "itxuraz", "uste dugunez", "ematen duanel", "esan

daitekeanez", "sinistekoa danez", eta oien antzeko esakizunak edesti-liburuetan zenbat aldiz agertzen diran aztertzea.

Orrelakoetan, ez daiteke edestilariei dokumenturik eskatu. Soilki arrazoiketa zuzenez ibilli diran galdetu bear zaie.

Orra ba: neri, – neri beintzat bai nere iritziak logikarik zorrotzenaren bidetik ibilliz sortuak dirala iduritzen zait.

Baiñan, irakurle, soilki zu izan gindezke epaille zintzo bakarra.

Orregaitik ez diegu guk ere Kristautasunaren etorrera atzerazaillei dokumenturik eskatuko. Adibidez, Gipuzkoa ta Bizkai IX eta X edo XI, XII eta XIII mendeetan jentillak zirala esaten duten oiei ez diegu, ori esan aal izateko, dokumenturik eskatu: arrazoi heragaitik: ez larrukian idatzirik, ez arriz eraikitakorik, ez bait dugu mende oietako eusko-sasijainko bat bakarraren monumenturik2.

Liburu ontako Euskerari-buruz, auxe da esan nai nukeana:

Azkue aundiak iriki zuan ildotik, Erdiko Euskera erabilli dedala: Erdiko Euskera, beste Euskeren emaitzez osotua.

Naiz elertian erabillitako Euskerak, – Zuberoera, Laburdiera, Gipuzkera, Bizkaiera lau izan, iru dira EUSKERA BAT bakarraren era ezberdiñak: Sarkaldekoa (Zubero'n); Erdikoa (Naparroa'n, Gipuzkoa'n, Laburdi'n); Sarkaldekoa (Bizkai'n).

Eta, Jainkoaren batasuna une berean bakarra ta irukoitza izatea dan bezala, ortan dago Euskeraren BATASUNA ere. Une berean BAT eta IRUKOITZA izatean.

Eraspen guztiz esana bedi. Jainkoa: ZER bat, iru NOR. Euskera: ELE bat, iru ELEKERA.

2. Etsai annorratuak izan genituan atzerritarrak Euskalerriari buruz idatzitako dokumentuak bai, asko ta asko ta asko ditugu. Gauza ikaragarriak esaten dituzte Euskakdunen aurka, bainan ez dute esaten Euskaldunak jentillak ziranik, bi edo iru idazlek izan ezik. Ez zaigu, ordea zailla gertatuko bi-iru oien esanek batere baliorik ez dutela agirian ipintzea.



ARABA. Buradon'go Eliza. V MENDEA

"IDATZ-1KUR" edo "sírnbolos ortogrfficos" diralako oiei-buruz, auxe da nere ustea: irakurketa errezten duan guzia erabilli bear dala, eta irakurketa zaildu dezakean guzia ez dala sekulan iñolaz ere erabilli bear.

Orregaitik:

- Ez dut "H"rik izki ori Euskerarentzat izugarriki kaltegarria dugulako.

- Galdera dakarten esaldien aurretik ere, kezkarik gabe erabilliko dut galde-ikurra, orrek irakurteari, euskaldun berriari batez ere, asko laguntzen

- Agoskerak berak eskatzen clualako, "RR"ren doiñuz amaitzen diran itzak abotsizkiz asten diran itzei alkartzerakoan ere, bildurrik gabe erabilliko ditut bi "RR" oiek. Adibidez, "urr-ontzi. i "ur-ontzi", ez bait dira berdiñak, baratzeko "urrak" eta iturrik.o "ura" berdiñak ez diran bezala.

- Pozik erantsiko diot itzaurre oni, bera ere edestilari dan Aita Mauro Elizondo Abata beneditarrak nere liburu auei egindako Gizon jakintsua da DOM ELIZONDO, Erroma'n Benedilar-Ordenaren Zuzendari Nagusi Orokorra izan dana. Berak bere gogoz utzi zuan kargu guren ori, bera



ARABA, Bur:cion'so Eliza. V MENDEA

euskalduna iza ik eta bere Euskalerrian fedea aultzen ari zalarik, bere tokia Erroma'n ez baiña bere Errian zegoala uste izan zualako.

Kritika au, Izparringi erdaldunean erdaldunentzat idatzia izan da; len idatzi bait zuan beste bat euskaldunentzat euskeraz, eus.k.erazale Q?) omen dan "Deia" izparringian.

Ta, jarraian, emanen dut baitare, bizkaieraz, EUSKERAZAINTZA Akademiaren Lendakari dan Olazar'tar Martin izkuntzalariaren kritika.

Azkenik, nere liburu auen alde edo aurka zerbait esan nai ba'didazu, edo, soilki, zerbait galdetu nai ba'didazu, ona emen nere zuzenbidea:

LATIEGI TA ERASO'TAR BIXENTE
SEMINARIO Apdo. 86 01080 BITORI-GASTEIZ

URRUTIZKIÑA 945 22 00 50

Igiesias de ia Tarraconense presentes en kr; sinodos provinciales y generates de la era visigritira

| | Pamp. | Taraz | Osca | Oce | Zar. Ilerd | E.ar. EMIE rc | Tort | Aus. Urg. Arnp. | Terr. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ivira (c, 300-306?) | | | | | | | | | |
| Zaragoza I (3/30) | Doceas Istentes, sin I rocisa sede | | | | | | | | |
| Totedo I (397-400) | Crecinueve asistentes, sin sedes menos ta de uno | | | | | | | | |
| Ta ragana (5161) | Iffi | | ffi | | | | | ╪ | |
| | | | | rjE | | t | | ei | |
| | Ellffle | | | | 11 | | | | |
| | | | | | j_HE | | | E | |
| | Sic suscri ciOneS | | | I | e. | , | | CE | |
| | 1111 | | | | | | | ee | |
| 1 | ein | + | EIN | | I | IME + H | | ii. •••• | |
| | 11: | | | | 111 | | | | |
| Totodo IX (655) | alE | E | EI | N | ri | dm | | ememi | |
| Toledo X (656) | | ill• | | | | | | 11111111~ | |
| Toledo Xt (675) | . Gcncttle provincial, sin represents cicnes de ta Tarosenneisse | | | | | | | | |
| Toledo Xtt (581) | Concilio general, pero sin rtproseastoateri de la Tarraconense y Narbonense | | | | | | | | |
| Toledo X91(683) | ' | ' L | | t | L | I ( | . i | ei --1 | |
| Toledo XIV (684) | Cancik provincial, sin representaciÓn de ta Tarraconense | | | | | | | | |
| Toledo V (685) | | | | | T | I ''' I e | | ei • | 11111111 |
| Zara 0 a III (691) | No trae ramina, n9 nernerc de asistertICS | | | | | | | | |
| Toledo XVI (6931) | 1111E | | | | Elll | Mil | | li,-1 | |
| Toledo XVII (5941) | No trae nOrnina de aststentes eplerique Sp et Getlierurn pontitices1 | | | | | | | | |
| Totedo XVIII (e. 703) | No han quedado ■3.1:. | | | | | | | | |

O

KoLdc, Larrafinga Llorru.ri dr11.1,

Significa queastste al stnedo el titular de ta sede.

*. Significa que cl titutar se hace representar por detegado (presb1tern, ete.),

# indica tes sedzspresentes en Egara, que cabe idernificar por otra via-

El Stephanus *Terrueonensis* que figura cura.: InS finetustes det III Sit10(10 rotertann en la edieidn ile Vives debe ser ieido *Tari,sv-pleriSIS* 5715generede dudas (v. nete 8 det arecutc).

No se preciso Sede de los aSISIerlteS, peru tos 111 % de tos n•Linbres tirmantes coinciden con tos de fos repi-CSentanl.,I.n.n,nuelKes en d.1.11 ennuin0 totedand de tres años ames.

Aqui se ird.caLria, para ts1gunos, el esI Ilarnado *conciliv de Gundentoro* de 610 (n. su *Decreuen* a continuaciOn de las actas det X1) concitic de Totedo). Como firrnuntesdet decrero figuran hasta E obispos tarraconcuses. de los gue MIIIIiIIS do Calahocta, Fiondius de Tarazona y Johannes de Pamptona. Al cuticilto de Egtua de G f 4 acuden, por otro lado. hasta estorce represeniantes de igtestas lerzsconen-SeS, sin que s, preeise erapero ta sede que sefiakar que los nombres de vartes obispns lirmantes —Multites, ie1181111,5, Matornus, Losebius. coinciden eun tos de ta rdanine det decrem de Gendereare. NOtese. con todo, yuc en **adernil,** lolemnes de Pamplona. figura tarablen un Jetlannes *Gerundersis...,* mienfraS que en los aetas det sttusio egarense sdlo se habta de un Jollanne.S.

Arnanuneos *Causensis* (por Ameeresiz.at parecer), Este Ansaroutcus figura **COMPArxernth,** segiin sl eseina, en.1Ie JOS Ennantes del V concitio (otedann

# VI MENDEAZ AURRETIKO EUSKAL-ELIZARI

# AZKEN-BEGIRALDIA

Eusko-Kristautasunaren azterle eta aurkezle aundia izan zitzaigun On Andres Eliseo Mañarikua.

Au izan zan edestilari aundi aren azken. erai-itza: Kristautasuna, Euskalerrira ere, beste errialdeetara sartu zanean sartu zala; ez azkarrago, ez beranduago.

VI mendera arteko albiste oro arreta biziz jaso ta aztertu ondorean, Maftarikua'ren aitorpen ori egiztatzeko gai giñala, erronkaz oiu egin genuan guk.

Baiñan, beste zerbait ere esan genuan, Mañarikua'k aitortutakotik aurrera joz: Kristautasuna, beranduago ez baina, bearbada, Sarkaldeko beste Erri batzuetara baiño leenago ere sartu zala gure Euskalerri Zarrera.

Ez uste izan, orain ori esan dedalako, ainzuzen ori esan aal izatearen billa liburu au idaztera sartu nintzanik; auxe besterik. ez bait da adierazi nai izan dedana: Dokumentuek, – arrizko ta paperezko dokumentuek logikaren argita azterturik, ori esan bear izatera ekarri. nautela.

Ez dut, eztare esan nai IV eta VII mendeetan Euskalerriko jentiltasuna zearo ezabatua zegoanik. Izanen ziran, nai ba'da, emen ere jentillak. Baiñan baziran beste Erri guzti-guztietan ere. Eta, agian, emen baiño geiago!

Ikus dezagun, liburu onen azken atal ontan, gure erronka egi biurtzeko gai izatea lortu dugun, aurreneko bost mendeei begiraldi labur bat emanez:

Ez ordea aztu, ez ifiolaz ere aztu, guzti ori esatean antziñako Euskalerri Zar osoaz ari gerala mintzatzen.

MENDEA. Euskalerria Europa'ren sarkaldean dago. Sarkaldean, ordea, 1 m.endean ez. zan oraindik kristautasuntk, Erroma'n eta Napoles'en alboko Pozzuoli izeneko uriskan izan ezik; eta, an ere kristauak, ia danak, sortaldetarrak ziran: Grezi, Siri, Ejito ta Palestina'tik etorritako jendeak.

Edestilari españiarrak aiña saiatu dira frantztarrak beren Frantzi'ko kristatnasunaren sorkuntza 1 menderaifio aurreratu naIean. Baiñan beren arrazoiketa guztiak "on peut dire" eta podría deeirse" utsetan oiñarritzen dira.. Eta orrelako oitiarri zalantzakoi guzti oien azpitik kondaira besterik ez; geienetan, gaiñera, kondaira arras ustela.

Egia da Euskalerrian ez zala mende ortan kristautasunik izan. Baiñan, askok uste izan duan bezala "kristautasuna Euskalerrira oso-oso-oso be.randu iritxi zala oiukatzeko, gaur ez du zorionez, lengo argurnentu zar ura birrerabiltzen: alegia "erromartasuna iritxi ez zan tokietara ez zala kristautasunik iritxi".

Ez dizu gaur ziñezko edestilari batek orrelakorik esango:

- Lendabizi, – bere tokian agertu genuan lez ori (egia ez dalako!
- Bigarren, Euskalerria uste baiño askoz gelago erromartu zatako.
- IrUgarren, Euskalerrira, Afrika'tik Europa'rako ta Europatik Afrika'rako bidean dagoalarik, emen, iparretik eta egotilc etorria, sekulan uste izan dan baiño jende eta gauza geiago tbi.11i zalako.

Gai oni-buruz lan eder bat idatzi du Idota Filloy Nieva andreak: "Distribuci6n *de mercandas en epoca romana en Alas*[y]*t. El caso de los recipientes"* ("Isturitz", 9 (1996); 321-357).

Orix.e erakustera dator ainzuzen andre orren lan ori: Erromatekoan guk uste baiño askoz geiago ibiltzen zirala jendeak eta gauzak.. Ala aurkitzen omen dira Araba'ko lurraldeetan edonondik ekarritako tresnak. Entzun Idoia berari:

*"En este trabojo sobre los distintos mercandas que se importaron por hŕcr comercial al territorio crlcrves en epoca romana, nos detendremos sOlo en el caso concreto de los recipientes, ofreciendo ejernplos que nutestron una intensa actividad, medionte cual se accedÍa cr manufacturas procedentes tanto de centros productores cereanos como de puntos alejados del imperio romano como Egipto, Tnnez v otros como Itolia las Gallas v la Zarra del Rin".*

Guzti ori soilki ontziei-buruz!

Entzun zer dioskun beste ikedari batek, Eliseo Gil Zubillaga'k Okalto lrufia'n zaramate gi batean aurkitutakoaz: Zaramategi ori V mendean bete omen zan zaborrez, zaramaz, eta ondakiñez, bainan, jakiña, lenagokoak ziran gauzen ondakiñez:

*Una enorme coneentraciOn (ornen zegoan zarcunategi ortan) de e instrumental de eocina amortizado.s",* ("amortizados", ots, zartuak eta puskatuak). "Toda *.suerte de especies de utensilio.s de tnesa y de cocina asf eeAa cercnnica fina de inesa r recipientes de vidrio". "Dentro de la l^ajilla cle vidrio 11(11; un lote de recipientes todos ellos correspondientes a impor tociones desde los talleres renonos, con alguna bateNa v ciwncos para behera Uno de ellos presenta una excepeional decorackin burilada e incisa con leyenda epigrafica de eardeter cristiano"* ("Arkeoi kuska 97", 214-221). Bereala mintzatuko gera "epigrafi." edo "gaiñ-idazketa" kristau ortaz.

Oso goiz, gaiñera, (bai beintzat Krist'osteko 1 mendearen astapenerako! asi ziran atzerrietatiko gauza oiek – eta gauza oiek ekarri zituzten jendeek – gaurko gure Euzkadi ontako lurretara iristen. Entzun Ana Mz. Saleedo'ri:

*"La TS.I ("Terra Sigilato Itcdlano) localizada en territorio alavds Kabriona, en Osingain; Karasta, en Kaizedo; Barkabao, en Espeio de tal de Govia) corresponde en su totalidad o los talleres de kr zona de Arezzo y por los saltos "in plaina pedis" son de dos anos 15 a 40 de nuestra era".*

Bai omen da, gaiñera, antzeko lurregosi-mota zarrago bat, Krist'-aurreko 1 mendearen bigarren erdian eta Krisrosteko 1 mendearen aurreneko erdian egiten zana. Krisfaurrekoa izan daitekean lurregosi ortatik ere, Araba'n aurkitua izan omen da: aipatu dugun Kaizedo'ko Karasta'n.

Bizkai'n ospetsuak. dira Krisrosteko bigarren mendearen lenen erdiraifioko erromatarren aztarna zaarrak. Bestalde, ezaguna da erromatearen mende guztietako aztarnei-buruzko Bizkai'ren aberastasuna.

Eta geiago ta geiago ari zaizkigu agertzen egunetik egunera antziñate artako pitxiak

Ona, esandako ori botobiltzeko, oraintxe bertan ikerketapean aurkitzen diran erromateko aztarnategi garrantzitsuenetako bi:

- Maria, Araba'ko Arrastaria deritzan udaleko erriska bat da. Orduña' ren albo-alboan.

Bertan, Krisraurreko I mendearen azken-alditik Krisrosteko II mendera arteko tresnedia agertu zaigu eta garrantzi aundiko etxola luze zabal eder bat.

Andagoste,Araba'n bertan Kuartango izeneko aran politean dago. Arras Iur menditsuan. Emen, izkilluak eta gudarienak izan oi diran tresnak agertu zaizkigu. Krisrauroeko I mendearen lenen erdikoak. Ez dakigu an egondako gudaritegi bateko ondakifiak, ala bertan gertatu zan borrokaldi baten aztarnak diraN. Danadala, oro omen da an, Zesarangusto'k Kantauritarren aurkako guda asi aurrekoa.

Toki oietan ezeze, bai Araba'n bai B lanean jarraitzen du azterketa-lanak orain arte agertu diran eta, egunetik egunera, geiago ta geiago agertzen ari zaizkigun – aztarnategienut.

Igaro gaitezen, ordea, Gipuzkoa'ko aran estuetara. Gipuzkoa izan bait da idazleek ago batez ia-ia osoro ez-erromartutzat artua.

Gaur ez daiteke orrelakorik pentsatu, Gipuzkoa, osoa-zear aurkitu bait dIra eta aurkitzen ari bai dira errOmateko aztarnak. Oso garrantzi aundikoak gaIñera batzuk; Azkon-Pko Donemartifi'en elizakoak adibidez; "En San Martin de Iraurgi (Azkoitia) 6 urnas de incineraciOn y una punta de lanza, vidrios y un "pilum" de hierro. Pruebas de carbono 14 realizadas en Nueva York y Upsala demuestran que son anteriores a nuestra era" (id.id.).

Ona Gipuzkoa'ko erromatar-aztarnategirik garrantzitsuenak, (makoartean, bertan aurkitutakoen azalpena): 1DIAZABAL (dirua), ERRENDERI (irudia), A1ZKORRI'ko OLTZA (arrizko aldarea). OÑATE (Aizgaifi'en Inrregosizko ontziak). INTXAUPE (lan-tresnak). ZEGAMA (San Pedro'ko arri idatzia). PASAI (dirua). ARETXBALETA (lurregosia), IRUA.IZMENDI (aztarna ezberdifiak.), URBIA (lur egosia). DEBA (Ermiti' ko leitza edestiaurreko doaiez ere ospetsuan). ZARAUTZ (lurregosia, altzairugintzaren aztarnak). ZESTONA (bi tokitan: AmaIda'n lanerako tresnak, maxpe` n lurregosizko ontziak), LENITZ-GATZAG.A (bi tokitan; gatzagintzaren aztarnak; luregosizko ontziak), OIARTZUN (iru tokitan: Arditurri"ko meaztegia, Andiarraga'ko ..Parrokiko diruak), IRUN (bi tokitan: kaia; ermitako giza-erratusak). ATAUN (bi tokitan: Otadizelai'n dima, Jenhlbaratza'n urrezko eraztuna). DONOSTI (bi tokitan: dirua; anfora edo ontzi apain bat). Eta goraxeago aipatu dugun AZKOITI'n Iraurgi."ko aztarnategi aberatsa.

Asko, egi-egitan asko, onako bi xeetasun auek gogora ba'darzkigu:




Euzkadi'ren Sarkaldea Erromateko
Sánchez Albornoz'en ustez

- Gipuzkoa, ezker-eskubi. la goitik- beera, kilometroz oso lurralde txikia dala.

- Gipuzkoa aro artako giza-geografiari dagokionez, arras lurralde baztartua zala: ez zuala Nerbion eta Urdaibai bezalako babes-kaitegi zabalik; eta Asturika-Burdigala bide nagusiak, Naparroa' tik Burunda-zear Araba' ra igarotzen zalako ez zuala ukitu ere egiten, eta Tarraco-Oearso bi.dezabalak, sortaldeko mutturraren punttan ukitu beterik ez zuala egiten.

BIGARREN MENDEA. Ezer askorik ez dakigu garai ortako Europa'ren sarkaldeko kristautasunaz ere. Mende orren azken aldera Galietako Lyon'en eta aren alboko Biena Galitarrean bai, kristaudi bikain bat izan zan. Baiñan kristau aien artean ere geienak sortaldetarrak ziran. Ala beren lenengo gotzai ezagunak ere: Pothinus martiri. Donea, eta aren ondorengoa, Ireneo idazle done txit ezaguna.

mende ortako bigarren erdian, ordea, asia zala dirudi alde ontako Europa'n ere kristautasunaren zabalkundea, orduango idazlerik garrantzitsuenetako bik idatzi zutenen. Idazle bi oiek Ireneo ta Tertudano dira. Au kartagotarra, II mendean latiñezko idazlerik yayoenetakoa; beste ura, jaiotzez asiarra siritarra bearbada eta, aipatu dugun Lyon'go bigarren gotzai ezaguna: Ireneo Donea, Eliz orokorrean txit izen aundiko gizona.

"Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan luzaro mintzatu giñan bi idazleotaz eta H mendeko kristautasunari-buruz eman zizkiguten albisteetaz. Oroi dezagun emen, aiek esan zutenari eskerrak, II mendean Euskalerrira sartzen asia zala uste izateko itxaropen eztitsu bat izan dezakegula:

Ona zer esan ziguten garai zar aietako lekuko lez:

- Tertuliano'k, 11 mendearen amaierako kristautasuna sarturik zegoan tokiak aurkezterakoan, zerrenda luzearen erdialdera, onako errialdeok aipatzen ditu: *"Hispanianun omnes termini et Gal iortun diversae noliones"*, ots, "itspanietako lurralde danak eta Galietako nazio ezberdin guztiak".

Ispanietako lurralde GUZTIETAN, dio, kristautasuna sarturik zegoala. Ots, ordea! Aro artan, Soria'ko mendietatik Aufiamendira, eta Laredo aldeko

Kantauri-Itxasotik Lurrar Itxasora, Ispanietako lurralderik zabalena, Euskalerria zan!!!

Galietan, berriz, ango nazio GUZTIETAN, diosku, sustratturik zegoala Kristautasuna. Bañan, era berean. Aufiamenditik Garona ibaiera, ta agian andik aurrera Dordoña aldeko oianetara, eta itxasotik itxasora, Galietako nazio guztietan aundiena, Euskalerria zan!!!

Onako auek dira, berriz, Ireneo'ren itzak: et si in mundo loquaelae dissindles sunt, sed tamen uirtus traditionis una et eadem est. Et neque hae quae in Germania sont fundatae Eeelesiae aliter eredunt aut aliter tradunt, *neque lore quae in Hiberis s neque hae anoe in Ceitis,("oute en tais Mertuis owe en Kehois", Ireneo' ren elenerazi, neque luze quae in Oriente, neque hae quae in Aegypio, ne que hae atwe in Lib i, neque hae quae medio mundi .sunt constilwae":*

Euskeraz:

"Naiz munduko izkuntzak ezberdiñak izan, bat eta berdiNa da danetan agoz-ago iritxi zaien sinispidearen sendotasuna. Gauza bera sinisten eta erakusten dute, Germani'n sortutako Elizek, eta lberitarren eta Keltiarren artean sortutakoek; eta baita Sortaldean, Ejito'n, Libi'n, eta mundu osoaren altzoan sortutako beste guztiek ere".

"lberitarrak". Ireneo'rentzat eta orduango idazle askorentzat Ispanietako jendeak ziran: eta, "Keltiarrak", Galietakoak.

Bi idazle zar txit garrantzitsu aiek dioskutenaren artean badago ezberdintasuntxo bat:

Tertuliano soilki kristautasunaren zabalkuntzaz mintzatu zitzaigun. Ireneo'k, ordea, "Elizak" aipatzen ditu, eta 11 mendearen bigarren erdi artako Elizak non aurkitzen ziran azaltzen

"Elizak" esatea, aNtziña, "elizbarrutiak" esatea zan. Ori gogoratuz, artako euskaldunen artean. Iparrean bezala Egoan ere, gotzai-ta-guzti elizbarrutiak sarturik zeudela esan ote dezakegu?

Ez, iñolaz ere ez.

Alde batetik, mende aietan Elizako erakundeei-buruzko izenkera gaur bezain ziurra ez zalako. Izanere, batzuetan, getenetan, gaurko elizbarrutiari "Eliz" esaten zitzaion, baiñan, beste batzuetan "Parroki". Eta oraingo paraskotan, "Eliz"!

Besealdetik, Itali'ko bat edo beste, ta Galietako bi aiek izan ezik, Sarkaldean oraindik Eiizbarrutirik ez zalarik, –euri kristautasuna bi lurralde.

oietatik iritxi zitzaigun ezkero – ezin batt zitekean emen enzbarrutirik. izan, an orrelakorik ez ba'zan oraindik sortu.

Orrek, ordea, ez. du bi gizon aundi aien lekukotasunaren indarrik aultzen. Zaiiki aurki izango genuan aro artan bi aiek baiño lekuko bikaiñagorik. Orregaitik, anitz eraspen aundiz aipatzen dituzte lengo eta oraingo edestilari frantziarrek eta españiarrek. Baitare, aundia da benetan bi aien leknkotzart ematen dieten garrantzia.

Ez zan kaxkarragoa izan eunen bat urte geroago, IV'aren asieran Zesarea'ko Eusebio'k eman ziena, aiek esanda.koak zintzo sartu bait zituan bere "Elizaren Edestia" deritzan liburura. Ta, bai noski, edestilari bezala bada norbait Eusebio Zesareatarra.

Orregaitik, Il mendearen azken-aldera Euskalerri Zarrean aitagurea Euskeraz esaten zuan Euskaldunik bat baiño geiago izan zitekeala sinesten, logikaren aldetik zillegi zaigun gauza da. Ez, noski, ez; ez ziran asko izango gure Arbaso kristau aiek, baiñan Ireneo'k eta Tertuliano'k aipatu dizkiguten beste lurralde aietakoak ere ez ziran noski askoz geiago izango.

Bedi gaurko euskaldunon oroipen eskertsua gure aurreneko Asaba kristau aientzat.

IRUGARREN MENDEA. Mende ontan bai, mende ontan Kristautasuna Euskalerrira sarturik zegoala esateko badugu bide naiko ziurrik:

Bata, sein tintica edo "itzen zentzuaren" bidea. Aski bide labain arriskutsua. Bestea, edestiko dokumentuena. Bide txit eskierra, dokumentu beraiek benetan eskierrak ba'dira beintzat.

Semantikak. Done batzuentzat euskaldunek sortutako izen bereizi onuragarria dakarkigu gogora: Yondoni, arras izen kutuna. Iparraldeko euskaldunen artean gaur-gaur arte gorde dana.

Izen aintzagarri ori, garrantzi aundiko done bereizi batzuentzat izan da asmatua; oso gutxirentzat:

- bi goiaingerudk ospetsuenentzat: Gabirel jainkPagandiko-mezu-ekarlearentzat, eta betidanik Euskalerriaren zaindari izan dan Mikel aingeru danen buruzagiarentzat;




A a ' 1") 1 ru a urkituak




IV mende1;1) krisaillua
Arnba'ko aufkitua




Merobindarren erreiñuko mapa ez zan beiñere berdiña izan.
Erregea iltzean semeek beren artean zatitzen bait zuten erreiñua

- kristautason osoko lenen Doneen artean lau garrantzitsuenentzat: Yon Batailariarentzat, Kepa ta Paul. bi apostolurik aundienentzat eta Eztebe lenen martiriarentzat: Yondoniane, Yondoni Petiri, Yondoni Paul eta Yondoni Eztebe;

- gero, soilki, III mendeko iru Donerentzat eta IV'eko bat bakarrarentzat. ¡Zergaitik lau oientzat bakarrik? Lauek Euskalerriarekin zer-ikusi anitz aundia izan zutelako, ezpairik. gabe. Bat, Euskalerrian jaio zalako. Beste iruak, Euskalerrian izan ziralako noski. Aurrenekoa, IV mendearen asieran martiri ildako Bixente Diakono ueskatarra dugu: Yondoni Bixintxo. Beste iruak., Tolosalco Sarturdino (Yondoni Xatordi), Tarragona'ko Fruktuoso (Yondoni Murtutx) eta, au mendekoa, Turona'ko Martin (Yondoni. Martti).

Azkeneko lau auek, naitanaiez, gure asaben mixiolari izan ziralako edo beraiek onera etorri ziralako, edo onera misi.olariak bidaltzeaz arduratu ziralako.

YONDONI XATORDI, orduan erdi euskalduna eta euskaldunez inguratutako Tolosa'ko gotzaia zalarik, Iruña'ra etorri zalako.

Badakit etorrera ori soilki kondaira-bitarte ezagutzen dugula, bañan, nai.z atal ontan nik 1«mdairakeririk erabilli nai ez, aitor dezadan etorrera orrek, ainzuzen kondairak.erizk.o Iore olerkitsu oroz erantzia izanez gero, egiaren usai aski sendorik baduala. Danadala, mendearen erdian, bera. zan iparraldeko Euskalerri Zar guziko gotzai bakarra, ta, beste alde batetik so-egiñez, berriz, Ego-Euskalerria lparrarekin Egoarekin baiño askoz lotuagoa egon dala, uka ezin daitekean gauza dugu.

YONDONI MURTUX., Tarragona'ko gotzaia, eta une artan Ego-Eusk.alerri guztiaren gotzai bakarra. Oroi, orduango Euskalerri zabal eder ura, gaurko Vich (Ausona) eta gaurko Gerona probintzia bere baitan artuz, Lurrat'Itxasoraifio iristen zala. Beraz. Yondoni Xatordi Tolosa'tik bezala, Euskalerriaren mixiokuntza arretaz artzera bearturik zegoala Yondoni Murtutx ere Tarragona'tik. Ego-Euskalerri guztiko gotzai bakarra bera bait zan.

Bi oiek, III mendean gure Asaben mixiolariak izan zirala egia ez ba'litz, gure Asabengandik, ain gutxi-gutxiri emana izan dan YONDONI izen txit onuragarria irabazi aal. izateko egiazko ziorik ez zuten izango.



IV mendetik X'a arteko krismoiak, ("Diciionnoire *E.c.ck'siastique'rik arrwik)*

YONDONI MARTTI. Naiz orduan Euskalerriaren muga Turona'tik gaur bezain urruti egon ez, bera onera etorri zalako ez mixiolariak ugari bidali zizkigulako irabazi zuan, ematen duanez, Yondoni izengoitia. Lekaide izan zan bera, eta gotzai sagaratua izanez gero ere, bere lekaidetxeetako batean bizitzen jarraitu zuan. Ez zuan beinere urietatik-kanpoko-biztanle-landatarren mixiokuntzarako leiarik galdu eta bere lekaidetxeetako lekaideak Iau aizeetara mixiolari jarraitu zuan il zan arte.

Bere lekaidetzakera, gero "irlandarrena" esango zitzaion ura bezalakoa izan zan: bere eginkizunik garaiena erriak mixiotzen ibiltzea zala uste izan zuana.

Ez. zan Yondoni Martti, izan zan bezalakoa izango, aski bertan zeuzkan Euskalerriko baskoiak ebangelizatzera bere lekaideak bidali ez ba'litu.

Izan zan 111 mendean beste done bat ere kristaudi osoan ospe anitz aundikoa, seguruaski odolez beintzat euskalduna ta Yondoni Bixintxo bezala, Oska (Ueska) urian jaioa: LORENTZO DIAKONO DONEA. Alataguztiz Yondoni deitua izateke gelditu zana. :Zergaitik ote?

Seguruaski bere eginkizun guztiak bere Euskalerritik urruti Erroma'n egin zitualako.

Jakiña da nola, naiz Oskan jaio, Erroma'n, Damaso Aitasantuaren laguntzaille izen ondorean, Erroma'n bertan 258'an izan zan matxt:irde batean astiro-astiro kiskalia.

Bere euskotartasuna kondaira besterik ez dala?

Bai, bainan bere alde arrazoi bikain bat baduana: Bere izena, Lauren, euskalduna izatea. Orixe'k oarterazi ginduan ortaz: "Oska'n jaioa zan, orduko Euskalerrian; izena ere bear ba'da euskalduna du LAUREN (Laurden), latiñ erara. Laurentius. Ez da beintzat latiñezko itza" ("Meza-Bezperak", 1067 orria).

Orixe'k, itxuraz ez zuan LaurentzEren "Nekaldi-Libururik" irakurri. "Laurentius" edo, orduan agoskatzen zan bezala, "Lorentius" izenaren etimologia beste bat bait da: onako au ainzuzen:

Lorentzo'ren gurasoek landa-etxe dotere bat bazuten Oska'ren arresietatik at. LORETI izenekoa. An, "loredi" edo "loreti" artan, jaio zan Lorentzo, eta ori da bere izenak esan nai duana: "Laurentius", ("AU" "O" agoskatzen zalako), LORENTIUS irakurri bear da, eta itz orrek, LORENTIUS itzak, LORETIARRA esan nai du, ots, LORTEkoa, LORETEn jaioa.

Baiñan III mendean kristautasuna Euskalerrira aski sarturik zegoala egiztatzelw, alda gaitezen semantikaren bide legunetik dokumentu legorrera bidera. Oraingoan, dokumentu oiek – dokumentu txit ziurrak edestiak "Aundia" esan oi dion I Kostantino Inperatoreak Arelate'n (Arles)'en 31.4' ean bilduerazi zuan k.ontzilioaren "alda" ed.o "a g iriak" ditugu.

314'garren urtea XIV mendekoa dala?. Bai. Baiñan urte orrek III mendera eramango gaitu naitanaiez. Ona nola:

lirte ortako Kontzilio ortan Euskalerriko gotzai bat izan zalA badakigu: Elusa'ko MamertinuS3.

Kontzilio ortan izan ziran, arduragurri zaizkigun beste bi gotzai ere: Oraindik seguruaski euskaldunez inguraturik aurkitzen zan Bordele'ko gotzaia, eta Goi-Dordoña'n agian euskera ordurako galdurik zeukan Gebodan zeritzan urittokoa.

Guri ordea, naikoa zaigu IV mendearen astapenean ospatutako kontzilio aren "agirietan" Mamertinus' en izenpena idatzirik ikustea, 1.11 mendean Nobenpopulani'ko euskaldunak. neurri aundian kristauturik zeudela jakiteko. Ez. bait zuten beren uriburuan IV mendearen asieran gotzai bat izango, askoz leenago kristautasuna aien artean aski zabaldurik eta sendo sustraiturik egon ez ba'litz. Naiz I mendean Donepaur ek, berak ebangelizatutako urietan bai, gero, 11 mendeaz gero, ez bait zuan Elizak lurralde batean gotzairik ipintzen, aurretik lurralde artan kristaudi naiko sendo bat aurkitzen ez ba'zuan.

Elusa, edo Elusaberri, Nobenpopulank'ko Metropoii-Uria zan: "Cette *petite Mille était devenue vers kr fin du ?) capiude de Novempopulanie"*[4]*: "Uri* txiki au Bederatziurieta'ko urihuru billakatu zan lII mendearen azken-aldera" (Dic.Hist.GeO.Eel.). (Oroi Nobenpopulani, Akitani'ren beste izen bat zala, ots, Auñamendi eta Garona arteko Akitani Euskaldunaren izena.

IV (¿?) mendearen azken-alde artan Elusaberri Laterri-Probintziaren metropoli egina irau zanean, Eliz-Probintziaren metropoli ere egina izan ba'zan – orduango eliz-oituren araura ia beti gerta oi zan gauza mendeko Nobenpopulani enskaldunean gotzai geiago bazala esatera bearturik aurkituko giñalce, Metropolita batek Metropolita izateko bere goi-zuzenclaritzapeko gotzai batzuk bearrezkoak bait ditu. Baifian, ez dugu guk Elusa IV mendearen aSierako eliz-metropoli bezala aurkeztuko, izen aintzagarri ori noiz

---

Esana naiz noski, Elusa.ri antziña artan ELUSABERIZI ere esan zitzaiola: "Pendant les prerniers siéeles de l'occupation romainne la ville principale des 12lnsates s'appelait ELLSABERRIS" (Diet.Areb.Chr&, I 692).

4. Ezpairik gabe, "It]" ori "IV"aren ordez oartzek.e idazkira sartutako lumaren utsune bat besterik ez da.

irabazi zuan, ziur ez bait dakigu. Ez dugu gaiñera metropolitza orren bear aundiegirik. Elusa'ko gotzaia IV mendearen asierako kontzilio artan izan zala jakitea naikoa bait dugu, ikusi dugun lez, II1 mendean ere kristautasuna gure Iparraldean ongi sarturik genuala uste izateko

Ta, (:Egoaldean zer?

Egoaldea.n ere kristautasuna ederki sarturik zegoalaren adigarri, Kalagurri'ko Emeter eta Zeled.on martiriak ditugu; eta bereiziki martiri auenganako eraspenari-buruz, Prudentzio'k dioskuna.

Mintzatu gera luzaro guzti ortaz, "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan. Aski izango zaigu, beraz, orain, izkera Iaburraz xeetasun auek oroi tzerA:

- Done oiek I11 mendearen azken-aldera izan ziran zigortuak: Galerio inperatoreak emandako aginduaren ondorioz.

Bi martiri oienganako eraspena., berealaxe sortua eta izugarriki oparoa izan zala diosku Prudentzio'k.

Bi niartirietaz nin laister eta sakonki maitemindu ziran jende guzti aiek benetako kristauak, eta "kristau zarrak" zirala jakiteko naikoa da Prudentzio'k opaldu zien olertilan bikaiña irakurtzea.

Ez zaigu beraz zillegi, Irugarren mendearen azkenerako, Egoaldean ere, kristautasuna sendo sustraiturik genuala zalantzan ipintzea.

Ta, guzti orrek. Egoaldean ere, Iparraldean bezala, euskal-kristautasuna bere inguruetak.oa bezain bizkorra bazala adierazten digu.

LAUGARREN MENDEA. EUSKAL-ELIZAREN ERAKUNDETZA: Ori izanen da gure lenengo oiñarria, IV mendeko gure kristauketari so-egiteko. Eta au da Ikusiko duguna: Euskaldunen artean kristautasuna anitz eta anitz zabaldurik zegoala, eta, zabalkuntza orren ondorioz, Eliza gure Asaba zar aien artean – Iparraldean beintzat – tinko eraturik zegoala.

Ori agirian ipintzeko Euskalerriko Eliza erakunde biurturik egotea izango dugu lenengo arrazoia.

Elusa metropoli-uria izan zala badakigu. Noiztik? Galietak.o Metropoli danak omen dira garai berekoak, "Dietionnaire d'Archeologie Chretienne et de Liturgie"ren "Ce n'*est pas a*ᵖ*ant le (Mbui du Vrne sikle qu'on*

*entrvoit les Metropolitains in Gauk":* "V mendearen asiera-aurrelik ez zaigu Galietan Metropolitarik agertzen". Beste batzuen ustez ordea, uri aiek, Laterriak bezain laister edo aren atzetik bereala egin zituan Elizak ere Metropoli.

Naikoa dugu, ordea. Elusa 1V mendearen azken aldera Metropoli zala jakitea, IV mende ortan Iparreko euskaldunen artean kristautasuna bikaiña zala aldarrikatu aal izateko; Metropolitak, esan dugun lez, Metropolita izateko, bere goi-zuzendaritzapean beste gotzai batzuk eskatzen bait ditu. Eta ori badakigulako, badakigu baitare IV mendean Euskalerrian Eliza erakundeturik, ots, "instituzionaturik" aurkitzen zala.

GURE GOTZAIDIA. Ori izango dugu, Euskalerri Zarra IV menderako ederki kristauturik aurkitzen zala esateko, bigarren oiñarria.

IV mendearen amaieran Nobenpulani'ko Metropoli egin zuan Elusa inperioko Jaurlaritzak, "Notitia Galliarum" idazkiak dasaigunez:

*"Provintia Novempopulana. Metropolis, Civitns Elusatium",,* (eta itz oien atzetik probintzi artako urien Izenak darnaizkigu):

*"Civitas Aquensium; Civitas Lactotylnum; Civitas Convenarum; Civitas Conseranorum; Civilas Boiatium; Civitas Benamensium: Civitas Anavnsium; Civitas Wtsatica; Civitcrs Turba ubi castrum Bigorra: Clvitas Horonenslurn; Civitas Auseiorum".*

Esan dugun bezala, Laterriaren ariketart jarraituz, gotzai bat ipiñi oi zuan Elizak. Laterriak uri izendatzen zuan erri bakoitzean. "Notitia"k aitatu dizkigun oiek ere, ia danak, gotzai uri agertzen zaizkigu IV mende onen azkenean edo urrengoaren astapenean.

Batzuek ordea leenagokoak dirudite, ta elizbarrutiak aztertzerakoan, bakoitza bere tokian, aipaturilc utzi ditugu. Ez ditugu emen birraipatuko. Ez dugu emen au besterik egingo: V mendeko gure gotzai guzti aiek IV mendeko Euskalerri Zarrean ere kristautasuna sendo sarturik zegoalako adigarri bikaiña ditugula oroiterazi; aurrena kristaudta eta gero gotzaia bait da aro artako legea, eta *ez* aurrena gotzaia eta gero kristaudia.

- PRISZILIKERIA. Bedi au gure irugarren oiñarria IV mendeko euskalkristautasunari-buruz bearrezkoa dan eskiertasunez itzegiteko.

Luze ta zabal mintzatu gera emen laburki gogoratuko dugun Priszi li-keriaz:

Egia da Bordele'n eta batez ere Elusa' n izugarriki zabaldu zala..

Orrek, – priszilikeria IV mendearen erdi-aldera sortu zalako, eta euskaldunen aldetik ain gogo onez artua izan zalako – aurretik., ots IV mende aren lenen erdian ere euskaldunak. ongi 1-rishuturik zeudela. erakutsi. nai digu.

Egia da baitare Prisziliano'ren aurka egin ziran bi kontzilio bakar aiek, bata Salduba'n eta bestea Bordele'n egin zirala, ots, Euskalerriaren ego eta iparreko muga ber-berean.

Orrek, prjszilikeria Ipar-Euskalerrian bezala Ego-Euskalerrian ere zabaidurik zegoala azaldu nai digula ,Zergaitik bestela aurreneko kontzilio ura Salduba' n, zegoan bezala Españi guzia batezere Españi'ren Ipar-Sarkaldea priszilikeriz orbandua zegoalarik?

Egoko euskaldunek ere, Iparrekoek bezala, priszilikeria ain oparo artu izatea, *gure* Iparrean bezala Egoan *ere* kristautasuna ongi sustraiturik egotearen adigarri *genuke.*

Egia da teologilariak priszilikeriari ereji ziur bat aurkitzeko gaizki ibiltzen dirala, igikunde ark lekaidetzari eta bakartitzari ematen zien geiegizko garrantzia izan ezik. Ori bakarrik gaitzetsi zuan ieta erejiaren izenik aipatzeke! Salduba'ko kontzilioak ere. Ta, Bordele$ koak, ori ere ez; ezertarako astirik emateke Inperatorearen epaitegira eramana izatea eskatu bait zuan Prisziliano · k. Oroi dezagun Inperio'ko epailleek Prisziliano eriotzez zigortu ba'zuten ere, ez zutela ereje lez. zigortu; soilki magikerigille izateagaitik baizik, eta ori, magikeria, Erroma'k. beti euki zuala eriotzez zigortua.

Euskaldun asko-ta-askok lekaidetzari-buruzko Prisziliano'ren geiegikeri_ pozik artu izateak, euskaldunak ordurako kristau "zarrak" *ez ez(1:'* lekaidetzari – eta bakartitzari zaletasun aundia zioten kristauak zirala uste izateko... eta, *ote digu* eskubiderik ematen, gero ugari aurkituko ditugun gure gobietako bakarti aiek IV mendean ere aurrekorik izan zutela uste izateko?

bekit oartxo bat: Euskaldunek priszilikeria artu zutela diotanean, ez dut esan nai danek artu zutenik. Soilki, askok-eta-askok artu zutela esan nai dut).

# IV MENDEAKO GUNE ARKEOLOGIA

Gure aburuen aide izango dugu Arkeologiaren lekukotza ete IV mendeaz gero. Eta baita IV mende ontan bertan ere.

Ez goaz emen, berriro Kalagurri'ko Bataitegiaz itzegitera – bataitegi ori soilki Prudentzio'ren olerki baten bidez ezagutzen bait duan baiñan Bataitegi ori eskier IV mendekoa dala esanda, aipa ditzagun eskierki mende ortakoak ditugun Galietako Basilikarik zarrena, Galietako Pam)kirik zarrena, Galietako parrok.o baten izenik zarrena, eta Galietako illobitegi kristaurik zaarrenetako bat.

Guzti ori, Euskalerri Zar artako Euskaldunen artean aurkitzen dan aberastasunik aundiena izateaz gaiñera, bere balioa bear bezala neurtu aal izate.ko bearrezkoa izango zaigu onako au gogoan aztutzeke gordetzea: Orduango Galia gaurko Frantzia baiño zabalagoa zala: Rin ibai aundiaren ibarretatik, iristen bait zan Auñamendi osoraiño itxasotik itxasora.

Ori dana "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"n aztertua dugulako. emen ariñ-ariñ oroiterazi nai genuke:

Guzti ori Nobenpopulani'ren barruan aurkitzen da, Auñamendiaren iparraldeko maldan, erromatarrekKonbenetarrena eta Kontsoratarrena esan zioten lurraldean.

BASILIKA: Konbenetarren uri nagusian aurkitzen zan. Orain uri orrek izen au darama: Saint Bertrand de Comminges; erromatarrek Lugdunum Convenarum esan zioten. Uri ortan aurkitu dira basilika orren aztarnak.

"II est probable que cette basidique primitive e"tait celle du IV'me esan zigun H. Leclereq'ek 1930'an IX 20): "Badaitek.e basilika zar au IV mendeko ura izatea". Edestilari orrek, IV mendean an basilika bat izan zala esaten digu, eta azkena agertutak.o au, ura bera izatea badaitekeala.

Orixe bera diosku F Griffe'k ere 965'an (op.e. III, 17-18): "II semble bien qu'on est eu pre'sence d'tme construction du IV'me sikcie": ":Benetan dirudi IV mendeko jauretxe baten aurrean aurkitzen gerala".

Gero V mendean, – Barbaritarren erasoen arriskuaren erruz men.de arriskutsua izaki V mende au-ta – Konbenetarren uri nagusia, Sarkaideko "beste tokietan bezala": *"conune partout ailleurs",* arresi sendoz izan omen zan inguratua eta "katedraltza" arresi-barruko eliz batera izen omen zan aldatua, "eta ordurarte katedrala izan zan IV mendeko Basilika eder ura iLlobi eii.z biurtua": "L'ancienue *devint alors une basilique ci~ricde".*

Aldaketa orren "lekuko omen dira Basilika orren barruan edo bere inguruan aurkitu diran arrizko zerraldo ugariak": "an *te"moignet les nombreux sarcophages qu'on a dêconverets dans le sol 171éMC de* 1'4'1ise *et de son narthex".*

"Ar-zerraldo oiek danak. V mendearen azken-aldekoak. dirala omen dirudite": "Ceux *sarcophages paraissent dater de V'me*

Orrela, V mendean Basilika zar eder artan egiten omen zan ordurarte, IV mendean Valeabfere'n egin zan gorpu kristauen eorzketa, an, Valeabfere'n, bait dago, ain emaitza ederrak eskaiñi. dizkigun kristau zar Ura': *"le 1 ieux eirnitlêre chreWen".* V mendean, ordea, eortzeak, aipatutako Basilikan egin ziran.

2E,

- PARROKIA, PARROKOA ETA PARROKOAREN IZENA. PARROKIA: Gaur "Valcabi&e" esaten zaion erriskan, orain S. Just edo Justo Deunaren eliza dagoan tokian egon zana. PARROKOA, eliz artan bere Iana egin zuan apaiza. Parroko orren IZENA, Patroclus.

Guzti ori, IV mendearen lenen erdikoa da, 347'koa, ori bait diosku apaiz orren arri-olaren idazkiak. Parrokoaren abizena argi dago arrigaiñeko idazkian: ain argi ez, izena bera: "PAC. PATR.00LUS PR.AESBYTER". ("PAC" ori PA.CIUS izan omen daiteke). Arri-ol orrek badarama

beste izen bat ere: 30 urte zituala ildako "VALERIA SEVERA" andrearen izenas.

KRISMOIA, au ere garai berekoa Baleria Sebera eta Patroldo'ren illarriko idazkian agertzen zaiguna: "Cete *inscription... c 'est la plus ancienne de lu Frutzce (-A figure te monogramme constuntinien":* "idazki ori da, Frantzi guztian, Kostantino'ren ikurra dararnatenetan zaarrena" (Dic. Arch. Chret": "Valcabrere")6.

ILLOBITEGIA, idazki ori aurkitzen dan ura: Donejusto'ren eliz-ondoko uraxe bera. Badira an illobi geiago, eta baita beste idazki bat ere "de la *seconde du IV'me siMe ou du de1mt ritt V'me":* "IV mendearen bigarren erdikoa edo V'aren asierakoa" (ib). Balerio edo Baleria batek (sotlki "Valeri" bait dio idazkiak) Seberino baten illobirako egifierazta.

Guzti orrek, III mendera garatnatza, IV mendean Kristautasuna euskaldun aien artean ain sendaturik aurkitzen ba'zan, naitaniezkoa bait da gure Asaba aiengana kristautasuna III mendean iritxi zala uste izatea, logikarik zintzoenaren aurka ostikoka asi nai ez ba'dugu.

Orrelako zerbait diosku idazle frantziar batek ere: "La *prernire cornmunautc chretienne exista certathement dans ka cite des Convenae et principalement a son chef-liett des kr deuxietrune du liTtne sikle"* (Ray-

5. Vakeria zeritzan andre arek. Vakerius giza-izena naiz agertzen da lurralde artako idazki zar'etan. Gregorio Thronatarrak ere dioskunez Vakerius bat (Donebalerio) izan zan Konbenetarren lenen gotzaia. Oroi, Prudentzio'k esandakoaren araura IV mendean Kalagurri'ko gotzaia izan omen zalako arek ere, izena, Balerio zuala.

Agian emen agertzen zaigu berriro kurralde artako euskalduntasunaren aztarna txiki bat. Illobiko idazklak onela dio: "VAL(eria)SEVERA EGITANNOS XXX RECESIT NON(nas) 11.31_,(ias)". "Egit" orrek sortzen die buru-austerik aski Frantzi'ko arkeologikariek "La formuke "EGIT ANNOS" que presente l'inseription de Vak Severa est fort rare" ("Die.Areh.Chr&", XV.2896) eta orregaitik badira "FGET" ori VIXIT irakurtzeko "VICSIT" edo "VIC1T" biurtu nai izan dutenak: Guzti ori... Frantzi'ko arkeologikariek euskeraz ez dakitelako. Norbaiten adierazteko EGITANNOS esatea lateraz oibira ororen aurkakoa ba'da — eta baiki orrela da—, euskeraz ordea dotore datorren esaera bait da; "Bakeria Sebera, ogei t'amar urte eginda, uztaillaren 6'ean iI da". Edo, obeki, Sebera, ogeitamar urte egiñik il da, uztailkaren 6'ean"

mond Lizop[7]): Lenengo kristaudia konbenetarren artean, eta batez ere beren uri nagusian, eskier, mendearen bi garren erdikoa da".

III mendearen bigarren erdikoa?. Baita, agian, leenagokoa ere. Lizop Jauna. 50 urte labur ez bait dira naikoak, epe motz ortan kristautasunak alako garaipen sendoa lortu aal izateko.

Danadala, dakusazunez, Arkeoloaia bera da III mendera bultzatzen gaituana, mende ortan euskaldunen artean kristautasuna sarturik zegoala irmo sinistu aal izateko. (Azpimarraketak, nereak).

Ez zebillen beraz Euskalerria III mendean bertan, eta III mendeaz gero, beste erriak baiño atzerago. Alderantziz, bai noski beste batzuek baiño aurreraxeago.

Badut adiskide bat, lagun txit maitea, adimen argi eta kultura aundi arrigarrizko gizona, apaiz euskaldunen artean orrelakorik ibar baldin ba'da: On Bernardino Barrutia, Arrasateko Gezalibar'ko semea ta atzo arte Etxebarria'ko Parroko Jauna.

Badantzuiot orain, onako au esaten:

- "Bedi, Bixente. Baiñan ik orain arte esandako guzti oiek Euskalerri Zar Zabal artako kontuak dituk. ordea, Euskalerri murriztu ontako kristautasunari-buruz? ta Gipuzkoa'ren mendi-arteko kristautasunari-buruz zer?

- Orra, Badiat iretzako ere, Bemardino, erantzun atsegiflik: Gipuzkoa'ko mendi-tartean ainzuzen, ire jaiterritik[8] bertan, Aitzorrotz'ko maldan, Eskoriatza'ko mugen barruan, lurregosizko ontzi-puska batean margoz,turik IRu krismoi izan bait dituk aurkituak. Ik, seguruaski. aurkikuntza orren jakitea badek, eta krismoi oiek V mendearen azken-aldekoak edo VI'aren astapenekoak dirala esango Eta ala dituk. Baffian, – naiz iru krismoi oiek berenez ere arras garrantzi aundikoak izan nere ustez, aurkitu berri-

---

"Histoire de rkeux eiies gaklo-romaines. Les Convenae et les Consoranni" (Toukouse, 1931, 338-347). Aipu au, nik, Griffe'ri zor ckiot (op.e. 1,-184)

8. "Jaiterri": "Jaiotzako erria jaiotzako etxeari "jaitetxe" – elu ez "jaio-tetxe" – esa-ten zaion bezala.

berriak diran beste zarrago batzuekin etenik gabeko trate bat osotzen ditek: Kristautasuna gure mendi-tarte auetan ere bazebillela adierazten digun arkeo-, logiaren aldetiko siñale portitza!

Krismoi berri oiek iru ontzi ezberdiñetakoak dira, ta Araba'n, Oka"ko Irufia'n izan dira aurkituak, Eliseo Gil Zubillaga irakaslearen ariketari esker-rak. Krismoi oiek ez dira "oppidum" edo "gudaritegi arrresidunean" bertan idoro, "oppidum" beraren alboko etxe bat egon zan tokian baizik: "en Iruña en una casa de epoca romana *existente desde la epoca flavia"*

*Krismoi oietako bat* V *mendearen aurretikoa da.: "LAIICARREN MEN-DEAREN bigarren erdikoa: "De mediados del siglo IV al sigto V.* Krismoi au lurregosizko azpil-zuEi batean dago margoztua. Eta bera da "la truis tem-prana utilizaciOn de la iconografja cristiano en nuestro territorio".

Baita beste bat ere, barbada V mendearen aurretikoa da: LAUGARREN MENDE orren azken aldekoa edo V'aren asierakoa: "de *entre linales del .si lo 1V* y *principlos del V'. Au* ere lengoa bezala beste azpil-puska batekoa.

Irugarrena, bosgarren mendearen lenen erdikoa: "de Jcr *primera mitad del sigIo V.* Irugarren au krisaillu batean aurkitzen da. lcrisaillu ori, Tunez'-ko lantegietan izan omen zan eta gero andik ekarria. Oso ederra ta poli ta da.

Zalantzarako biderik ez omen da, iru Krismoi oien noizkotasunari-buruz: *"Encajan sirr problemas en dichas fechaciones".*

(Gazteleraz eman ditudan itz oiek danak E. Gil Znbillaga berari jasoak dira).

Iru krismoi oiek aro ezberdiñetakoak izatea garrantzi aundiko gauza da, orrela arkeologiaren aldetiko lekukotzak Iruñan kristautasuna une bateko g izakume baten arazoa ez baina IV mendearen erditik V'aren erdira etenik gabe zetorren Igikunde bat dala adierazten bait digu.

¿Araba'ko Irufia Erromatarren uri-gaztelu bat izan zala eta ango kristau aiek euskaldunak ez baina erromatarrek izan zitezkeala?.

---

" Arkeoikuska" 1997; 214 or. 'Flabiotarrak", Habio Bespasiano.ri eta bere bi semeei esan zaie: Tito'ri la onen ondorengo Domiziandri. i mendearen azken-akdera izan ziran inperatore.

Baleike. Baiñan ez dut uste. Erromatarrak agertu aurreti.k. ere, Iruita'ko muño artan burniori edo brontzearen aroaz gero beti izan zan bizitegi bat, eta euskaldunak izan ziran an bizitu ziranak. Erromatarrak I mendean iritxi ziran uri-gaztelu artara, eta an aurkitutako illobi-idazkien kera edo estiloek – batzuk txukunak, beste batzuk baldarrak adierazi dezaketenez, euskaldunekin ondo 1«mpondu zirala ematen du.

11 mendea izan zan Iruña'ko "oppidum" aren garairik. oparoena. Orain ikusi dezaizkiokegun arresiak III mendekoa dira, eta bi mendeko aro guzti ortan adiskidetsuak izan ziran an euskaidun eta erromatarren arteko arremanak. Esan ere egingo nuke nik an erromatar baiño euskaldun geiago bizitu zala.

IV mendean itzali zan dotore aren dizdira. Esan ere esan bait daitekeala derizkiot, mende orren asierako urteetan erromatarrak andik joanda an euskaldunak gelditu zirala. Zergaitik uste dedan ori? An IV mendearen bigarren erdiko guda-tresnen artean Erroma'ko izkillu jatorren itxurakorik oraindik beintzat agertu ez dalako. Ezta Erroma'ko dirurik ere. Azkeneko txanponak, 350'ean erailla izan zan I Konstante'renak dira.

Entzun aztarna aiek ederki aztertu zituan Nieto Gallo'ren itz auek (Ene. Gen.11us.PaÍs Vas. XX, 402-403): "Todo *nos induee ca pensar en 1111 abwidono del oppidum en la segunda inhad del siglo IV, o que arrastr6 una vida pobre, In que parece mds probable".*

Beraz, itxura guztien araura, seguru-seguruaski., IV men.dearen erdiaz geroko krismoi aiek euskaldunenak ziran.

Iruña'ko iru krismoi oiek, gaiñera, Aitzorroz'peko beste aiekin gorputz bat egiten dutela bear zaie begiratu.

Amat dezagun IV mendea V'era igarotzeko; baiñan ez aurretik bein berriro mende artan euskal-kristautasuna atzeraturik ez zebillela eta agian beste batzuen aldean AURRERATURIK ERE BAZEBILLELA esan gabe.

BOSGARREN MENDEA. "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza" izeneko liburu osoa, eskeiñi . nion mende oni-ta, iraduz eginen dugu orain mende garratz orren azterketa:

EUSKAL-ELIZA ERAKUNDE BEZALA: Auek dira V mendean euskeraz itzegiten zan lurraldeetako elizbarrutiak:

Nobenpopulani'ren barruan: Elusa (Eauze), Metropoli; Basate (Bazas); Eliberri (Auch); Atara (Aire); Laktora (Lectoure); Akize (Dax); Benearno (Lesear); Tarba (Tarbes); Iluro (Oloron); Konbene (Comminges); Kontsora (Couserans). Nobenpopularn'tik at, aipa ditzagun Perpifian eta Iliberris (Elne). Eta, agian, Karkasona.

E. Griffe'k beste bat ere aipatzen du: Landeta (Landes)'en gaurko Arkatxon dagoan tokian, baiki oituraz kanpoko izena zeramakian uri. bat: Bii. Aipamen ori, urdea, berak-nai-ez-ta gertatutako utsegite bat dala derizkiot, orrelako uri gotzaidun baten aipurik ez bait dut beste iñon aurkitu, naiz billatzen saiatu.

Arkatxon uriaren aIboan antziña Bux (Buch) izeneko uriska bat egon zan eta ori izan omen zuten "Notitia"k aipatu zizkigun Boiates aiek uriburu, naiz, orduan ere erriska txiki bat besterik izan ezlu.

Ta, ona seguruaski beren elizba9Orrutietan oraindik euskaldunik aski bazuten, edo izan zezaketen, iparreko Bordele, Tolosa, ta Narbona, eta egoaldeko Salduba zenbatzeke – Ego ontan, Iparreko Nobenpopulaniar aiekin

---

Bearbada. GrilTe'k ori, "notitia Galliartn"ek Nobenpopukani 'n boiatium" bat aipatzen dualako aipatu zuan. Boiates edo Boiatar oiek, gaurko Ijitoen antzera, toki askotan ziran an tziñate artan, dirudianez Erri indartsuagoek buktzata. Ondo ezagunak dira beintzat. Tito Estra-bon'ek,,kulo Zesar'ek, Tazito.k, ots, antziñako edesti ı ariri ĸ aundienak aipatzen hait dituzte. Ikusten ditugu aurrena. An Bononia omen zuten uri nagus i : Gaurko "Boto-nia". Europa'ren erdian BOiheilLIM esan omen zitza ı on aien lurrakdeari. Ortik gaurko "Bohe-mia". Asi Txikian, Gakazi'ko kurretan "Tolistoboiates" esan omen zitzaien. Galietan, Loira ibaiaren iparrean egon ziran eta beste batzuek Nobenpopuiani'ren erdi-aldera Allantik-itxasoaren akboan, Arkatxon.en inguruan ainzuzen. Baiñan nere ustez azkeneko auek beste guzti aiekin izenaren berdintasuna hesterik ez zuten bat izan. Orain ere badira euskeraz B01 daramaten ilzak: Boia, Mungia'ko abizena; Boikibarra, Araba'n Apodaka.n akorra; Bizkai'ko Ereño'n aitorrenseme-etxea; Boitet, 699 an Baiona.ko aundiki baten abizena; Boia, Boja, Gipuzkoa'n abizena; Bojas Errioxa'ko abizena; Bojadui, Uiide la Zeanuri arteko mendia Bizkai'n. Eta Antziñako Boiates aien izenak euskak-itxura beteagoa izango kuke izen orren enborra BOI-ATE dala esango ba`genu.

batera, gure Asaben Euskal-Eliz-Erakundea osotzen zuten elizbarrutien kopurua: Kalagurri, Tarazona. Beraz, amar elizbarruti Iparrean eta bi bakarrik Egoan. Nabarmenegia, ezberdintasuna.

Baiñan aztu ez dezakegun gauza da, seguruaski Lerida, Gerona, Urgel, Ausa (Vich), eta agian-agian Ueska ta Au ka (Oka), gotzai-uri zirala V mendea amaitu-aurretik ere:

Ona zer dion Autrigoitarren Oka'z Dictionnaire d'Archeologie et de Geographie Ecclesiastiques" iztegiak: "La *ville d'Auka vers lrr fin du ou dans la preinien: du sihle devaii dire de'j d'un êvê'clie":* mendearen azken-aldera edo Ill'aren lenen erdian gotz.aiuri izan bear zuan Oka'k". Geitxo esatea, noski.

Eskerrak berealaxe itz auek jalkitzen dizkigula: "Alare, ez jentillen ez kristauen aldetik, guk ez dugu lekukotasunik *('nous n'avons pas de* te'imoignages *pai:ens ni chrMens')* ori esan al izateko".

Ez noski; ori geiegikeri gorria bait da!

- GOTZAIDIA: Gotzai guzti aietatik bat dugu ezagunena: Kalagurri'ko Silbano, kanon-legetik at gotzai-sagaraketan aritu zitzaigun ura: Orregaitik ainzuzen, Tarragona'ko Askanio metropolitarekin iskanbillak izan ondorean Ilario Aitasantuaren oniritzia lortu zuan uraxe bera.

Aipa dezagun, Sebilla'ko Isidoro'k dioskunez "eleganti sernione et aherto sensu", "ele dotore ta zentzu ulerterrezez" jai aundi batzuetarako otoitz eta mezak idatzi zituan Ilerda'ko Petrus ura.

Eta Bagaudek erail zuten Tarazona'ko Leon, eta, Tarazonalcoa au ere, Donemilltan'ekin asarreak izan zituan Didtmo.

Iparreko gotzaien artean V, VI eta VII mendeen aroan ez zitzaigun aipu bereizi bat merezi duanik agertu, kondairakeriz beterik iritxi zaizkigun onako auek izan ezik: Eliberri (Auch)'eko Leotadio, Tarbes'ko Justino, Laktora (Leetoure)' 1«) Euterio, Kontsora (Couserans)'ko Balerio, Kintziano, eta gotzai-aulki artan 44 urtez eseri zan Lizerio. Leskar'ko Julian eta Galakterio, ta Akize'ko Bixente..

V MENDEKO ARKEOLOGIA: Iparrean bezala Egoan ere, herri ttlaigarrialc dakarzkigu Arkeologiak: Iparrean. ikusi ditugu, I V mendearen erdialdean, Euskalerri Zarreko Konbenerri (Saint Bertran du Commingest'en, Galietako *"la basilique chrffienne lu plus* vielle"ren aztarnak. "Bertan aurkitu diran txanponak I Kostantino ta onen semeen garaieralcoak izanik, Basilika ori IV mendearen erdikoa dala esan bear omen da": "Les *monnotes qu'on* v *a trouvees sont de Constantin et de* sOri *fits. Ce serait donc au milieu du II*P*me sikle qu'ilfot«Irait l'ottribuer".* Ez da arrazoi ziurra.

Baina "zutik omen zegoan oraindik basilika ori V mendearen asieran, Bandalitarrek ondatua izan zan arte": "Elle *exisudt en 408, ir e'poque de l'invasion des Vondoles qui l'ont devaste5e".*

Naiz Bandalitarrek uria porrokatu, bizirik jan-aitu zuan an kristautasunak: V mendekoak, eta kristauak bait dira, an aurkitutako illobiak.

Ori adierazten digu an bertan, Valeabfêre'n, aurkitua izan dan V mendean ildako baten illar^g^i-gainean irakurri daitekean idazkiak *ere.* Baita Kontsora (Couserans)'ko Saint Lizier edo Donelizerio esaten zaion urian "V edo VI mendekoa dirudian beste idazki batek ere". "Elle *semble du V'me orr du VI me sikle"* ("Diet.Hist.Geo.Ecel. XIII, 261).

Oroi ditzagun Konbenerrian aurkitu ditugun eta V mendekoak esan dugun, sarkofago edo ar-zerraldo ugari aiek.

Gure Asaben kristautasunaren alde orrelako adigarri sendo miresgarriak eman *clizkigun* Konbenerri'kuiurralde ura Euskalerria zala, mendeak-zear izan dituan izenen filologiak berak ere adierazten omen du. Iru omen dira izan dituan izenak: "Civitas Convenae", aurrena; "Commenieus" VIII mendean: "Comenge", Xlrean; eta. azkenik, "Comminges", gaurko izena.

Orra ba: "Du *point de vue phonštique, du pa-*^y^*sage de Convenae c't la fortne Commenicus (vers 790), et Comenge (vers 1076) a šte" signoMe: on a vu dons ce ttoitement porticulier du "v" l'influence d'un dioleete aquitanique ant&ieur ou latin et apparente errl basque".* "Ikusia izan da, batetik bestera igarotzerakoan, "V" izkiari dagokionez, izen oien Jardunkera fonetik-arauen aurkakoa izan dala: Ori, Lateraren aurrekoa ta Euskeraren aide zan Izkera Akitaniar baten ondorioa dala, uste oi da".

Euskeraren aide! Jakiña! Gipuzkera, edo ffizkaiera, edo Zuberoera euskeraren aide diran bezala. Akitani' ko "dialekto" edo eleki. ura iEuskera bera bait zan

Oroigarri zaigu, era berean, Lektora (Leictoure)'ko illar g i polit bat; emaztea senarrari agur egiñez agertzen digun ora: IV eta V mendeen artekoa omen da. Naiz kristau-adigarririk izan ez, eskierki illobi kristau bateko arria, orduan lektoratarrik geienak kristauak ziran ezkero. Badakargu gogora, ango beste arri landu bat ere. Garai berekoa. Illobi seguruaski kristau baten estalkia izateaz gaiñera, bere garrantzi guztia, daramatzan edergailluak "soilki Akitani koak izatean datza": *"offre un type essentiellement aquitain"* (Dict.Areh.Chret. VI11,20, 2307).

Igaro gaitezen Iparretik Egora. Atsegingarriak gerta zaizkigu ernen, Araba'ko Errioxan, Biasteri (Laguardia) r n, Kantauri-Mendien egoaldeko maldan egin diran azterketa berriak.

Lur emankorra Biasteri'ko masti-lurra arkeologiaren aldetik. An bait dago "Euskal-Elizaren Sorkuntza"n aurkeztu genuan Laoi.a'ko uri antzifiatsua;

Orain, bi Ieitze-zalAko barrunbea izan da arrotua: aurkitu dan Leitza oietan? Gauza ziurrik ezerez., baiñan bai logikaren letotik so-egiñez txit itxaropentsua gerta daitekean zerbait: Ederki landutako are-arri aundi. bat,

---

Et Bearbada, piztu zaio kezka txiki bat nakurkeari bere buru-barnean: "Itz aldaketa ori I 076rean egin zan: XI mendean. Baifian ote zan an euskerarik XI mendean"? Bego lasai irakurle ori. itzegiten bait zan askoz geroago ere? Oroi, lera ere esanik (Iaukadana: XIV mendean Ueska Urian itzegiten zala, liii ortako Kontzejuak diosku. XVI'ean itzegiten zala, Uri bereko Salerosleen Kolradiak. XVII r ean ere itzegiten zala, lEi ortako artxibuzai eta kronista izan dan eta auzi auetaz Aragoi'en geien dakian gizonak, On Federico BaIaguer Jaunak. dasaidanez, Probintzi artako artxibuan omen dagoan eta, billatzen saiatuko daka, eta biklatzen duanean bidaliko didakt agindu didan dokumentu batek esaten duanez. OihenarCek dioskunez Probintziaren iparrean euskera izkuntza bakarra zan XVII mendean. Eta XIX'aren asieran Katalauni.ko mugara arte itzegifiez jarraitzen zuala, Garat laburditarrak, adiskide zuan Napoleon Bonaparte Inperatoreari idatzi zion txosten batean, diosku.

gaur Peña Parda esan oi zaionean. "Resulto *evidente que dicho bloque de piedra ha sido introducido en kr cueva de fOrnia intencionada,* v *no resulta descabellado .suponer su uso como tenente de altar".*

Oiturazkoa zuten aro artako kristauek arri laukoi tinko bat zutabe lurrean irmo ezarrita, aren gaiñean mai baten antzera ol bat mezarako aldareak eratzea. Mende batzuk geroago, erromanik-eran, aldare ori geixeago apaindu nai zutenean, aurretik zintzilik, irudi kristauen ornitutako "antipendium" bat jartzen zioten, eta atzetik, era berean dotore landutako "retrotabula" bat[2].

Zutabe laukoi ortaz gaiñera, arras jakingarri daitekean beste zerbait ere agertu zaigu leizezulo ortan: "Se *han descubierto tambien tres fragmentos de cerchnica tipo D.S.P".*

Albiste orren jakingarritasuna non dagoan? Azkeneko iru izki nagusi oietan. Lurregosi-mota ortaz aurrena mintzatu ziranak frantziarrak izan ziralako, DSP oiek onako au esan nai bait dute: "Derivees de **Paleo**-chre"tienne": "Kristau-Marrazkera zarraren Araura tajutuak". Eta guzti onek beste onako au adierazten digu: Kristau zarrek, turregosizlw ontziak. apaintzeko, beren era bereizi bat izan zutela; eta gure leiza ontan agertutako iru ontzi-puska oiek era artan, era zaar artan, tajutuak izan zirala.

Agertu omen dira baitare Teitzaren aurrean, an etxola bat izan zalako aztarna garbiak: "Prueban *la existencia de tipo de edificacio'n exterior que quizd utilizaba lcr cc7vidad cereana para fines religiosas".* Ez dira, beraz, arrigarriegiak Eliseo Gi] Zubillaga'ren beste itz auek:

"Dada *ta cronologia propuesta para est.e ac imiento, dada ka cereanfa del Valle del Ebro que tnue,stra una intensa actividad religiosa en el siglo V d. C., no es descabellado hipotetizar con lca presencia de una pequefia comunidad cristiana que vive en las faldas de la Sierra de Cantabria".*

---

[2] "AnLipendium", euskeraz "aurretik esegia" da: eta, "retrotabula"k, "atzeko ola". "Retrotabula", "retabko" biurtu zuan erromantzeak. Eta Euskaktzaindiak txoroki eta kulturik-eza marduk bat agertuz, "erretauka"; gaztelerazko "re" ori "reduplikativo" edo "birketa-adierazie" bat izan bait kitzan. Bazuan ba Euskaktzaindiak euskal-itz txukun pohtik "retrotabuka" euskeratzeko: "atze-ola" (atz'oka) gipuzkeraren araura, "oste-ola" (ost'oIa) bizkaieraren itxuraz, eta "gibel-ola" (gib'oia) laburdierazko itzik erabikli nai izan ba.ku. Ez ba! Zer astnatuko?, ta "erretaula"!, au da, "bi-akdiz-tatda". A!, la euskakdunek "taula" zer dan e7, dakite.

Logika garbiaren bidetik zabiltz, Eliseo: "Pequefia comunidad cristiana ura, ezpairik gabe, bakartasunean bizi nai zuten lekaide kristauen talde bat zan. Lekaidetzarak.o gogoa pizturik bait zegoan gure Asaben artean V menderako, mende ortan bertan Iber-Mendietako bakartiek eta urtetxo batzuk geroago Kantauri-Mendiaren beste aidean ugari agertuko zaizkigun gohiak lekuko dirala.

Leiza au baiño aundiagoa omen da bestea, "Cueva de los Usos" esaten diotena, baiñan guretzat arduragarri izan daitekeanik ez dute bertan deus aurki tu:

Alare, Biasteri' ko ikerketa oietan naikoa agertu omen da *"para gue puedo (..)frecernos nuevas bases para el conochniento de ka posible existencia de peguefias connundades eremiticas cristianos duronte los siglos IV al VI* d.C. *cetranos al Valle del Ebro gue ya para el siglo V d.C. da pruebas de lo arraigado de su organizaciOn eclesiastica".* Ori, Eliseo Gil Zubillaga'].,  Idoia Filloy Nieva'k eta Aitor Iriarte Kortazar ek bat eginik argitaratzera doazen liburu batean agertuko diran itzak omen ditugu ("Isturitz, 8; 1996"; 137-149).

Igaro gaitezen Araba'ko Errioxa-zear eta lbero ibaia gora, Biasteri'ko lurretatik Errioxa orren sarkaldera. Obeto esan, irten gaitezen Errioxa ortatik, orain "Aso'ko Kontxak" deritzaien bi arkaitzen artera. Bi "Kontxa" oietatik, egoaldeko arkaitzak Bilibio deritza; iparrekoak Buradon. ementxe, Buradon onen maldan aurkitzen da, gure kristautasun zarrari-buruz, balio guztiz gaindiko albisteak emango dizkigun eliza onuragarri bat. V mendekoa da ziurki, – eta nere ustez IV mendearen azken-aldekoa Oraindik aurkitu-berria dugu. Eta elizarekin batera illobitegi. bat ere aurkitua izan da. Blobitegi ortako illobirik zarrenak, IV mendekoak omen dira. Irabazi dute eskerrik aski, eliz ori ta eliz orren illobitegia aztertu dituzten Ana MarIa Salcedo ta Juan Jose Cepeda arkeologilariek.

Ona zer dioten aztertu duten idoroketa miresgarri ortaz: "Hay *que confesar que los resultados obtenidos hon desbordado por mucho las e.kpectativas puestas por nosotros mismos en este edificio, mostrdndonos en toda su complejidad la realidad de una fdbrica sucesivamente rehecha entre* lo,s' *siglos* V y K.

---

13. "Conjunto ArquelOgico ete Burad(56". Arkeoikuska, 1996; orria: 183).

V mendeko eliz ori luzea da eta estua. 17 metro luzean; 5, zabalean. Burua, ots bereterdegi edo presbiterioa, lurra baiño zerbait goraxeago aurkitzen da, eta irukoitza da. Ederki agiri da non egon zan aldarea. Badu, elizak, atari edo ezkaratz bat ere bere oiñetan.

Bereterdegia zelaia duan bezala, elizaren zoli zerbait aldapa beera doa ateruntz. Atcaren alboan, sarkalderuntz, lau aldeak ia berdifiak dituan bataiosifia dago. Noizbait parroki izan bait zan antzifia-antziñako eliz au.

Goiko estalkia, bi uretara tajutua, arri-ol estuz egiña izan zala dirudi. Elizaren barruan margo beltz, ori ta gorrien aztarnak daramazkiten kixtt-aztarna ugari aurkitu omen da. Orrek, eliza barrundik margo oien bidez apaindutako kixuz ornitua egon zala esan nai digu. Zoritxarrez ez dakigu margo oiek Elizaren ormetan irudirik eratzen zuten edo ez, baina baietz esango nuke nik, margo beltza ez bait da berez, orma bat apaintzeko eraBilli oi dan margoa, zerbaiti indar-emateko-edo, irudigintzan erabilli oi dana baizik.

Geroxeago, baiNan oso laister, gure eliz orri egoaldetik gela bat erantsi zitzaion, dirudianez. Apika, ordea, eraiketa berri orren aztarnik gelditu zaigun.

Askoz geroago, 1X eta X mendean aunditua izan zan, eta porra-m.akuko abside berri batez jantzia. Orrek, ordea, ez du esan nai, Ana Martinez Saleedo'k dion bezala "que *se convirtiera en uno de los PaMS ejemplos conservados de iglcaia de estdo mozórabe el..Alcnva"* (Guk, Euskalerriko mozarabitasuna, libttru onen ondorengoan aztertuko dugu).

Askoz geroago, izan zuan beste konponketa bat ere, ]urregozi batek zati eder bat ondatu ziolako. Moztu egin zioten orduan luzaroa, aldetik aldera jasotako orma baten bidez. Eta orrela iraun zuan erffiaroaren barruko une bat edo batean, eliz bezala erabillia izatez, erabat utzia izan zan arte.

Masti baten aspian eortzirik, eta aski ondaturik iritxi da gure egunotara.

Illobitegi baten alboan iturkitzen cia gure eliz maitagarri ori, eta bera ere orren zati dugu seguruaski, nai z bere barrungo abiak gcroxeagokoak. zan.

Bere inguruko abiak, bai, oiek, duten itxuraren araura, IV mendekoak omen dira. Ana Martínez Salc:edo'k dioskunez: "Podernos *10 afios .finales del siglo IV y la cenutria siguiente como el tiempo de utilizaci6n 7114S intensa de este tipo de enterrattnentos* (Ib. 185). Eta geroxeago: Aun *se puede reconocer un tercer grupo de enterramientos, en zona va excavada, fOrmado por tres sepulturas de labrica asignables al siglo IV (i.d.ib).*

Ortaz, illobitegia IV mendean asi ba'zan, uste izan daiteke, itxuraz arentzat egin zan eliza ere garai artakoa izango dala. Are geiago, illobitegia bera baino zerbait lentxeagokoa izango dala, oitura zarra bait da kristauen eorzketak eliza-baitan edo beintzat elizaren inguruan egitea, orrela elizaren babespean illobitegi bat sortuz. Denboraren joana ez da ba izaten, aurrena illobitegia eta gero eliza; alderantziz, aurrena eliza eta gero

Asmoz beintzat; gerta bait daiteke elizaren eraiketa aurreneko illobi ekin batera asi izatea.

Badugu, gainera, Buradon'go elizari-buruz ere ori esan aal izateko zio bereizirik: "Es destaeable la presencia casi exclusiva de inhumaciones Mfantiles en los espacios prOximos a la eabeeera, especialmente en eI interior del templo".

Egia da, luzaro irauten duten gauzen adiña igarri nai izaterak.oan arreta aundiz ibilli bear dala, baiñan illobi oiek IV mendea baiño leenagokoak ez dirala esateko badugu arrazoi ziur bat: an aurkituak izan diran, eta IV mendekoak diran 1 Kostantino'ren "n111111)11s" deritzan diru-txanpona, aspil bat eta katillu bat. Ez, noski, arritzeko gauza: Jentilkernik artutako jardun.kerari jarraituz, ildakoak orrelako gauzekin – batez ere txanponak agoan ipiñiz – obiratzea, oiturazkoa izan bait zan kristauen artean, baita Erroma'n bertan ere.

Badakigu, beraz, Ana Martinez Salcedo'k" 1.996"ko "Arkeoikuska."n aipatzen dizkigun Buradon'go 44 illobiak "ante quod non", ots, "zer baiño lenagokoak", ez diran, ots, Kostantino "Aundiaren" denborako gauzckin, batez ere aren denborako diruarekin baten obiratuak izan diran ezkero, ez zirala, alegia, Kostantino "Aundia" ta onen denbora baiño lenagokoak; beraz, ez dirala IV mendearen aurrekoak.

"A *partir de la fechacidn absoluta obtenida de una de las sepulturas situadas al exterior podemos sefialar los afio.s finales del siglo IV* yla *centuria siguiente como el tiempo de utilizaci4n mas intensa de este tipo de enterramientos (en foso y con el cadaver introducido en atatÍd de madera), con una prolongacidn todo-vici dlJreil de calibrat; hacia los siglos VI* v *V11".*

Eliz. orrek bai omen ditu, *"las caractedsticas prinntivas de las iglesias tarraconense.s: textero recta, cabecera tripartita, desarrollo axial de los elementos de la nave, baptisterio a los pies".* Ez da arritzek.oa, Euskaldunok, arkitekturart dagozkionetan gure inguruko erak erabilli bait ditugu beti.

*"Se pueden distinguir inhumaciones realizadas cuando va estaba en uso el primer edificio de culto – las mis – de otras walizadas con anterioridad*

a *su (....onstruccian".* Azkeneko auek iru illobi omen dira eta *"una de ellas bajo uno de los muros longiLudinales de la iglesia"* omen dago; eta, iruetan, illobietako ezurrak, elizarentzat lurra gertutzearren egindako lanen ondorioz galdu omen ziran, eta eliza illobi talde orren gaiñean omen dago: *"elaramente superpuesta a este grupo"* tid.ib).14

Eskerrikasko, Ane, zure ikerketa- lan bikaiñen ondorioz eman aal izan dizkiguznn berri atseginki zoragarri auengaitik.

Beraz, Ane.

- Zuk ar^g itara atera duzun Buradon' go lenen eliz estu luze ori V mendekoa da ezpairik gabe.

- IV mendearen azken-aldeko Illobitegi batean izan zan eraikia. Zuzenki. izendatu duzu ”iglesIa funeraria" Buradon'go eliz ori.

- Bainan, i¸zer ote da zarragoa?, i illobitegi ori ala eliza? Zure ustez Illobitegia. Au IV mendean asia eta ura V'ean eraikia dirala bait diozu.

- Ez zaitez arritu, nere ustez, eliza zarragoa errez izan daitekeala, edota, eliz ori soilki V mendekoa dala gauza ziurra bada, eliz orren aurretik an beste elizatxo bat izango zala esatera ausartzen ba'naiz. Ona. nere arrazoiketa:

- Kristauek beti eliz baten babesean eortzi nai izan dituzte beren gorpuak.

I mendean agian bai, baiñan V'goan, ez! V mende artan indartsua zan kristautasuna-ta, kristauek ez zuten iñolaz ere eliz bat illobi.tegi jentil batean eraikiko. Bai bait dakigu, gaiñera, Errioxan ere indartsua zala V mendeko kristautasuna, eta Buradon'en bertan ere indarrik aski bazuala, zuk, Ane, aurkitutako aztarna guzti oiek egiztatzen digutenez.

Orrek, Buradon'go illobi guzti oiek kristauak dirala esan nai du: Zuk., Ane, aztertu duzun eliz orren garaiekoak, eta baita eliz ori baiño leenagoko aiek ere. Izanere, kristautasuna cz bait da, gaiñera, iñon tximista bezala, bat-batean jaiotzen, urteak eta urteak-zear asti luzeko lanaren ostean baizik.

- Egia diozu: Buradon'go eliz ori "en sitio alejado" parroki izateak "nos sittia en el debatido campo del estudio de Ia cristianizaenin de la topografía de los "habitats" rurales durante la antigUedad tardía".

---

[14] ¿Iru obi oiek kristauak? Bai. Kristauek ez bait zuten ilkobitegi berri bat illobi jentik baten lurretan egingo. Are gutxiago, Buradon'goek ekintia artarako inguru guztian naiko toki bazutekarik.

Eskerrak berriro zuri, Ane, — eta Azterketa. bikaiñ oietan lagun izan dituzun guztiei onako albiste eder bikoitz au eman diguzutelako:

Akitani'n Konbeneni'ko Basilika eder aren kide, gaurko Euzkadi'n, naiz ango ura bezain ederra ez, V mendeko eliz bat badugula!

V mendeko eliz orrek, bere inguruko arrazoi tinkoa damaigula, iV mendea amaitzerako gaurko Euzkadi ontara Kristautasuna sarturik zegoala uste izateko! Arkeologiaren aldetiko arrazoi sendoa! ote da naikoa gure Euskalerri au kristautasunari dagokionez, beste erri-ak baiño atzerago ez zebillela, uste izateko?

Besterik gabe, eten dezagun emen aurreneko bost mendeei eman diegun begiraldi ariñ eta labur au. Naikoa izan dugu Euskaldunen artera Europa'ren Sarkaldeko beste jendeen artera bezain laister iritxi zala esan aal izateko. Eta baita,noski, beste errialde batzuetara baiño leenago ere? Guzti ori ziurtzeko, berriro Prudentzio olerkari Baskoi Kalagurritarraren bertso izentsu aiek ditugu egokitasun txit aundikoak. Buradon'go ta eliza eraikiak izan ziran mendeetan idatziak (IV mendean), eta V mendearen asieran (405'ean) argi-taratuak izan ziralako:

*"latnne credis, bruta quondam Vasconuaat gentilitas,*
*quam sacrum crudelis error immolavit ,rangulnem?*
*Credis in Deum relatos hostiarum spiritus?*

Euskeraz:

Baskoien antziñako jentiltasun gogor orrek
sinisten al duk
zeiñen santua dan
sasijainkokeri batek ankerki isuri. duan odola?
Sinisten al duk
hinkoagana. itzuli dirala martirien gogoak.?

"Bruta QUONDAM vasconum gentilitas". "Qondam ori edozein eraz, adibidez, "antzifiako", "aspaldiko", "garai bateko", "leengo", edo beste orrelako edozein itzez biurtuta ere, bat bera izanen du beti bere egiazko zentzua:

"BASKOIEN JENTILTASUNA ASPALDIKO GAUZA ZALA, OTS, ASPALDI IGAROTAKO GAUZA.

Aspaldiko gauza... noiz?

- Prudentzio'k aapaldi ori idatzi zuanean?

- Bi marttriak — Em.eter eta Zeledon — erailla] izan ziranean?, itxuraz Erailketa aren denborako euskaldunekin ari bait zan izketan olerki ortan Prudentzio.

Prudentzio'k V mendearen as i eran — 405'garren urtean ainzuzen—, argitaratu zuan, leenago, IV mendean, idatzitako ereserki mardul ori.

- 1II mendearen azkenean Izan ziran eraillak martiri bi aiek. Baiñan mendean naiz mende orren azken-aldera izan Baskoien artean jentiltasuna aspaldiko gauza zarra gerta zitekeala uste izatea, ontzat arI-ezifia dala iduritzen zait-eta, ar dezagun ontzat, IV mendean, ots Prudentzio'k itz oiek idazterakoan zala aspaldiko gauza baskoien jentiltasuna.

Ez da gutxi. lkusi bait dugu Aitasantua bera lekuko genuala IV mende ortan, eta urrengoan, jentiltasunak nolako indarra zuan Erroma'ko urian bertan.

Naikoa baiño geiago ere badugu noski Prudentzio'ren aapaldi ori, Kristautasuna EuskaIerrira Sarkaldeko beste Errietara baiño BERANDUAGO iritxi ez zala, bildurrik gabe esan aal izateko. Eta baita beste Errialde askotan Laiño AZKARRAGO errotu zala eta orokorkiago zabaldu zala esateko ere.

Prudentzio'k ez du esaten mende artan jentiltast.ma, antziñako gauza Baskoi guztientzat, edo lbero ibaiaren inguruetako Baskoientzat, edo soilki Kalagurri urikoentzat zan. Auzi orri-buruz, yarek.i eratu dezake guetako bakoitzak bere aburua.

Baiñan onako au gogotik galtzeko: Prudentzio'k dionez — eta Prudentzio'k bazekian noski bere garai artan bere Errian zer gertatzen zan Baskoiek, beren bi martiriak goraltzeko egin zuten guztia — adibidez aien omenez eraiki zituzten eliza ta bataitegiak eta martirien illobi-aurretm otoiketarako Kalagurftra gelditzeko etortzen zan jendetza, badirala noski,

Kala.gurri'ko uritik at ere kristautasuna Baskoien artean anitz zaba durik zegoala eta arras indartsua zala, uste al izateko arrazoi sendoa.

Eta guzti ori IV mendean! [15]

Guzti ori, ganiera, Araba'ko Iruña'n aurkitutako krismoietatik, bat ziurki, eta beste bat seguruaski. IV mendekoak dirala! Eta IV"goak, baitare, Buradon'go illobi aiek; eta, agian, (]aita Buradon berortako elizaren oiñarriak ere!

---

15. Bi martirien goratzarrerako Prudentzio'k idatzitako ori, eta bi Martirien ilkobi gaiñean baskoiek eraikitako Bataitegiaz mintzatzen zahrtun bestea, liburu onen azkeneko eraskifietan agertu nai niluzke.

# VI ETA VII MENDEETAN
# EUSKALERRI ZARREKO GIROA

# ARO ARTAKO GERTAKIZUNAK
# ETA KONTZILIOAK

Euskalerria, zori onez edo txarrez, Frantzi'ren eta Espafti'ren artean dago. Erdiaro Garaiean, berriz, Frankiarren eta Bisigotiarren artean egon zan, sarkaldean euki zuan Suebitarren erreiñuak soilki V eta VI mendeetan eman ban zion nekerik.

Euskalerriko edesti bikoitza, ots, – bai bere erlijioari bai bere politikari-buruzko edestia – egoki ulertu aal izateko, bearrezkoa izango dugu noski. Frankiarren eta Bisigotiarren edestietara. begiraldi bat egitea.

- Erlijioari dagokionari-buruz, bisigoten eta Frankiarren Elit b i ek aro artan egindako kontzilio guztiak arakatu ditut, kontzilio guzti aien bidez eratu bait zan bi Eliz aien kristaukera.
- Bereiziki, kontzilio aiek lekaidetzari buruz damaizkiguten albisteak jaso ditut, mende bi aietan, ainzuzen, Euskalerria izan bait zan lekaidetzaren paradisua. Euskalerrian egon zan izan ere, Europa'ko Anak.oretategirik oparoena. (Araba'ko mendietan dago oraindik ere, Latxaga'k. asmatu zion izenez, "Europa'ko Kapadozi" aren aztarna!
- Jaso dut, baitare, gure edestia era egokian ulertzeko naitanaiezkoa dalako, kontzilio aietan gotzaiek. kontzilioetara joan bearrari-buruz agintzen dan guzia.

Priszilikeriak indar aundia artu zuan gure Euskalerri Zar artako IV eta V mendeetan-da, ez zaizkigu aipatzeko geldituko ereji arekin zer ikusirik

# AKI FANI EUSKALDUNEKO "LLARRIAK





7031. Fruipourd de bas',rdief do 1'2,0bse de eny. rrap 8s *I1111,11,menin),* 1282, 13. ;:70.

ifdgeudIL !I turd (tiq. 711:11) a appnr-tcrru eertainement a lul sareephatte a en I ugeu• pur 1:1 kdI1111111V, 11 CGIL .1.13113.11:11 "' uu ave-vs Nous veyens un groupe .1311106 Ot ieffirot, enedrU jsunes et. debuLd: ta lentnte 00S6 sa mnia ganehe sur re.pmile de l.Inamuse pendant, que !ulds mdiUS '.111'utk es xi serrent.

d.Enue,
in ri d/, Pmerv,
xtm, It. Ht•

Les ertraeleves sont: dtl Ys t (di du ent" edeete, leue hatttettr varte ;le 1LI a nxtltnmtlres; CCMC des deus: premiere,s lignes sont ptus grands egte Ies atetves; t'avendi-eterniere Iteme it y a 13Ite. thrature des !eLtrea, L et

frde est On y eredt pUrsonimue 11,1311/211,:Q rdehis, curateur de ciLri des Etusatas, avalt telt tan verm au martyr Lupercies mt LUperCSINN• cedntnem+mt arecenptt, comme le eenstate t'inacelptiom sonattie par una ferume etraugere *(perd:yrino)* appm saint n'est Ans *Lupero* mais *LUKTGO.* te 111`.Cessujru. Ln HICIIUM1 d Un curaft, (bms Une inserqd-ton ehrftionne est rare, mais non pus sans exemple, 1111 (In remeentre en Affique La grande ■IÈ11.ÌCII M esL ditas In derMere tigne; e...auvrestits te tteate paralt peavnir eLre ainst complete :

Qlttkir y ux *curretur*
*uthrld:s*
eps:•;1

*,u10 Lupercfo nieufildi* leu-
nniM *pereqfrinr'*
njonth2..

*ermunkfidaltun* (vultun)u,n1pkitilI

1..entrdni de O 1 la Atara tla *6.1* est rare, //Igki 111.141 pas L,XIMIUI:1111141. L emptoi deS eue,Must csi egsdement caro. Le P dUlTh lu haste se reeenvne att has et vers la dreil est. de fi./1111.3 exceptlennetle; on rUtF011 e UU 11111SiU, rlrs Valivan dans 1n caMense pi-taphe *'fr■reiritiffrntus* dans une autre egete-77L,',1( par Muri ni.

*Mict.* Arvneol. Chret .Cerkltir2.)

Gaineko au IV mendetik V a artekoa da.
Eskubikoa, martiri bati eskerrak emateko idatzia, VI'goa edo VII'goa.

izan dezaketen albisteak, Vrean ere uren aztarnik gure Asaben artean geldi lzen zan ikusteko.

- Saiatuko naiz aro zar artan Eliza ta Laterria zenbateraiño bateraturik egon ziran adierazteko egokiak billatzen ditudan zertzeladak azpimarratzen ere.

- Euskalerrian aldi aietan judurik ez zan. Ez dugu beintzat izan zalaren aztarnik. Izan ziran ordea mende batzuk geroago. Eta, naiz beiñere bear bezain ongi ez, gure bi mugetako Laterri aundietan baiño obeki artuak izan bait ziran emen, kontzilio aiek juduentzat emandako legeak bildu nai nituzke katolikoon lotsarako; ikusi dezagun nola juduek Bisigoten Erreiñu Ariozalean pake osoa izan zuten. eta Bisigot aiek katoliko biurtua naikoa izan zala juditz. gaixo aientzat ordnrarteko pake-aroa inpernu biurturik gelditzeko.

Iparrean Merobindarrek ere, bai, moztu zuten, asko gaifiera, juditzen askatasuna, baiñan, ezta alderik *ere*, Bisigotek aiña.

- Eta, azkenik, beste aintzira-oar bat geiago: Alkarrekin nasturik emango ditut bi mende aietako gertakizun guztiak. Bata bestearen atzetik urtez urte Merldeell joanean gertatu ziran bezala. Orrela obeki ikusiko bait da aro aietako Elizak nolako giro beltzean egin bear izan zuan bere lan onuragar-a.

Kontzilio oiek argi damaigute ikustera Eliz arek bere aroan eta bere aroko gizakumeei izan zien maitasuna. Ez bildur ez zalantzarik, tinko jardun zan bere lanean Eliza. Ziur uste izan zuan beti berea zuala garaitza.

Elizak biurtu zituan GIZAKUME, .Kristaudira PIZTIKUME iritxi ziran barbaritar aiek. Lan bera egin zuan noski. Euskalerrian ere, gizonez-gizon eta e mak um ez-emakume Euskaldunok beste Errietako gizon-emakumeak bezalakoak bait gera, naiz gizarte bezala, garai artako Euskal Erria, dirudianez, bere inguru guztiko Erri danak baiño gizakoiagoa ta gizabidez jantziagoa izan.

# VI MENDEA

493' garren urtea. Esan daiteke, urte ortan asi zala Europa'ren Sarkaldearentzat Vi mendea. Urte ortan ezkondu bait zan Klotis Burgundiar printzes katoliko zintzoa Klobis edo Klodobeo Frankiarren errege jentillarekin, eta Europa'ko edestiarentzat ezkontza orrek izugarrizko garrantzia izan bait zuan, Bereala asi omen zan ba erregiñ gaztea bere senar basatiarra kristautasunera erakartzeko lanean.

496. Agian 498: Klobis bere aundiki. ta. gudarozteko buruzagickin bataiatu zan urtea.

Izugarria izan zan bataiaketa orren garrantzia Europa' ren, eta, bereiziki Elizaren edestirako, bni nosk.i..K.lobis gudari trebea ta ya.yoa izanik Frankiarren Erria Europa'ko Erririk indartsuena biurtu zualako, baiñan batez ere Klobis eta aren ondorengo errege frankiarrek. Elizaren alde jardutea, – ez noski era berean. Elizaz haliatzeke bene-benetan artu zutelako.

596. Agate (Agde'ko) kontzilioa, II Alariko Tolosa'ko Erreiñu Bisigoteko azken-erregearen aginduz bildua, naiz kontziliokideek legunki mintzatuz *"ex permissu domini nostri gloriosissimi magnificentissimique"* ots, gure errege jaun txit aintzakor eta anitz-eta-anitz gurentsuaren baimenaz egiña izan zala esan.

Kontzilio au, II Alariko Tolosa'ko errege hisigot ariozaleak, Klodobeo errege frankiar katolikoari begira asi omen ziran erreiñuko gotzaiak ostera bereganatzearren egin zuala, esan oi da. Bainan ala izan ba'zan ere, gotzaiek benetan egin zuten an lana.

Bertan, 1 O euskal-elizbarrutietako gotzaiok izan ziran:

Elusa (Eauze)'ko Klaro goigotzaia: "Clarus *de civime Elusa metropoli"*. Akize (pax)'cko Grazian; Eliberri tAuchYko Nizezio. Konbenerri (Comminges)'kO Suabio. Bearno (Leskar)'ko Galakterio. Oloron' go Grato. Laktora (Leetoure)'ko l3ijil. K.ontsora (Conserans)'ko Glizer. Bigorre (Tarbes)'ko Aliso. Basate (Bazas)'ko

Eta oraindik. beren elizbarrutietan euskaldunik aski izan zezaketen gotzaietatik, Bordele'ko Ziprian, Tolosa'ko Eladio, ,eta Nirbona'ko Abilio?

Kontzilio artan eratu ziran kanonetatik badira lekaime-lekaidei-buruzko ardura bizia agertzen dutenak: Ala adibidez, emakumezko bati, lekaimetzara sartu .izateko, berrogei urteko adifia eskatu bear zaiola agintzen duana. Ez zuart[f] kanon orrek deus berririk agertzen; ori bera agindu bait zuan IV mendean Saiduba'ko 1 kontzilioak.

Beste kanon batek lekaimetxeak lekaidetxeetatik urruti egitea agintzen du. "deabruen thiketaren edo gizonengandiko arriskuen erruz" oker daitekeanik deus gerta ez dedin. Beste batek bi lekaidetxeren abata izatea gaIerazten du, eta badira gotzaiaren baimenik gabe lekaide-lekaimetxerik egitea, eta lekaideak lekaidetxetik at ibiltzea *clebekatzen* dutenak ere.

Euskalerri zarra lekaide ugariren Lurra izan zalako, ajolazkoa genuan – eta izango zaigu – k.ontzilioek lekaidetzari-buruz argira. emango duten guztia gogoratzea.

Baita beste gai bati buruz – aztikeriari-buruz, ainzuzen, – agintzen dutena ere; Euskalerriaren adiskide motzen ustez, zearo jentilla ta aztikeri-zale amorratua omen zan b L mende aietako Euskalerria. Eta baleike gure Erriak orduan ere aztikeri-zale izaten jarraitzea, ikusi dugun lez, erromatekoan azti txit ospetsuak izan bait ziran euskaldunak, Erroma'ko inperAtore beraien ustez ere.

Kontzilio onek, Elizgizonei aztikeritan – batez ere Idazti Doneetaz baiiatuz – aztikeritan ibiltzea galerazten die kanon biren bitartez.

Juditz-erriari dagokionez, kanon batean, aiekin otordukide izatea debekatzen die kristauei, juditzek gure jaki batzuk gaitzesten dituztelako(!); eta beste batean, kristau biurtu nai duan juditza nola bataiorako gertutu erakusten dio apaiz-jendeari.

Batuan kontzilio onen 7 I kanonen n ez da juditzen aurkako zigorrik eskatzen.

Galietako jendea neurri aundian kristaua zan, katolikoa ainzuzen, Bisigot arianikeri zaleak ara iristerako. Katolikoak ziran V1 mendean Tolosa'ko Erreiñu bisigoteko biztanleak ere.

Baiñan Alarik erregeak eta bere bisigotek arianikerian murgildurik jarraitzen zuten... Klobis Frankiarren errege trebea katoliko egin zanean. Eta arrezkero, arazo gogorra sortu zan erreiñu artan Alarik ariozalearentzat, iparraldeko Klobis errege katolikoari begira jarri bait zitzaizkion bere erreiñuko gotzai katolikoak eta gaifierako katoliko guztiak, ots, berdin dana, erreiñu artako biztanlerik geienak!

jakiña, bildurtu zan Alarik eta bi gotzai erbesteratu zituan, ots, Turona'-koa eta Arelate'koa, Frankiarren alde lanean ari ziralakoan. Kontzilio au izenpetzen ikusi dugun Bearno'k.o Galakterio' rekin ere izan omen zituan asarreak.

Esanik utzi dedan lez, Agate'ko kontzilio au, bere erreiñuko katolikoen onginaia irabaztearren eratu omen zuan 11Alarik errege larrituak, eta au bai, au egiazko albistea dugu ezpairik gabe.

507. Vouille'ku borroka gogorra. Klobis errege Frankiar katolikoak, 11 Alarik Tolosa'ko erreiñu Bisigoteko errege arianikerizalea garaitu, eta Bisigotak Galtetatik lspanietara jaurtiak. Tolosa'ko bisigotaren amaia eta "Toledo"koaren asiera, naiz Toledo'ren aurretik, Espaiji'ra bultzatuta.k.o erreiñu bisigotak aurrena bere uriburutza Bartzelona'n, gero eta geroago Merida'n ipiñi. Azkenean, 1 Lliuba eta Leobigildo' z gero, Toledo'n.

Edestilari frantziarrek, Turona'ko Gregorio beragandik asita, – frantziarren abertzalekeria! gogortxoegi erabiIli izan dute beren ustez Frantzi'ren lenen Asaba izan zan Klobis'ek egiazko arrazoirik gabe sortu zion guda zuritu eta ia-ia. donetu ere egin naiez. Erarik txukunenean aurkezten dute Alarik edo Alariko' ren eriotza bera: "Clovis *roi des Francs l'anaqua et le tua de sa propre main a bataille de WnaW"* (Larousse, editio princ. "Alarie H" itzean). Euskeraz esanda " Klobis Frankiarren erregeak.

eraso zion, ea bere eskuz borrokaldian". Badirudi borrokaldi artan eskuz-esku aritu zirala errege biak bata bestearen aurka eta Frankiarrak il zuala Bisigota, baiña borroka garbian, borroka borroka aintzagarrian.

Bainan uste izatekoa da beste era batera gertatu zirala gauzak: "Clopis *made the Visigoths' (trianism a pretext for* nau: *Alaric is sail tu have been overtaken ira flight and killed by Clovis hintsell"* (Ene.Brit.).

Euskeraz, "Gudan asi aal izateko aitzaki utsa izan zan Ktodobeo'rentzat Bisigoten arianikeria. Esaten danez, Alarik borrokan katigu artua izan zan eta Klobis'ek berak. Aurrena baitua, eta gero, eroailla. Badirudi orrela izanen zala, barbaritar aiek bataio-ondorean ere len bezain barbaritar jarraitzen bait zuten, jakifia da ba bataioak ez duala bataiatuen jitea aldatzeko miraririk egiten.

Alariko, Euriko arianikerizale sutsu ta lurr-arrapatzaillearen scmca, errege txukuna izan zan, baretsua. Ieguna eta kulturaren maitalea. "Legtmdu zuan bere aitak katolikoen aurka erabilli zuan zigorketa" naiko gogorra *("mitigated the persecation of catholics");* Erroma'ren legedi zarra berriztatuz, eratu zuan "Breviarium Alarici" esan oi zaion legedi berri bat bere erreiñuko galitar zar katolikoentzat. Legedi czberdifiaren araura bizi bait ziran Bisigotak eta aiek Galietara agertu aurreko gali-erromatarrak: Beren germaniar-legearen araura aiek. Erroma'koaren esanera berriz auek.

Zillegi bezait onako xeetasun au orri auetan azaltzea: "Brcyiarium" edo "Laburpen" ura eratu zuan legiztilariek euskal-itxura nabarmeneko izena zeramala: "Goitik", ots, "Goitik(c" edO "Goitiko", agian. "Goitik" ori gabe egindako "Gotik"en aldakuntza bat ez ote dan? Ez, noski. "Gorik" edo "Gotic" beti-beti-beti "t"ren ondorengo "h" batekin idazten bait zuten: "Gothie", "Gozik" agoskatua izateko.

Ez dut esan nai jaun ura ziurki euskalduna zanik, baizik eta, soilki, euskalduna izan zitekeala, Alariko'ren lurretan ederki erromartutako uri euskaldun katoliko bat baiño geiago aurkitzen bait zan. Uste izatekoa da ba, erreiñuko katolikotzat eratuta nai zuan legedi ura katolikoentzat atsegiña gerta zekion, Alariko'k, Erroma'ko legea ongi ezagutzen zuan legiztilari yayo katoliko bat aukeratuko ta legiztilari ura euskalduna izatea ez

zitzaiola ez-atsegiña gertatuko, edozein errege atzerritarrentzat ain arriskutsu ziran euskaldun menderakattz aiek orrela zerbait goxatu zezazk.ealakoan...

Esan dugu, Españ1'ra erbesteratu zuala, Belusiano Turena'ko gotzaia frankiarren alde ari zitzaiola, agian ez arrazoirik gabe uste izan zualako. Gauza berdiña egin zion aren ondorengo Verus izenekoari, eta baita Arelate'ko Zesaieo goigotzaiari ere.

Baña azkeneko onekin atzipeturik ibilli zala jakin zuan bezain laister deitu zion ostera Arelate'ra, ela ainzuzen gotzai au izan zuan lendakari Arelate'ko kontzilio onek.

Galde bat gelditzen zaigu, Tolosa'tlk jaurtua (gobernatua) izan zan Galietako erreiñu Bisigotiarrart-buruz:

Zenbateraffloko eraginmena izan ot:e zuan erreiñu Bisigot ark, Ipar-Euskalerriko kristamastmean? Galde orri. erantzuteko beste bi gauza jakin bearko genituzke lendabizi:

- Naiz Tolosa Euskalerriaren muga-mugan egon, Bisigotek zenbateraiño eta zenbateraifloko denboraz Euskalerria menderatu zuten.

- Esan dugun bezala, naiz Tolosa Euskalerriaren niugan, eta agian oraindik landa ta mendietan euskaldunez inguraturik, eta seguruaski bere karriketan euskaldun askiz beterik egon, Bisigot aiek euskaldunen oituretan zenbaterainoko eraginmena izan ote zuten? Ez noski aundiegia. Are geiago: seguruaski, batere ezi

Gaiñera, izan zana izan Bisigoten eta Euskaldunen arteko mintzaketa, (sekulan, izkiIluen bidezkoa izan ezik, aien artean mintzaketarik izan ba'-zanl), zalantza aundirik gabe esan dezakegu Bisigoten sinispideak ez zuala euskaldunengan aztarnarik utzi.

Naiz aiek eta auek kristauak izan, arianikert-zaleak bait ziran aiek, eta katolikoak berriz auek, naiz azkeneko auek, ote? agian, oraindik priszilikeriaz zerbaitxorenbat kutsuturtk jarraitu. ote? Ez dirudi. IV eta V mendeetako gure ta "gure" gotzaiak oroitzerakoan ikusi genduan lez, euskal-prisztlikeriaren aztarnarik naiko agertu ba'zitzaigun ere, VFgoak aztertzerakoan ez bait dugu deus orrelakorik aurkitu.

507'tik. 511'ra. Klodobeo'k bere eskuz il zuan 11Alariko errege bisigotiar arek bi seme utzi zituan: hat Amalariko, bestea, sasisemea, Gesaleiko.

Aitorrensenieek au aukeratu zuten errege, beste ura bost urteko umea zalako. Ez ziran danak aukeraketa orrekin bat etorri-ta, beste batzuek Anialariko jaso zuten errege. Eta bost urteko ume au izan zan errege koroiatua, aitona zuan Teodoriko Ostrogoten errege indartsuaren laguntzari eskerrak. Beste aiek ordea Gesaleiko'ren alde jarraitu zuten-da, anaiarteko gudu gogorra sortu zan, Voni116'ko porrota ezkero aski makaldurik aurkitzen zan Bisigot-Erriaren altzoan.

511. Gesaleiko, menderatua: eta eraillа. 9 urterekin Amalariko errege. Teodoriko Ostrogotak salbatzen du Frankiarrengandik Bisigoten erreiñua, eta Galietan Septimani ere auen mendean gelditzen da.

Frantzi'ren Lurrat'Itxasoaren ondoko lurraldea bi zatitan aurkitzen zan banatua: Auñamendia ta Rodano ibaiaren artekoari Septimani esan oi *zi*-tzaion. Eta Rodano'z aruntzakoari, Probentza. Au, Itali'ko Ostrogotoen mendean egon zan aurrena, gero Frank.iarrenean. Ura, Bisigotena izan zan bet.i. VIII m.endean Arabitarrek, Bisigoten erreiñua ezabatuz gero, berentzako arrapatu zuten arte.

511. Aurelia (Orleans)'eko I kontz1lioa, Klobis Frankiarren lenen errege katolikoaren aginduz Kontzilio ortara iru gotzai bakarrik joan ziran Euskalerritik:

Elusa' ko Leontzio metropolita; Basate (Bazas)'ko Sestilio; Eliberri (Auell)'ko Nizezio; eta beren "artaldeetan" "ardi" euskaldunik izan zezaketeiako "gure" esan dezaiekigun "Artzaietatik", Bordele'ko Zipriano16.

Kanonetan jakingarrienak, "abatak gotzaien eia lekaideek abaten esanera egon bear dutela agintzen duana ("abbates *episcopis et mon(lchi abbalibus subsifil")*.

Asi zaizkigu gotzaiak abaten jardunkeraz kezkatzen. Zergaitik ote? Denbora aurrera zijoan unean joan ziran lekaidetxeak ere gero ta aberatsagoak biurtzen. Aundia izan zan erdiaroan lekaidetxe aberats aietako abateen indarra. Bitez adibide, Euskalerrian, Errioxa'ko Kukulla, Naparroa'ko Leire eta Aragoi'ko Peña. Kontzilio onen garaiean asirik ote zeuden sarkaldeko Abatak

---

(). Emendik aurrera, gure itza goi-kakotxen artean, "gure", naiz gotzai-uria bera agian oreuskalduna izan ez, ekizbarrutian oraindik euskakdunik aski izen zezaketen gotzaiekin erabilteko dut,

aunditasun-billa'? edo ta, i,gotzaiak ote ziran lekaidetxeetako aberastasunetan eskuak sartu nai zituzienak?

Baitare. debekatu zitzaien kontzilio artan lekaideei lekaidetxeetatk at ibiltzea, eta lekaidetxelik at bakartasunean bizitzeko gotzaiaren edo abataren bannenik gabe txabolak egitea. Bildurra zien noski Galietako gotzaidiak (¿Laterriak ere bai ote?) bakartasunean-bizi-zaleei.

Beste gauzatxo arrigarri. bat ere galerazi zien kontzilio onek lekaideei: erlojuak izatea ta "tzanga" esan oi zitzaien bel.aunetaraifioko oiñetako larruzkoak erabiltzea. Badu gaitzespen gogorra lekaidetxea utzita ezkontzera ausartu zitezkeanentzat ere.

Lekaideei-buruzko kanon oiek, eta geroago *ere* beste kontzilio batzuek sarri emango clituztenek, Galietan lekaidetza ongi erroturik zegoala adierazten digute. Zer esanik ez Iparr-Euskalerrian. Ainzuzen Aurelia'ko kontzilio ontan izan ziran, priszilikeria ainbeste zabaldu zan Elusa ta Bordele'ko gotzaiak. BanaEliberri (Auh) eta Basate (BazasYkoak ere..

Aztikeriaren arloan, kontzilio onek, edozein motako aztikerira jotzen zuanarentzat eta "sortes sanetorum" esaten zitzaion siniskeria erabilli zezakeanarentzat, eskomikapena aldarrikatu zuan. ots, Idazki Doneak, erabiltzen omen ziran sinisk.eri ortarako. Ebangelioak adibidez, iriki, eta begietara aurrena agertzen zan esaldia azterketa-gaitzat artuta, etorkizuna edo izkutuzko beste edozein gauza igarrri nai izaten omen zan. Augustin Doneak idatzi zigunez, kristauek baiño leenago jentillek bai omen zuten beren liburu sagaramekin egiteko oitura zaarra.

511. Klobis edo Klodobeo'en eriotza. Bere lau semeen artean. Teodoriko (Tierry) Klotario. Kildeberto ta Klodomiro'en artean, zatiturik gelchtu zan Frankiarren erreiñua. Akitani euskalduna, Kloclomiro'rentzat "izan zan". Errege au Kildeberto'ren eskuetara igaro zan gure Akitania... izenez beintzat.

Elizak nolako jende tartean lan egin bear izan zuan, irakurleak oartu daitezen, egoki derizkiot, opusdeitarrek zuzendutako GER i.ztegiak Kiobis'en eriotzaren ondoreari-buruz diona emen agertzea: "En *532 Childeberto Clotario atocoron al reino burgundio, vencieron ol* rey *Segismundo lo arrojaron a un pozo junto con su mujer e hijos. Al año siguiente el nuevo rey burgundio Gondebaud atoe6 y nuttr5a Clodomiro. A continuachin de este crimen, Childeberto y Clotario mataron a los hijos de Clodomiro y se repartleron*

*sus posesiones".* K.lodomiro, Klotario ta Kildeberto anaiak zirala, eta, ondorioz, azkeneko biek eraildako umeak beraien illobak)17

516: Tarragona'ko Kontzilioa. Ona emen, an bildu ziran amar gotzaietatik, oraindik beren elizbarrutietan euskaldunak izan zezazketen lau gotzaien zerrenda: Anpuri (Ampurias)'ko Paul *("Paulus episcopus Impuritanue eivitatis");* Eliberri edo laiberri (.Elne)'ko Orontzio *("Orontius episcopus Elliberritanae civitatis")* [18]*;* Ausa (VichYeko Ciniclio *("Cvnidiu.s;Ausonitanae civitatis),* eta Gerona' ko Fronton.

Kontzilio ontako kanonetatik guretzat garrantzitsuena da: "Bere metropolitak deituta 1«-mtzitiora agertzen ez dan gotzaia, eskomikatua bedi": *Episcopus a metmpolitano cornmonitus ad synodum non venerit excomunicetur".* ote zuan indar berdiña erregearen 1«xuzilioetarako-deiak? Ori beintzat dirudi, Toledo'ko kontzilioek beiñere ez bait zituzten gotzaiak kontzitioetara etortzera alako naitanaieztasun Jarriz beartu.

"Sinodo" itza erabilii zuan kontzilioak, baiña aro artan "sinodo" eta "kontzilio" zentzu berdifieko itzak ziran biak. Orrela, zintzoki ituli du gaztelerara Vives'ek "concilio", Asaba aien "synodus".

---

Printzipe aien anaitxo bai, Ordea, Kiodobaldo, "quassi miraeoiossarnente" tBibI.Sanet.) irten onien zan sarraski artatik gero apaiz egin omen zan, eta Done izatera Klodobaldo Donea. Turona'ko Donegregorio`k darnaizitigun aibisteetank ("De Glor,Conr.) jasoa guzti ori "Bibkiotheea Sanetorurn" italiarrak.

[18] Jose Vives'ek (op.c. 38) Orontzio au gaur Granadn'ko gotzai egiten du. Baiña esan dugu beste toki batean.. Ekbira'n ez zaka BETÑERE izen ortako gotzairik izan; Kataktuni'ko arazoak zuzentzeko eratu zan kontzilio artan zer eginik ez zuala Andaluzi'ko gotzai batek; gainera.. Andaluzi oso urruti dagoka Katakauni'tik, eta Ktualauni'ren barruan berriz Elne: gannegungo ipar-Katakaun'n. Ta, naiz Ekne ori (antzifittko Eliberri) orduan Narbona'ko elizprobnnzikoa izan, ez dala gauza arrigarria ango gotzaia Tarragona'ko kontzilio artan egotea. Ez bait zean, gaiñera, une artan, Eliberri izeneko heste gotzai-uririk, Akitant'n gaur Anch esaten zaiona izan ezik. .,Ernengo Orientius Donett ote dugu ba aztertzen ari geran "Orontius Eleberritanus" au? Berealaxe, 517an, Gerona'ko kontzikioan agertzen zaigu Orga-tzia bat, nongoa zan esateke: "Oronnus in Christi nomine episcopus subseripi". Bafittn bien izenak (Orienzius, Orontins) ezberdiñak izaleaz gainera, urie ortarako ilka Zati naitanniez V mendeko Orientius akitaniar Gainera, bera ere Tarragona'tik urrutiegi bizi zan, eta ez, zuan, ez noski, Katakaunt'rako bakarrik zan kontzilio aletan zerregin aundiegirik. Danadala, Ganis'ek ez dakar Orontius Ekiberri katakauniarreko gotzaien zerrendan.

Beste kanon batean lekaideei abataren baimenik gabe lekaidetxetik at elizkizunik egitea, ezer saldu edo erostea ta auzitegietan artekari izatea galerazten zaie. Ta guzti ori, abataren baimenarekin ere, soilki lekaidetxearen babesketarako danean bakarrik egin dezakete.

517. Gerona'ko kontzilioa.: Zazpi gotzai alkartu ziran kontzilio ontan, baiñan ez ziguten agiri edo akto izenpetzerakoan beren nongotasunaren albisterik eman. An izan ziran beintzat, Tarra g,ona'koan ere egon ziralako, ezagunak ditugun iru auek: Gerona bertako Fronton, Ausa. (Vieh)'eko Zinidio Iliberrt (Elne)'ko Orontzto.

Ez zuan kontzilio onek guretzako oroigarri daitekeanik deus legeztatu.

517. Lyon'go I kontzilioa, *"tempore Segismundi regis".* Segismundo au, emazte ta semeekin Kildeberto'k eta Klotario'k osin legor batera jaurtiko zuten ura bera da. Amaika gotzai, bildu ziran kontzilio ontara, baiñan nongoak ziran esateke.

Guretzat arduragarri daitekeanik, *deus* ez du.

517. Urte ortan, *"tempore Segismundi regis",* izan zan Rodano'z. aruntzako Epaona'n beste kontzilio bat, baiñan ara ez zan Euskalerritik iñor joan19. An, Euskalerri Zarretik berteneko gotzaia, Narbona'ren eliz-probintzi'ko Arausi (Orange)'1«) Florentzio izan zan.

Kontzilioko lenen kanonak, metropolitaren deia entzunik kontztliora etortz.era beartu zuan gotzai oro. Etortzen ez zanak, sei illabeteko eskomikapena, izanen zuan zigor. Ez da, gotzaiak kontzilioetara beartzen dituan aurreneko kontzilioa, eta, ikusiko dugunez, ez da azkenekoa izango.

Lekaidetzaren arloan, abatak bere esanera lekaidetxe bat badio geiago lzatea galerazi zuan; eta gotzaiaren baimenik gabe lekaidetxe bat eraikitzea. Pekatura jausitako abata nola zigortu erabaki zuan; eta baita lekaimetxeetara kanpotik nor sartu zitekean ere: Soilki bearrezkoak ziran lanetarako, eta soilki bizitza arras zintzo ta adifiez aski eldutako kristauak. Meza ematera--edo sartzen ziran apaizek ere, beren eginkizuna bukatuz gero, arin irten bear

---

gaona non zegoan, ziurki ifiork ez daki. Uste clanez, Frantzi.ren ego-sortaidean nonbal,

zuten berriro kanpora: *"statim exacto ministerio regrediftstinalmnt".* Kontzilio zar aiek ez zuten, itxuraz, emakumezkoengan usteon aundiegirik.

524. Arelate (Arles)'ko IV kontzilioak ere ez zigun bertan izandako gotzaien nongotasunik eman. Ezta guretzat oroigarri izan daitekean albisterik ere.

(Beste bi kontzilio damaizkigu "Acta Conciliorum" liburu onuragarriak urte ontakoak bezala: flerda (Lerida)'koa ta Balentzi'koa. Baiñan biak 546'koak bait dira, orduan azalduko ditugu guk).

524. Klodobeo'ren eta Done Klotilde'ren iru semeek bigarren erasoa Burgundiarren aurka. Jatorriz Burgundir ko printzesa zan Doneklotilde, iru aien ama. Baiñan auentzat askoz guragarriagoa zan iruen artean Burgunditarrei ostutako lurrak beren artean banatzea, amarcn aberriari zor zezaioketen eraspena gordetzea haiño.

524. Kiodomiro'ren eriotza. Iru semetxo utzi zituan. Baiñan ildakoaren anai eta iru ume oien osaba ziran Kildeberto'k eta Klotario'k, egin zuten aurreneko gauza, iru printzipe gaixo aiei lepoa mozten saiatu, ta gaixo aiek Klodomiro aitagandik artua zuten errefflua lapurtuta bien artean banatzea izan zan.

527. Toledo'k.o 11 kontzilioa: Zortzi gotzai bildu zituan, baiñan bik bakarrik esan ziguten nongoak ziran: bi oietatik batek Urgel'koa zala csan zigun:

---

[2OE] Uruel, beti "G"z idatziko dut nik baiñan euskeraz "J" ez baiña "G" agoskatua izan dedin. Zergaitik? Uri OlTen berri aurrena Ptolomedk eman zigulako, eta Ptolomedk uri orren izena "G"rekIn idatzi zualako. Ptolomeo ekendarra zan eta eleneran idatzi zuan, eta izkuntza ortan, jakifia dan kez, "G" izkia euskeraz bezala era goxoz agoskatzen da. Ptolorneo'k ORGIA idatzi eta ortik sortu omen zIran OrgelIa, Orgellis eia azkenean Urgek. Erdiaroan germa-Marrek "Vieus Urgellt", "Urgel'ek) Uriska" esan zioten. Badira, gaurko Urgel ori Orgia ez baina Ptokomedk berak Auñamendiaren baztar artakoa bezala aipatzen duan "Bargidum" izan zala diotenak. Badaiteke, baiñan ez dirudi. Danadala izen au ere "G"z idatzi zuan. Oartuko ziñan iru izen oiek, – "Urgel", "Orri" "Bargidom" iniek dutela euskal-itxura nabarmena; azkeneko izen ori ere, latiñezko jazkeraz eurantziz gero, BARGI biurtzen bait da.

*"Justeus ecclesioe catholicae episopus"2°.* Berak bakarrik aitortu zuan "Eliza Katoliko bateko gotzaia zala".

M.artziano zeritzan beste batek, nongo gotzaia zan esateke, izenpetzerakoan, "bere siniste katolikoagaitik", "ob *causamlidei catholice",* Toledo'n erbesteraturik aurkitzen zala, diosku.

Oroi, une artan Bisigotak eta beren erregeak ariozaleak zirala oraindik. Orregaitik, kontzlhokideek, erregearen izena aipatu besterik ez dute egiten, "Amalariko'ren bosgarren urtean", "Anno V *Amatarici regis"* bildu zirala esanez. Erregea aipatu utsa baiño askoz geiago eginen dute gero, ikusiko dugun lez.

Erantzunik ez duan galde bat datorkigu gogora: Ispanletako uri aundi danetan bezala, artako Urbel euskaldunean ere gotzai ariozale bat bai ote zan? Eta ¿ orregaitik esan ote zuan Justo'k, izenpetzerakoan, bera Ur-g,ergo gotzai katolikoa zala?

Oroi dezagun Justo au dala SebiLla'ko Isidoro Doneak bere "De Viris Illustribus" liburuan aipatu zuan *"urgelitemae ecdesiae"ko* gotzaia. Bestalde, oroi dezagun baitare, kontzilio artako azterketa-gaia, au izan zala.: "apaizak eta ezkontza".

527. Frantzi'ko egoaldean bada gaur Carpentras esaten zaion erri bat, antzi.fia "Carpentora" esaten zitzalona, An egin zan, nongoak ziran esateke gelditu ziran 16 gotzairekin urte ortako kontzilio bat. 16 aietatik ezpairik gabe izanen z.i.ran bat baiño geiago Euskalerri Zarretik joanak., eroso geldizen bait zitzaien kontzilioa egin zan uria.

Ez zitzaigun ura itzal aundiko batzarra gertatu, Asabek, soilki., parrokietara kristauek egindako emaitzetatik gotzaiek zer jaso zezaketen aztertzen aritu bait zitzaizkigun.

529. Arausi (Orange)'ko 11 kontzilloa: Pelajio'ren aurka Jalnkoagandiko Graziaren lenentasunari ta gizakum.eon naimenaren askatasunari-buruzko auzian argi-egiteko bildu zan Batzar ospetsua. Ez ziguten ordea ango gotzaiek beren elizbarrutien izenik eman.

Gai berari-buruz, bildu zan aldi artan beste kontzilio bat ere Rodano ibaiaren ondoko Balentzi deritzan urian, baiñan an izandako gotzaien izenik ez zaigu iritxi.

529. Galietan; egoaldean, Akitani euskaldunean ainzuzen, zegoan gaur Bazas eta len Basa, eta Bas (ablatibu eran Basa edo Baso), izendatutako erria. "Uriska Basatiar" ortan, (kontziliok.o agiriak dagerkiguncz *"h) Vico Vasense")* bildu ziran amaika gotzai. Au uritxo euskaldun ortako 11 kontzilioa dugu – 442'ean izan zan ba aurrenekoa baiñan oraingoan ere bertan bildutako amaika gotzai aiek ez ziguten nongoak ziran azaldu. Kontzilioaren gaia, soilki elizkizunetarako arau batzuk'.

532. Teudis bisigoten errege. 532' garren urte ontara arte, "Baldarra" zeritzan sendikoak izan dira, Eskandinabi'tik Europa'ra jetxi ziranez gero, Bisigoten buruzagi guztiak. Teudis au da, sendi ortakoa ez dan aurrenekoa.

533. Aurelia (Orlcans)'ko 11 kontzilioa, *ex praeceptione 171111 regum", "errege* anitz aintzatsuen aginduz" bildua. Ango 31 gotzaietatik aipa ditzagun Elusa'ko Aspasius metropolita, Konbenerri (Cominges)'ko Praesidius, Eleberri (Auel)'ko ProcuItianus. Ez bait zan Euskalerri Zarretik beste iñor joan.

535. Arberna (Clermont Ferrand)' eko I kontzilioa. Ez zan bertan Euskalerri Zarreko gotzairik aurkitu. Ez da arritzekoa noski, Kontzilio ura, dirudianez, probintzi-kontzilioa izan bait zan.

Ango Gotzaien artean, batek Katalauni'koa dala esaten du: "Lupu.s' *Christo episcopus ecclesiae Catalounicae" "Lepo* Kristo' ri eskerrak eliz Katalauniarreko gotzaia".

Ez zaitez arritu, Katalauni ori ez bait da gure egunotako au, orain Chalon-sur-Marne esaten zaion uria baIzik. Uri onen inguruan gertatu zan

---

[21.] Izen zuan art orrek izen-aldaketarik ugari, euskal-izen zer guztiei gertatu zaien kez. Ikus zer dieskun "Dictiormaire de Ge"ographielt (op.e. 3 I 4): "Civitas Vasaturn (eta Basatum), Civ. Vasatica, Civ. Vasateea, Civ, Vesateca, Civ. Vasatis. "Basatiarren uria omen zan": "Ville des Vasates dans ka Novempopulanie: BAZAS, aneren ēvēchc dans la Gronde; coneile en 442". 529'ko ti kontzikio au aijratzea aztu zaio iztegi bikain orri. "Vasates" izeneko Leiñu euskaldun orri,'Vaeates" eta "Basabocades" ere esan zitzaion. "Peuple de la Akitanie, oeupait le Vasatiensis Ager dans la Gaseogne" (ib), "Landa Battatiar" artako uri orren izena zer ote zan? Basa? Basate? Baso? Baso seguruaski, itz orrek azkeneko "o" izkia "a" biurtzen bait du atzizki lez beste itz bat akkartzen zaionean: "basati", "basauntza", "basarana"...

45 1. 'an Atila'ren aurka "Campi Catalauthei" edo "Landa Katalauniarretalw" borroka anker ocloltsu ura.

Gure Katalauni'ri "GHOTALANDIA ere esan oi zaio dokumentu zarretan. Ortik sortua ote du gaur daraman izena?. Ghotalandia'tik Katalandia eta Katalandia'tik K.atalaunia?

Kontzilioak eman zituan kanonetatik, kristauen juduekingo nasketa eragotzi naiez emandako bietaz gaiñera, bosgarrena zaigu azpimarragarria, Elizako kargurenbat edo beste zerbait, gotzaigoa adibidez, erregearengandik edo beste edozein agintari batengandik lortu nai duan oro eskornikatzen duana – *"res ecclesiasticas a regibus obtinere desiderantes, excommunicandos"* ori, Elizak bere jabetasuna yare gordetzeko izan zuan leiaren adigarri bait zaigu.

538. Aurelia (Orleans)'kolll kontzilioa, *"anno XXVII Childeherti regis"*.

An izandako 26 gotzaien artean ez da Euskalerri Zarrekorik agiri. Egiaz izen kezkagarria duan uri bateko gotzai bat agertzen zaigula ango kontziliokideen artean: "Arcadims *ecclesiae BITURICAE episcopus"*, baiñan BITURI zeritzan uri ori ez zegoan Euskalerrian, Akitania Prima'n baizik, egoaldetik Loira ibaiera doan Xer (Cher) ibaiaren alboan. Ain zuzen bera zan Akitania Prirna aren uriburua. Bourges darama gaur izen22.

---

22. Bituriges ots, BITURI.koak, esan zieten erromatarrek, Bordeke'ren egoaldera zegoan lei iu euskaldun bateko gizakumeei. BITORI du, berriz, izena, Araba'ren urihuruak. "Biturilik "Bitori-" ra – edo 'Bitori"tik "aitu-ri"ra – ez dago noski igaro-bide zaiklegird;; akderantziz, gauza ziurra dirudi itz bat bera diraka "Bitori" eta "Bituri". Bada. gaiñera. Araba'n bertan BILORI izeneko erri bat. Beste Silori bat berriz Naparroa'n Araba'rekingo mugan. Eta baita irugarren Bilori bat ere Errioxa Garaiean, Iru Bitori (:)ek eta errez izan daitezke itz bat beraren aldakuntzak. Ezagutzen dut Llodio'n, aski Gazteiz'tik urruti, 'Bitorika" izeneko lurralde bat ere. VI Santxo Jakintsuak, Gazteitz baserria arresiz inguratuz. Bitori biurtu zuanean: "condimus novam Vietoriam" Idatzi zuan katiñez. Geroago eraiki zituan urItxoetako bakoitzari ere "Bitori herriko araudia" "forum novae Vietoriae" ematen ziola idatzi oi zuan, naiz amar urte geroago izan. Eia amar urte geroago ez zan berria Gazteitz-gaiñean altxa zuan Bitori. An Gazteitz'en inguruan lenagoko beste Bitori bat ezagutzen zuakako siñake zorrotza. Ta ori egiztatzera datorkigu Rodrigo Jimenez de Rada Toledo'ko goigotzaia bere "Kronika"n: Gazteka'ko VIII AlIontso.k Naparroa'ko VII Santxo'ri lapur-onako urien berri latiñez ematerakoan "VICTORIA" bat aipatzen du aurrena, eta kau ]erruz geroago, beste uri-saik bat aipatuz gero, beste "NOVA VICTORIA" bat. Baietz! "Bitoria" izen euskakduna duguka!

Kontzdtoko kanonetan, batek, l'ak, 1(ontzilioetara. joan bearra ber-oroitzen die gotzaiei. Uts egiten *dutenek,* urte osoz mezarik eman gabe egon bearra izango dute zigorra.

Beste ba.tek, gotzaiak nola aukeratu bear diran erakutsiko digu: Metropolita, probintziko gotzaiek aukeratuko dute, bañan "cun *consensu deri vel civium eligatur",* ots, "elizgizonen eta erriko jendearen oniritziarekin aukeratu bitez".

Oso polita, autakera orren egokitasuna adieraztearren damaigun arrazoia: "Zuzentasunari dagokion. gauza ban da, Aulki Done berak esan duan lez, guztien lendakari izan bear duana guztiek autatua izatea": "quia *aequum est sicot ipsu series Apostolica ut qui praeponendus est omnibus, ab omnibus eligatur".* Ez. zan noski Aulki Donea baldar

.Metropolita ez dan gotzai oro erriak aukeratua izango da, metropolitaren oniritziarekin.

Kostantino Inperatorea Elizaren laguntzaille biurtu z.an ezkero, goz.atu zuan Elizak ordurarte gudarozteei izandako susmo makurra, bainan ez osoro, kontzilio onek kristauei "meza entzutera gudarako erabilli oi diran joatea" debekatu bait zien kanon batean: "ne *quis cum rn-mis pertinentibus ad bellorum usum spectet",* eta beste batean, Penitentzi-ondorengo barkapena artuz gero gudaroztera sartzen zana, "gudaroztetik irten arteko eskomikapenaz zigortu bait zuan": "usque *ad exitum e.vcomicatione plectatur".*

Antziñateko Eliz. arek oraindik begi okerren ikusten zuala gudaritza!

Baditu bi kanon juditzen eta kristauen arteko zuloa aldatzeke iraun zezan emanak, eta baita beste iru, lekaide ta lekaimeentzat ere. Abatei., eta apaizei, gotzaiaren baimenik gabe elizarenak eta lekaidetxecnak diran gauzak "alienare", "besterentzea", galerazten zaie.,

540. Bartzelonako I kontzilioa. Zazpi gotzai izan zituan. Beren rrutietan euskaldunak izan zezazketenetatik, iru: Anpuri (Ampurias)'ko Kasozio, Ilerda'ko Ander, eta Gerona'ko Estafilio. Aipa dezagun Salduba'ko Yon ere.

Ez dute, guretzat, probintzi-kontzilio onen kanonek garrantzi aundiegirik. Bai ordea an izandako gotzaien zerrendan aurkitzen ditugun utsuneek. Tarrakonentse Ellz-Probintziaren sarkaldeko gotzaietatik ez bait zan. bat bakarrik aruntz agertu. ¿Gotzai aien uriak, orduan, Baskoien eskuetan zeudelako ote?

Agertu zuan kontzilio onek ere ia kontzilio danetan ikusten ari geran lekaidetzari-bu ruzko ardura; "Lekaideei, K tzedoni" ko kon tz 1 oak agi n-dutakoa bete dezatela, birr-agintzen diegu guk ere". Eliz osoarena izan zan aro artan, lekaidetzagauako ardura!

Guk ordea, Euskalerri Zarrean Sarkaldeko lekai.detzaz albiste ugari dugun bezala, apika dugu Sortaldekoaz albiste labur askorik.

541 Frankiarrek Bisigotiarren aurka gudan dabiltza. Kildeberto ta Klotario bi errege anatek, euskaldunak uste gabean artuz, Orreaga-zear sartuta, iruña artu dute, Salduba' ra bidean. Ezin izan dute, ordea, uri aundi eder au menderatu, eta berriro Gabetara t.zultzerakoan, Euskalerri osoa igaro dute, ostera, egotik iparrera. Ta. ondo ezagunak dira orrelako joan-etorrietan gudarozteek egiten zituzten ondamenak.

Ez bisigoten ez frankiarren kronika zarrek ez digute guda artan euskaldunek izan zezaketen eskuan deus esaten; bainan, bidean arrapatzen zutenetik bizi oi ziran gudarozte aiek Euskalerrian egin zuten kaltea usmatzeko, hai, bide-ematen digu edestilari frankiar batek.

Ala idatzi aal izan bait zuan "Vietor Tununnensis" gotzaiak bere "Kronika"n: "Hoc *wino Francortun reges, per Pampelonam ing res Caesaraugustam venerimi: obessa per qtuldi-aginta novon dies, emnem lore Tarraeonen.sem provinciam depopultnione cariverunt".*

Euskeraz: "Urte ontan Frakiarren *erregeek* irtffia-aldetik Ispanietara sartuta, Salduba'ra etorri ziran eta berrogei ta bederatzi egunez euki zuten uri ori estu inguraturik, eta Tarrakonentse izeneko probintzia, ia osoki ondatu zuten"'?.

Turona'ko Gregrio'k ere badamaigu guda motz aren berri, eta bi errege frankiar aiek, ordura arte "lapurtutakoa galduko zutelako bildurrak eragin-da" itzuli zirala, diosku, ain arin Galietara: *"Iimentes se a spoilis redierunt".*

Izketa orrek arrazoizkoagoa dirudi, Frankiarrek Salduba ez artu izatea zuritzeko Gregorio berak dioskun beste onako onek baiño:

Saldubatarrek, beren uria ala inguraturik ikustean, izkilluak artu bearrean, Done Bixente diakonoaren jantzia izan omen zan artu zutena, eta bat e g iN omen zuten jantzi ura ikurrin lez aga baten muturrean zutela, arresien gaiñean, zerutiko faguntza eskatuz. Eta frankiarrek ori ikustean,

"ikaratuta uria artzeari agur egiñik itzuli omen ziran": "Quod illi *timentes, se ab ea civitate remoyerunt".*

"Baiñan Ispani'ren zatirik aundienera sartu bait ziran, aberastasun oparoz beterik itzuli ziran Galietara": "Tamen *adquisitam maximant Spaniae partem, cum magnis spoliis redierunt"* (His. Franc.

Beste era batera aurkezten digu Sebilla'ko Doneisidoro'k gertakizun ori:

Bi errege aiek zenbatu ezin aiña gudarirekin *("infinitis copiis")* etorri omen ziran Ispanietara, eta Tarrakonentse probintzia gogor ondatu omen zuten, baiñan Bisigotek lspanietako mendatea] itxi ondorean Teudiselo buruzagi. zutela, erabat garaitu omen zuten frankiarren gudaroztea.

Bizirik gelditu ziran frankiarrei, Teudiselo'k, dirutza aundi baten truke, gau t'egun bateko epea eman omen zien iges egin aal izateko, ta epe ortan iges egiterik lortu ez zutenak bisigotiarren ezpatak erail omen zituan ("Hist. Goth. 283)24.

Nolabait Isidoro Deunari arrazoi ematen diola dirudi Jordanes'ek ere, Franklarrek gudu artaz idatzitakoa "calumnia", "gezur zikiña", dala esaten bait du. Bañan buruan euki bear dugun gauza da, Jordanes, naiz *"origine Alanus", "endaz* Alandarra" izan, Gotiarren miresle aundia izan zala, auen edestia idatzi zuala *("De Getarum origine et rebus gestis"* ("Gotiarren jatorria ta ekintzak"), gotiarren artean bizitu zala Itali'n, esan oi danez, angio Errege Ostrogotoen serbitzura eta agian Itali'ra bertan Krotona'ko gotzai ere izan zala. Mifie'k,"Patrologia Latina" izeneko bilduman Rabena'ko gotzai egiten du: "Jornandis *seu fordani episcopi Ravennatis". "De Getarum sive*

---

24. Ona, Isidordren "Aera anai imperii Justintani post Amalaricum, Theudis in Hispania creatur in regnum annis XVII (mutiko gaztea, dakusanmez), qui dum esset baeretteus, pacem tamen coneessIt Ecclesiae, Adeo vt kicentiam eatholicis episcopis daret vt in vnum apud Toletanam vrbem eonuenire et quacelunque ad Ecclesiae disciplinam necessaria extitissent hbere I icenterque disponere. Eo regnante, clum franeorum rege~ cum infindis eopris in Hispaniarn conuenissent et Tarraconensem prouincram beklo depopularent, gothi, dute Theudiseko, obieibus Hispanicte interclusis, franeorum exereiturn multa cum admiratione vctoriae postrauerunt. Dux idem, prece atque ingenti peennia sibi oblata, viam l'ugae hosttbus residuis ius diei noctisque spato praebuit. Cetera infelicium turba cui transitus coklati temporis non oecurrit, gothoum peremta gladio concWit".

*Ghotorum Origine et Rebus Gestis" liburua, Migne' ren bilduman* dago: LXIX, 1251-1295

Ez da erreza gudate artan zer gertatu zan jakitea, baiNan zerbait jakingarri jasotzeko, egokia iduritzen zaigu xeetasun auek gogoratzea:

Edestilari zar aietako bakoitzak bere errotara eraman oi zuala iturrietako ur guztia, ikusi bait dugu, frankiarrek beren gudaroztearen goratzarrea eta Isidoro"k Bisigotiarrena egiñez, idatzi zutela borroka artan jasan zana.

- Orregaitik ainzuzen, Frankiarren eta Bisigotiarren edestilari aiek ez dutela uste on anndiegirik merezi.

- Batez ere, uste onik txikien Euskalerriaz mintzatzerakoan merezi dutela. Izugarria izan bait zan bai Frankiarrek bai Bisigotiarrek euskaldunei izan zieten bildurra, eta bildurra bezain aundia, berriz, gorroto zakarra.

Gauza bati-buruz etorri dira bat aipatu ditugun edestilariak: Frankiarren gudarozte ark izugarrizko gaitzak egin zituala Tarrakonentse'an. Batez ere, izugarriak, Euskalerrian egiñak, ezpairik gabe; emendik igaro bait zan bai on.untzakoan eta bai aruntzakoan ere

Baiñan Klotario ta bere frankiarren eraso arek ez zuan Euskalerriko kristautasunean, eta ezta politik'eran ere batere eraginmenik izan. "En kr *segunda mitad del siglo VI los bascones aparecen como independientes"* diosku Goñi Gaztambide'k. (op,e,42). Ta..., la primera mitad" ez, adiskide‘?

541'? Gaur uriska bat dan Senone frantziarreko Leon gotzaiaren gutuna, "Kildeberto errege jaun argiari, jaun txit aintzagarri eta Kristo'gan nere semeari": "Domno *donmo et in Christo fitio Childeberto regi".*

Leon'ek bere elizbarrutian bazuan Meledun izeneko uriska bat. -Uritxo ori uri gotzaiduna ta elizbarruti berri baten buru biurtu nai izan zuan Kildeberto'k. Ortarako Leon gotzaiari oniritzia daskaio. Leone' k ordea naiz eraspen aundiz eta oso izkera ezezkc-}a damaio.

Orretxegaitik ainzuzen jaso dugu orri auetara eskutitz ori: Elizbarruti berriak sortzerakoan Errege barbaritarren eta Elizaren buruzagien arteko arremanak nolakoak izan zitezkean jakiteko adigarri izan daitekealako.

541. Aurelia (Orleans)'eko IV kontzilioa: Ona batzar ortako kontzilioki-de euskaldunak: Elusa (Eauze)'ko Aspasio, Aize (Dax)'ko Karterio, Tar-bes'l«) Juliano, eta Eleberri (Auch)'ko Prokultziano. Aipa dezagun, baitare, bere elizbarrutik.o zokoetan oraindik euskaldunik izan zezakean Bordele'ko Leontzio,

Kontzilioko k.anonen artean, iru zaizkigu aipagarriak iduritzen: bata, juditzen eta kristauen arteko [arteak ezabatzeke jarrai zezan eman zuana; bestea, abatei eta apaizei – lekaidetxeentzako edo parrokientzako emana, beraiei emana lez artu ez zezaten emandakoa; eta irugarrena, "batai.a.tua izan ondorean" *quis post acceptum baptismi sacramentum")"sasijaikoen* omenez eraildako abereen aragia jatera itzultzen dana" *("ad immolata daemo-nibus sumenda revertitur")* eskomikatzen duana.

Galietan jentiltasunak bizirik jarraitzen zualako adigarri mardula dugu, lurralde aren erdian, Aurelia (Orleans)'en emana izan zan azkeneko kanon

ijarraitzen ote zuan jentiltasunak Euskalerrian ere? iNor ote ziran Galietako jentil aiek? 50 urte rnotzez kristau ziran ango erregeen mendeko frankiarrak? Edo, balta Frankiarrak ara agertu aurretiko galitarren semeak ere? Agertuko zaigu galde oien erantzuna.

546. Ilerda edo Lerida'ko kontzilioa. "Anno XV Teodorici. regis". VI mende ortan Ilerda'ren probintziko lurraldea arras menditsua da-ta, ez litza-ke batere alukeri bat izango, mendietako jendea 546'ean "eunetikako" edo "%" aundi-aundi-txit-aundiz euskalduna izango zitzaigula uste izatea, naiz Uria bera elebiduna izanen zala ontzat artu: elebiduna, euskera ta latiña: euskera jende langillearen aldetik; kulturatuen aldetik; seguruaski, Bisigoten germanierarik ez bait zan an iñoiz mintzatuko.

Orregaitik zaigu euskaldunoi ain. kilikagarria mende zar aietako Ilerda'n gerta izan zitekean guztia.

Zortzi. dira Ilerda'ko kontzilio ortan alkartutako gotzaiak. Zortzi. oietatik lauk bakarrik eman zuten beren nongotasuna, baiñan lau aiek bezala beste lauak ere Tarragona'ren Eliz-Probintzikoak izanen ziran, ezpairi.k. gabe.

Anitz oroigarria zaigu kontzilio ortako 1 kanona, etsaiak inguratutako erri baten barruan aurkitzen diran elizgizonei gudarako izkillurik artzea debekatzen dielako. Izkilluren bat erabilliz borrokan etsaien odolik ixurtzen duan elizgizona bi urteko eskomikapenaz izanen da zigortua. Ta bi urte oiek.

penitentzigintzan gogor igaroz gero ere, ez cll beiñere elizgizonen mailladian goragoko mailla batera jasoa izango.

Bada, debeku ori euskaldunen erasoei begira emana izan zala uste izan duanik. Ala, adibidez, M.Rouche ta E.A.Thompson.

Bainan era berdifiean esan daiteke Bisigoten erasoei begira emana izan zala. Naiz Ilerda agian elebiduna izan, bere elizbarrutia eta baita kontzilio artan egon ziran beste gotzai batzuen elizbarrutiak ere, kopuru aundiz euskaldunak bait ziran ezpairik gabe.

Bisigotak, berriz, Galietatik lotsagarriki alde egin zutenez gero, Ispanietan beren erreifwa sendotzen zijoazten eran asiak bait ziran noski Ibero zear euskaldunei erasotzen, dirudianez; naiz, gure Asaben aurkako, aien lenengo eraso ezaguna Leobigildo'ren denborakoa izan.

, Arritzeko gauza izango al litzake, seguruaski beraiek ere euskaldunak ziran Auñamendi-alde guziko erri euskaldunetako apaizak eta diakonoak beren eliztarrekin batera atzerritarren erasoen aurka bein baiño geiagotan joan izatea?

Kontzilioak ordea ez du ez Bisigotik ez Euskaldunik Elizaren erarik garbienean, "elizgizonak odol-ixurketa orotik garbi izan bear dutela, dio, naiz odol ori etsaien odola izan": "ab *o11111i htunatio sanguine tharn hastili abstineani".*

Elizak errez itzegin zezakean orrela 564 artan, ereje arianikeri-zaleak bait ziran oraindik Bisigotak, eta auen errege ariozaleak ez bait ziran Elizaren eginkizunetara sartzen25.

---

[25] Egia da 5 urte kenago izan zala goraxeago aipaturik utzi dugun Naparroa-zear Tarrakenetse'ra Frankiarrek egindako sarrera; ta, orregaitik kontzilio ilergetar arek apaiz ezpatazaken aurka emandako agindu ura, Frankiarren sarrera artan agian gertatutakoaren eraginez emana izatea. Baiñan une aiek ezkero Bisigotiarren – eta Frankiarren – etsairik gogorrenak, menderakaitzenak eta bildugarrienak, euskaldunak izango dira. Apaiz euskakdunentzat, ordea, Frankiarrak bezain etsaiak ziran Bisigotiarrak. eta ilerda'ko kontzikioaren ardurapeko apaizentzat, ots, euskalduna zan Auñamendiaren egoalde luze zabaleko apaiz euskakdunentzat askoz etsaiagoak Bisigotak Frankiarrak baiño, Ez litzake zentzugabekeri bat izango lege ura, beren errietako gizonekin bat eginda Bisigoten aurka mendira jo zezaketen apaizentzako emana izan zala uste izatea.

Badu kontzilio onek, gauza jakingarriak damaizkigun beste kanon bat ere: Ikus:

Apaiz sagaratuak izan bear dute, gotzaiak bere Elizaren onerako bearrezkoak uste dituan lekaideak: baiñan abataren baimenarekin.

"Lekaidetxe bati emandakoa, gotzaien almen orotik eta baita elizbarrutiko Iegeen indar' orotik ere yare, libre, izango da": "Ea *vero quae irl larre monasteril de facultatibus offeruntur in nullo dioecesana lege ab episeopis contingantur".* Ona, gai auetan aritua dan Vives'en itzulpena: *"los bienes que son ofrecido.*[y] *al monasterio no quedan sometidos en nada a admin- istraci6n diocesano del obispo".*

Norbaitek eliz bat eratkitzen ba'du, eliz ortan gotzaiak onetsitako araudi baten pean lekaide-talde bat bizi ez ba'da, naiz eliz ori "lekaidetxe" izenez ornitu, ez da elizbarrutik.o legediatik at egongo.

Badu erabaki onek garrantzirik aski, gero Euskalerrian bertan ikusiko dugunerako.

Oroi dezagun baitare lekaime baten birjintasuna indarpean urratzen duanarentzat kontzilioak jaurtitako eskomikapena.

Gotzaien izenpenetatik azpimarratu ditzagun bi: "Paternus *in Christi nounne eccleSiae eatholicae Barcinonensis episcopus"* eta "Maurilio *ecclesiae catholicae Dortosanae episc..opus ".* Bi gotzai oiek, bakoitza bere uriko Eliza katolikoaren gotzai zirala esateak, seguruaski, bai Bartzelona'n eta bai. Tortosa'n, Eliz arianitarrak bazirala adierazi nai digu.

546. Balentzi espathiarreko kontzilioa.: 7 gotzai alkartu zituana, baiñan nongoak ziran esan ez zigutenak. Erabaki zutenak ere ez du guretzat garrantzi aundiegirik.

548 Teudis errege Bisigotiarra, ezpataz erailla. Teudiselo errege.

549. Aurelia (Orleans)'ko V k.ontzilioa. Kontzilio oparoa, 71 gotzai aurkitu bait ziran bertan. Euskalerri. Zar.rekoak: Elusa' ko Aspasio, Akize'ko Liberio, "Liberius *in Christi nomine episcopus ecclesiae Aquensis",* (eta *"Avolus irr Christi nomine episcopus ecclesiae Aquensis").* Agino (Agens)'ko Bebiano, Konbenerri (Convene)'ko Amelto, Laktora (Lectoure)'ko Alezio, Eliberri'ko Proeultziano "ProculciamL[y] *episcopus ecclesiae Auscensi,v"* (Akitant'ko gure Eliberri' ri "Augusta Auseiorum" ere esan bait zioten erromatarrek). Ortik "Ausei" eta orain frantzeraz daraman izena: Auch.

Ikusi duzunez, zerrenda ortan bi gotzai agertzen zaizkigu Aulki batera-ko: "Avolus *in Christi nomine episcopus ecclesiae Aquensis",* eta "Liberfu,s *in Christi nomine episcopus ecclesive Aquensis".* Bi oietan ordea Liberio dugu Akize'ko gotzaia, ots, orduango Aquae Augustae'ko gotzaia. Bestea, Abo!o, gaur Aix eta orduan Aquae Sextiae esaten zitzaion uriko gotzaia bait zan.

Naiz gure edestirako gitxi bereiziak izan ez, aipa ditzagun kontzilio ontako iru kanon:

- II'a, gotzaiei "akats aririengaitik", "pro *levibus causis",* iñor eskomi-katzea debekatzen diena. Ondo bearrezko kanona, baiñan, itxuraz beintzat, gotzaiek arreta aundirik gabe artu izan dutena, arrazoi benetakoegirik gabe, maiz aski, eskomikapenak jaurtiz jarraitu izan bait dute edestia-zear.

- elizgizonei, – bitez gotzai, bitez hereter, bitez diakono sen-dikoak ez zituzten (eta zituzten! emakumeekingo geiegizko adiskidetasunik, *("de extranearum mulierum aut etiarn propinquanan landliaritate")* alde egiteko ag intzen diena.

Agindu ori ia kontzilio guztietan aurkitu dugu, eta aurkituko dugu. Izugarria zan gotzai jaun aiek emakumezkoei zieten bildurra. zirikalari arriskutsuak ote ziran ba. aro aietako emakumeak?

- a, Metropolitak bere elizprobintziko gotzai guztiekin urtero kontzi-lio bat egitera beartzen dituana. Sarritan agertu oi da agindu ori beste kontzi.-lioetako kanonetan ere, kontzilioei ematen zitzaien garrantziaren adigarri. Baiñan... agindu ori... ¿ ᵦetetzen ote zan?

549. Teudiselo ezpataz erailla. Agila errege. Ostera anaiarteko gudua bisigoten erreiñuan.

*550?.* Arberna (Clermont Ferrand)'eko II kontzilioa[26]. Ango amar gotzai-etatik, bat bakarra Euskalerrikoa: Elusaben-i' ko Metropolita: "Aspasitts *eccle-siae Elosensis episcopus".*

---

[26] Izen asko izan ditu garaia artako "Aquitania Prirna"n dagoan uri eder orrek. Izen oien arte-an, "Gergobia" ("Gergovia Arvernorum"), "Areverno" eta "Arroverno". "Lenen Akitani" aren uriburu zan Bituri (gaurko Bour-ges"en) egoaldean aurkitzen zan "Arberna" edo Arbernatarren Uri" ori. Ez dut ezer fedezko egia lez erabaki nai, bainan izen oiek danek iez al daramate sekulako euskak-tnati nabarmena?

Orleansl«) V'aren kanonak banaka-banaka argiagotu ta berrindartu besterik ez zuan Arberna'ko onek egin.

550. Gaur Teoul eta orduan Tullensis esaten zitzaion uritxoan egin zan urte ortan kontzilio txiki bat eskomikatu batzuen erasoetatik Treves'ko gotzaia – Nicetims *episcopus Trevirensis"* babesteko.

Kontzilio ori, an bildu ziran gotzaiek beraiek egiztatzen diguten bezala, "erregearen aginduz", "Theodebuldi *regis iussu"* izan zan egiña eta soilki "gotzai ark jasan oi zituan nekeengaitik", "prepter nwlesticts *quas episcopus patieb(Uur".*

Orregaitik ainzuzen ekarri. dugu gure orri auetara: Frankimen erregeen eta gotzaien artean ere alkartasuna legezko gauza baten antzeko zerbalt zala aztu ez dezagun.

551. Bisigoten erreiñuan, laterkide arteko guduan, Atanagildo garaille, laguntzaille deitu zituan Bizantziotarrei eskerrak.

554. Arelate (gaur Arles)'ko V kontzilioa, "Kildeberto errege Frankiarraren 43' garren urtean", "Childeberti *regis anno quadragesimo tertio"n* egiña.

Lekaidetxe eta lekaimetxcentzat agindu zorrotzak, kontzilio onek eman zituanak:

- II kanona: Lekaidetxeak gotzaiaren esanera beude.
- Abatak eZ bitez gotzaiaren baimenik gabe lekaidetxetik urrun arat-onat aldarrai

V'a: Lek.aimetxe..ak, gotzaien zaintzapean beude. Abatemeek ez bezate lekaimetxeko "araudiaren aurka" *("contra regulan")* deus egin.

Gogoan gorde bearra dugu, baita, lenengo kanonean agintzen dana ere:

"Arelate'ren elizprobintziko gotzaiek, meza, Arelate'n eman oi dan bezala eman bearra", alegia: "Oblata *altaris ab episcopis provinciae ad forman Arelaten.vis ecclesiae ofc?rantur".*

Orra or, ordurarte elizbarruti bakoitzeko gotzai bakoitzak yareki erabiIli oi zuan bere liturgi bereizia ezabatu naiez, danei liturgi bat berdiña erabi-1.1i.erazteko, Metropolita baten saiaketarik goiztiarrenetako bat. Frankiarren artean bezala Bisigoten artean ere, ►etropolita guztiena izan zan beren

egia probintziko elizbarruti guztietara zabaldu nai ori, eta agertuko zaigu beste kontzilio batzuetan ere.

aGak zer esan?

- Ematen duanez, ez ziela gotzaiek. metropoliten leiari jaramon aundiegirik egiten.

- Metropoliten jardunkerak adierazten duanez, ez zala beiñere, ez Liturgi Galitar bat, ez Liturgi bisigottar bat, izam

- Oker dabiltzala, beraz, Euskalerriko Elize.tara VI eta VII mendeetan Liturgi Bisigota edo Liturgi Merobindarra sartu ote zan galdezka dabiltzan guztiak.

Danadala Arelate'ko kontzilio artara ez zan Euskalerrikorik iñor joan. Kontziltokideen zerrendan aurkitzen dan "Avidus *episcopus ecclesiae Aquensis"* ura, ez bait zan "Civitas Aquarum Tarbellitarum" edo Akize'ko gotzaia, aiztintxe esanik utzi dugun lez, "Aquae Sextiae" esan oi zioten Aix'koa baizik"-)

554. Agila errege-nai hisigota bere lagunek erail. Atanagildo Bisigoten errege bakarra. Len laguntzaille deitutako Bizantziotarrak, orain, bere erreiñutik jaurti nai lituzke. Alperrik, Bizantztotarrak Españi'ren egoalde osoan jabetu bait ziran: Balentzi'ko Jukar ibaieti.k asita Murtzi ta Andaluzi ta Potugareko Algarbe guzia-zear Atlantik itxasora arte. 70 urtez egon ziran Ispanietan..

---

[27] Dax esaten zaion uriak bere gaurko euskal-izena,AKIZE, antziñako "Tarbella" edo "Aquae Tarbelkitanae"ren "Aquae"tik sortua duaka, esango nuke Azkeneko izen orrek, "Ur Tarbelitarrak" edo "Tarbeit'ko Urak" esan nai du. Tarbelli ordea, kateraz, Tarbe'ren nipitze edo "diminutiboa" da, Beraz, izen o i en enborra TARBE dugu. "Tarbes" izenaren enbor bera. ;„Euskakduna ote? Bai nosk i . Gaur, "Tarbe", Donosti'ko abizen bat da. "Be" atzizki euskalduna dala, esan bearrik ez da. "Tar" z.er izan daitekean jakitea dogu Danadala, 16 abizen eta tokiizen aurkituko.ituzu Kerexetaren iztegian. Geienak Iparraldekoak, Zuberolo Tardets bezala. Kerexeta'k "Tarbe"ren etimokogia, Lopez Mendizabart jarraituz, – eta nere ustez ez dabik gaizki (mako au dala diosku: "A.rbe con T protetica" ('Proft;tica", elenerazko "protizerni"tik: euskeraz "aurretik-jarr"). Bañan beste izen bat ere izan zuan Akize'k aspakdi artan: "BIBIO". )Euskalduna? Badirudi. Edozein moduz ere, Akitani Euskaldunaren erdi-erdian zegoalartk naitanaiez izan bear zuan euskakduna Akize'ren jatorrizko izenak.

561. Bracara (BragaI'ko l Kontzilioa, "ex *praecepto gloriosissind regis" "Ariamiro* gure errege txit aintzatsuaren aginduz", Galizi.'ko arazoak zuzentzeko kontziliokideek beraiek idatzi zutenez.

Zintzo agertu zizkioten, gainera, Ariamiro erregeari, beren esker on eta poza, "gure semea" izen-emanez: "Gure seme txit jainkozale ta aintzagarri onek„;annaren eragiñez bere errege-agindua bitarte, ain irrikagarri genduan egun ontara iritxi aal izatea eman digulako". Entzun itz oiek gotzai suebiar aien latera txukunean:

*"Nune igitur quoniam ob tantum wthis huhts congregationis diem sissanus atque piissanus filius noster adspirante sibi Domino regati praecepto concessa".*

Arimiro erregea, Suebiarra zan. Espain'ren ipar-sarkaldean bizirik bait ziraun oraindik., la.ister Leobigildo'k ezereztuko zuan Suebiarren Erreiñuak. Braga berriz gaurko Portugar en, Galizi'ko eliz-probintziaren bi metropor u-rietako bat zan. Bestea, Lugo.

Zortzi gotzai bildu ziran kontzilio artan, eta Euskalerriaren Eliz-Edestirako garrantzi aundiko gaia erabilli ziguten: Priszilikeria.

Bai bait dakigu, bere tokjan azaldu genduan lez, zenbateraifioko arrakasta lortu zuan erromatearen azken urteetako Euskalerrian Prisziliano' ren dotriñak.

Ona orain emen, Asaba aiek prisziikeriari leporatu zizkioten txarkeriak:

I: Jainkoa-baitango Irutasuna ukatzea:

"Irutasuna" bera pertsona bat ba'liz bezala JainkoareirutasUna-baitan sartuz, Irutasuna Lautasun biurtua.

Miren Neskutsagandik jaio artean Bigarren Pertsonik izan ez zala erakusten: *("Dei antequam ex Virgine nasceretur non esse).*

IV: Kristo egiazko gizatasunik gabe jaio zala esatea, eta. orregaitik Kristo'ren jaiotza eta igande guztiak bara eginez ospatzea. ¿ zergaitik "igande guztiak"? Nere ustez, latera igandeari "dominica" esaten zatolarik, igande edo "dominica" guztiak. gorotzez jaiotako Kristo Jaunaren egunak diralako.

V: Aigeruak eta gizakum.eon arimak Jainkoaren zertasun beretik sortuak dirala esatea: *("ex Dei substanaa exiisse").*

Vl: Gizakumeon animak jaio aurretik zeruan oben egin zutelako, orputzetan sarturik munduan bizitzera jaurtiakk izan zirala esatea.

Deabruak egillerik ez duala, alderantziz, ezereztasunaren zurrunbil-Iotik *("ex caos")* eta illunpetasunetik *("ex tenebris)* sortu zalako bera dala bere buruaren egille eta gaiztotasun ororen sortzaille *("principhan* esatea.

Deabruak izaki batzuei sortzea eman diela *("aliquantas creatnras fecerit")* eta, tximist eta abar, izadiko gaitz guztien egille dala esatea.

IX: Gizakumeok ortziko izarren mendean gaudela esatea.

X: Ortziko amabi izar-taldeetako bakoitzak zer-ikusirik baduala gizakumeon animaren eta gorputzaren gai *("inembra")* bak.oitzarekin ("in *singulas annni et corporis menbra").*

XI: Ezkontza eta gizakume berrien sorkuntza gaitzestea:

XII: Gizakumeon gorputza cleabruaren sorkuntza dala, eta amaren sabelean gizakume bakoitzaren gorputza deabruak egiten duan gauza dala, eta, orregaitik gorputzaren berbizkunderik ez dala, esatea.

XIII: Aragizko ororen sorkuntza ("creationem *universae carnis")* deabruaren lana dala esatea.

XIV: Okela – ta okelarekin egositako barazkirik – jatea, pekatu dala esatea.

XV: Elizgizonei eta Iekaideei, naiz aide urbillak ez dituzten emakumeekin ere bizitzea zillegi zaiela esatea.

XVI: Ostegun Santu egunez, barau egiteke ildakoen meza eman bear Jale esatea.

XVII: Prisziliano'ren liburuak eta beste edozein erejek idatzitako ruak, Pa.triarkenak edo Profetenak edo Apostoluenak ba'lira bezala irakurtzea.

Baiñan... IV eta V mendeetan priszilikeria onartu omen zuten euskaldun kristau aiek horrelako okerkeri Iarriak sinisten zituztela egia izan ote daiteke?

Ez. Kristau euskaldun aiek ez. zuten orrelakorik sinistu. Ezta no'k berak ere.

Kanon oiek irakurtzean, Iaister eta errez oartuko ziran gure Apaiz jaunak Braga'n bildutako Gotzai Jaun Suebiar aiek, Prisziliano'ren Iepotik esegi zizkigutela, ordura arte Elizaren edestian sortutako ereji nagusien okerkeririk nabarmenenak; gnostikeri eta manikeriarenak bereiziki.

Oso zailla da Prisziliano'ren erej i a zertan egon zitekean jakitea. Erejea izan zalako, esan oi da, eriotzara izan zala epaitua; eta bera dugula ereje izateagaitik Elizak eraildako lenen gizakumea.

Baiñan, ori, ez da egia. Ez zan, Elizaren justiziak epaitua izan., Inperatorearenak baizik; eta, ez erejea zalako; magiara, ots, zentzu gaiztoko sorginkerira, emana omen zalako Magia, berriz, beti. egon zan Erroma'ko inperioan eriotzez zigortua.

Lentxeago, Salduba'ko kontzilioak ere, ez zuan priszilikeriaren erejirik gaitzetsi: Soilki priszilikeriak aszetikari-buruz erakusten zituan geiegikeriak eta okerkeriak gaitzetsi zituan.

Eta oiek bai, dogmaren arloan Prisziliano' ]c izan zezazkean erejiak igartzea arras zailla dan bezala, oso erreza da bere aszetikaren okerkeriak ikustea.

Dogmaren arloan, Prisziliano'ren irakaskintzan gnostikeriaren eta manikeriaren aztarnak usmatu oi dira, bainan gure doneen idazkietan ere, done oiek zerutiko jakintzari-buruz edo gorputzaren zigorketari-buruz idatzi zutena, orraze estuegiaz orrazten asi ezkero, nork ez luke gnostikeriaren eta manikeriaren margoa dun esakizun bat baiño geiagorik errez aurkituko? Ori, bereiziki, gure aszeta doneen idazkietan.

Prisziliano berriz aszeta zan, ez dogmalaria. Aszetika erakutsi zuan, ez dogma.

Eta aren aszetikaren oiñarrizko okerkeria, aszetika berari Elizaren beste barne-bizitzarako bide guztiei eta agian baita sakramentuei beraiei eta ez? Jerarkiari baino garrantzi geiago ematea izan zala, esango nuke nik.

Eta, orren ondorioz, eremuetako bakartasunezko bizitzari, elizen barruan argi dizdiratsu eta oparotasun aberatsez egiten dan jainko-gurketari badio balio geiago ematea, edo, berdin dana, bakartasunari eta garbai edo penitentzigintzari Elizako Liturgiari eta liturgiaren barruan bizitzeari baiño balio geia g o ematea.

Giro ortakoak izan ziran ainzuzen 380' ean Salduba'ko I kontzilioak gaitzetsi zituan Prisziliano' ren geiegik.eriak. Onako auek, ainzuzen:

Igandeetan barau-egitea eta garizumaz elizetatik iges bakartasunera aldeegitea (II kanona); abenduaren 17'ti.k. Errege-egunera arte, (ots, Y osu'ren

jaiotza ospatzen danean) igesketa berdiña egitea (X kanona); aoaiztasunaren gaindik lekaidetza geiagotzat etsitzea (VI kanona)

Ta, emakumeen artean lortu bait zuan Prisziiiano'k uztarik mardulena, neskatxen lekaimetzarako zaletasun txorabiatu ura bein betirako eragoztearren debekatu zuan Salduba' ko kontzilio ark "neska lekaimegal bati, berrogei urte beterik ez ba'zituan, orduan lekaimetzaren adigarri zan, buru-zapirik ematea": "ante *quadraginta annos sanctimoniales virgines non ..,elenttir"* (VIII kanona)[29]. Agindu ori birremana izanen da geroagoko beste kontzilio batzuetan ere.

Bete-betean asmatu zuten, beraz, Braga'ko Kontzfflokideek XIV kanonean, bertan debekatzen dutena oso-osoan oriszilikeria dalako. Bañan ez daiteke ziurtasun berdiñez aitortu X. idazterakoan ain antetsu ibilli ziranik, aragikerizko okerkeririk ez bait zitzaion beiñere Prisziliano'ri leporatu izan zan arte, edo, ez beintzat bere azken-urteetan etsaiengandik alako gorroto bizia gaInera etorri zitzaion arte.

Soilki. bi kontzilio egin ziran Priszifiano'ren aurka: Bata Salduba'n, 380'an; lau urte geroago bestea, Bordele'n, 384'ean. Azkeneko onek ez zuan erabakirik artu, Prisziliano'k Inperatorearen epai-maiera dei egin zualako.

Salduba'k orduan, iparraldetik eta sarkaldetik bere arresiko atarietatik ber-bertan zeukan Euskalerria. Ez urrutiago Bordele'k bere egoalde guzian Garona ibaietik onuntz.

Ba, alde batetik, Prisztbano'ren aurka egindako bi kontzilio bakar oiek Euskalerriaren goiko ta beeko bi mugen albo-alboan egin izate orrek Euskalerrian oriszilikeriak lortutako zabalkuntza adierazi nai duala ematen. dualako, ta dokumentuck ere zabalkunde orren lekukotza eskeintzen digutelako.... eta, bestetik, Euskalerri-barruan. – ontaz mintzatuko gera lekaidetza ain era arrigarrian zabaldu lekaide euskaldun aek priszilikeriz kutsatuak-edo egon zitezkeala, esaten asi zaigunik ez zaigu azken une auetan oeitzen.

Bainan ori esan aal izateko, lñolako arrazoirik aurkitu ez dalteke.

---

29. Priszilikeria, nere "Euskal-Kristantasuna-ren Sorkuniza"n ikus dezakezu zabalki aurkezturik.

563. Santones (Saintesrko kontzdioa. Uritxo au Bordele'tik bertan dago, iparraldera, Bigarren Akitani'n.

Au besterik ez zan izan kontzilio aren elburua: Klotario erregearen aginduz kanon-legearen aurka sagaratua izan zan Emeterio gotzai kenduta, aren ordez. Aulki artarako Eraklio izendatzea.

"Egoki datorkigu kontzilio au, Elizak. erregeen aurrean – naiz erregea Klotario bezain indartsua izan aurpegirik galdu ez zuala aantzi ez dezagun. Losintxak, bai; amore ematea ere bai, gauza batzuetan, baiñan sekulan neurri batetik igaro gabe". Villeuve deritzan apaiz frantziar baten itzak dira. Ez legoke gaizki esana, ordurako Klotari.o 361'a ezkero illik egon ez ba'litz, eta bi urte geroago 563' ko kontzilio au Santones'en urrengo erregearen baimenarekin bildua izan ez ba'litz; eta, era berean, Klotorio' k. jarritako gotzaia aulkitik kenduta aulki artako gotzai berriaren ipinketa errege berriaren oniritziz egina izan ez ba'litz.

566. Urte ortan aizpa bi, Brune,kilda ta Galswinta printzes bisigotiarrak, Atanagildo'ren alabak, Galietara joan ziran, ezkongai. Onela abestu zuan Benantzio Fortunato'k bi printzes aien adiskide zuan Sigeberto Austrasi'ko erregearekin ezkondua bearra zan Brunekilda'ren goratzarrea egiterakoan:

berria sortu digu 1spaniak:
('Erregea bait digu Patxi berri orrek. edertasun miragarriz
menderatu!
Atzerriko ezkon-ogera izan da ekarria,
errege sotilla bera duala gidari,
Auftamendt garaia ta elurte larriak
0-araituz,
Erri eraille basatiar ankerren artetiko
bidaldi luzean,
Baiñan,
zelaia billakatu zaio arkaitz latzezko bidea;
Jainkoak aWarturiko maitale,entzat,
ezer ez bait daiteke
eragozpen!"

*Navarra genult Hispania genutunn:*
*Digna fuit .species*
*poluit quae flectere Regem.*
*Per hiemes validasque nives Alpenque Pyrenem*
*perque truces paputos*
*vecta est,*
*duce .Rege sereno,*
*externis regina torys.*
*Super ardua montis planum curpis iter;*
*l iii/ obstat amantibus unquum*
*quos jungi divina volunt.*

"Truees populos". "Trucidare" "norbait gogorki oifiazetuz iitzea da". Eta. "twees", era ortako jende-iltzailleak. Orra or, argi, Frankiarrek euskaldunei zieten bildurra.

į Nondik egin ote ziguten bi printzesek ibillaldi ura? ,Attriamendiaren Sorkaldetik ala sarkaidetik? Berdin da: Auñamendiaren bi muturretako aran eta mendietan euskaldunak bizi bai ziran!

Ekarri dezagun gogora, Euskalerriarekin zer ikusirik badu-ta, gogorra izan zala bi emakumezko aien eriotza:

Galdswinta bere senarrak, I Kilperiko'k il zuan. Aizpak. Brunekilda'k, apentza-gosez, Kilperiko'ren aurka gudua eskatu zion Sigiberto bere senarrari.

Baiñan, guda eragoztearren, Kilperiko'k Bordele, Leskar ("Bigorra") eta Tarbes ("Benearnum") eman zizkion Sigiberto' ri. Ez zuan, ordea asko iraun pakeak. Azkenean, Brunekilda baitua izan zan; eta erailla. Erailla, (baiña nola! Ille-matatsaz zaldi baten isatsari lotua izan bait zan; eta sasi ta arri tartean, soiña porrokatu zitzaion arte, narrazka erabillia,

Turona'ko Gregorio'k idatzi zuanez, oso ederra ta polita, argia ta atsegiña. izan omen zan emakume gaixo ura (op.c. IV. 27...).

K ilperiko' k Sigiberto'ri emandako iru uri aietatik bat, Bordele, erdi euskalduna izanen zan orduan noski, bainan beste biak, Leskar eta Tarbes, benetan euskaldunak seguruaski.

.Ego-Euskaterriko Ueska urian euskerak XIV, XXV eta XVI mendeetan eta seguruaski XVII mendearen sarrera arte bizirik ba'ziraun, sinistekoa da ntendeak. eta mendeak leenago, V/ mendean ainzuzen, bizirik egongo zala Tarbe'n eta Leskarr'en.

i holako eraginmena izan ote zuten errege Franki-Merobindar aiek. Akitani artako urietan, eta uri aien inguruetako mendi, baso, ibar, eta nekazaritzarako ta abelzaintzarako landa, ta zelaietako baserrietan? Ez aundiegia, dirudianez beintzat.

Bordele ez bai Leska.r eta bai Tarbes ere dokumentuek adierazten digutenez uri gotzaidunak zifan V mendearen azken-aroa! gero.

567. Lyon'go II kontzilioa: Ez zuan guretzat deus jakingarririk izan. Eta, an alkartu ziran gotzaietatik, bat efe ez Euskalerri Zarrekori.k.

567. Turona'ko II kontzilioa, "Kariberto gure errege jaun txit aintzagarriaren agintaritzako seigarren urtean", *"(117170 VI regni domini nostri Chariberti gloriosissimi regis".* Ona, bere k.anonik garrantzitsuenak:

I: Esl«nnikapena, kontzilioetara etortzen ez diran gotzaientzat.

VII, XIV, XV: lekaimeen bizitzaz,

XVI: Ez daiteke lekaime sartu senarrarengandik bereili dan emakumerik.

XX: Lek.aidetza utzita ezkontzen diran lekaimeentzat esl«mnikapena, Berdin, ori egiten duten lekaideentzat.

XXVI: Elizak jende gaixoarenganako arretarik galdu ez zuala erakusten digulako arras jakingarria iduritzen zait kanon au: Lateraz emanen dut aurrena, eta, euskeraz, gero:

*"Ut judic...es aut potentes qui pnuperes opprimunt si commoniti a pontifiee S110, se non emendaverint, excommunicentur":*

"Txirorik ankapetzen duan epaille eta jaun indartsu oro, eskomikatuak bitez, gotzaiaren aurre-oarpena jasoz gero, jardunkerarik. aldatzen ez ba'dute,"

IBarbaritaffen menpeko aro latz artan. gotzaiek izan zuten noski benetako aalmena. Baiñan, zorionez, aalmen ori giro gogor ura gozatzeko nola erabilli zuten, ederki adierazten digu kanon labur orrek.

Ez zan, kontzilio artara, "gure." gotzairik joan. Orregaitik eman ote zuten I kanoneko eskomikapen ura? gotzai euskaldunak frankiarren kcimtzilioetan azaltzera beartzeko?

567. Lliuba Bisigoten errege. Toledo artu zuan egoitzaz, eta. ortaz gero Toledo izanen da Ispanietako Bisigoten uriburua.

556. Galdswinta erregiña, Españt'tik Kilperiko'rekin ezkontzeko etorri zan printzes bisigota, Fredegunda'ren eragiñez Kilperiko'k erailla. Kilpertko'ren lenen emaztea, Andowera lzan zan.

Gero agertu zan Fredegunda., eta laister jaurti zuan emazte ura Kilperiko'ren albotik. Baiñan jaurtia izan zan bera ere, Kilperiko'k Atanagildo errege Bisigotaren alaba Galdswinta emaztetzat artzea erabaki. ezkero.

Ez zuan Fredegunda'k etsi. Galdswinta eraillerazi, eta lortu ostera Kilperiko'ren maitale biurturik, erregifiaren lekua.

568. Lliuba, Bisigoten erregeak Leobigildo Buruzagiari dei egin zion, erregetzarako laguntzaille. Leobigildo au izanen da gure Asaben aurka bisigoten gudate amairik-eza asiko diguna.

569. "Acta Conciliorum" liburuak, urte ontan, Teodomiro errege Suebiarraren aginduz bildu zan Lugo'ko kontzilioa dakarki. Vives'ek ez digu kontzilio orren aipurik ematen. Izan ere ez du kontzilio orrek kontziltoen itxura aundirik, baiñan arras da garrantzitsua. Bertan agertzen bait zaigu "Divisio Theodomirt" edo Teodomiro'ren "elizbarrut.i ta parrokien eraketari"-buruzko dokumentua".

Suebiarren erreiñuko eliz-eraketa ori egiñaz gero, dokumentu ortan Bisigoten erreiñuko eliz-pmbintzien berri ematen zaigu. Eta ori da ainzuzen guri benetan ajola zaiguna. Ona, idazki orrek, izen batzuk aldatuz aurkezten digun bezala Tarrakonentse probintziko Ego-Euskalerri Zarraren uri-gotzaidunen zerrenda VI mendean:

Elerda (Ilerda, Lerida); Oska (Ueska); Gerunda (Gerona); Impurias (Anpurias); Ayusona (Ausona, Vich): Omello (Urgel.); Kalagurris; Tyrasona (Tarazona); Pampilona (Iruña); Auca (Oka), eta, oraindik bere iparraldeko lurretan euskaldunik aski izango zualako aipatzeke isilik uztea zillegi ez zaigun Caesaraugusta (Zaragoza).

Aipatutako "Acta Conciliorum orrek, Teodomiro errege suebiarren atzetik Eanba errege Bisigotiarraren "Ispani'ko parroki ta elizbarrutien erake-ta" dakar: "Divisio terminortim dioecesium et parroehiarum Hispaniae a Wamba rege

Dokumentu ori "apokrifoa" da, ots, "berak egille lez aurkezten duanak egina ez dana", eta, oraingo ontan baitare "egina izan zala dion aroan egiNa ez dana".

Orregaitik, ez diogu guk jaramon geiegirik egingo, berak ere ez bait digu gauza berri aundirik ematen.

Onako auxe jasoko diogu soilki: Oka'ren elizbarrutia sarkalderuntz Amaia'raiho luzatu zuala, uri au ere Oka'ren mendean Amaia Burgos'ko Probintziaren ipar-sarkaldean Pisuerga ibaietik aski bertan dago. ote zan iñoiz arthho Autrigoitarren leiñu euskalduna?

Jaso' izkiogun egiten dituan izen-aldaketa batzuk ere: Urgel'i Urgela esaten dio; Kalagurri'ri, Calasorra; Tarazona edo Turiassona'ri Tirasona; eta, Lerida edo lierda'ri, Lerita. aAri zirala euskal-izen zaarrak erromantze— itxuraz jazten? E'tzazula uste. Itxura guzti ori askoz geroagoko kopista batek erantsia bait dator.

Orixe bera naikoa da, nere ustez, dokumentu ori Banba'ren garaiekoa ez baiña askoz geroagokoa dalako adigarri ziurra. Urruti bait zegoan oraindik erromantzeen sorkuntza!

562. Miro errege Suebiarra sarkaldeko euskaldunekin borrokan. Leobi-°ildo'rekin hatean Ermenegddo'ren aurka Sebilla'n borrokan aurretik, euskaldunei eraso zien ego-sarkaldetik.

Isidoro Doneak "Rucones" izendatu zituan Miro'k borrokatutako euskaldun menditar aiek. Errioxa'ren sarkaldeko euskaldun Autrigoiak izan zirala dirudi (Hist.Suev.91.. Suebiarren edesti au — eta onen aurretik Bandaliarrena — Gotiarrenarcn atzetik datoz biak, Isidoro Duenaren liburuan).

Ederki A. Ortueta'k "Rucones" izenari-buruz: "Este nombre no vendria del rIo Oja como apuntan algunos autores, sino del rio Oka". Eta onela jarraitzen du B. Estornes Lasa' k: "En efecto dice Ortueta ereemos que Ruconia procede de Río-Oka con 1.a terminaciOn latina nia (Rioocania, Ruocania, Ruconia), como del rIo Vena afluente del Arganzein se ha formado Rubena, del rio lbrillOS Rubriflos y del rIo Cieza Rucieza".

Onako au ere Estornes Lasa'rena da: "El historiador Morales también localiza a los Rucones en la Rioja".

Baitan Ortueta'k arrazoi ba'lu, "Rukoiak." Oka ibaiaren Aranean zeuden. Bureba eta Oña'ren artean. Ez, ainzuzen, Errioxa' n3°.

urte batzuek geroago ere, agertuko zaizkigu "Rueones" oiek Sisebuto errege bisigotaren garaien, beren askatasuna irmo babesten.

Iordanes'ek, ordea, top,c.1265) "Arragones" dasale Isidoro'k "Rukones" esandakoei: "Miro *Suevortun rex belltan (gudo) contro Arrogones movit (sortu zuan)".*

Antziñate artan "R" ta "RR"en artean idazle atzerritarrek sortu oi zituzten nasketen araura, Jordanes'ek lateraz "Arragones" idatzi zuana errez izan zitekean "Aragones", ots "Ara"-"Goikoak". Izen egokia, "ara" edo "lur" goitian bizi bait ziran euskaldun aiek. Iñtnl ez dugu, ordea, autrigoien artean noiz Aragoi izeneko lurralderik izan zalako aipurik.

Alataguztiz, esan dugun lez eta oraindik ikusiko dugun lez, "Rueones" aietaz mintzatzen diran guztiek dasaigute "errukoniar" menderakaitz aien lurralde ura dana mendia ta, mendia ere, dana mendi aundia zala.

l Bai ote zan bÎt. Oja ta Oka ibaien arteko lurralde menditsuetan, ots, antzitial«) Autrigoitarren lurraldeetan..., ote zan an beste ARAGOI bat?

572. Braga'ko II kontzilioa, "Miron *errege Suehiarraml bigorren urtean": "Anno* secundo regis Mironis".

Ia kanon danak gotzaien jardunkerari-buruzkoak ditu. Badu bat, oraindik, priszilikeriaren aurkakoa; txit egokia Euskalerriko lelcaidetza ukitzerakoan aztertu bearko dugun gaiarentzat: kanonik garrantzitsuena da: Vra: dirua irabaztearren otoitegiak eraikitzea debekatzen duana.

---

3().  Kilikagarria ta arras pokita da Ortucta`k "RUCONES" itzari damaion etimologia. Bainan Vi mendean ez zan oraindik "RIO" itzarik sortu. Lateraz, jakitunek, Isidoro Doneak adibidez, erromantzeak "rio" esaten dion ur-kaisterrari "FLUMEN" esaten zioten, eta Errukonitarrek, euskeraz, IBAI. "Rio" crromanticaren itza da, eta VI mendean cz zan oraindik erromantzerik jaio. Euskeraren aldetik ere bilka dezaiokegu etimologi bat "RUKO" itzari,"KO" zaIantzarik gabe eusk.al-atzizki bat da. Bere aurreko "RU" ote cia "A" galdu duan "ARRU"?, gaztelerazko "pedregal"? Azterlari guztiak bait datoz bat, "RUCONES" ;,ek arkaitz garaien artean bizi ziran jendeak zirala esateko.

Geroago, ia gure egunok arte, "patroiak" esaten zitzaien ez-apaiz aberats aiek izango dira, – Braga'ko kontzilioak gaitzetsi zituan beste suebiar aberats aiek bezala "ut *quidquid ibidem oblatione populi colligitur medium cum clericts dividant"*, ots, "erriaren emaitzetatik sortutakoa apatzekin erdibitzeko asmoz" elizak eraikiko dituztenak.

X kanonean priszilikeriaz oroitzen da, eta ereji orren ondorioa dala dio "ildakoen meza zerbait jan da gero ematea", eta ori egiten duten apaizak gaitzesten ditu. Dirudianez, itxura bereizi xamarra artu zuan priszilikeriak Suebiarren lurretan.

Braga'ko 11 kontzilio orren atzetik, Braga'ko Donemartifi'ek Nitigio Lugo'ko metropolitari idatzitako gutuna dakar "Acta Conciliorum" liburu mardulak.

Gutun ortan, Martin Done ark, sortaldeko Kontzilioetatik jasotako kanon-sorta bat eskeintzen dio Lugo'ko gotzaiari, eta sorta ortako kanon oietatik aurrenekoa jasoko diogu guk, Sortaldeko Asaben artean nola erriarenganako kezka oker xamarra sortzen asirik zegoan adierazten bait digu. Onela mintzatzen daba gotzaien autaketari-buruz:

"Autaketa ori egitea ez bezaio erriari zillegi. Alderantziz, gotzaiak bitez nor aukeratu erabaki dezaketenak". "Non *liceat poputo electionem facere, sed judicium sit episcoporum".* Orixe bera aginduko zuan Braga'koll kontzilioak ere.

Sartu ote zan Sortaldetarren oitura ori, Elizaren muturrik Sarkaldekoenean "Finis Terrae"n – bizi ziran Suebiarren Elizara?

Ez.

Ez zuan astirik izan. Berealaxe garaitu ta ezereztuko bait zuan Leobigildo'k Suebiarren erreiñua?

(,Sartu ote zan Bisigoten Elizara? ote zan Euskalerriraifio?

Ez.

Luzaroan Sarkaldeak, bere oitura zarrekin jarraituko du.

Euskalerri Zarreko oituretaz itzegiterakoan, gaiñera, burutik galtzeke euki bear dugun gauza da, Euskalerri ura bi zatitan aurkitzen zala edaturik; Zati bat, aundiena seguruaski., Auñamendiaren iparrean; bestea, gaun--egun-

goa baiño askoz eta askoz zabalagoa Auñamendiaren egoan, eta, zearo ezberdiñak zirala Euskalerri aren bi zati oien auzoko jende eta kultur-kerak.

Alare ez dezagun uste bi zati aiek bata besteari bizkar-emanez bizi ziranik, alderantziz, sekulan uste izan dan badio aunitz ugariagoak eta askoz aundiagoak bait ziran bien urreko jendeen arremanak.

Ori eskier erakustera etorri zaizkigu Iruña'ko, Iruña beraren alboan Buzaga' ko, eta Gazteitz.'en inguruko Gerefiu eta Aldayeta'ko – batez ere Aldayeta'ko– aurkikuntz ugari arrigarriak.

Mintzatuko gera aurkikuntz oietaz.

573. Lliuba Leobigildo errege bakarra. Llinba'ren atzetik onek ere Toledo artu zuan egoitzaz, eta arrezkero uri ori izanen da beti Bisigoten uriburua.

573. Paris' ko IV kontzilioa, kanon-legearen aurka egindako gotzai baten sagaraketa gaitzetsiz. Gure eta "gure" gotzaietatik bi bakarrik izan ziran an, bietatik bat, jerarki-maillan gaillurrenekoa: Laban "Pekataria" Elusa'ko metropolita. Bestea, Oloron'go LizeriO31.

575. Fredegunda Kilperiko' ren maitale Neustri'ko erregiñ biurtua ta Brunekilcla Austrasi'ko Sigiberto'ren emazte erregiña, bata bestearen aurka audurtn

(Ekarri dezagun gogora Neustri Galietako ipar-sarkaldean zegoala, eta Austrasi, sortaldean Burgundi'ren alboan.).

Garaille asi zuan Austrasi'ko Brunekilda'.k., borroka; baiñan Fredegunda'k bat-bateko ekintzaz amaitu zuan gudua, bi eraille erosien bidez Sigiberto'ri bizia kenduz. "Fredegunda'k. berak pozoiturik" omen zeuden gaizkille aien "scramasaxe" izeneko izkilluak: "ses *scrama,saxes avaient ete." empoisounes par leer maitresse"32.*

Une ortatik aurrera, ordura arte bezala, bai noski, bi emakumeek Fredegunda'k eta Brunekilda'k –jarraitu zuten gudua.

---

131 Bazuten mende aietako gotzaiek, batez ere len lekaide izandako aiek. apaltasunak eraginda orrelako izengoiti zakarrak artzeko oitura: Oroi gure Oka uriko Stercoreus ura.

32. Dic.Hist.0o.Ecd. "Chikperic" itzean, Scramasaxe. oiek Frankiarren izkiklu bereizi batzuk ziran. Agertu da. bat baiño geiago.Aldaye-ta'ko

Fredegunda'k ez zuan iñundiko etsairik nai-ta, Kilperiko'ren aurreneko emazte izandako Andowera ari ta onen seme guztiei, hari izan ezik, kendu zien bizia. Eta baita Pretextato Rouan'go gotzaiari ere. Andowera'ren semerik zarrenaren adiskideegia omen zalako?

Uts egin zuan, ordea, Brunekilde'ri bizia kentzeko saioetan. Bere ondorengoek lortuko zuten ain guragarri izan zitzaion eta lortu aal izan ez zuan eriotz ori.

Bitartean, ordea, zerbait arrigarria gertatu zit.zaion Fredegunda odol-

Ona, zer:

Oroi dezagun Fredegunda Kilperiko' rem maitalea zala. Ain gorroto zuan Brunekilda ura, Kilperiko'ren aginduz ainzuzen, Rouan'en zegoala, bere semeekin, erdi-haiturik. Eta, ara nondik, Fredegunda'ren errañak sutan jartzeko, bere ugazumea, Merobeo, Kilperiko'k Andowera'gandik izan zuan lenen semea, Neustri'ko Printzipea, Andowera'ren semeen eraiketan irten zan ura, Brunekilda'ren edertasunaz maitemintzen dan!

Arrezkero, erdi-baitu-ik jarri zuan Kindelberto'k bere seme nagusi au ere. Onek, ordea, Fredegunda bere ugazama aurka zuala jakiñik, ez bait zitzaion bere bizta.gaitik bildur izateko arrazoirik pe.itzen, adiskide batzuen laguntzarekin iges egin zuan mendira. Asti batez mendietan izkutaturik igesi ibilli zan. Eta, azkenean bere buruari bizia kendu zion, ortarako jarraille bati mesedez eriotza eskatuz.

Yare gelditu zan Neustri'ko errege-aulkirako bidea, Fredegunda'k izan zezazkean semeentzako. Ezkondu ere, ezkondu omen zan ba Kilperiko'rekin, oraingoan kixaz.

577. Bide arriskugarrietatik ibilliz gero, Austrasi'ko errege da, 1 1 Kildeberto izenarekin, BrunektIda'ren semea: Brunekilda Austrasi'ko erregiñak. Erreiñu ortako Sigiberto erregearekin izan zuan semea. Bereala asi zan. Fredegunda Neustrasi'ko erregiña ama-semeen eriotza gertutzen.

Izan zuan len ere ortarako adiontasun ederrik: 5 urteko umea zala Kildeberto ori, Brunekilda bere amarekin batera, Kilperi.ko ta Fredegunda Neustri'ko errege-erregiñen baiturapean egon zan.

Beta izan zan Fredegunda'ri geitu zitzaiona; laister, iñork uste ez zuala, Brunekilda'ren Duke adiskide batek Ki/periko'ren eta Fredegunda'ren baiturape artatik yaretu, ta Austrasi'ra eraman bait zituan ama-semeak, eta an,

bereala, biak, Austrasi'ko erregetzara birjaso: Austrasi'ko II Klotario lez, semea, Austrasi'ko erregiñ-ama lez, Fredegunda.

Baifian, esan dugun bezala, umea zalarik, ez zezakean Klotario'k bere erregetzan etorkizun ziurrik itxaron, bere osabak, Gomtran Burgundi'ko errege indartsuak bere zaintzapean artu ez ba'lu.

578 "Civitas Autisiodorensis" edo gaur Auxerre esaten zaion uriko Kontzilioa. Auxerre ori, Paris'tik egora, Frantzl'ren erdi-erdian dago.

Oso interesgarria zaigu kontzilio ori, jentiltasunaren aurka bere aurreneko bost kanonetan gogor ekin zualako.

Aurrenekoan, ilbeltzaren lenen eguneko jentillen jai zarrak ospatzea debekatzen du, jai aiek "diaboljeas" zirala esanez.

Bigarrenean, agian jaiketa aiek erriari aztueraztek.o, Epifani-egunaz gero garizUma bertan dagoala, jendeari aldarrikatzen asteko agintzen die apaizei.

Irugarrenean, etxe-harrenetan jentilkeriak egitea, eta sasi, zu gaitz eta iturri sagaratuenganako eraspena, galerazten du.

Laugarrenean, aztikeria da debekatzen duana, batez ere, bibliako liburu santuak erabilliz egin oi zana.

Bosgarrenean, egiazko doneenganako eraspena ber-bera ere era okerrean ibilli oi zalaren adigarri dugu noski, kontzilioak Martin Deunaren bijili edo gauekoa "era okerrean" ospatzea debekatu izatea.

Kontzilioak debekatzen duan jentilkeria Frantzi krtstauaren erdi-erdikoa zan, an aurkitzen bait da Auxerre izeneko uria.

Ez bedi beraz iñor arritu, Euskalerria, VI mendean, zati batean oraindik jentilla izan zitekeala entzuten ba'du. "Zitekeala" esan dut, ala izan "zala" esateko ez bait dezake iñork dokumentu ziur bakar bat aurkeztu.

Alderantziz, gai orri-buruz aurkeztu daitekean dokumentu zaar, ziur, bakarrak, IV mendean idatzita V mendearen asieran gure Prudentzio olerkari kalagurritarrak argitaratu zuan Peristefanon poemak, ;IV mendean! jentiltasuna Baskoien artean "quondam"go gauza, ots, "antzifiako" gauza zala esaten digu.

Kontzilio onen XXIII, XXIV, XXV eta XXVI kanonak, lekaidetzari-buruzkoak dira. Kristaudi osoan izan bait zan lekaidetza Elizarentzat gauza arras maitea ta txit arduragarria. Eruskalerrt Zarreko zenobitegi aiek ere bai?

Bai, noski. Baiña ortaz mintzatu aal izateko dukumentu-apurtxo bat ere ez dugu.

Auxerre'ko kontzilioak ez zigun esan-da, an egon ziran gotzai ugarien nongotasunik ezin jakin dezakegu.

579. Cabilona, gaur Chtlion sur SaCme deritzan uriko kontziljoa: "Gunixamni *tegis jus.su","Guntram* erregearen aginduz" bi gotzaien aurka egin zana. Bi gotzaiak, "beren Aulkitik jetxiak eta zaintzapean ipiñiak izan ziran": *ca epi,scopato deiecti atque in custodiam retusi".*

Izan zan lentxeago ere, Paris'en, erregeak, Kilperiko'k orduan, "Chilpe*rico rege acusante"* gotzai baten aurka. egindako kontzilio bat. Orduan ere gaitzetsia izan zan gotzai ura.

Gotzai oien errua aztertzen ezin asiko gera. Gregorio Turonatarrak emanen dio jakin nai duanari, bere "Historia Franeorum" liburuan albisterik naiko (op.c. IV, X).

Nik, Elizak eta Laterriak nola alkarrekin lanean jarraitzen zuten ikusteko adigaillu egokiak izan daitezkealako artu dut aintzat eta orri auetara ekarri – bi kontziliotxo aien oroia.

579'an eta 580'ean, izan ziran bi kontzilio txiki; aurrenekoa Gotzaj batek eskomikatutako konte bat ostera Elizaren altzoan onartzeko. Bestea, Gregorio Turona'ko gotzai edestilaria, konte batek Kilperiko erregearen aurrean aurkeztu zuan salaketa batetik babesteko.

581. Leobigildo, Lliuba'ren laguntzaille lez 568'an buruntza jantzi zuanetik, 587'an il za.n arte, Andaluzi'ko Bizantziotarren aurka, aitorrenseme Aberats iraultzalarien aurka, Ermenegfldo bere semearen aurka, Galizialdeko Suebiarren aurka, gure alboko Kantauritarren aurka, Septimani'ra sartu zitzaizkion Frankiarren aurka, eta, batez ere Euskalerriaren aurka, atertzeke ibiIli zitzaigun borrokan.

Eta Lliuba erregetza berak bakarrik artu zuan une berean "erabaki omen zuan guda-bidez erreffluaren mugak zabalduz aberastasunak ugaritzea": *"ampliare regnum Pello et augere opes statuit",* Isidoro Doneak dioskunez (op.c.49), Españi'ko edestilaririk geienentzat bezala, Sebilla'ko Isidor Deunarentzat ere, badirudi soilki euskaldunak zirala terroristak, Bisigotak, ordea, alderantziz, Salduba'ko Braulio Doneak Leobigildo'ren sarraskiaz

esan zuan bezala, Jainkoagandiko izpi done batek ',urgiturik – eta indarturik – ibilli zirala euskaldunei lepoa moztutzen.

Aitor dezagun, alare, Leobigildo guda-gizonaren aintzarak.o, borroka guztietan irten zala Euskaldunen aurkakoan izan ezik.

Bizantziotarrei, kendu ztzkien, betirako, Kordoba ta Medina Sidonia. Betirako baitare, kendu zien beren erreiñu guzia Suebiarret. Jaurti zituan Septimani'tik, ari sartu zitzaizkion Frankiarrak: Menderatu zituan aundiki iraultzalariak. Garaitu zuan bere semea. Arrapatu zuan, au ere betirako. gure sarkaldeko Kantauria (naiz geroago kantauritarren iraultzaren bat edo beste gertatu)... Baifia.n Euskaldunen aurka (ezin izan zuan iraunkorrik ezer irabazi !

Borroka guzti oien artean idoro zuan betarik aski, Bisigotek izan zuten lenen "Codex" edo Legedi Idatzia – Tolosa'n Euriko'k gertututako ura –, kanon batzuk sartuz eta beste batzuk kenduz eraberritzeko. Eta, baita, arianikeria indartu naiean saiatzeko, ortarako gotzai ariozalei kontzilio bat egifieraziz. Ezer gutxi lortu zuan arlo ontan, Bixente Salduba'ko go(zaia ta besteren batzuk ereji artara eramatea izan ezik.

Errege aundia izan zan: Euriko'ren atzetik Bistgotek izan zuten aundiena, baiñan ez zan errege maitatua izan. Zergaitik?

Erreifiva aunditzeko sortzen zituan guduetarako dirua bear zuala-ta, Aundikiei izugarrizko zergak jarri zizkielako. Eta ankerra, kupidarik gabea, agertu zalako, aurka jeikitzen zitzaizkion guztiekin.

Ori argi diosku Isidoro'k (op.c.379). Turena'ko Gregorio'k berriz, Bibliatik artutako itzak erabilliz, aurka jeikitzen zitzaizkionetatik "omnem min g,entem in irariete", ots, "ornum pix egin oi duan oro" iltzen zuala diosku, gizonezkoak danak erailtzen zituala adierazteko.

Ortaz gaiNera, begi okerrez so egin zioten erreiñuko aitorrensemeek Leobigildo'ri, onek. erregetza ondarez, ots, erentziz, bere bi semeei utzi nai ziela oartu ziran bezain laister. Erregea, Bisigoten artean, aundtkiek batzarrean aukeratua izaten bait zan!

Leobigildo'rentzat gudarik mingarriena Ermenegildo'k sortu ziona izan zan. Neskatil katoliko batekin ezkondu zan aurrena Leobigildo.

Naiz oiñarri sendorik. gabe, neskatil ori Leandro, Florentzio, Fuljentzio ta Isidoro lau senide santuen arreba izan zala dionik bada.

Emakume orrengandik jaio zitzaizkion Ermenegildo ta Rekaredo. Erregetzan biak kidatu nai izan zituan Leobigildo'k berekin, eta, ortarako, bakoitzari non-agindu bereizi bat etnanez, urrutiko probintzietara bidali zituan. Ermenegildo Sebilla bizantziotarrei kendu-berrira.

Bai Ermenegild.o, bai Rek.aredo, ariotarrak ziran. Ez ordea, dirudianez, beren aita ta batez ere aitaren bigarren emaztea, Godsuinta, bezain sutsuak.

Ermenegildo, ingunda printzes frankiar katoliko zintzoarekin ezkondurik zegoan. Sebilla'ko goigotz.aia, berriz, Doneleandro zan. Osaba, Ermenegildo'rentzat, onen ama, aren arreba izan zala egia ba'litz.

Sebilla'ra elduta laister, Ingunda'ren eraginmen goxoaren eta Leandro'ren aolku zugurren ondorioz, katoliko egin zan Ermenegildo, Yon ebangelariaren izena bataioan artuz.

Ez dakigu nola ta zergaitik, baita aitaren aurka jeiki zan Ermenegildo katoliko au, bere burua errege biurtuz. Arriskugarria zan Iraultz ura Leobigildo'rentzat, bai bait zeki.an Españi'n jatorrizko jendea katolikoa zala, Andaluzi'n batez ere; eta katolikoak zirala baitare oraindik Andaluzi'ren zati aundi baten jabe ziran Bizantzlotarrak. Ez zuan, beraz, Errnenegildo'k bere asmoak aurrera eramateko laguntzaille faltarik izango.

Aitak irabazi zuan ordea gudua. Semea, baiturik Balentzi'ra erbesteratua izan zan. Ta, iñork ez daki zergaitik, andik Tarragona'ra eramana, eta emen erailla. Aitaren aginduz?

Ez dirudi. Garai artako edestilari espaõiarrek, Biklaratarrak adibidez, edo Doneisidoro'k, ez bait diote Leobigildo'ri orrelako erailketarik leporatzen. Bisigotiarren arteko gauzak jakiteko, berriz, Turona'ko Gregorio ez da iturri ziurra.

Leobigildo'k Euskalerriaren aurka sortutako gudateari dagoz,kionetan, laburrak izan nai genuke, gai ontaz luzaro mintzatuak bait gera Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza izeneko liburuan.

Euskaldunei eraso aurretik, Kantauritarrei ekin ziela dirudi: ekin, garaitu, eta baita "betiko menderatu" ere: "Cantabros namque iste obtinuit" idatzi zigun isidoro'k

Luzexeago YOn Bik.laratarrak: "Egun auetan Kantauri'n sartu zan Leobigildo Erregea, ta leendik probintzi artara menderatzaille lez sarturik zeude-

nak erail, ango aberastasunetaz jabetu, ta bere erreiñuko probintzi biurtu zuan" Kantauri ura. "His *diebus Leovigildus Rex Cantabriam ingressus, Provinciae pervasores interfieU, Anunam occupot, opus eorum pervadit et Provinciam irr suam revocat ditionem"* (op.c.575).

Raimundo de Miguel latinista yayoaren Iztegi txit ezagunean "pervasores" itzak ez du gauza bakar-bakar bat besterik esan nai: "usurpadores". iNor ote ziran Kantauri' n, indarrez sartuta, ango jende ta lurren jaun da jabe zeuden "pervasores" aiek? Euskaldunak? Nor, bestela? Galizi-aldeko Suebiarrak?

Auek, ordea, ez dirudi aldi aietan ortarako kemenik aski izan zezaketenik. Gogoratu besterik ez dugu, geroxeago, euskaldunak ezin menderatu izan zituan Leobigildo'k zeiñen aisa ta azkar garaitu ta zearo ta betirako menderatu zituan aiek.

Barbaritarren eta bereiziki Bisigotiarren – errege guztiak izan ziran Erroma'ko inperatoreen miresle galant aundiak, haiñan batez ere, beste guztiak baiño geiago, Leobigiido.

Bera izan omen zan "errege soiñekoz jazten eta errege-aulkian esertzen aurrenekoa, ordurarte berdiñak omen ziran ba erregeen eta erritarren aulki ta jantziak": "Primus *etiam inter suos regali neste operlus in regis solh»-c senam ante eum et habaus et consensus communis ut populo na et regibus erat"* (Yon Bikl. op.c. 51).

Beste zerbait ere badiosku, aurrena Gerona'ko ibarrenbatean Biklara'ko lekaidetxearen abata, eta gero Gerona.'k.o gotzai izan zitzaigun Yon orrek: Leobigildo'k Amaia izeneko uria artu zuala.

Erri ori, gaur Cuevas de Antaya, gaurko Euskalerritik oso urruti zegoan, 1377 metro dituan Anaia mendiaren maldan oraingo PaIentzi'ren mugatik bost kilometrora, eta Kantahritarrena zan ezpairik gabe.

Bazan orduan beste Kantauri bat ere, Kantauri izeneko probintzi artaz landa: Ibero ibaiaren ondoan, muño batean zegoan Uri orduan ospetsua: Logroño uriaren aurre-aurrean ainzuzen. Kantauri zeritzan ospetsu orri ere Leobigildo'k eraso ziola, ta menderatu ta txikitu zuala, eta ikaragarrizko sarraski bat egin zuala, Braulio Salduba'ko Gotzai Doneak damaigun albistea da ("Vita S. Aemiliani", op.c. XXVI, 31).

Ta, izugarria izan ba'zan Kantauri artako odol-isurkeri gorria, bada edozein arritzeko eta izutzeko aiña Donebraulio'k, bere Leobigildo maitearen

izena garbitzearren, deabrukeri madarikatu ura aingerutxo garbi baten ekintza zuria biurtzeko idatzi zuana. Irakurri ezazu, merezi du-ta, aiztintxe aipatu dedan nere liburuan.

Leobigildo errege arroa izan zan, berekoia, ankerra, kupida gabea – oroi "om.nem mingentem in pariete" ura ariozale sutsua, katolikotasunaren etsaia, eta, baitare, neurri batean, katolikoen zigortzaillea.

Alataguztiz, Donebraulio'k ez ezé, Doneisidoro'z eta Yon Biklaratarra'z gerozko idazle españiar guztiek izan diote – ta diote –Leobigildo'ri zaletasun kuttuna; batez ere idazle katoliko eskubitarrek.

Errez ulertu daitekean gauza, onako au kontuan artzen ba'dugu: Bizantziotarrak ispani'tik jaurti nai izan zitualako, Aitorrenseme askatasunzaleak kupidarik gabe zapaldu zitualako, Suebitarren erreiñua ta Kantauritarren probintzia irabazi zitualako, eta euskaldunak menderatzen gogotik saiatu zalako, Leobigiido dala "España una, grande, libre" bat eraikitzearren, gudaketan aurrena ibilli zan "Caudillo" gotor aberri-salbatzaiilea. Gure gaztaroan Franco Españi'ko gotzaientzat izan zan gauza bera: Jainko justizigillearen ezpala.

DJ.

Kantauri'ko Probintziaz eta K.antauri'ko Uriaz landa, laister izango da beste irugarren Kantauri bat ere; Ibero ibaiaren egoaldean: Frankiarrek Euskaldunen aurka Euskalerri Zarraren iparraldean "WASKONYKO DUKATERRIA" sortu zuten bezala, egoaldean Bisigotek "KANTAURFKO KONTERRIA" eratu bait zuten. Izen ori zergaitik? Agian soilki gudurako zan konterri orren buruzagitzaren egoitza Kantauri izeneko uri artan ipiñi zutelako. Orrekin ordea, ez dugu esan nai gero ere uri ori beti beren eskuetan gordetzeko gauza izan ziranik[33].

---

[33] Kantauri itzari-buruz beste gauza bat ere esan nin nuke. t Non ote dugu izen ori zarragoa? ibero-Ibaiaren alboko uri artan? Izen ortako Itxasoan? Itxaso orren alboko Santarder'ko probintzian? Araba'ren egoakdeko Mendi-Katean? Ez. beintzat (Irudianez Errioxa'ko Konterri zar artan, oni izen ori ipintzea, nn Leenago izen ortako zerbait ba.zegoalaren adigarri bait da. Orren antzeko beste galde bat ere egin dezakegu: non ote da "Asturi" Itza zaarragoa? Asturietan? Asturietako uriburu izan zan Asturi, gaurko Astorga'n? edo Ondarrabi.ko "Asturiaga" kaiean? izenek euskakduna dute "uri" atzizkia. "Ast", aurrizki ugaria dugu. Zer ote da "Kant"?

iru Kantauri oietan ibilli zan borrokalari gure Leobigildo. lbero'ren egoaldean beti. Ez bait zan sekulan Araba'ra sartu.

Ori, gaur zalantzarik gabe esan dezakegun gauza da. Oroi Gazteiz'tik zuzenean amar kilometrora dagoan Aldaiera izeneko landan agertu-berri zaigun illobitegia. Mintzatu giñan illobitegi ortaz oparo "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza"n eta mintzatuko gera, laburkt. liburu ontan ere.

Illobi aietan obiratutako jendeak Akitaniarrak ziran danak, bertan agertu zaizkigun tresna ta izkillu guztiek adierazten digutenez. Luzaro bizitu ziran an, utzi zizkiguten aztarnak VI eta VII mendekoak bait dira. Gizonezkoak, gudariak ziran danak. Eta asko ziran. Bai gudari talde eder bat osotzeko [g]riña. Eta Leobigildo'ren erregetzakoan an zeuden.

Nai ta naiez egin bear zuan Leobigildo'k aiekin topo, Araba'ra sartu ba'litz, batez ere, Biklaratarrak aipatzen digun "Baskoni' n Leobigildo' k eraikitako Bitoriako" *("Leovigiklus rex partem Vasconiae occupat et tem quae Victoriaeum nuncupatur condidit"),* uste izan dan bezala Gazteitz'en edo Gorbei'azpiko Bitoriano' n egiña izan ba'litz.

Baiñan Leobigildo'k ez zuan alako talde Akitaniar arriskutsu baten ezaguerarik izan. Berak izan ba'lu izango bait zuten bere garaieko edestilariek ere. Baiñan ez Donibane Biklaratarrak. ez Doneisidor sebi liatarrak ez Turona'ko Gregorio Doneak, ez, antziñate artako beste edestilariek, ez zuan iñork Akitaniar aien ezagupenik izan. Ezta aien ondorengoek ere, orain-oraintxe Aidayeta'ko ezurralc agertu zaizkigun arte.

Non egon zitekean Leobigildo'ren Bitoriako ura?

Nere ustez, aipatutako liburuan egiztatzen saiatu nintzan bezala, EuskaletTiko iru Bilori'etako bateren batean. Ta, Leobigildo lbero'z onuntz sartu ez zalako, seguruaski Errioxa'ko Biloria'n34.

---

[34] 1,„eobigikdo.ren garaieko mendeak geroago "ALEGIA"ri gertatutakoa ber-bera -gertatu zitzaion. Oria ihaiaren ertzean dagoan erri giputz orrek ALEGI du bere egiazko izena. Nominatibu-eran, ALEGIA. lzen orrek ordea eskribau eta idazkari erdaldunei ez zien ezer esaten. Eta, orregaitik, "zentzu ukerkaitzeko" ALEGIA "zentzu ulerterrezeko" ALEGRIA biurtu zuten, eta Bisigoten lumalari aiek Werkaitza zitzaien BILOR1A arras ulerterreza ta atsegiña gertatzen zitzaien VICTORIA biurtu zuten.

Leobigildo Ariotarra zan, arrokeria sendotzen aal zituanak egin zituana. Leobigildo'k gora-ta-bera ibilli zuan Euskalerrian, lbero'ren egoaldeko Autrigoi, Berondar eta Baskoien lurraldea.

V mendeaz gero, eta baita seguruaski IV mendeaz gero ere, sakon eta zabal kristauturik zegoan lurralde ura.

ote zuan Lcobigildo'k zerbait, kristau euskaldun aiek bere arianikerira eramateko? Egia da, euskaldun aiek Ariotarren Elizara eramate ori, izan zezakean gauzarik egokiena zuala, jende aiek eta beren lurraldea, ariotarra zan Bisigoten Erreiñura betiko sarturik uzteko. ote zuan ortarako zerbait? Ez noski. Ez bait zuan astirik izan.

581. "Concifium Matisconense I: Oraingo Macem sur SaCme'n Gomtran erregearen aginduz bildua. Ez zuan bere eseraldietan "gure" gotzairik izan.

Eman zituan kanonetan, auek jasogarriak:

II'a: "Ez bedi lekaimetxeetara gizonezkorik sartu, ezta elizgizonik ere". Betiko bildurra, emakumezkoei-buruz!

XII'a: Lekaimetza utzita, gizonezko batekin alkartzen dan lekaimea bere ogekidearekin batera, eriotz-ordura arte eskomikatua bedi.

Gero, baditu Iau kanon, juditzak kristauengandik bereizirik eukitzeko asmoz emanak.

581. Leobigildo egoaldetik Euskalerriaren aurka zebillen artean, Iparraldetik eraso zien Kilperiko errege Frankiarrak.

Euskaldunen aurkako gorrotoak alkartu zituan Frankiarrak eta Bisigotiarrak. Alk.artze orren adigarri gertatu zan 584'ean Rekaredo Leobigitdo'ren semearen eta Rigontha Kilperiko'ren alabaren artean Paris'en ospatutako ezkontz-eskaria.

582. Kilperik.o'k euskaldunekin asarre jarraitzen du. Bere gudalbururik. onena, Bladastes, bidali du Baskoni' ra, ots, Gaskufia'ra, gudarozte sendo batekin. Baiñan garaitua izan zan Bladastes ori eta ia ezereztua bere gudarozte ura. Aundia izan zan noski, benetan aundia!, gure Asabek lortu zuten garaitza, Turona'ko Donegregorio bezain edestilari frankiar bat ere, ori aitortzera bearturik aurkitzen bait da: "Joan zan Baskoni'ren aurka Bladastes dukea, ia bere gudarozte guzia galdu zuan an": *Bladastes vero dux in Vasconiarn maximanique partern exercitus sur arnisit" (I.e.* VI).

583. Lugduno edo Lyon'go III kontzilioa, "Gomtlan errege jaun txit aintzatsuaren erregetzakoan", *"in regno gloriosissnni domini Guntrumni regis"* egiña.

kanonean, berriro lekaimeei-buruzko aginduak ikusten ditugu.

Vrean, gotzaiei, bere elizbarrutiko legenardunen ardura izan hear dutela, orotterazten zaie: bereiziki, gixagaixo aiek zer jan eta zer jantziaren ardura.

Ez zuan kontzilio onek ez gure ez "gure" gotzairik izan.

583. Gondobaldo printzipea, Klotario'ren semea zan. , Sasikumea? Aitak beintzat, berea ez zualakoan, ez zan ba sasikume onen amaz .riatzen erreinutik jaurti zuan, eta urte ontan Kostantinopla'ra aurkitzen zan erbesteraturik.

Ez zan asti luzez an egon. Euskalerriak eta Akitaniak errege jaso bait zuten Klotario' ren aurka iraultzari jeiktri.k.

*lado de los cuatro reinos froneos: Paris, Neustria, Burgofia v Austrasta, existen las lierras Aklumas v Novempopulanos* (IV mendearen amateran sortutako "Aquitania Prima, Secunda, Tertia" edo "Novempopulania"ko lurrak alegia) tierras que se reparten entre los reyes como verdaderas tierras de conquista. Son Provincias extranjeras (Estornec Lasa, I.e. 105)

Eta Gondobaldu etorri zan bezain laister, *Vascos aquilanos se pusieron inmediatamente del lado de Gondovaldo. Nubles y obispos de unos y otros paises y cludades del mediodÍa se alistan a su lado"* (B.Estornes Lasa, op.e.I 06).

Askoz argiago Gran Larousse'k (op.e.1365): "Ego-Galietako aitorrenserneak Kilperiko'rekin eta Gomtran'ekin gustora ez zeudelako, ta *Franklar-W17 eskupetik atera nai zutelako,* iraultzan jeiki ziran Kilperiko ta Gomtran errege Frankiar anai bi aien aurka eta, ordurako Kostantinopla'tik ekarria zuten Gondobaldo ipiñi zuten iraultza aren buruzagi".

Ona, albiste ori bera Larousse'ren frantzeraz: "Les *gronds du rraidi de la C^atalle, nkkonients de Chilperie et de Gontran, et voulant se soustraire* ci *l'influence des Franks et* des *Bota;:;7uignons".* Ots, "egoaldean Galietako aundikiek" sortu zutela – diosku Grand Larousse'k – iraultz ura.

Birresan bearra da ajtorrensemeak ez ezë, egoalde artan, gotzaiak ere iraultza aren alde jarri zirala. Berdin da birresanbearra, iraultza ura aundiki galitarren gaUZa izan zala aditzera eman nai. izateko, Larrousse'k arrazoi sendorik ez duala. Nola, (Euskaldunak ziran-da, iraultzalari aietatik geie-

nak? "Frankiarren mendetik atera", *".se soustraire ca nfluence des Franks"* nai zuten euskaldunak!!

Larousse' ren esaldi ortan Borgoña aipatu bearrik ez zan, ordurako Bur[g]undiarren erreiñua ezerezturik bai zegoan eta, naiz lurraldearen izenak iraun, Frankiarra bait zan ordurako Burgundi'ko Erreiñua, eta, ainzuzen, Frankiarra bait zan une artan Gomtran Burgundi'ko Erregea ere: Kilperiko Neustri'ko Erregearen anaia, Klotario'ren semeak biak; Klobis aundiaren billobak.

Zuzen ibilli zan beraz B. Estornes Lasa (op.c.1 13) onako au zuanean: "Los *vascos restablecen su independencia era una buena parte de su territorio entre los siglos V al Entretanto, la parte sometida a los francos strfre las oscilaciones politicas v militare.s del reino, como cuando apoyan al rebelde Gondovaldo en 585".* "apoyar"? Iraultza aren sortzaille ere ¿ez ote ziran izan?

Gondobaldo, ordea, garaitua izan zan. Eta orduan oiturazkoa zan lez, alukeriz, ots, traizioz erailla [35].

583. Ostera Matisko edo Mac-sin sur Sa(The'n1«mtzilioa. Uriska ortako 11'a. "Guntram anitz aintzakorraren ogei ta laugarren urtean ospatua".

Ona, an izandako gure gotzaiak: Tarbes'ko Aurelio: "AtneliaLs *episcopus ecclesiae Bigorritanae";* Leskar' ko Sabino: "Savinus *epis. ecclesiae Benarnensium";* Konbenerri (Cominges)'ko Rufino: "Rulinus *epis. ecclesiae Convenicae";* Basate'ko Orestes: "Orestes *epis. eclesiae Vasaticae";* eta gure metropolita: Elusa'ko Laban.

Eta. "gure" gotzaietatik. Agino (Agen)'ko Antidio: "Antinius *epis. ecclesiae Agennensi.s;* ta Bordele'ko Bertekram: "Bertechranutus *epis. Burdigalensis".*

584. Kilperiko'ren eriotza. "No ffltan *autores que atribuyen este crimen a Fredegunda* (Espasa "Fredegunda" itzean)–.

---

[35]. Turona'ko Gregoridk Gundovals esaten dio bere "Historia Franeorum" idaztian. Nik idazti ori "Monurnenta Germaniar Ilistorica"n aurkitu dut, "Seriptores Rerurn Merovingicarurn" izeneko bildurnaren lenen zatiko bigarren kiburuan. Eta liburu orrek bere. azkenean aurkibide egokiak. badituualako, errez aurki dezakezu printzipe doakabe orren bizitz arras jakingarria, edesti-gai auetarako zaletasunik baldin ba'duzu.

Zanazala, ildakoaren alarguna, Fredegunda, zer-gerta-ere, Paris"ko katedralera bildu zan, gotzaiaren kerizpean babes ziarraren billa.

Bereala, andik, Kilperiko'ren anaia zalako bere ezkon-anaia zuan Gomtram Borgoila'k.o erregeari eskatu zion laguntza, "semetxo txiki bat dut, eta umetxo au zure zaintzapean ipiñi nai nuke", niezularien bidez esanez.

Etorri zan Gontra.m, eta eskeintzen zitzaion illobatxo ura semetzat artu zuan; semerik gabe bait zegoan bera, ordurako iru emakumeengandik izandako guztiak era miresgarri kezkatsuan il zitzaizkiolako. Mende aietan Frankiarren artean sarriegi g;ertatu oi zan gauza!

Bazekian Fredegunda'k *zer* Ekintza orren bidez bere semearen eskuetara bateratzen bait zituan Neustri ta Borgoña, bere burua salbatzeaz gaiñera, ez zuan ba Gomtran'engadiko gaitzaren bildurrik, onek sernetxoa bere senietzat artzen zion ezkero.

Bazuan ordea Gontram'ek zalantza, unetxo ura Kilperiko'ren semea ote zan edo ez ote zan, bai bait nekian bere ama ez zala oso aingeru garbia.

Ondorioz, "Fredegunda, bere semetxoa besoetan zeramala, era lotsagarrian, 3 gotzai eta 300 aitorrensemeren aurrean agertu bearrean aurkitu zan, aur ura Kilperfl(o'ren semea zala aitortuz, zin egiñ-egiteko": *"Fredegund much mortified* was *obliged to get 3 bishops and 300 nobles to ,swear that he* was *Chilperiko's son"* (Ene.Brit).

"Laister, naiz alperrik, Gontram iltzeko saiaketa bat egin zuan": "Subsequently *she mode one unsucce.ssfuld attenpt to assessnune Gumtron" (ib).*

Orrelako jendeekin ibilli bear izan zuten gure Arbasoek borrokan. Eta jende aiek beren artean ain ankerrak ba'ziran, ez ziran noski gozoagoak izango euskaldunekin auen lurretara sartzen ziranean. ¸Zer ondorio ekar ote zezazkean giro makur orrek Euskalerriko kristautasunaren sendokuntzarako?

584. Balentzi frantziarrekoll kontzilioa: "Guntram errege arras aintzagarriaren agintepean" egin omen zan kontzilio ori, eta, soilki, errege orrek eta bere emazte Austrekildis erregiñak eta bion alabek, Klodobergis eta Klodokildis printzesek, Elizari egindako emaitza aberatsak, kontzilioan bildurik Elizak legez ontzat ar zetzan.

Badu ordea zerbait oroigarri: kontziliokideek, ain izen txukuneko bi printzes aiek, Klodebergis eta Klodokildis, "Deo *,mcrotoe puellae",* ots, "Jainkoari eskaiñitako neskatillak" zirala, esan bait ziguten.

Esakera. ori, aldi aietan, betirako beren neskustasuna Jainkoari eskaiñita zeukaten neskatillak adierazteko erabilli oi zan.

Bizi osoko neskustasuna Jainkoari eskeintzen zioten neskatxen artetik. asko lekaimexeetara sartzen ziran VI eta VII mende aietan. Baifian lek.ajme oietaz gainera, baziran, baitare, anakorer emeak – basamortuetako bakartasunean bizi ziranak–. Eta "reciusae" edo txabola txiro batean "itxita" bizi. ziranak.

bizi ote zuten beren neskustasuna gure bi printzes aiek? Kontziliokideek xeetasunik emen ez ziguten ezkero, uste izatekoa da lekaidetxeren batean, edo, agian, beren jauregiko gela baztarturenbatean izkutaturik biziko zirala. Bai bait ziran orduan ere, Jaikoari eskaiñitako neskustasuna beren etxeen barruan bizi oi zuten neskatillak.

Zana-zala aien ederki irabazia dute printzes bikain bi aiek guztion mirespena.

584. Esanak gera nola, Euskaldunen aurka bat egiñIk gudara sartzerakoan, Frantzi'ko Kilperiko'k eta Españi'ko Leobigildo'k onen semea, Rekaredo, eta aren Rigoutha, ezkontzea erabaki zuten. Ba, ez zitzaion Rigontba'ri erreza gertatu Toiedo'rako bidea Rekaredo'rekin. ezkontzeko, naiz ibillaldi ura lau milla gudarik zaindurik asi. Zekarzkian aberastasun guztiak zaindari oiek ostu bait zizkioten!, eta Garona ibaiera iritxi antxe bertan, Tolosa'n, baiturik gelditu bear izan bait zuan, Didier, Tolosa'ko dukea, iraultzan jeikitako Gondobaldo arekin alkartu zalako.

An, Tolosa'n katibu zegoala jakin zuan bere aita, Kilperiko il zala, eta, agian, Fredegunda bere irugarren emaztea izan zala erail zuana.

585. Kilperiko Neustri'ko erregearen eriotzak utzitako utsune artaz baliatuz, Gontram Burgundi' erregea, Paris'en sartuta Kilperiko zanaren Neustri osoaren jabe egin zan, eta, orregaitik. aren mendean gelditu zan izenez beintzat Ipar-Euskalerri Zar osoa.

585. Aurreneko aldiz agertzen da Euskalerriari-buruz, "due.atus" edo "dukaterri" izena. Turona'ko Gregorio da dukaterri orren albistea damaiguna. Eta, ainzuzen. (Hist.Fran.VI11,8), iraultzalari Sajoindar batez ari dala. Argi-argi esaten digu Gregorio Turonatarrak Sajoindar arek zaintzeko artzen

zuan Dukaterria Garona ta Auñamendien artean zegoala: "adeptaque *ordinatione duc..atus ia civitatibus ultra Garonnam".*

Bikain, B. Estornes Lasa'k (op.c.1 06): "Un *ducado supone en esos circunstancias Ia disposiciOn de medios militares para hacer frente a un peligro permanente. Este peligro es, sin duda, lca Vasconia rebelde y sobre todo sus valles mds cercanos,* lo.s' *de Bearn, Bigorra, Conserans v Comminges, poblados por vascones sin romanizar",*

Oartxo bat besterik ez nioke egingo nik, euskal-kulturak ainbeste zor dion edestilari jakintsu orren esaldi oni: Uri oiek, eta ipar, ego ta erdiko Euskalerri osoa, *"la Uisconia rebelde"* ura, arras zegoala erromarturik: uste izan dan baiño askoz eta askoz geiago. Eta ortan dagoala gure Aberriaren miresgarritasuna: naiz ain erromarturik egon ez bere izkuntzik, ez bere nortasunik galdu ez izatean.

586. Gure egoan, Bisigoten artean, Leobigildo dalarik, Rekaredo bere semea Bisigoten errege.

Gure iparrean, Frankiarren artean, *"los Bascones irrumpen en las llanuras aquitanas recuperandc.»)lejas tierras suyas. El problema se agudiza (para los froncos). Para dominar a Euskalerria recurren entonces a kz fundaci6n. de ducado, unct especie de marca militar fronteriza que organice la delen-.sa v lca ofensiva. Los Francos se han propuesto dominar a los vascos desde el norte mlentras Godos hacen lo mismo desde el sur fimdando otro ducado, el de Cantabria riojana, con los mismo,sfines*

Bere aapaldi ori irakurri ostean beste onako auxe esan nai nioke Estornes Lasa'ri: Turona'ko Gregorio'k "ducatus" itza erabiltzean ez zuala, agian, Iparr-Euskalerria ordurako erakunde lez dukaterri eginda zegoanik esan nai. "Dux" itzak bere jatorriz "gudari-talde-baten-agintari", esan nai zuan. Orregaitik, badaiteke Gregorio'k agertu nai izan zuana au besterik ez izatea: Sajoindar arek eskierki guda-leku zan Baskoni aren agintaritza artu zuala. Dokumentuz, "Dueatus Waseoniae"ren sorkuntza geroxeagokoa bait da.

586'gnetik 601 'gnera. Urte-tarte orri dagokionez bai, egia da Estornes Lasa'k oroitu diguna, garai ortan euskaldunen aurka bait dabilzkigu ego ta iparretik etsaiak. Adibidez, Rekaredo Bisigoten Errege berria. OSO maiz, ibilli omen zan Euskaldunen oldarketen ("irrupciones") eta Erromatarren, ots, Andaluzi'ko Bizantziotarren lotsagabekerien aurka", Isidoro

Doneak (1.e.54) dioskunez: "Saepe *errira et loc erto.y contra romanas insolencias et irrupciones vasconum movit"* (azpimarraketak nereak dira).

Ez zuan Euskaldunen aurkako borroka aietan ezer lortu. i, Zergaitik diodan ori? Rekaredo, — arianikeria utzita katoliko biurtu zan ezkero eta bere burua ez ezê bere erreiñu guztia ere katoliko egin zuan ezkero, Isidoro sebillatarrak geien maitatu zuan erregea izan zalako. Eta, orregaitik, pozik aintzatuko zitualako aren garaitzarik txikienak ere, euskaldunen aurkako gudate artan zerbait lortu ba'lu, Frankiarren aurka Septimani'n lortutakoa, neurri ororen gaindik aizatu zuan bezala.

Entzun egiozu berari: "Sekulan ez da, Ispanietan, gotiarren garaitza aundiagorik izan; ezta aren berdiñik ere": "Nulla *vnquarn in Hispaniis gothor11111vicioria vel maior in bello vel extitit".*

Dirudianez, euskaldunek, Leobigi!do'k ego-egoan kendu zizkien lurrak birreskuratu zituzten ostera beren oldarketen bidez!, eta Rekaredo ez zan lur aiek birr-irabazteko gauza izan. Bere aitak eraiki omen zuan "Vietoriaeum" zeritzan gaztelu ain eztabaidatu ura ere euskaldunen eskuetan gelditu-bide zan.

Egia da era ontan amaitzen duala Isidoro'k euskaldunen aurkako gudu aren aipua: "Dirudianez, benetako gudua baiño geiago izan zan ura, jendea gudurako gertutu naiez, jostaketa baten antzeko zerbait": "Vnde *non magis be/to tractasse quam potins gentem quasi paktestrae ludo pro usar certaminis videtur exerctil.s se" (.ib).*

Ori, Euskaldunengandik jasotako porrota estaltzearren asmatutako esaldi txoro bat besterik ez dala errez oartzeko, naikoa zenuke Isidoro'ren 54'-garren ataltxoa osoan irakurtzea.

Mende luzeen epean ikusiko ditugu oraindik euskaldunak iparreko eta e g oaldeko etsaien aurka borrokan beiñere zearo menderatuak izan gabe. Ori orrela dalarik, naitanaiezkoak ditugu galdera batzuk:

Goitik bera eta eskubitik ezkerrera, beiñere kixaz garaituak izateke borrokan atsedenik gabe ibilli aal izateko, bearrezkoa zuten euskaldunek giza-erakunde sendo bat. Zer edo zein ote zan erakunde aren burua? Batzar orokor batean aukeratutako buruzagi bat?

Mendi ta ibarrak-zear aran batekoak bestekoekin biltzeko, eta noruntz joan bear zuten jakiteko bearrezkoa zuten "urrun-mezu-bide" bat. i, Mendietan piztutako sua ote zan gure Asaben mezugaillu ori?

- Sarritan ibilli bear izan zuten arin iparretik egora ta egotik iparrera. Arintasun orrek bide egokiak eskatzen ditu. ote zuan mende aietako Euskalerri Zar arek, Auriamendietako atakak-zear, orrelako biderik? Zaldi, mando, asto... hain ugari ote ziran Euskalerri Zarrean abere zamariak gure gudarien toki-aldaketa azk.ar aietan, borrokarako bearrezkoak ziran gauzak, izkilluak adibidez, ugari eraman aal izateko? *Ugari!* Gure Asaben ekintza aiek ez bait ziran geienbat an-emen emandako zartako arias azkarrak. Alderantziz, izkillu ongi ornitutako gudarozte aundi yayo ta indartsuen – munduko gudarozterik indartsuen – aurkako borroka luze txit odoltsu ta arras 0-arrantzitsuak!

- Geroxeagoko Arabitarren – eta une bereko – Frantzi'ko Karolinjiarren aurkako guduak oraingoz aipatzeke, soilki Bisigoten eta Frantzi'ko Merobinjiarren aurka ia iru mendez etenik gabe garaille irtetzeko beste bi gauza bearrezkoak zituzten eta ezpairik gabe izan zituzten gure Asabek: Alde orotik etsaiez inguraturik, kanpotik gezi bakar bat ere lortzerik ez zutelako, izkiilugintzarako ola ugari eta olagizon yayoak; eta borrokagintza egokirako mailla guztietako buruzagi trebeak, estrategi-ta-taktika edo "gudu-jakintza" yayorik gabe ez bait daiteke borrokarik irabazi.

- Borroka ta borroka ta borroka..., giro latz artan, nola ibilli ote ziran euskal-kristautasunaren zabalkuntza-lanak? Basoetal«) lekaideak izan ziran, eskierki, euskaldunen mixiolariak. Araba'ko anakoreten leiza ugariak adierazten digutenez, asko ta asko izan bait ziran noski gure basoetako lekaide bakartasunzaleak

Edestilariek ez dute sekulan atzerriko etsaien alde bere burua saldu zuan euskaldunik aipatzen. Beraz, iru mende aietan, euskaldunak erbestekoen aurka borrokarako ondo alkartzen zirala dirudi. Bat egiten zuten beraz etsaiaren aurka kristauak eta jentillak. Edota, VI mendeaz gero, ¸Euskaldun guztiak kristauak ote ziran?

587. Iparralde ta egoaldetiko atzerritarren eraso zipotz aiek euskaldunik ez zuten kizkurtu. Antzifia artako eusko-gudari aiek Bisigoten lurretara nola sartzen ziran, Isidoro Doneak azaldu digu, Rekaredo'k aien sarreren aurka egindako guduen berri eman digunean. Beste orrenbeste egingo digu orain Turona'ko Gregorio' k, iparrean Frakiarren aurka egiten zituztenak aipatzerakoan. Eta ez dezagun aztu, VI. mendekoa zala bera, eta bere garaieko

gauzen berri ematen ari zaigula. Entzun eiogun, lateraz aurrena eta euskeraz gero:

*"Wascones vero de montibus prorrwnpentes, ira plono descendunt, vineas agrosque depopulantes, domun tradentes incendio, nonnullos abducentes coptivos cum pecoribus. Contra quos soepius Austmvoldus dux processit, sed parvam ultionem exigit ob eis"* top.e.IX,7):

"Baskoiek, berriz, mendietatik jauzi. egiñez, zelaietara zabaltzen dira, masti ta alorrak porrokatuz, etxeak errez, eta jendea ta abereak baiturik eramanez. Aien aurka maiz borrokatu da Austrobaldo dukea, baiñan apentza laburra lortuz".

isidoro baiño zintzoago mintzatu zaigu Turona'ko Gregorio, onek Austrobaldo' ren porrotak zuritzeko ez bait du, arek Rekaredo' renak zuritzeko asmatu zuan bezalako aitzaki-maitzaki ustelik asmatu.

*589.* Toledo'ko III kontzilioa, Sarkaldean aro aietako kontziliorik. garrantzitsuena. Bertan egin zan ba Iegez katoliko Bisigoten erreiñua.

Kontzilio ortan, au da guri batez ere ajolagarri zaiguna, Euskalerri Zarreko giroa obeki ulertu aal izateko: Erreiñu Bisigota biziko dan bitarterako, Euskalerriaren aurka ordurako guda gogorrean zebillen eta Euskalerriaren aurka gudan jarraituko zuan Erreiñu Bisigotiar gure etsai amorratu oro-zanpatzaille aren eta Eliza Bisigotaren arteko alkartasuna, aregeiago, bien arteko hatasuna, tinko oiñarriturik gelditu zala.

Bat izango dira arrezkero Erreiñu Bisigota ta Eliz.Bisi.gota.

Orregaitik, ez. dira arritzekoak kontzilio artan 72 gotzaiek erregeari eta erregeak aiei eskeiñitako goratzarre maitetsuak:

Kontzilioa, Errege "txit ainizakoi, txit zintzo eta txit jainkozalearen" aginduz bildu zala dioskute kontziliokideek:

Erregeak berak ere esaten du ori: "Ad *hanc vos peragendam congregari decrevimu,s' sinodum:"zuel:* kontzilio au egitera deitzea erabaki nuan". "Erreg santu-santua bera" *("sanctissimus idem princeps"')* izan. zan, gaiñera, batzar artan aurrena itzegin zuana. Ta, Errege "wiigiosis.simus" ark, "goitiko argiz" eratutako itzaldi ura bukatu zuanean, kontzilio osoa asi omen zan txaloka *"in laudibus adclomantes",* ots, "aintza ta aintza ta aintza ojukatuz".

Ez. zan arritzekoa: Ordura arte ariozale izandako Errege ber-beraren, eta ordura arte ariozale izandako Erreiñu osoaren, eta Erreiñu artako Eliz Ariozalearen, katolIko-biurtzea, aldarrikatu bait zien itzaldi artan Rekaredo

erregeak, gozotasun zerutarrez beterik negarrez entzun zioten kontzilioko A.saba zoriontsu aiei.

Gero Kontzilio Ekumenikoien aginduak irakurri ziran, Bereala, Rekaredo erregeak, ariokeriaren sinispidea gaitzetsiz, bere sinispen katolikoaren agerpena irakurri zuan, bereiziki Irutasun Doneko Bigarren Pertsonaren jainkotasuna sinisten. zuala azpimarratuz (ori zan ba Ario'k ukatu zuana, Bigarren Pertsona Jainko ez, zala erakutsiz).

Eta, orduan Erregeak, eta bere atzetik Erregiñak, beren katolikotasunaren aitorpena. izenpetu zuten: "Ego *Rec..aredus rex fidem hanc sanctum et veram c:onfessionent, quarn una per totum. orbem (..atholica confitetur ecclesio corde rtuinens, ore ofirmans, mea destera Deo protegente subscripsi".*

*"Ego Baddo gloriosa regina hanc fidem quom credidi et suseepi, mea manu de tota corde subseripsi".*

Euskeraz:

"Nik, Rekaredo errege onek, Eliz katolikoak mundu osoan erakusten duan sinispide done bakar au, biotzean betirak.o gordez eta agoz aitortuz, nere eskubiz, Jainkoa lagun, izenpetzen dut emen".

"Nik Bado erregiñ aintzakor onek., artu ta sinistu dedan sinispide au nere eskuz eta biotz guztiz. emen izenpetzen dut".

Pozez zoraturik aintza ta aintza oiuka asi ziran asaba guztiak. Kontzilioetako izkuntzaren azterketan txit oitua dan Vives'en itzulpenean ikus eta, al ba"duzute, entzun – alaitastmaren eragiñez lilluraturik oiu zegiten gotzai bisigot zoriontsu aien aintzaketa:

*"Todo el concilio prorrumpia en alabanzas a Dios v en honra al Rey: Gloria a Dios Padre, Hijo v Espfritu Sanio a quien toca proveer a la paz* v *unidad de su Iglesia santa coialica; Gloria a nuestro Sefior lesucristo el cual a costa de su sangre congrega a la Iglesia catalica de entre todos los pueblos; Gloria cr nuestro Sefior Jesueristo que junta a Ia unidad de la verdaderaft un pueblo tan ilustre e hizo un solo rebafio v un solo pastor; ,Y(f qui37 Dios ha concedido Inrito eterno sino al verdadero v catalico rey Recaredo? quien la presente gloria,* y *tambien Icr eterna„sino al verdadero amador de Dlos, el rey Recaredo? Êsie es el conquistador de nuevos pueblos para la Iglcaia catalica; Merezea este verdaderamente el premio apos-*

*poque ha cum-pUdo con el aftcio de Apastol. Sea este caro able a Dios a los hombres porque tan admirablemente glorifica a Dios en la nerra Lan el de nuestro Sefior lesucristo que con el Padre vh.,e v reina en unidad del Espfriut Santo por los siglos de los siglos, (1111 11".*

Ori oiukatzen zuten 72 gotzaien artean, bat gure Iruña'ko Liliolo zan: Eta LiTiolo'rekin batera beste onako gure eta "gure" gotzai auek: Oska'ko Gabinio, Ilerda (Lerida)'ko Pofibio, Urgel'eko Oka Autrigoita-rreko Asterio, KaIagurri'ko Momio, Karkasona'ko Serjio, Gerona'ko Afizio, Anpuri'ko Galano, Ausona (Vich)'ko Eliberri (Elne) Narbonentse"-ko Benenato.

Naiko arrazoi ditugu izenpeketa oiek., une artan ber-bera ere Bisigoten mendean zegoala esateko.

Gotzai guztien aurretik, aurrena, erregearen izenpena:

*"Flabiu.s Recaredus rex hanc deliberationern quan cum sancio definivi-nis synodo confirmans subscripsi"36*

"Nik Flabio Rekaredo erregeak kontztlioarekin batera artu ditudan erabakiok birr-onartuz izenpetzen ditut".

Kontzilioarekin batera, bai, baiña erregea da izenpeketa orrek adierazten digunez erabakiak artu dituana: *"nos cun synodo* clefinivinms".

Arritzekoa ez dan izkera, kontzinoko kanonak-zear ere maiz agertzen bait dira "guk eta erregeak", "erregeak eta guk", "Guk erregeari", "erregeak bezalako esakizunak.

Ez gaitezen gotzai aiekin gogorregiak izan. Ordurarte, Laterria Eliz ari-ozale erejearekin bat egiñik ikusi izan zuten beti; orain, betirako, Laterria beren Elizarekin Eliza Katolikoarekinf dakusate bat egiñik. EZer ederragorik itxaron zezaketen beren buruentzat eta benetan maitea zuten Eliz katolikoa-rentzat, eta, baitare, biotzez maite zuten Erreiñu Bisigotiar arentzat?

Baiñan gauzei gauza diran aldetik so-egin ezkero, au dugu begi-aurrera jeikitzen zaigun gauzarik mardulena. Kontzilio artan gero, gure Asabek, bat egiñik izango dituztela egoaldean Bisigoten Eliza ta Bisigoten Laterria, maometarrek Laterri ura eta Eliz ura ezerezten dituzten arte37

---

36. Errege bisigotek atsegin izan zuten erromatelw inperatoreen izenak artzea. Inperio aundi aren miresle sutsuak izan bait ziran Bisigotak.

Bai. Badakit maometarren menpeko "mozarabeak" kristauak zirala. Baiñan ez ziran, iñolaz ere, Eliz Bisigota, Eliz Bisigota izanaren ondar txiki koxkor bat baizik. Españiarrak geie-nak, ta danak, multzoa egin bail ziran maometar!

Kontzihoak baditu kanon oroigarri batzuk:

IV'a: Gotzaiei elizbarrutiko eliz bat lekaidetxe biurtzeko baimena ematen diena.

.XIV'a, Juduei-buruzkoa da: jopu, morroi, maitale lizun edo emazte kristattak eukitzea debekatzen diena. Au agintzen du gaiñera: emakume oiengandik. umerik sortuko ba'litz, ume oiek bataiatuak izan bear dutela. Dituzten jopu kristauak, naiz erdaindurik egon, saririk jaso gabe utzi hear dituztela yare, eta orrela yaretutako jopuek Elizara itzuli bear dutela.

XVI' a: Osoa emanen. dut, euskaldunak bakarrik luzaro jentillak izan usterik dabiltzanentzat:

"Jentilkeria ia Españi guztian eta Galietan *(pene per 017111ein Spaniant sive Galliatn.* (Azpimarraketa nerea) zabaldurik aurkitzen dalako, au erabaki du kontzilio sagaratu onek, erregearen oniritzia jasoz gero: Ikertu beza gotzai bakoitzak arreta aundiz *(stndiose)* bertako epaillearekin bat egiñik bere elizbarrutiko jentiltasunaren egoera, ta iraduz ezereztu beza aurkitzen duana, eta zigortu bitza gogor, baiñan bizia ukitzeke (saivo *discritnine aninute)* siniskeri ortara sarturik egon daitezkean guztiak.

"Jakin bezate gotzaiek, jakin bezate epailleelc, agindu au betetzen ez ba'dute, besterik gabe gelditulco dirala eskomikaturik,

"Berdin lur-jabeak ere beren etxe ta lurraldeak jentilkeri oroz garbitzen ez ba'dituzte, ta beren esanelcoei okerkeri ori debekatzen ez ba'diete".

Oar bat kanon orri-buruz: bertan aipatzen dan Galia, Septimani dala.

XVIIF ak berriz au dio: Kanon zarrek. kontzilioa urtero egitea agindu zutela, baiñan Españi'ko elizbarrutiak urruti daudelako eta txiroak diralako *(con:y ulta itineris longitudine et paupertate ecclesiortun Spaniw)* bi urtetik bi urtera egitea erabakitzen dala. Gero, kanon ortan bertan. kontziliora etorri-bearraz mintzatzen da, baiñan oso legunki. Ez, Galietako kontziii.oek bezain gogor.

"Gotzaiekin batera, epailleak, Laterriaren diru eta diru orren erabilketan esku duten guztiak ere etorri bitez gure kontzilio auetara".

Dakusazunez, gotzaiei ez eze', kontziliora deitzen zaie Laterriko epaille ta zergalariei. ere. Ez zaitez asarretu, irakurle; zintzoa bait zan gotzaien asmoa: "erria gozoki *(pie)* eta zuzenki *(inste)* nola erabiili ikasi dezaten".

Gero, onela jarraitzen digu Kanon orrek: "Erregeak egin digun eskariaren araura, begira beznte gotzaiek beren lurraldeetako epailleak erriarekin nola jardun oi diran *(qualiter iudices cum populis agant)",*

Ori zertarako? "Gaizki dabillen epaillea zuzentasunera erakartzeko, eta, bearrezkoa ba'da, gaiztakeria erregeari salatzeko".

Onako au gainera: Kontzilio oietan, "aztertu ta erabaki bezate gotzaiek eta erreiñuko buruzagiek probintzietan zenbat eta nolako epaitegiak diran ezarri bearrak, probintziek kalterik jasan ez dezaten".

Bai. Izugarrizko eskubide ta almenak ematen zaizkie gotzaiei Erreiñuaren politikazko arazoetarako Kristaudi osoan; baiñan ezin azturik utzi daiteke Elizaren ekintzari zor izan zitzaiola Kristaudira erdi. abere iritxi ziran germaniar basati "barbaro" aiek gizakume biurtu izatea.

Urte ortakoa izango da Galakterio Buruzagi Frankiarrak Euskaldunen eta Kantauritarren aurka egindako erasoketa, bi urte leenago izendatu bait zuan bera Bordele'ko Konte Gomtran erregeak.

Esan dezagun aurretik, Estornes Lasa'ri jarraituz, euskaldunek etsa i en mendeko lurretara egindako sarrera aundi aietan, "que *irian gentes de diversas partes del PaíS Vasco","probabilisimo"* dala.

*"Los hechos militares franco-godos se dirigen siempre contra una W.1Sconia resistente v organizada. Lo que ocurt-e es que desconocemos cuatno ocurrfa dentro de sus frontera. No en VatiO* los *cronistas eran, todos, francos y godos".*

Eta onela dijoakigu aurrera bere mintzaketan: "Tan *es ctst" que Basconia era una, rrrilucrr y poifticomente, en estos momentos hiskjricos, que Galacterio, conde franco, combatio a los vascones y a los cetntobms. Esto prueba que las expedictones francas llegaban hasta Contabria".*

Bat nator esaldi orrekin punttu batean izan ezik. Ez bait dakigu zer Kantauri izan zan Galakterio'k borrokatu zuan ura. Gaurregungo Santander'ko probintzia?, ala Euskalerri Zarraren barruan, ibero ibaiaren ego-ibarrean Bisigotek sortutako "Kantauri" konterria? Azkeneko au nere ustez; beste Kantauri ura, Leobiogildo'z gero Bisigoten probintzia izateaz gaiñera, Galietatik urrutiegi bait zegoan.

Gaiñera, Errioxan bisigotek antolatutako Bask.onif ko Konterria asti askoz luzeagoz egon zan, ezpairik gabe, euskaldunen eskuetan bisigotiarrenetan baiño. Gaiñera, Galakterio'ren ekintza guztiak zer-ikusirik soilki euskalduren gudarekin zuan. Baiñan albiste osoa seguruaski Benantzio Fortunato'ren olerkibatean dago oiñarriturik. Orregaitik, nere kan-

tauritarren aipua, olerkari onek Galakterio goratzeko – eta goxatzeko darti-- bilkiau joku utsa besterik ez da. Ikus zerorrek (op.c. XIX,10):

*".8adizut benetan zertaz goratu, ene Galakterio:*
*Arrazoi osoz ta tnerezimendu guzliz*
*egin zaituzie konte.*
*Aundikiro omendu zaitu Gontram errege*
*txit goitiarrak.*
*Dont atulla1«?gin dizkizu;*
*bafflan*
*aundiagoak zor dizkizu.*

M, *Jaun Altsu orrek berak,*
*zure gorotzarma aundiagoa izcm dedin,*
*peitzen zaizun Dukeen ezpata ere*
*eman bearra* dizu;
*Orrela aberriaren mugak, eta uriak,*
*egokiago zaindu acrC izango bait dituzu,*
*Bla baita lortu ere,*
*alako emaitz, ederrak d.aglzklzunari*
*Kantauritarrak bildur izatea,*
*eta Euskaidun arifia*
*izkilluetara itzultzeaz ikaraturik*
*Auriamendi'ko aitz-arteetan dituan babeskiak*
*guri emateko gerturik*
*aurkitzea":3`'*

---

"Tu quoque qui resides ineritis Comes ample serenis,\Chare Cialactori, sedula cura mihi1 Cui rite excelens res Guntheranus honores1 Niktjus adhue debet, qui tibi magna dedit".

Debet et ipse potens, ut adhue bene ereseere possis,1 Praestet et arma dueis, qui tibi restat apex,\Ut patrias fines sapiens tuearis et urbes,\Adquiras, ut ei qui dai opima tibi,\Cantaber ut timeat, vasco vagus arma pabescat,\Atque Pyrenaeae deterat Akpis opern".

*"Vagus"* itza "arifia" biurtu dut nik, guduketari-buruzko mintzaeran "arin eta isilik iñor oartzeke izkutaturik ibiltzeko yayoa dan gudularia" adierazi nai bait du.

"Vagus" olerkari erromatarrek eusko-gudartei eman oi zieten deikera da: "Vasco *vagus"* Salio italico'k, adibidez. Are geiago, klasik-aldia-osteko olerkariak klasik-aldi.ko olerkarien niiresle ez ez,ê' askotan punttuz-punttuzko jarraille ere izaten ziran-da Benantzio Fortunato'k Kantauritarren eta Baskoien aipua egitean ezaguna zuan Salio Italico'ren poema zeukala, esango nuke nik, oroimenaren begien aurrean.

589. Narbona'ko kontzilioa, "Reetaredi *Gothorum ira Hispania regis tempore celebratum".* Bere kanonik geienak elizgizonen bizierari-buruzkoak dira.

Alare, ,IX'ak, ildakoak illobitegietara abestuz eramatea debekatzen die juduci;

XIV' a, berriz, aztikeriaren aurkakoa da. Zigorra, aztiengana urbiltzen danarentzat, eskomikapena; eta sei urrezko ontzako isuna *("sex uncias auri"),* uriko jaurleari ordaintzekoak. *("Comiti civitatis inferat").*

Eta, azti beraientzat, naiz gizonezko naiz emakumezko izan, enparantzetan gogor zartaffiuz zigortuak izatea, eta, gainera, salduak *("venundentur").* "Eta. txiroentzako bitez, salketa oietatik atera daitezkean diruak".

Kontzilioak, aztiak zigortu bearraz ari danean, bera oartzeke Narbona uri kosmopolite.an bizi ziran jendeen enda ezberdiñak ematen dizkigu, *"aztikerizaleak irr quinscumque dorao (edozein etxe) gothi, romani„syri„graeei, vel juthiei fuerint inventi (aurkituak izan") zigortuak izan bear dutela esaterakoan:*

"Gotiarrak, Erromatarrak, Siritarrak, Greziarrak eta Juditzak" izendatzen dira kanon ortan. Euskaldunik ez. Esan dugu baietz: naiz urian bertan euskera galdurik egon, bere eliz-probintzian asko ta asko zirala oraindik euskaldunak. ¿zergaitik ez zituan baa kontzilioak aipatu? Euskaldunak ere geografiz galitarrak izanik, kontzilioak etxekotzat artzen zitualako.

Euskaldunak azti. ospetsuak izan ziran, bai beintzat, erromate-aurreko aroaz gero, Erroma'ko inperatore aztikeri-zale ber-beraien eredu. ,IK_Fi.stautasunera biurtu ondorean ere aztiketari emanik jarraitzen ote zuten? Bai, eskier-

ki. Bataioa buruan artzea burufik oitura zarrak kentzea baiNo errezagoa bait zan eta bait da – mundu guztian bezala Euskalerrian ere.

Izan ote zan, Narbonentse-Probintziaren zoko euskaldunetan, kanon orren araura zauritutako azti euskaldunik? Ez dakigu. Ez bait dakigu, eztare, Uri Nagusietatiko aginduak euskaldunen baserrietara nolako indarrez iristen ziran.

Kontzilio artan izan ziran beintzat "gure gotzaictatik Karkasona' koa, Eleberri (Elne)'koa, eta Narbona bereko Metropolita. Ango beste lau kontziliokideen gotzai-oriek.ere – Beterre edo Beterri, Magalona, Agate, Nemausso edo Nemautso, (¿ edo Nema-Auzo?) eta Loteba'k aski euskal-usai aundiko izenak daramazkite, baiñan, seguruaski, aien elizbarrutietatik ezabaturik egonen zan euskera, euskerazko lurraren gunetik aski urruti aurkitzen ziralako.

590. Sebilla'ko 1 kontzilioa. Elizgizonentzat dira. an. eman ziran kanon guztiak.

Gauzatxo bat, kontzilio ortako gotzaien artean gogoragarria:

Ezaguna dugun Eliberri (gero Elbira eta gaur Granada)'ko gotzaiarekin batera, *("Stel'anus ecclesiae ELIBERRITANAE episcopus")*, itxura bera duan beste uri bateko gotzai bat agertzen da kontzilio ortan: *"Petrus ecclesiae ILIBERRITANAE" episcopus"*. Oraingoan izen ori, gaur Granada' ko probintzian dagoan Guadix uriarena da. BaiNan arazoa zaillagoa billakatu dadin badakusgu bi oiekin zer-ikusirik baduan irugarren bat ere; orain Niebla izendun urikoa: "Basillus *ELIPLENSIS episcopus"*. Iru izen oiek berdiña dute itzaren enborra: "ELI" edo "ILT". Era berean dirUCli enbor cuskalduneko itza, gaur Kordoba'ko Cabra uritxoari orduan ematen zitzaion EGABRE (¿ EGABERE?) izenak: *"lohannes Egabrettsis episcous*

Orrek zer esan dezakean? Ezer askorik ez nere ustez. Len ere esana bait naiz euskal-itxurako izenak munduko izkuntza guztietan agertzen dirala; ugari gaiñera batzuetan, baifian orrek ez duala izen oiek euskaldunak diranik esan nai. Berdintasuna ez bait da beti aidetasunaren "Aran", adibidez, Euskalerrian izen euskalduna da; ez, ordea, Asiri zaarreko lurretan.

590. Urte ortakoak, iru kontziliotxo damaizkigu Gregorio Turonatarrak (Hist.Frane.X,8, 1.6,19).

- Aurrenekoan, Arberna (Clermont-FerrandYen inguruan egindakoan, ango Kontearen emaztea, etxetik al zuan guztia eramanez iges-egin zuana, senarrari kendu zion guztia eta 1.au aldiz geiago biurtzera beartu zuten gotzaiek.

Errege Merobindarren artean ere, gotzaiek erreiñuko epailleen lanetara sarturik!

- Bigarrena, *"in civitate Pictavense"* oraingo Poitiers urian lekanne batzuen jardunkera traketsa epaitzeko bildu zana. Bafflan, – naiz kontzilio au orren garrantzi gutxiko eta soilki soilki Elizari zegokion auzi baterako bildua izan bertan egon ziran Guntram eta Klodoberto errege biak..

Laterria ta Eliza bat -nerobindarren artean ere. Ez. noski, euskaldunen onerako.

- irugarrena, "Concifium *Metense"*, gaur Lorena esaten zaion lurraldeko erritxo batean Reims'ko gotzaia epaitzeko, eta zigortzeko, eratua. An izan zan Kildeberto Erregea. Errege au eta Kilperiko borrokan zebiltzan bata bestearen aurka ta azkeneko onen aide jarri omen zan Egidio Reims'ko gotzaia. Bizirik irten zan beintzat epaiketa artatik, naiz lekaidetxe batean itxirik bizitzera galdua.

- Urrengo urtean, 59 Lan, gertatu zan beste kontzilio bat, baiñan, soilki, errege izanen zan Klotario printzipe jaioberria bataiatzeko.

Lau kontzilio oietan egondako gotzaien izenik ezagutzen ez dugu.

592. Salduba'koll kontzilloa. "Sartti..[y]simi *et gloriossimi Reccaredi Regis permisso (baimenarekin)"* bildua; arianikeritik katolikotasunera etorritako elizgizonei-buruzkoa. 14 gotzai alkartu ziran baiñan izenpetzerakoan ez zuten beren gotzai-urien izenik

# VII MENDEA

6 / 3. Brunekilda Austrasi'ko erregiñaren eriotza. Illa zan ordurako Fredegunda Neustri'ko erregiña, Brunikilde Austrasi'l«) erregiñ one11 bizi guziko etsai amorratua. Ogean il zan ura: pakean; naiz ainbeste oiñaze ta eriotzen sortzaillea, bera izan. Ikus etnen, ain ezaguna dan Andr(f! Maurois idazle frantziarren iritzi au, María Luz Morales'ek gazteleratua Bartzelona, 1.958, 29'gn. orria):

*"La corie de los merovinglos file un lupanar y Fredegunda una arpia. Todo rey hace asesinar a mujer y a hijos; todo hombre se vende por un puiido de oro. E1 libertinaje ha agotado Ia rarna. El propio Dagoberto, prematuramente agotado por sus numerosas esposas muere de vefez (arpimarraketa berea) a los 34 años.*

Izkera anpatuegia – etretorikazale aundia izan bait zan Maurois bafian garai artako giroaren nolakotasuna ezagutzeko txit egokia.

Austrasi ta Nesutri'ren artean Fredegunda Neustrr ko erregiñ onek eta Brunekilde Austrasr ko erregiñ arek sortarazitako borrokaldi aietako batean baitua izan zan Brunekilde. Baiturik, aurrena, irli egunez, eta gauez, gudari garaifleen eskuetan uttia izan zan berauen jostaillu; eta auek nai izan zuten guztia iraindu ta zikindu zutenez gero, esan dugun bezala, illeditik zaldi gazte basati baten isatsari iotua.

"Onelako ikaragarrikeri auek, oiturazkoak zituzten frankiarrek, sendi aundikien arteko arazoetan": "Ces *horreurs (.[5]tatent d'ailleurs le de'.nuentent habituel des guerres entre les fitinilies franques"39*

---

[39]. Itz aiek leen ere erabillia dedan Grand Larousse.n (Editio Princeps), "Brunehaut" itzean, Orrela deitzen bait diote frantziarrek Brunekikda'ri. Baita Brunhikd ere. Arras kiburu itnrria da Larousse'ren kenen argitalpen ori.

Fredegunda'rekin borrokan, .Frankiarren giro basakoi artan, emakume gogorra billakatu zan bera ere gure Brunekilda. 10 errege eta beste jende-talde mardul baten eriotzak leporatu dizkiote edestilari batzuek. Gogoan euki bearra da, ordea, etsaiei-buruz gaizki itzegiteko, aski mingain luzea izan zutela aro aietako edestilariek.

Ta ori. gogoan euki bearra ba'da, ez dugu noski aztu bearra bere garaieko edestilariak ez zirala Brunekilda'ren aurka era gogor ortan mintzatu, eta bere garaieko idazlerik aundienak – Turona'ko Gregorio edestilari Donea, Benantzio Fortunato. Gregorio "Nagusi" Aitasantua – bere alde izan zituala Brunekilda'k. Kristau bezala, bere alde ditu baita dokumentuak ere.. Dokumentu oietan anei ta onei eliz ta lekaidelxeren sortzaille eskuzabal, eta Bretafn Aundirako niisiokuntzan Aitasantuaren laguntzaille aundia agertzen bait zaigu.

Alataguztiz ezin izango dut aipurik gabe laga, edesti zar arek, etsaien aurka minkatza bezain goxoa zuala adiskideen alde itzegiterakoan

Ta, onako auxe da batez ere gogora ekarri bear duguna: Emakume ura, naiz kulturaz oparo jantzia, jitez bisi.gota zala, barbaritarra, eta berak eta bere garaieko beste jendeek guduketarako onarturik zeukaten etika, garai gogor aietak.o jende latz, aien etika zala, ez gure garai ontako .Y,izakumeok, naiz. erabilli ez, erakutsi beintzat erakusten duguna

Oroitza mingarri oien bidez VI mendeari agur eginda, igaro gaitezen alaigarriagoa gertatuko ez zaigun VITera.

VI mende orren azkenerako, munduko Erririk aundiena ta indartsuena zan Merobin Frankiarren Erria. Aren kidekoa berriz aunditasunez, indarrez, eta bizkortasunez, Bisigotiarrena.

Eta bi Erri aundi aien erdian, bien gorroto guztien elburu, Euskalerria!

Ez aiek bezain aundia, baiña, ezta, auek baiño iñozoagoa ta motelagoa. Bi Erri Erraldoi aiek ezin izan bait zuten Euskalerririk menderatu VI mende. guzian! Eta ezin izango bait dute menderatu VIrean ere!

602 garren urtea. Urte ontan sortu zan Baskoni'ko Dukaterria. Ikus nola damaigun gertakizun orren berri Fredegario edestilariak: "Eo *anno Theudebertus et Theudericus e..vercituni contra Waseones dirigunt, ipsosque Deo*

*aurilictnte deiectos„mae dominationi redegiunt et tributarios f'aciunt". "Ducem super illos nomen Geniale instituunt, qui eos feliciter dominal?it":*

"Urte ortan Teodoberto ta Teuderiko erregeek gudaroztea Baskoien aurka jaurti zuten, eta aiek, Jainkoa lagun menderatuz gero, beren menpeko ta zergapeko egin zituzten. Agintari guztien gain, agintari guren, Genial izeneko Duke bat ipiñi zuten, eta, onek, zorionez, bere mendean euki zituan"40.

Une artan, Garona ta A.uframendi arteko zelaia artzen zuan Dukaterri berri ark. An bizi san jendeak ez ziran "gali-erromatarrak" Frantzi'ko idazleek esan oi duten bezala, Euskaldunak ziran! "Wascones". Eta indartsuak iparrean frankiarrei, egoan bisigotiarrei bezala, ain bikainki aurpegi emateko gai baziran ezkero. Oraingoan ere gure Asabei ekiteko bearrezkoa izan bait zan frankiarren orduango bi errege.ek. (1.1.Teodoberto Austrasi'koak eta II Teuderiko Burgundi'koak) bat egitea, ta, erasoa ziurragoa izan zedin, beren bi gudarozteak batera bildurik ekartzea.

Dukaterri ura, orain euskaldunen aurkako Frankiarren erakunde ikusi dugun bezala, laister ikusi aal izango dugu "euskaldunen eskuetan eta Frankiarren aurka borrokan.

"A la *larga* (el Ducado de Wasconia) *dio por resultado la libertad nacional* (vasca)" (Estornes Lasa: *"Hist. Geni. Eusk. Epoca Vascona",* 114).

603. Cabilona'ko kontzilioa. Brunekilde erregiñak, Donedesiderio, Bieaa galitarreko gotzaia bere Aulkitik jaurtitzeko bilduerazia. Ez dakigu zenbat gotzai alkartu ziran an. Gregorio Turonatarrak dioskunez ez omen zan ura oso batzar garbia gertatu. Donedesiduio erbesteratua izan zan beintzat, eta, geroago, erbestetik ekarria ta Tec-Kloriko erregearen aginduz "lapidatus", arrikatua. Brunekilde erregiña ez ez3, okerkeri artan sarturik ibilli zala dirudi Aridius Lyon'go gotzaia ere,

610. Gundemaro errege bisigot.a euskaldunen aurka borrokan.

612. Oraingoan, Sisebuto errege bisigota dugu borrokan gure Asaben aurka, Doneisidoro'k dioskunez. (Hist.Ghot. 61). Fredegario' k, berriz, Sisebuto onek Andaluzi'ko Bizantziotarrak menderatu omen zitualako, eta

---

[46]. Fredegario, VII mendeko idazkea, "Monurnenta Germaniae Historica" izeneko bilduman aurkitu dut ("Seriptores Rerum Merovingigarum" 129). Edestikari zintzo bezain idazle baldarra omen zan Fredegario. Ortografiaren etsai eta germanerakerien zale aundia.

Euskaldunak garaitu "tinko gelditu zala, diosku, Bisigoten agintaritza itxasotik. Aunamendi'ra".Tarte ortako euskaldunak zalpalduz gero, jakiña: *"Confirmatum est regnum ghoutrum in Spania per maris littora usque ad montes Pyrenaeos"* (ib.133).

Tinko? Laister izango ditugu emen – Frankiarrak iparrean eta Bisigotiarrak egoan – tinkotuta omen zeuzkaten gauzak bir-tinkotzera etorriak? Euskaldunak. ez bait ziran sekulan erabat menderatuak izan.

Atal ortan bertan beste zerbait ere badio Fredegario'k: Urte oietan, Kantauri, Frankiarrena izan zala, Frantius izeneko duke frankiar batek izkilluz arrapatu omen zualako. Zintzo ordaintzen omen zizkion duke orrek bere erregeari. – errege Frankiarrari, jakina, –lurralde aren jabe izateagaitik zor zizkion zergak.

Baiñan Fredegario' ren atal orrek., eta bereiziki ata.1 ortan Kantauri Frankiarrari-buruz dioskunak ez du deus aundirik balio. Bikain Jaurgain'dm-Sean'ek (op.e.75): "Pero *este pasaje de Fredegario solo .se encuentra en uno de sus manuscritos, ei del colegio de Clermont, v se eree, a ciencia cierta que ha sido interpolado".*

612. Urte ontan, Galietako errege ziran iru anai Frankiarrak borrokan ditugu alkarren artean: Burgundi'ko Teuderiko ta Neustri"koll Klotario, Austrasi'ko Teodoberto'ren aurka. Azkeneko au gudan il da laister, ostera borrokan ditugu beste bi anai aiek bata bestearen aurka. Oraingoan Teuderiko izango da dana. Ez ordea borrokan Teodoberto bezala; uste gabel«) eriotzez bat-batean baizik.

Eriotz oien ondorioz, II Klotario gelditu zan Babiera'tik Aurtamendira Frankiar guztien errege bakarra, baiñan ez eskuak garbi zituala, *despue:s de dar horrorosa maerte a Brunequilda asf* COMO *a sus dos hijas"* baizik", Espasa"k gogoraazten digun lez. Ikusi dugu nolakoa izan zan Brunekilda'ri eman l,iona

614. Egara'ko-[tl] kontzilioa "anno *feliciter tertio gloriosissimi domini nostri Sŕsebartŕ regis".* Tarragona'k.o elizbarrutiak, Oska' n[42], "oroipen jain-

Egara'k, gaurr-egungo Tarrasa'k euskal-itxura aundiko izena darama; hautan, Katakuanirren ain barru-barruan dagoakako ez naiz iñoiz euskalduna izan zitekeakarik esatera ausartzen.

598'garren urtean.

kotiarreko Rekaredo erregearen agintaritzako amairugarren urtean", "anno *tertio decimo regni divae memoriae Reccairdi regis",* artutako erabakiak nola egoki bete ikusteko Egara'n bildua. Bertan izandako "gure" gotzaien izenik onera ekartzerik ez kontzilio artako Asabek ere ez bait ziguten beren urien izenik eman.

614, agian, 615: Paris' ko V kontzilioa. "Ex *evocatione gloriosissimi principis Domini Clotacharli regis", "Klotario* errege ta agintari txit aintzagarriaren aginduz" ospatua. "Kontzilio ortako dokumentuem eraskiña bezala iritxi zaigu, "gotzai kontziliokideekin batera "Klotario agintari txit altsuak bere mendeko guztientzat eratutako agindua", ots, "Editum inchrti *principis Chlothacarli regis super onmem plebem in conventu episcoporum in synodo Parisis adunata".* Zoritxarrez, ordea, kontziliokide aiek ez beren ez beren egoitzen izenik ez ziguten eman.

616. Sebilla'ko 11 kontzilioa, Eliz artako arazoak zuzentzeko. Badu apaiz jaunei txit atsegiña gertatuko zaien kanon bat: VI'a: Vives maiz aipatuaren gaztelerapenean emango dut. Azpimarraketak nereak izango dira, eta nik sartuak, baitare, lateraz Asaben idazkeratik artutako esaldiak:

*"Hemos sabido que Fragitano presbitero de COrdoba, fue depuesto hace tiempo bijustamente porslr obispo condenado a destierro siendo inocente, al cual nosotros restituyêndole de nuevo a su grado, decretamos nuevamente en contra de nuestros abusos lo siguletne:*

*"Que conforme a la deciskin conelliar de Ios antiguos padres, ninguno de nosotros sin examen del concilio se citreva a deponer a algUn presbitero o diaeono, pues hay inuchos que condenan sin oir a* los *interesados usando de poderes tivanicos* ("potestate tiranica") meis *bien que de su autoridad camjnica, y us como a algunos los levantan por favorinsmo* ("favoris gratia") *a otros lvs hundllan Ilevados del odio o de la envidia* ("odio envidiaque") *y por cualqier lexe rumor* ("ad leven opinionis auram") *los condenan sin que puedan probar su delito* ("quorum erimen non adprobant").

Guzi ortaz gaiñera, itz isekagille oiek, kondaira toretsuzko liburutxo ortan, bidez-kanpokoak dira, egilleak iraizean bezala ta zionart. jaramonik eman gabe idatzi zituanak: orduan baskoien aurka frankiarren artean orrelako esakizunak modan zeudelako edozein franktar idazlek esan bearrak. zituan itzak!

Ikus nola aurkezten digun Felix'en eta gero Lupo ren autaketa Jaurgain'ek (op.c.81):

En *el año* 660 *los vascones habt'an elegida por jefe a un nobilisimo e ilustre patricio tolosano que gobernaba ya esta regkin y que reunki sobre su cabeza las coronas ducales de Vasconta y Aquitania.* (Akitani au, antziñako "Aquitania Prima"k eta "Akitania Seeunda"k osotzen zuten, "Aquitania Tercia" edo "Novempopulania", "Waseonia" bait zan; laister "Gascunia" esango zaion lurralde euskalduna.

*"Un hombre joven, Lupo, cuyo solo nombre basta para que sea idennficado como vascOn, queriendo ganar renombre, fue al eneuentro de. Felix v se puso a su servicio. Ala muerte de Felix los aquitanos V los vaseones permanecieron unidos h eligieron a Lupo* COMO *prineipe"* (Jaurgain, op.-e.81).

Jaurgain'ek damaizkigun albiste oien oiñarria "Martzial Donearen Bizitza"izeneko liburuxka zarra da. Ez dezagun aztu Baskoiei,liburu orren idazleak, "gentem nequissimam Wasconiae" esaten "Euskalerriko jendillaje gaiztoa baiño ga'iztoagoa".

Ikus, nola damaigun liburuxka orrek Lupo ren autaketaren berri: "Eo *defuncto„vupradictum Luponent principen susper se omes statuerunt, et onmes* vagiprofugique *ad eum adhaesserunt": "Ura* (Felis) Lupo, (ots, Otsoa) ezarri zuten, ago batez, agintari eta aren ingurura bildu ziran zertik bizirik ez zuten alderrai danak eta beren errietatik. igeska zebiltzan guztiak".

UEgiaz uste ote zuan idazle frantziar arek m.ota ortako jendeak zirala Lupo'ren baskoiak?

Guretzat, I Lupo ori, Euskalerriko lenen Laterri-Buru yarea da.

666. Merida"ko Kontzilioa, *"in provinc..la Lu.sitaniae apud urbem Emeritam quae caput eius dignoscitur ense* a/1/10 VIII *serinIssimi et pilsimi Recesvinti regis", "Rezesbinto* errege txit egokitsuaren eta jainkozale aundiaren zortzigarren urtean, Lusitant'ko probintzi aren uriburu dala jakiña dan Merida urian".

Bi kanon ditugu kontzilio ontan atpagarri:

*"Rezesbinto gure errege errukitsua* ("clementissimo"), *gudara doanean, bere mendekoen eta bere gudarien eskiertasunerako eta garaitza eder bil lortu aol dezan, egunero eliz guztietan eskari bereiziak egitea*

*agintzen duana. Agindu ori betetzen ez duan oro bere metropolitak esko-rnikatua izango da.*

Arritzekoa litzake – garai artako euskaldunak jentillak ba'ziran kontzilioko Asabek ori isilik utzi izatea, esate utsarekin milla aldiz indar geiago artuko bait zuan ain ozenki jaurti zuten eskomikapenakl

Oroi nola Franco'k sortutako gudatean eta ondorengo diktaturtzak.oan Españi'ko gotzaiek Españi'ko erria egunero mezakoan aren alde otoitz egitera beartu zuten. Zergaitik? Franco'ren etsaiak Aberriaren eta jainkoaren etsaiak omen ziralako. Nik ez nuke esango Franco'ren aurkako aiek Aberriaren eta Jainkoaren etsaiak ziranik, bai, bildurrik gabe esango nuke kapitalismoaren eta kapitalisten adiskideegi ta Franco'ren adiskide sutsu agertzen zitzaizkien Espardl«) Gotzaien etsaiak zirala.

Zintzoago jardun zuten antziñako Gotzai Bisigot aiek: Ez zuten esan euskaldunak jentillak eta Jainkoaren etsaiak ziranik. Ez bait zekiten ori egia zanik. Are geiago, ori egia izan zitekeanik ez bait zuten pentsatu ere egiten. Baiña esanera zuten, hai pozik gaiñera, beren errege rnaiteen borroka amaikaitza Gurutzada Santua biurtzeko, euskaldunak ala zirala egia izan ba'litz, eta baita, orrenbesteko ziurtasunik gabe ere euskaldunak jentillak izan zitekeala pentsatzeko aitzakitxo bat izan ba'lute.

Metropolitak eta erregeak, Eliz-Probintzi bateko gotzaiak kontziliora deituta, agindu ori bete gabe kontziliora joaten ez dan gotzaia, metropolitak eskomikatua izango da.

669 Loira'ra doan Some ibaiaren lurraldean aurk.itzen dan lekaidetxeari yaretasun osoa emanez, 111 Klotario erregearen idazkia. Erregeek lek.aidetzari zioten zaletasunaren adierazle dalako oroitu nai izan dut errege ark gutun ori idatzi zuala.

670. Senona (Senones) izeneko lekaidetxean lekaidetxe orrentzat jabe ororengandiko askatasuna sendotzeko egin zan kontzilioa. Lekaidetxe ori Bosgos izeneko mendian zegoan.

670. Augustodunum edo Autunf go k.ontzilioa. Bere 15 kanonak, mezaz mintzatzen dan XIV `a izan ezik, danak lekaideen bizitzari-buruzkoak dira.

672. Banba da Bisigoten errege berria. Berealaxe asiko zaigu gure Asaben aurka borrokan. Ortarako, Toledo'ko Goigotzai ta edestilari ezaguna izan zan, Juliano Doneak dioskunez, "Kantauri'ko lurraldean jarri omen zan bizitzen errege jainkozale ura, Euskaldun ezikaitzak menderatzeko asmoz": "Religiosus *Warnba princeps, feroces Wasconum gentes debellatu-rUS aggrediens, ln partibus morabatur Cantabijae"* (op.e.11,708).

An, "K.antauri-ondoko euskaldun ezikaitz aiek", *"Feroces Vascones in partibus Contabriae",* borrokatzen ari zala, jakin omen zuan, Septimanf n Paulo dukea iraultzan jeiki zitzaiola49.

Donejuliano'ri., jarraituko diogu guk emendik aurrera, gertakizun auen berri emateko. Banba'ren denborakoa bait dugu. Toledo'ko XII, XIII, XIV eta XV kontzilioetan lendakari izan zitzaigun, eta, orregaitik, geroagoko beste kronikalari guztiek baiño obeki. ezagutzen bait zituan bere garaieko gertakizun auek.

Oroi dezagun, ordea, adiskide oro zuritzeko ta etsai guztiak zikintzek.o, neurri-gabeak zirala aldi aietako idazleak.

Ikus, adibide lez, Juliano orrek Frantzi'z damaigun antz-irudia, Estornes Lasa'ren itzulpenean (o.e.I43. Mako-ateko oro, nerea izango da):

*"En los dias de este* (Banba'ren egunetan) la *región de las Gallas, madre nutricia de la perfidia, se hace notar con una infame celebridad, que, agitada con una fiebre increthle* (inaestimabili febre vexata), *se taba comiendo los miembros de los infieles engendrados por ella misma* (genita a se infidelium depaseeret membra). Yes *que, habia en ella que no fuera cruel o vergonzoso? En ella se daban cita el complot de los COn-*

---

[49] Ez dakit esan dedan Septimani "septem", "zazpi", urik osotzen zuten Frantzi'ren Lurrart'-ktxaso aldean Aunamendi ta Rodano artean aurkitzen zan kurraideari esaten zitzaioka. Zazpi uri aiek onako auetxek ziran: (Oraingo, erromateko, eta, nere ustez erromate-aurrean izan zezaketen izenez aurkez-tuko ditut. Erromatarrek adjetibu edo akbo-itzen bidez eman oi zituzten errien izenak, aurretik "eivitas" itza ipintzen zutelako edo ipiilitzat artzen zutelako. Ona orain Septimani.ko zazpi izen oiek: Bffieres (Civitas Beterrensis: BETFRRE? BETE-RRI?); Careassonne (Civ. Carcasonnensis: KARKASONA); Agde (Civ. Agatensis: AGATE?); Magueionne (Civ. Magalonensis: MAGALONA): Nbbes (Civ. Nemausensis NEMALT-TSE?); Lotve (Civi. Lotebensis": LOTEBA? LOTEBE?); Ekne (Civ. Ekiberritana, EL/BE-RRI). Zazpien metropoli edo uriburu, gaurko Narbonne (Civ. Narbonensis: NARBO?, NAR-BONA?). Badute noski izen guzti oiek euskak-itxura galantik!

*jumdos, bandera de la perfidia, el engatto en los negocios, el juicio venal lo gue es peor gue todo ello, el prosdbulo de los judios gue blaslentaban contra el mismo Sefior v Salvador nuestro. Porque esia tierra, de parte propio, para decirlo de alguna numera, crie3 en su prevaricackin a seguidora de su desvado* (eversionis su[g]e nutrivit discipulam").

Bearbada, Paulo dukearen jazarketa Septimani'n gertatu zala esaterakoan Juliano'k aipatu digun Frantzi ori, Septiniani izatea baleike.

Bainan iparrean ere baskoiak, beren Dukearekin batera, naiko etsai izan bait zituan Banba'k, eta Septimani'ko iraultza artan bertan ere Paulo iraultzalariaren alde sartu bait ziran gudara, Juliano'ren aapaldi zakar ori Frantzi osoarentzat esana izatea baleike.

Zana zala Donejuliano'k aipatzen duan Frantzi ori, aldareetara igo dan Done batek, Donejuliano'k, Frantzi orren aurka ain zakarki itzegin bazuan, zuk ikusi, irakurle, nolako usteontasuna merezi lezaketen garai artako edestilariek, euskaldunen eta Euskalerriaren aurka alako zakarkeri baldarrak esaten asten diranean.

Bere jazarketa gertatzerakoan Paulo duke iraultzalariak Baskoiei ere laguntza eskatu ziela, eta, auek, aren alde borrokatu zirala ere, diosku Juliano Doneak.

Septimani-barrungo borrokaz ari dalarik, au da esaten diguna: Lupus zeritzan Galietako duke bat,– ots, Bask.oni'ko gure I Lupo Beterre (Beziers)'ko lurraldera sartu zala borrokalari: "Unum *e ducibus Franciae, nontine Lupum, irl Beterrensi territorio hostiliter accesisse".* Baiñan Banba bere aurka zetorkiffla jakin zuanen, "ain izuturik iges egin zualako, bai omen zemakian Dukea gudarozterik gabe gelditu zala edota Dukerik gabe gudaroztea"; "ita *terrificatus atgitgit, ut exercitus Duci et exercinti Dux videretur deese".*

Eta Banba'k, Auñamendia igaro aurretik, bere gudarozte osoarekin zazpi egunez Euskalerrian izugarrizko ondamena egin omen zuan. Ondorioz, euskaldunek, zearo ikaraturik, pakea eskatu omen zioten.

Ez, errez sinistu daitekean gauza. Donejt.diano'k berak, naiz "hostilitas *eastrorum",* ots, euskaldunen "arresiz babestutako errien aurkako erasogintza" aipatu bai, "castra" aietako bat bakarrik Bisigoten mendera jausi zanik iez bait digu esaten!

Beraz, Donejuliano'ri entzuten jarraituz – Bisigotak ez ziran "zelaietako alorrak porrokatu *("patentes compos depraedari")* eta "erri irikietako etxeak kiskali" *(doutortunque incensio)* besterik egiteko gauza izan!

Ezer gutxi, Baskoiak "beren *oiturazko piztikeriz azturik"* (feritate animorum deposita), burua makur, pakea eskatuz beren betiko etsai gorrotatuen aurrera azaltzeko.

Amai. dezagun edeski au, Banba Septimani'n beintzat garaille izan zala, eta Arabitarrek. kendu zieten arte Septimani'k Toledo'ko Bisigoten eskuetan jarraitu zuala esanez.

675. Toledo'ko kontzilioa. Gotzaiek beraiek dioten bezala Banba erregearen aginduz "Eskerrak. darnaizkiogu Jainkoari, eta Banba gure errege jaun erlijio-zale ta maitagarriari", *("religioso donno et Wanthani regi"); "bere* aginduz alkartu bait gera emen", *("cuins ordinij tione collecti sumus").*

Ez du gure aldetik Eliz-Batzar onek ardura aundiegilik merezi. Soilki bi kanon jasoko dizkiogu:

- Bata, gotzai aien apaltasuna eta egiaganako maitasuna agertzen dualako: V'a: izenburu au daramana: "gotzaien geiegikeriei erabat amaia eman bear zaiela". Ainzuzen ondorengo kanonak, VI'ak, aipatzen digu geiegikeri aietako bat: *"truncatio inembrortun": "gorpuzkien* mozketa": agian?

- Bestea, gero Eusko-Eliz zar aren liturgiaz mintzatzerakoan garrantzi aundikoa izango zaigulako: "Ut in *uno provincia deversnos officiorum non teneatur": "Eliz-probintzi* batean ez bedi zirimonien ezberdintasunik izan".

Garrantzizkoa iduritzen zaidalako, osorik emango dut liburu onen azkeneko eraskifien artean. Ona emen bere mamia:

- "Gotzaiek eta elizetako erretoreek, *("pontij ices rectoresque ecclesioru")* abesterakoan, (ots, orduan guztia egin oi zan abestuz), goigotzaiaren katedralean erabiltzen dan era bakarrik erabilli bezate: *1,1-111,1111 eurndernque in sallendo teneont modtun quetn in tnetropolitona sede cognoverint institutunt").*

- Era berean galerazten du "edozein ezberdintasun-mota beste elizkizunetan ere: *nec aliquo diversitate cuiusque ordinis vel cffieii metropolitana sede disiungi").*

Esannai aundiko ondorioak atera daitezke kanon ortatik., eta aterako ditugu guk, Euskalerri antzifiatsu artako elizetan eta lekaidetxeetan zitekean liturgiaz mintzatzerakoan.

Esan dezagun, amaitzeko, kontzilio artan ez zala ez gure ez "gure" gotzairik izan. Ezta bat bakarrik ere.

675. Braga'ko II1 kontzilioa. "Quarto *(anno) gloriossisimi Domni nostri Warnbanis Regis", "Banba* gure Errege Jaun txit aintzagarriaren laugarren urtean".

Interesgarria Fgo kanona: "Ut *repulsis omnibus opinthnibus supperstitionum, paris tanturn et aqua permixta ilt scrificio offeratur", "si-*niskerizko aburu guztiak 1agata, mezan ogia ta urarekin nasitako ardoa bakarrik eskaini bear dirala": bai omen ziran ba ardoaren ordez esnea sagaratzen zutenak.

Galerazten ditu, baita, ardoa ez baina mats-mordoak sagaratzen zituztenak ere, gero kristauen komuniorako mats sagaratuaren ale bana

Beste batzuek ez omen zioten ardoari urik botatzen, "orrela Kristo, kalizean, erririk gabe utziz", ardo-uren nasketa Kristo ta kristauen alkartzearen adigarri omen dan ezkero.

Ori dana *"superstitionum opiniones", "siniskerizko* pentsaerak" ziran, kontzilioko Asabentzat. Baita kristauei ogi sagaratua ardo sagaratuan bustiz ematea ere.

Kontzilio ura erregearen aginduz egiña izan zala adieraziz, itz auen bidez amaitu zuten gotzai aiek beren ariketa: "Izan bitza pakea, osasuna, bizi Barba gure errege txit erlijiozale ta Kristo'ren maitaleak; Jainkoaganako bere eraspenak bildu bait gaitu agindu osasungarri auek eratzeko", "Pax„valus *et diuttunitay pii,511710 et amatort Christi domino nostm Wambani segi cuius devotio nos oc:1 hoc decretum salutiferurn convocavit".*

Kontzilio artan, jakiia, ez zan ez gure ez gure gotzairik izan.

681. Toledo'ko XII kontzil ioa, *"anno primo orthodoxi atque serenisstmi nostri Ervigii regis", "Sinismen* zuzeneko eta egokitasun guztiko Erbigio gure errege jaunaren agintaritzako lenen urtean", eta, beste kontzilio aiek bezala au ere "erregeak aginduta", "Principis *ius.y u"* bildua.

Bearrezkoa zuan Erbigio'k gotzaien batzar ura, bere agintaritza sendotzeko, erregetza lapurkeriz kendu bait zion IBanba'ri buruntza.

Alataguztiz, bereala ikusi aal izango duzun bezalA, ez zitzaion gotzaien laguntzarik eta aintzakeririk peitu, dirudianez Eliz Bisigotak egiazko erregetzat artzen bait zuan *errege* bezala aurkezten zitzaion. oro, erregetzara iristeko erabillitako erak gogoan artzeke.

Ala, lortu zuan Erbigio' k gura zuana, Batzar artara "apaltasunaren dizdiraz orniturik eta jainko-zaletasunez beterik" *(hunnlitatis gratia plenus claro pietans cultu conspicuus), "batzarkideen* aurrean burua makurtuz„ *(nostro se celui reclinem exhibens)* agertu zanez gero, gotzaiek egin kioten goratzarreak adieraztera damaigutenez.

Guretzat, kontzilio aren kanon guztietatik bat zaigu benetan ,Ç_.!ogoragarria: Espafii guztira arras zabaidur'ik omen zegoan jentilkeriaz diarduna. Baiñan gai ori bera eta ia-ia itz berdin-berdirlekin Toledo'ko XVITI kontzilioan izango bait da birr-agertua, an aztertuko dugu guk ere, VII mendeko **kris-**tau eta Euskalerria jentil egin nai dituztenei erantzuteko ain garrantzigarria zaigun jentiltasunari-buruzko arazo zar ori; (azpimarraketa, nik).

Ez zan Toledo'ko XII kontzilioan ez gure ez "gure" Artzairik eseri. Bai ordea, geroxeago, Gundemaro' k Kartagena' ko Elizbarrutiko gotzaiei zuzendutako -.Decretum" edo "Erabakia" ize.npetzerakoan. Erabaki ori, Kontzilio onen eraskin bat lez agertu oi da idazki zarretan.

Ona, Erabaki ori izenpetu zutenetatik guri ajola zaizkigun gotzaien izena: Narbona'ko Sergius, Gerona'ko Joannes, Salduba'ko Maximus, Kalagurri.'ko Munius, Tarazona' ko Floridius, Iruña'ko joannes. Eliberi'ko gotzai bat ere agertzen da, *"Pisinnus ecclesine Eliberitanue episcopus,* baiña Eliberi edo Eliberri ori Andaluzi'ko Elbira da, gaurko Granad.ao.

682. Rotomagus (Rouen)' go kontzilioa. Lekaidetxe batzuei eskubide bereiziak emateko. Ez zan an "gurea" izan zitekean gotzairik egon.

---

5D. Orra or gaurko Granada'ren antzifiako izena ".R" bakarrez idatzia. Beste batzuetan, bi "RR"z ikusiko duzu. Euskalerriko 7.eneldn beintzat eta HibetTI orrek, — naiz se2nruaski euskakduna ilaT1 ek.tskaidun-itxura Efrornatarrek soiñu ori ematerakoan aski nasirik oi ziran, itz bat berbera batzuetan "R" bakarraz ea besteeffin "R" bjkoitzez klatziz. Euskakdon zarren ezpaiñetatik "R"ren eta '`RR"ren arteko doit ta bereizi bat, rnmtziarren "GRRR"ren antz.eko doiñu bat, entzt.uen zutelako, agian? Naasketa berdiña aurkituko duzu, 'E" ta "1" izkiei-buruz. En en Ekibcri dager idatzirik, beste batzuetan fliberi ikusiko duzun itza.

683. Toledo'ko XI.H kontzilioa, Erbigio'ren erregetzako laugarren urte-an gertatua. Ez du guretzat garrantzi aundiegirik, bertan *"in nomine Dar nirri Falvins Ervigius rex sanctissimis patribus", "Jaunaren* izenean Flabio Erbigio erregeak Asaba txit doneei aurkeztutalw "tomo" edo "legegai-bildu-ma" aztertu ta kanon biurtu beste askorik ez bait zuten egin, ori bai, Erregea gotzai bisigotek oiturazkoa zuten aintzaketa borobillez naroki goi-aipatuz.

Kontzilio ortan eseri ziran gotzaien artean gogora ditzagun onako auek: Oka' ko Esterkorio, "Srercorius *Aucensi.s episcopus;* Euredo, Lerida'koa. Ta, ordezkarien bidez, K.ark.asona'ko Esteban; Tarazona'ko Anterio: Ausona (Vieh)'ko Bisitredo; Sal.dubal«) Balderedo; Urger ko Leuderiko, eta trufia'ko Atila edo Atilano, au diakono baten bidez: *("Vincomalus diaconus Attilcrrrl episcopi Pamplionense,* Pampilonensi s bear luke *subscripsi").*

Baiñan arazotxo bat sortarazten digu izenpen oien zerrendak: ikusi dugu nola Esterkorio'k Oka'ko gotzai bezala izenpetu duan. Ba, kontzilio ura izenpetu zuten gotzaien zerrendan beeraxeago Oka'k.o beste gotzai bat agertzen zaigu, Regineo, edo Aregineo, Yon bere ordezkariaren bitartez Oka'ko gotzai ]ez izenpetzen: "johannes *abbas agens vicem Areginel Aucensis episcopi .mscripsi": "Yon* abata ta Areginio gotzai okatarraren ordezkari onek, aren izenean .izenpetu dut". Zer pentsa?

i Esterk.orto kontzilio amaitu aurretik il zala, eta, aren ordez, Areginio ori. berealaxe Oka'ko gotzai izendatua izan zala? Ez ba. 5 urte geroago bizi-rik bait zegoan Esterkorio, eta Oka'ko gotzai lez izenpetu bait zuan Toledo'ko XV kontzilioa.

- Esterkorio zarra zan. Gotzai lez zarrena zanetik asita, adifiaren arau-ra izenpetzen zuten gotzaiek kontzilioetan. Kontzilio artan gotzaiak 75 izan ziran. 7'garrena da Esterkoreo'ren izenpena, metropolitenen atzetik. Bera zarra zalako, AriginM ori Esterk.oreo'k laguntzailletzat arturik ote zeukan gotzai bat ote zan? Ez. dirudi, orduan Yon bere ordezkariak esango bait zuan Gotzai Laguntzaille baten izenean izenpetzen zuala.

- Kontzili.oko idazleak, edo ondorengo berr-idazieren batek , atzipetu-rik idatzi zuala Oka'ren izena, beste gotzai-uriren batena idatzi bearrean? Baleike. Eta, itxuraz, orrela izan ere da, ez Horez'en "España Sagrada"k ez "Diccionario de Historia Eclesiastica de España"k ez bait dute Areginio'rik Oka'ko gotzaien artean aipatzen.

izenpen oien ondorean Erregearen bi erabaki datoz, aurrenekoa erreiñuko zergei-buruzkoa, eta, bigarrena, kontzilioak agindua erreiñuko lege biurtzen duana.

Azkenik, duke konte, aundiki, ta erregearen alboko laguntzaille garai batzuen izenpenak datoz. "Traseriko ezpatari ta kontea", "Trasericus *spatarius et cortes" adibidez.. "Spatarius"* guda-arazoetako laguntzaillei esaten zitzalen: Gazteleraz, "edecanes", frantzerazko "aide de eamp"tik sortutako itzez.

Eta, azken-azkenik, erregearena: "gloriosac manOs nostrac exaratione subseripsimus: "gure esku aintzakorraren idazketaz izenpetu dut". Ez ziran errege aiek, len ere ikusi dugunez, bakoitzak bere burua aintzat jazterakoan motzak gelditzen.

688. "Dicen los "A.nales de Metz" dioseu Estornes Lasa'k (op.e.147) que el año 688 de nuestra Era, Pipino de Heristal Mayordomo de Palacio dirigÍa expedleiones contra los Sajones, Frisones, Alemanes, Aquitanos, Waseones y Bretones" "En este texto llama la atencicTh la menelOn separada de a.quitanos y vascones". Bai noski, bi dukaterri aiek dukaterri bereiziak bait ziran naiz biak I Lupo'ren eskuetan egon. Eta ala jarraitu zuten aren ondorengoa izan zan Eudon'en eskuetan ere.

Idazti-zati ortan badugu, begietara alaigarri clatorkigun beste zerbait ere: Idazle frantziar arentzat "Waseoni" ez zela Frantzi; atzerria zala, Alemani ta Bretañi, ta beste errialde aiek bezain aberri

688. Toledo'ko XV kontzilioa. Egika erregeari, benetan barrokerazkoa dirudian izkeraz, neurriz gaincliko goratzarreak egiñez asten da kontzilio au ere: "Egika errege txit eraspengarria ber-bera gure batzarrera agertu zitzaigun. bere jainkozaletasunaren gallur paketsuko goitasunez jantzia, ta, bere goitasun ori gure aurrean ain apalki makurtzeagaitik, egiaz aintzagarria.", "serenissinnL[y] *Egica Princeps placido devotionis arce seblimis et cer-171,ta culrrrirtŕs rectinatione laudabilis".*

Bereala, bai Egika erregeak, hai orduan Toledo' n batzarturik zegoan Eliz Bisigotiarrak. berak, argi erakutsiko digute lendik ere ongi genekigun auxe: Kontzilio aiek, Españi'ko Elizaren eta Erreiñu Bisigoliarraren legebatzarrak zirala batere.

Eta ori gogora sarritan erakartzea, aro artako Euskalerriaren biziera nolakoa izan zitekean igarri aal izateko, garrantzi aundiko gauza zaigulako, entzun Toledo'n bildutako Asaben izkera:

"Danon erdian jarri zan. Lurrean etziñik *("humoque postratus")* Jaungoikoaren gotzaion otoitza eskatu zigun. Gero, zutiturik, itzaldi egoki baten bidez, Jaungoikoaren gotzaioi idazki batean bere kezkak aurkeztu zizkigun guk aztertu genitzan.

"Ona emen, esan zigun, Asaba eraspengarriok, izketa luzeegiaz zuek ez aspertzeko, ez bait zan gaiñera egoki gai au noiznaiko itzez *("communi sermone")* ematea agoz ez baiña idazkiz, laburki eta era argian, orri auetan dakarkitzuetana. Ar ezaidazute arren ardura osoz, aztertu ezazute, eta ema'idazute zuen onespena".

Oraingo ontan, Erregeak Elizari aurkeztu zion arazoa, bere kontzientziaren barruan mingarri omen zeraman kezka bat izan zan: Bere aitagiarrebak, Erbigio erregeak, iltzer zegoala, bi zinketa egiñerazi zizkiola: Aurrenekoaren bidez, aren semeen eta erregia alargunaren ogasuna, ororen aurka babestuko zuala, eta, bigarrenaren bidez, erriaren ogasuna, ororen aurka babestuko zuala. bi zinketa oien artean bai omen zegoan korapillo bat, eta korapillo ori nola askatu ez omen zuan asmatzen. Are geiago, Egika'k berak dionez, Erbigio'k gaiztakeri asko egin zuanez gero.

Esan dezagun gotzaien omenez, Elizari dagozkion arazoak erregeei dagozkienak baiño garrantzitsuagoak dirala-ta, azkenerako utzi zutela Egika erregearen arazo orri erantzun-ematea.

Erantzuna, egokia izan zan, naiz alperrikako izkera barrokoi luzez emana: aberriaren ogasuna sendi bakar baten ogasunaren gaindi dagola, naiz sendi bakar ori Erregia Amaren sendia izan.

Ona kontzilio artan eseri ziran gure ta "gure" gotzaien izenak: Narhona'ko Senifredus, Ausona'ko Wisefredus, Kalagurrr ko Wiliedeus, Oka' ko Stercoreus, Anpuri' ko Gaudila, Gerona'ko Sabarieus, Salduba'ko Valderedus, Urger go Lauderieus eta Iierda'ko Euredus51.

---

51, Vives'en liburuan (op.c. 472 or.) laterazko Ikerda. Denia dakusgu gazteleraturik. Irarkokako akatsa, zalantzarik gabe. Denia'n ez bait da izan, sekulan, uri gotzaiduna, ilerda, berriz, Lerida dala, gauza jaldfia bait da.

Larogei izan ziran kontzilio artako Asabak. Eta 80 Asaba aiekin batean an egon ziran 17 konte ere; eta 80 Asaba aiekin batera izenpetu zituzten kontzilio ontako kanonak.

Maiz ikusi daiteke ori Toledo'ko lcontrilio katolikoen agirietan, eta, besterik gabe, Eliz Bisigotaren eta Rekaredo' z geroko Laterri Bisigotiarraren arteko alkartasun estuaren adigarria da: aski adigarri naikoa.

690'garren urtetik 694'garrenera bata bestearen aurka gudan ibilliak ziran I Lupo Baskoni'ko dukearen euskaldunak – "frankiarrak" diotse euskaldun aiei Lukas'ek – eta Egika errege bisigotaren gudariak. Ori dioskun Lukas ori, XIII mendean Tuy'ko gotzaia izandako idazle bat da.

Dirudianez Egika izan zan Euskalerriari eraso ziona. Alperrik ordea: "Iru aldiz ibilli zan (Egika) frankiarren aurka borrokan, baiñan ez zuan ezer irabazi; ez zan, alare, menderatua izan": "(Y.mtra *francos ter bellum g,estat; sed rr ullum tritinfum habuit, nec quidem victus fuit"* (Op.c. 15).

Oso gaizki irten zan noski Euskalerritik Egika gizagaixoa, Tuy'ko gotzai kronikalaria Errege aren alde – ta euskaldunen aurka zertxo bat bederen esateko, gai gertatu ez znzaigunean; *"17e-C victus"* orrek *"utique victus"* esan nai bait du, ots, "s uztaiz eta zearo garaiturik" irten zala gure lurretatik.

Ikus ba, zer dion III Alfontso'ren Kronikak guduketa ari-buruz: "Errege jakintsua ta zugurra izan zan Egika, bere lenagokoaren sufia. Menderatu zituan erreiñuaren barruan leiñu urduri ugariak, eta iru aldiz ibilli franliarren aurka borrokan, baiñan iñoiz garaille irten gabe" (op.e.56. Azpimarraketa, nerea).

691. Salduba'ko III kontzilioa. Ez digu, bertako kontziliokidei-buruz, ez zenbakirtk ez izenik ematen. Mingarria, benetan, Izenak eman ba' zizkigun jakin aal izango bait genuan Bisigotak, urte ortan Euskalerrtaren barrura sarturik zeuden, eta, ala izatekotan, sarturik noraiño zeuden.

Aipagarria, kontzilio au ere, naiz Eliz Bisigotiar osoarena ez baiña soilki Tarragona'ko eliz-probintziarena izan, Erregearen aginduz asi bait zan, kontzilioak berak jakiñerazten digunez. Oraingoan, Vives'ek (op.c.) gazteleratua agertuko dut emen, erregearen agindu ori:

*"Los sacerdotes del Sefior* a *quienes la divina piedad, no sólo ascendi6 al sagrado magisterio,,sino que los consiltuy6 tambien vigilantes de*

*grey, deben tambien fortalecerse* COT1 *el prestigio de la autoridad, de modo que han de dedicarse .sin interrupciOn al cumplintiento de los precepto.y divinos y crl gobierno de toda la grev con dignos ejemplos. Por lo tanto, que la divino Majestad por medio del excelentistmo, piadosistmo y muy amante de Dios el rey Egica nuestro señor; mandO rcunirnos en esta ciudad de Zaragoza,* (argiago iateraz: quia nos divina celsitudo ex iusu Egicani coadunari praecepit), *y* 171111 *especialmente nos encomend6 que con la afflada espada de la justicia ,se consolide todo aquello que es conveniente; v, que cuanto en el orden eclesiastico y de las .yantas determinactones de los Padres corrowS 1cr indiscreta makkul de cualquiera, aparezca a la luz con czyuda de Dios por medio de nuestros meditados deeretos"* (Mako artekoa nik sartua). Erregea... ;Kontzilioak batzen!

Ez. zan beintzat oraingoan, Toledo'ko XV kontzilioan agertu zan bezala, eta XV1'ean ere agertuko dan bezala, bere asmoak idazki batean aurkeztera kontziliokideen artera sartuz.

693. Toledo'ko XVI kontzilioa. Egika'k jarraitzen du Bisigoten errege. Bere aginduz bildu zirala dioskute an alkartutako gotzaiek, bein berriro naroki errege aren goratzarrea egin da gero: "Egicartem *principem cuius lussu fraternitatis nostrae coetus est adunatu,s","E0(a* erregearen aginduz gaude anaiok batzar ontan bildurik".

Betiko goratzarreak abestuz onartu zuten batzar artan bildutako Anai aiek Erregearen etorrera, eta betiko eraspen berberaz artu zioten ark zekarkien idazkia.

Jakingarria benetan, kontzilioan bildutako Eliz Bisigottarraren aurrean Egika Erregearen izkera:

"Ezaguna bait zuan nere zugurtasun aintzagarriaren gurentasunak..." esanez asten du bere mintzaketa: "Novit *serenitads no,strae gloriosa sublim* itas..."

Onela jarraituko du gero, kontzilio artuko Asabak "batzar guragarri artara etortzearekin bere agindua eraspen osoz bete omen zutelako, Jainkoari eskerrak ematen dizkiala esanez": *(quoniam praestolata adgregationts ve,strae* C071(.UrS1•1 *praeceptionts nostrae oracult,s devotissime paruit).*

Ona, Egika'k aurkeztutako idazkiaren gaiak: Erri txikietako elizatxoen zainketa. Gotzaiek erregearentzako zerga nola ordaindu. Jentiltasunaren

aurkako borroka eta ortan nagi ibilli daitekean gotzaiaren zigorketa kanon batean ezartzea; Juduen aurkako ekintza; Omoseksukeri edo kunde-berdin-keriaren aurkako lege bat; erregearen, eta *"patriae Gothorumn"* edo "Gotiarren aberriaren" etsaien eta Laterri-barruko matxinoen zigorketa; kaltegarri edo alperrikakoak biurtu diran Eliz-lege eta Laterri-Legeen zuzenketa; *"awomodante serinitads nostrae consensu"*, ots, "nere zugurtasunaren iritziaren araura".

*fentiltasunaren (nirkako borroka* da erregearen eskarletako bat.

;;Ez al zan ura, euskaldunak jentillak izan ba'lira, erregeak edo gotzaiek edo erregeak eta gotzaiek – Bisigotiarren euskaldunen aurkako borroka, jentillen aurkako borroka done jainkotiarra zala esateko une bereizia? Ez zuan ordea, ifiork!, orrelakorik esan!

Amasei konte eseri ziran gotzaiekin betera, XVI kontzilio artan. Konte aiek erregearen lagunak ziran danak. Erregeak berak dionez, "bere jauregiko jaun ospetsuak", "cuntosque *ilustres auke regiae seniores"*, eta, ainzuzen, "kontzilio artan erregearen aginduz zeudenak", *"in hoc nos-trae serenitatis praeceptio interesse fecit"*.

Gotzaien erabakiak Eliz-Legeen maillan bezala izango dira Laterri-Legeen maillan balio berdiñekoak: *"canonice et legaliter"* dio erregeak: "canónica y civilmente", gazteleratzen dizkigu itz oiek Vives'en itzulpenak (op.c. 487).

Lotsagarri gertatzen zaigu, kontzilioko Asabek, Egika'ren idazki ortako eskarietaz jabetu ondorean, errege ari egiten dizkioten goratzarre zoroak irakurtzea. Baita juduen aurka darabilkiten izkera gogorra beri-entzutea ere. Baiñan orduango gertakizunak orduango, ez gaurko, jendeen begiak erabilliz ikusi bear dira-ta, gaitzespenik jaurtitzera ausartzeke, igaro gaitezen guretzat bereiziki jakingarriena dan XI kanonera.

Españi'ko jentilkeriaren zabalkundeaz mintzatzen zaigu kanon ori. *"De idolorum eultoribus", "sasijainko-gurtzailleei-buruz",* darnalote Asabek beraiek izenburu„ gai ori ukitzen duan kanon luzeari.

Ona, kanon ortan aipatzen dizkiguten jentilkeriak:

- "Irudi-gurketa *("cultores idolorum");* arri-gurketa *"veneratores lapidarum");* zuzi-piztuketa *("accensores facularum"),* eta iturri ta zugaitzen-gurketa *("excolentes fontium et arborum"),* aztI ezta ta etorkizun-igarketa, eta danak aipatzea luze gertatuko lizaigukean beste orrelako jentilkeri asko *(auguratores quoque seu praecantatores, nuthaque quae per longum est enarrare").*

- Jentilkeri oien aurkako legea, "Egika gure errege jaun txit jainkozalearen onespenaz eta beraren agindu txit leiatsua betez" ematen omen dute: *"cum consensu ac Ierventissimo iussu domni nostri Egicani regis".*

- Lege ori, beteerazi bear *dutenak* "gotzaiak, apaizak eta laterriko epaille guztiak" omen dira, *"onmes episcopi, seu presbyteri, vel hi qui iudieandi CUUSUrlUll negotil.s pmesunt"* edo "euantos estan al frente de las eausas judiciales" Vives'en gazteleraz.

- Ona agindu ori betetzen baldar ibilli daitezkean "gotzai, apaiz, eta epailleen" zigorra: "beren eginkizunetatik kendurik, ortebetez penitentzi egiten ibiltzea". "Soilki penitentzi ori bete ondorean biurtu daitezke lengo beren eginkizun aietara", "episcopus *aut presbiter seu etiam iudex dignitate privatus, anni unins spatio erit sub peenitentia COnStitutus, toca sun ir1 postmodum rechliturus".*

Larria zan noski zazpigarren mendearen azken-urteetan Españi "Katolikoan" ,jentilkeriaren arazoa. Ez dute orrelakorik aipatzen aro artako Euskalerria zearo jentilla agertu naiean dabiltzan idazle españi-zaleek.

Are gutxiago esango dizute Españi'ko gotzai aiek ez zutela, ain eroso zetorkien une artan, euskaldunak jentillak ziranik esan, orrela euskaldunen aurkako beren betiko gudua Jainkoaren gudu sagaratua biurtzeko, alako egokitasun eder bat alperrik galduz.

- Bereiziki erregeak aukeratuko du *("spetialiter a principe eligatur")* urte baterako zigortutako gotzai ta epaille aiek utzitako utsune bakoitza bete bear duan gotzaia, edo, epaillea.

Esan dezagun azkenik, Egika beraren eske arrentsuari erantzunez, bizi osorako espetxera galdu zutela, – bitarte ortan erregeak barkapenik ematen ez ba'zion, alegia, – Sisberto Toledo'ko gotzaia. Era berean, onen ondasun guztiak erregearentzat izan bear zutela erabaki zuten; ta, gotzai bera eskomikaturik eta Jauna soilki eriotzako orduan artu aal izatera makurturik utzi zuten. Guzti ori, berriro birresaten dutenez, "erregearen errukiak, gotzaien oniritziarekin, leenago barkapenik ematen ez. badio".

,Epai.keta zorrotz ori zergaitik'? Sisberto'k, Egika erailla Bisigoten errege-aulkian beste bat ezarri nai izan omen zualako, eta, ortik, aberriarentzat eta gizartearentzat gaitzik ugari sortuko omen zalako".

Sisberto'ren ordez, Toledo'n, Felis ezarri zuten, ordura arte Sebilla'ko gotzai izana, Hispali (Sebilla)'ra Bracara (Braga)'ko Faustino eraman zuten, eta Brakara ortara, Poi-tus Calis (Oporto)'ko Felis.

Gozti ori., ostera Vives'en itzulpena "en *conformidad conkt elecciOn y autoridad* (argiago lateraz, seeundum praecleetionem atque auctoritatem) del *tantas veces nombrado Señor nuestro* (Egi ka.) *el cual habÍa ya ordenado antes, que el venerable hermano miestro Felix, obispo de kr sede de asumiera con plena derecho Io administraci6n de mencionada sede Tbledana, reservando* (erregeak) 1a *posterfor confirmaci6n del mismo* (gotzai berriarena) *en dicha .sede a nuestra decisibn, en. consecuencia nosotros, con consentimiento clero pueblo pertenecientes ala tantos nombrada sede Toledana, trasladamos can6tdcamente crl referido venerable hermano nuestro Felix de Ia sede de Sevilla"* (mak.o-arteko itzak, nik sartuak).

*"Cum consensu cleri et "Toledo'ko* apaizdt ta erriaren oniritzia jasota" egin zutela artak.o gotzai-aldaketa, dioskute, kontziliolw Asabek. Eta, ori., naiz aurretik oro erregeak eraturik, erabakirik, – eta agindurik! – euki: "Lo *habia va oldenado antes"*.

Alataguztiz, azkeneko itza, – naiz legearekin kunplitze utsaren itxura besterik izan ez gotzaien eskuetan utzi zuan Egika erregeak, k.ontzitiokideek dasaigutenez.

Gaur. Euskalerrirako gotzaiak aukeratzerakoan erriaren iritzia kontuan artzea eskatzen diogu euskaldunok Elizari, ez digu, orain arte beintzat, jaramon aundirik. egin. Arlo ortan, ¿aurrera edo atzera egin ote du Elizak?.

Ta, eta VII mende aietan, 693'an Egika bezala jardun ote ziran Bisigoten Erregeak Iruña'ko eta beste Euskal-Urietako gotzaiak aukeratzerakoan, uri aiek beren mendean zeuzkatenean? Eta, orrela izatekotan, i,ontzat artzen ote zituzten Euskaldunek, errege bisigotek aukeratutako gotzai aiek, ezpataren puntaz- Euskalerritik bisigotak uxatzen. zituztenean?

- Ta, ikusi ditugun uri gotzaidun guzti oiek, Agino adibidez, eta VII mendeetan uri ciebidunak zirala esan al daiteke? Bai, gaur iruña ta Donosti elebidunak dirala esan ba'daiteke. Eta. Narbona, baiñan batez ere Tolosa ta Bordele ere gaurko Bilbao bezain euskaldunak zirala esatera ausartuko nintzake noski: naiz beraiek mintzoz erdaldunak izan, beren arresien barruan baso, landa ta mendietatik etorritako anitz euskaldunen bizi-toki ziran uriak.

VI eta VII mendeko Euskal-Gotzaidiari eman diogun begiraketa luze ta zabal ortatik Euskalerriko Elizaren ezaguerarako ,ondorio axolagarririk atera ote dezakegu? Bai, nere lkus:

## GOTZAI ZAR AIEK EUSKALDUNAK OTE ZIRAN?

Bai, Galietako ta ispanietako kontzilioek bein-da-berriro agindu oi zutena sinesgarritzat artzen ba'dogu. K.ontzilioek agindua bete izan ba'litz, gotzai danak erriak eta elizbarruti bakoitzeko elizgizonek aukeratuak izan-go bait ziran.

Izan ere, ori izan bait zan ainzuzen Eliz osoa-baitango lege orokorra mende ber-beraz gero; jakiña da ba I m.endean, apostoluen aroan, gotzaien aukeraketa ta sagaraketa apostolu beraiek egin oi zutela, itxuraz beintzat, Paul Deunaren ariketak adieraztera damaigunez.

III mendean, Eliz osoko gotzaien autaketa, II mendean asitako oiturari jarraituz erriak, erriko apaizek eta inguruko gotzaiek egiten zutela idatzi zuan Kartago'ko Ziprian Doneak.

VI mendean, 325'an, Nizea'ko Kontzilio Ekumenekoia izan zan autakera ori Eliz Osoaren lege egin zuana. Zerbait berri bezala, orrela egindako autaketari aurrerantzean baliozkoa izan zedin – Metropolitaren onespena erastea agindu zuan. Ta, V mendean, Nizea'ko lege ori, I Inozentzio Aitasantuak 404rean emandako erabaki baten bidez birrindartu zan ("Dietionnaire de Droit Canonique", V, 575).

Agindu ta erabaki oiek argituz eta sendotuz, "de *nombretu textes concdiaires tablissent, pour les pos de l'Occident, notomment pour lca Gaule et l'Espagne, Icr re'Rle des e'lections episcopoles" {ib).* Alegia, "Kontzilio asko saiatu zirala. Sarkalderako eta bereiziki Galietarako ta ispanietarako gotzat-auk.eratze-lege-ta-arauak era egokian argituz".

Izan zan, alare, eta Ispanietan ainzuzen. Efeso'ko lege egin zuan mendeaz-geroko oitura eraspengarri. aren aurka legeztatu zuan Kontzilio bat: 572'ean Suebitarren erreiñuko Elizarentzat, bere I kanonean, onako agindu au eman zuan Bracara (Braga)'ko II kontzilioa:

*"Non liceat poptdo electionem lOcere eorum ad sacerdolium provocontur; sed judicium sit episcoporum ut ipsi eum qui odinandus est*

*probent si in sermone et Pide et irr spirituali vita edoctus est".* Ona, agindu ori, J. Vives'en gazteleraz: "No este 1.-)ermitido al pueblo elegir a que son Ilamados al episeopado,sino que esta decisiOn se reserve a los obispos, para que en todo momento examinen si aquel que ha de ser ordenado es persona iddnea para la predicaciOn, en y en Ia vida espiritual".

Gotzaiek ez dute esaten, zuTenean Nizea'ko Kontzilio Ekumenekoairen aurka dijoan agindu larri ori zergaitik eman zuten.

Jarri dezagun ba asmaketa-lanean geroa irUdimena:

Bi aldetik etor zitzatekeen kontzillokldeet agindu astun ori eman aal izateko arrazoi naikoa: Erregearen aldetik; erria ber-beraren aldetik:

- Miro zan orduan Ispanietako ipar-sarkaldean Suebiarren erregea. Ainzuzen, kontzilio artara, "errege aren aginduz", "praeceptione praefati re g is" bildu zirala, diote gotzaiek kanongintzaren asieran, eta, lerro batzuk geroago, "erregearen agindu ura, Jainkoaren eragiñez emana izan zala":

*"Thspiratione hoc Dei credimus provenisse„vanctissimi fratres, ut per ordinationem domni nostri regis, ut* ex *utroque coneilio convenisemus irr urrun".* Berriro Jose Vives'i emanen diot itza, garai artako kontzilio ispaniarren azalpenari-buruz yayoenetakoa agian yayoena dalako:

"Creemos, hermanos santísimos, que por inspiración de Dios ha sucedido esto, que nos reunieramos juntamente de uno y otro distrito" (bi metropoli zituan bÎÌ. orduan Suebiarren Elizak: Lugo, ("metropolis Lueensis") eta Braga "metropolts Bracarensis"). Ori dana, Kontzilio artan Lendakari izan zan Braga'ko Donemartiñ'ek bertako gotzai lagunei esan zizkien itzak ditugu.

Zergaitik nai izan zezakean Miro erregeak oitura zarren aldaketa? Atsegin zitzaizkion gotzaiak errezago aukeratu aal izateko. Bazekian erriaren eta erriko apaizen naimen ona bereganatzea baiño, askoz errezagoa izango zitzaiola, gotzai gutxi batzuen onespena lortzea.

i„ Eliza-baitan atzaparra sartzeko guraria? Ez! Une artan naitanaiezkoa zuan Miro erregeak bere erreiñua gotzai adiskide laguntzaille zintzoz arritu-bearra. Garai artan gotzaiak ziran Erregeentzat jaurketarako tresnarik egokien eta bikaiñenak, batez ere une larrietan. Eta 1.111e larriak ziran aiek benetan, Suebiarren Erreiñurako, erreiñu ura arrapatu naiean bait zebiltzan aspaldi Bisigotiar lur-ebaslc amorratuak.

Beste arrazoia, erriaren aldetikoa, soilki, erriak gotzai-aukeraketan sarri egindako okerkeri arras larri astun eta ugariak izan zitezkean: erabat ezabatuak izatea beste zuzen-biderik ez zuten okerkeriak. BaiNan, ori izan ba'zuten egiazko arrazoia, aipatuko zuten ori kontziliokideek. Baiñan orrelako arrazoi baten aipurik ezin izango duzu kontzilioaren itzetan idoro. Beraz, bat bakarra izan daiteke agindu aren zertarakotasuna: Miro erregeari gotzai atsegifien autaketa erreztu aal izatea.

Ez zitzaion Miro erregeari Montzilioaren erabaki ori laguntza aundiegia gertatu. Ezta bere bi ondorengoai ere. 13 urte geroago, 585'ean, Leohigildo bisigotiarrak erabat garaim ta menderatu ta ezereztu bait zuan Suebiarren erreiñua, lurralde ura Bisigotiarren erreiñuko probintzi biurtuz.

Danadala Suebi-Erriko Elizaren erabaki ark ez zuan Ispanietako Bisigotiarren eta Galietako Merobindarren artean batere eraginmenik izan. Ezta, noski, euskaldunen artean ere, gure Arbasoentzat Bisigotak eta Frankiarrak bezain etsai izan bait ziran Suebiarrak. Ainzuzen orduantxe Miro ere Euskaldunen aurka borrokan zebillen: "Miro (570-583) lle y6 a cabo una expediciOn contra los Rucones que quizas sean los Autrigones y se trate de un error de transcripci6n" (A. Montenegro Duque. Opusdeitarrek zuzendutako GER iztegian, XXI, 803).

Egia da ori. Miro, gure Arbasoen aurka ibilli zan, eta Errukonitar aiek euskaldunak ziran, Autrigoitar zarren semeak.

(Emen ere betiko Ieloa zaigu berraipatu bearra. Miro kristau katoliko zintzoa zan. Braga'ko Donemartiñ'en adiskide aundia. Onek ere, Miro bere lagun aundiaren guduketa sagaratzeko, eta, orrela, aren eta Erreiñu Suebiar osoaren eskuak garbitzeko, naikoa zuan Euskaldun aiek jentillak zirala eta Suebiarren erasoa jentiltasunaren aurkakoa zala, kontzilio aren bitartez oles-egitea. Ez zuan, ordea, orrelakorik egin).

*"Esta campafia de Miro contra los Rucones file el augurio del pr6ximo fin de la dinastfa sueva"* (id. ib.). Egia, au ere. Arin uxatu bait zuten Autrigoni'tik. gure Arbaso garailleek. Suebi' ko gudarozte erasogillea.

Baiñan, gure .Arbaso aiek ezpata erabiltzeko trebe bezain nagi ziran .luma erabiltzeko-ta, ez dugu Euskalerriari-buruz gurea daitekean albiste bat lortu aal izaterik.. Soilki Bisigoten eta Merobindarren dokumentuei eskerrak dakigu dakigun gutxia. Adibidez, gotzaien aukeraketari dagoktonari-buruz, len bezala jarraitu zutela gauzek. Bitez lekuko, orduango Kontzilio bi:

Galietan, 650'garren urtean, H Klodobeo errege frankiarrak deituta Cabilionum (gaur Gironda'ko Cadinac uriska)'n ospatu zan kontzilioak onako au agindu zuan X kanonean: "Gotzaia, bere probintziko beste gotzaiek, apaizdiak eta erriak izan bear du aukeratua": "Episcopus *a comprovincialibus, clero et civibus suis eligatur".* ( Oartu al zera? Ez du Kontzilio onek Nizea'k agindu zuan Metropolitaren onespenik aipatzen.

Ispanietan, berriz, au da 633'an Sisenando errege bisigotiarren aginduz bildu zan Toledo'ko IV kontzilioak XIX kanonean agindu zuana: "Sed *nec ille deinceps Saceidos erit, quem riev clerus nec populus propriue civitatis elegit, vel auctoritas melropolitani vel provincialitun Sacerdonun exquisivit":* ("Sacerdos" "Sacerdotum" itzetan lenen izki nagusi ori nik ipiñia da, itz oien bidez kontzilioak – orduan oitura zan lez – "Gotzai" esan nai duala adierazteko. Apaiz soillak aipatzeko kontzilioak "clerus" itza darabilki).

Beinberriro, Jose Vives, jakintza auetara oituaren itzulpena jasoko dut:

*"Pero en adelante tampoco serd obispo aquêlque no hubiese sido elegido por el clero v por el pueblo de la propia ciudad ni aprobado por autoridad del metropolitano, v el consentimiento de los obispos de provincia".*

(Ikusi duzunez, emen bai, emen gogoratzen da Nizea'k Metropoliten onespenari-buruz agindua. Garai aietan Bisigotiarrak Frankiarrak baino kultura aundiagokoak bait ziran, eta len Erroma'ko Inperioaren lagunagoak bezala orain Erroma'ko Elizaren adiskide aundixeagoak). Guretzat ordea, au da. garrantzitsuena: Bai Ispanietan eta bai Galietan gotzaien aukeraketan eskudun zirala erriko apaizak eta erriko jendea.

,Betetzen ote ziran, ordea, Ispanietan eta Galietan kontzilioen erabakiak?.

Ez

,Betetzen ote ziran Bisigoten edo Frankiarren menpeko Euskalerrian?

Ez dakigu.

Bainan ziurki esango nuke nik ez zirala betetzen.

Goazen maillaz mailla galde oientzat erantzun-billa:

Erregeek goiz asi zirala gotzaien auk.eraketan atzaparra sartzen: "La *intervenci6r7 del inonarca vistgodo en los nombrandentos se hizo cada* 112*6 decisiva peso al manteninnento en los cdnones de antigua f6rnuda*




Vi mendean Euskakerriko uri gotzaidunak

*de lcr elecciOn de los obispos por el clero y ei pueblo" {Jose Orlandis„ op.c. 56).*

Bisigoten aurreneko errege katolikoa Rekaredo izan zan, euskaldunentzat, ia-ia Leobigildo bere aita bezain arerio zitala. Euskalerriaren zati bateko nagusi zan. ote. zuan zati artan zeuden Oka, Kalagurri, Tarazona, Ueska, Lerida, Urgel eta Gerona'rako gotzaien aukeraketan eskurik sartu? Ez daki-gu. Baiñan bere menpeko zati aren nagusitza ziurtzeko, esku-sarketa ura arras ajolagarri zitzaiola, bai. Eta ori egin zezakeala egia dala ere bada-kigu, 599'an, oraindik Rekaredo bera errege zala ospatu zan Bartzelonalo II kontzilioa lekUko dugula.

Ona emen ango Ill'go kanonaren itzak, oraingoan ere, maiz aipatu dugun Jose Vives edestilariak gazteleratu zituan lez: "Que *segthl establecido en los anti,guos cdnones y las prescripciones de las ept'stolos sinodales de los pontlfices, no le sea permilido en adelante ca ninguno de los seglares, omitiendo el tiempo prefijado por los c..dnones para los sugrados (irdenes, aspirar a ser promovido al sumo .sacerdocio, bien sea por majestad sagrada ("sacra regalia") o por aclamaciOn del pueblo o por elecciön o consentimiento de los obispos..."*

Or ikusi daitekeanez Kontzilioak ontzat artzen zuan, norbait gotzaitzara erregeen aukerapenez, "per sacra regalia", igo clnl izatea, edo, berdin dana, erregeek ("sacra maiestas") norbait gotzai aukeratu aal izatea.

Ederki, Orlandis'ek berriro: *Es sintomatico que solo diez años despues de lcr conversiOn de los godos al catolicismo, de Barcelona considerase como una mdinaria de promoc iOn al episcopado, junto al sisterna tradicional, la designacithi Per sacro es por la majestad real.".*

Salduba'ko Braulio ta Sebilla'ko isidord bezain gotzai done beraiek, ontzat artu oi zuten, gotzaien izendaketan erregeek ere eskudun izate ori: Entzun berriro Orlandis opusdeizaIeari:

"A la muerte de Eusebio de Tarragona, San Braulio intento" que San Isidoro influyera cerca del rey Sisenando a favor de un eandidato suyo; pero fue *Con relacibn al nombramiento del obispo de Thrragona le respondi6 Isidoro rne he dado cuenta de que el parecer del rey no corresponde con tres deseos".*

*"No obstante* – concluia, dejando bien claro que el nombrannento dependia por completo de la voluntad real *today fa anda dudando en quien va a hacer recaer su de.signaci6n.".*

Urte batzuk geroxeago, Errege berria Kindasbinto zala, ostera Donebraulio erregeari gotzai baten izendaketa eskatzen ari zaigu: oraingoan Saldubtfko goidiakonoa nai luke Toledo'ko Metropoliten aulkian jarri. Alperrik, ordea. oraingo ontan ere. Ez zion ba, indasbinto'k, amorerik eman. (Donebrautio'ren V eskutitza. Esp. Sagr. XXX, 1' go eraskifia. rtkusi XXXII. XXXIII eskutitzak ere).

Erbigio zan errege 681'ean. Urte ortako Toledo'ko kontzilioak, ka-nonean. ezpaiketarako biderik eman gabe esaten digu, ordurako, gotzaien Izendaketa, erregeek egin oi zutela, ta, geroruntz ere, gotzaien izendaketa, errege beraien eskuetan jarraItu bear zuala. (Oso luzea da kanon au, baiña jakingarria benetan. Orren luzea dalako ainzuzen, soilki Vives'en gaztelerapenaz ernango dut. Azpimarraketak eta kakotx-artekoak nereak izango dira:

*76mbien se nos present6 para ser deeidido, tras haber cleliberado conjuntatnente en algunas eiudades, cuando nuteren sus propio.v obispos, y mientras se difiere por mucho tiempo la ordenaci6n del sueesor, se origina no pequefio dafio para los oficlos divinos,* y *una pêrdida que daña a los bienes eclesidsticos. Pues unentras rapidez de los mensaferos se ve pedítht por la larga distancia de las apariadas regiones* y *por eso no puede llegar a oidos del rey la muerte del prelado difunto* (non queat regiis auditibus clecidentis praesulis transitus innotesei), *o anunciar el libre nombramiento del rey para sucesor del obispo que rr uriO* (de suceesore morientis episcopi libera prineipis electio praestolari), *se origina con frecuencia grave dificultad al episeopado para dar cuenta de tales hechos y ala potestad real al tener que esperar, por una molesta necesidad, nuestro parecer para nombmr sus obispos,* (i,non gelditzen da Toledo'ko kontzilio beroietako kanonen araura erria gotzai-aukeratzaille zalako ori?). *Por lo tanto nos pareciO bien* a *todos los obispos de España* y *de* ia *Galla, que, quedando a salvo el privilegio de cada una de las provincias* (eliz-probintziak, jakiña), *sea !kito en adelante a los obispos de Toledo consagrar prelados* y *elegir sucesores para los obispos clUUntos, en cualquier provincia en las sedes de los precedentes a aquellos a los cuales la potestad real giere,* v *a quienes juzgare por digno.s el mencionado obispo de Toledo; sin embargo, de tal* modo *que cualquiera que fuese ordenado,, dentro del plan de tres meses despue's de su ordenaciOn acudird* a *presentar,ve al propio metropolitano, para que instruldo por la autoridad y las normas de aquel, gobierne dignamente lrr sede que ha ocupado"* (atzetik Matropilitarengana

agertzen ez danarentzako eskomikapena dator) *no ser que* – ori egitea *un mandato real* (excepto si regia iusione impeditum se ense probaverit". Oraingoan ere maku-artekoak, nereak).

Illunki josi zuan bere nlintzoa Toledo'ko XII kontzilio arek, gotzaien aukeraketaz mintzatzerakoan, eta orregaitik irten zitzaion. illuna Vives jakintsuari mintzo aren gaztelerapena.

Ona emen, kontzilio artako Asaben izkera: Bi aalmendun agertzen dira or: Erregea eta Toledo'ko Metropolita. Baiñan bi aldiz erregea, eta Aurrena gaiñera bera. Orrek au esan nai du: Aukeraketa, erregeak egiten zuala (len ere Braulio Saklubatarrak eta Isidoro Sebillatarrak jakiñerazi diguten lez): Metropolitak egiten zuan "auk.eraketa" Erregeak egin zuana ofizialki ezagutzera ematea besterik ez zala.

Ori gogoan artuz ulertzen da, errez, zergaitik kontziliogilleek gerontzeko gotzaien aukeraketa Toledo'ko Metropolitaren eskuetan utzi zuten: Aren eskuetan uztea erregearen eskuetan uztea zalako.

Amai dezagun ata] au Orlandis berraipatuz: "En *tiempo de Ervigio, ei nombramiento por el rey, hasta tcal punto se habta covertido en el procedimiento normal de la designaciOn de obRpos, que, con de evitar demoras„se resolvi6 que lei consagraciOn de todos ellos ta hiciera eI metropolltano – ahora ya primado – de Toledo".* ;,Oartu zera? Aukeraketa, erregeak.; sagaraketa, Toledo"ko Metropolitak.

Orain bai, orain erantzun clezaiokegu Euskalerri'ko gotzai. zar aiei-buruz egin genuan galdeari: Gotzai aiek... ,euskaldunak ote ziran?

Ez da erreza erantzuna, aurretik beste galdera batzuk sortzen bait zaizkigu:

Iruña'n, adibidez, 4 dira (Liliolo, Yon, Atilano ta Martziano) VI eta VII. mendeko gotzai ezagunak: iNork aukeratuak izan ote ziran?

Erantzunik errezena, onako au izango litzake: Iruña Bisigoten menpean zegoanean, Errege Bisigotak. Eta Euskaldunen eskuetan zegoanean, eliz osoaren oltura jarraituz, Iruña'ko erriak eta erri ortako apaizek.

Orrek, ordea, ez digu korapillorik askatzen. Alderantziz beste onako galdera xume au ipintzen digu begien aurrean:

- Erriak. aukeratutako gotzaia, ¿onartuko ote zuten bisigotek, auek Iruña arrapatzen zutenean? Eta Erregeak aukeratutako gotzaia, onartuko ote zuten euskaldunek, bisigotak Iruñatik jaurtiz gero?

- Erregeek bai, bazuten erregeek Euskalerriko gotzaien izendaketa beraiek egin nai izateko arrazoi mardulik aski. Baiñan ez dakigu gauzak orrela gertatu ziran. Elkoro adibidez, Iruña'ko lenen gotzai ezaguna, Toledo'ko III kontzilioan eseri zana, Trufta'rako R.ekaredo'k aukeratua ote zan? Ez dakigu. Baiña ez dirudi. Alderantziz, leenagotik ere, agian Leobigildo'ren garaietik Iruña'ko gotzai zala ematen du.

Baiñan erriak aukeratua izan ba'zan, errez onartuko ote zuan Rekaredo'k? Ez ote zuan ura Aulkitik kenduta beste bat – adiskide bat – aren ordez aukeratuko, euskaldun biurriak menderatzeko lagun gerta zekion?

Bada beste galde bikoitz bat ere:

- Nizea'k, erriak eta apaizek egindako autaketak, benetazkoa izateko, Metropolitaren onespena bearrezkoa zala erabaki zuan. i,Ematen ote zion onespen ori Tarragona'ko metropolt ta bisigotak euskaldun etsaiek aukeratutako gotzai euskaldun bati? Ez da uste izatekoa.

- ,Eskatzen ote zien euskaldunek orrelako onespenik beraiek aukeratutako gotzai batentza.t, Tarragona'ko metropolita bisigot etsaiari? Ez da uste izatekoa.

- Ortik, ordea, beste galde bat jeikitz.en zaigu begien aurrera: Ta, Aitasantuak? ¿Onartu ote zezazk.eten Aitasantuek Nizea'ko Kontzilio Ekumemenikoiak agindu zuan ori bete gabe Euskalerrian egin zitezkean gotzaien saoaraketak?

Onartu zuan llario Aitasantuak V mendean Kalagurri"ko baiki kanon-legeen aurka egin zuan gotzai-sagaraketa ura, "garai aiek arras zaillak ziralako".

Alderaketarik gabe zan zaillagoa Euskalerriaren Vi eta VII mendeetako giroa. Orregaitik, nere ustez, zalantzarik gabe onartu zituzten aitasantuek euskaldunek "kanon-legearen aurka" egindako gotzai sagaraketak. Ona ori uste aal izateko nere arrazoiak.

- Euskalerria inguru guztian etsai amorratuz inguraturik zegoala. Euskaldunek Aitasantuenganako bide guztiak itxirik zeuzkatela. Erroma'n bere ekintzak babestu aal izatea eragozirik zeukatela.

Tarragona'ko Metropolitek eta Errege bisigotek txit erreza zutela Erroma'rako bidea, Lurrat'Itxasoaren ertzean berena zuten Septimani'n itali'rena zan Probentza'rekin muga egiten zutelako. Erreza zitzaiela Altasantuaren aurrean euskaldunen salaketa.

- Naitanaiez, Aitasantuei milla aldiz atsegiñagoak izan bear zitzaizkiela arianikeria ezereztu, Espatii`ko Erreifiu osoa Eliza katolikoaren altzora ekarri, eta ori egiñaz gero Eliza Katolikoaren ain maitale ta laguntzaille agertzen zitzaizkion Errege Bisigotak, izen utsez ere apika ezagutzen dituzten baskoi menderakaitz aiek baiño.

- Ala ta ,guztiz, Aitasantuek ez zutela beiñere Euskalerriko gotzai-sagaraketaz tetik esan. Eta esango zuten esan bearra zutela uste izan ba'lute. Eta iritxiko zan aien itza gure aldi auetara. Ain maite ginduzten Bisigoten eta Frankiarren edestilariak pozik jasoa izango bait zan.

Egia da gotzai guzti aien izenak erderazkoak dirala. Baiñan orrek ez du ezer esan nai. Ala bait dira gureak ere, naiz gu elez erdaldunak eta odolez atzerritarrak izan ez. Alare, emen jarri bearra da, ezagunak ditugun lau gotzai iruñar aietatik, iruk – Yon'ek, Atilano'k eta Martzial'ek – dituzten izenak, bisigotiarrak ez dirala. "En *cuanto a puede tratarse de un nombre idfgena de origen indogerindnico prelatino* (¿bai ote?) *aunqw luego se latinizase, o meis probablemente de un nombre especificamente cristiano, derivado de 1.« flor* Gaztanbide 1.c.).

Izen ori, euskalduna ez da beintzat, Euskalerritik at ere agertzen bait zaigu. Gaiñera, naiz gizaseme aietako batek izen errikoi bat izan, ,arritzekoa al litzake, gotzai sagaratua izaterakoan bere jatorriko izena lagata, done-izen bat artu izatea? Ain zuzen mende aietan ari bait zan doneenganako eta doneen erlikienganako eraspena sendotzen.

Gaiñera, askotan gotzai aien egiazko latiñ-izenak eskierki nolakoak ziran jakiterik ere ez dugu, apika bait zaigu aietako bat, izena bi, iru, edo, era ezberdin geiagoz aldaturik ez duala, dokumentuetan agertzen.

- Enskotarrak izateaz gotzai aiek, i,eusk.aldunak ere bai ote. ziran? Galde orri, gotzai-aulkietarako gaiak tokian-tokitik ateratzeko oituraren araura, baietz, Euskalerri Zarreko gotzai aiek euskaldunak zirala erantzun hear litzakeala dirudi.

Bañan arau orrek noiz-beinka – eta baita maizegi ere salbuespenak izaten eta bi mende aietako Euskalerriaren egoera iparrean eta egoan berdina izan ez zalako, erantzun ori ere ez daitekeala agian berdiña izan esango nuke nik – naiz an eta emen gotzaien aukeraketan eskua sartu nai izateko erregeen arrazoiak berdiñak izan.

# GAURKO EUZKADVTIK AT
# EUSKALERRI ZAR ZABALEKO LEKAIDEAK

Goazen orain antziñako gure Euskalerrian lekaidetza nola zegoan ikustera: Ibero ibaia gora joango gera aurrena, eta Errioxa-zear, gero, Anñamendira, azkena Akitant'runtz txango-egiteko.

Monreal .Jimeno izango dugu irakale Ibero-gorako eta Errioxa'ko ibilketan, bera baita lurralde oietako bakartten leitzak ongien, sakonen, eta ardura ta maitasunik aundienaz aztertu dituana.

Alataguztiz, Araba'koak dira gure irakasle izanen dan orren gobategirik matteenak: "Si *hay un complejo rupestre que puede calijicase de*

v *que en consecuencia puede servirdos de paradigma de 1L1 que entendemos por un eremitorio altomedieval, ese sería el conjunto O conjuntos de Laño: "las Gobas" V* "Santorcaria"52.

"Erernitegt" itza zentzu zabalean erabilli duala diosku: "Debemos *sin embargo advertir que el têrmino "eremitorio" lo utilizamos en el sentido amptio.* Oarpen egokia, ez bait dut uste nik gure gobategietako bakartiek "zenobio" bat eratzera iritxi ziranik, naiz alkarren ondoan bizi.

Gure irakasle orrek aurrena aztertzen dituan leitzak, gaur Euskalerritik urruti dagoz: Palentzt'k eta Burgos'ek alkar jotzen duten Pisuerga ibaiaren alboan: ibai orren iparrean, ia-ia Santander'ko mugan.

---

52. Ederki dicn;ku idazleak berak "eremitorio" itzak berdin baLio duaka bakarti bat bizi zan tokia edo bakarti-saik bat biziti zan tokia adierazteko.

*i Izan* ote zan iñoiz euskalduna, Pisuerga'ren goi-ibar ura? Ez beintzat, nere ustez, Vl eta VII mendeetan. Lenago? Kromafiondarren aroan? Ez dakit. Nik baietz esango nuke, baiña eskiertasunik ez dut. Ez dut gaiñera lurralde artako toponimirik ezagutzen. Alare, aski kezkagarria agertzen zaigu ibaiaren izena bera: Pisuerga53.

Ona emen zoko aietan bakartitegirik baduten errien zerrenda: Aguilar, Rebollada, 011eros, Villar ln (Villa Aran), Val verde eta Cezura, azkeneko biok Santander'en.

Bost izen oietatik bi, Villa Aran eta Zezura, Uez al dira naiko txurakoak? Beste iruetatik bat, Agiiar, Euskalerri Zarreko eta gaurregungo Euzkadi'ko – toponimian eta abizendegian – oso maiz agertzen zaigun izena dalako aski kezkagarria gertatzen zait neri. Beste biek, mendeak eta mendeak zear (, nork jakin zenbat zilipurdi eman dituzten?54

Sar gaitezen Ibero ibaiaren aran luze zabalera, bere sort-iturrien alboan. Emen ez da bere aran eder ori, oraindik, ain luzea, ez beintzat ain zabala, baiñan bai polita eta ikusgarria. Santander'ko probintzia-en lurra da gaurregun. Zortzi dira, Valderrible Q"Val-cle-Erri-bel"?) esan oi zaion aran ortan, bakartien leitzez orniturik agertzen zaizkigun erriak: Campa *de*

---

Pisuaga euskak-abizena da. eta Tokosan baditugu izen ortako baserri bi: Thsuaga Goikoa eta Pisuaga Bekoa. "Erea" ere ez dugu gure iztegietan atzerritarra: Erga, Naparroa.n, Irurtzun, Aitzkorbe eta Aginaga arteko mendi eta ibaitxo baten izena da, Ergabia . ;,Ergabea?, euskak-abizena. eta "Ergavica" Tito Libio'ren idazkeran, – eta "Ergaouika" Ptolorneo'renean gero gaurko Korella izanen zala uste dan erromateko uri bat. ERGE, erromatean, Auftamendi'ku eusko-sasijainko baten izena dugu. ERG, ARG aurrizkiz asten diran izenak berriz ugari aurki dezazkezu gaurko Euskalerri guzian, danetan ezagunena ARGA ibaia dalarik.

Nik ez dut zalantzarik ontan: Gaztelerrian gaztekerazko itza da; Baiñan Euskalerrian, euskerazkoa. Lopez Mendizabaren ustez, Egilaz edo Egikar'en aldakuntza. Ez dabiklela oker, esango nuke nik, Agileta (Elgetalo abizena) Egileta'ren aldakuntza bait da, eta Agikeor (Durango'koa) Egikeorr.ena. Eta, Agikuz (Barakaldo'n akor bat), Egibiz'ena. Berdin, Agiles-peni (abizen naparra) Egikezpeiti abizen naparraren akdakuntza dugu. Gaiñera, AGILAR eta AG1LARRE (au Araba'ko mendietan Koues deritzan erriko larre bat) biak itz bat ber-bera dira: "agi"-"lar" = "agi"-"larr"-"a". "Agi "Z asten diran itzak,– "agifia"tik etorri daitezkeanak gogoan artzeke – nai dituzun aiña aurki dezazkezu gure iztegietan.

Ebro, Villacskusa, Cadalso, Arroyuelos, Montes Claros, Las Presillas, Arnedo de Bricio eta Montejo de Bricio.

Ez naiz, bertan VI eta VII mendeetan euskeraz itzegiten zanik esatera ausartzen. Ez dut eztare, orain esatera noana esateko dokurnentuetatiko arrazoi bat bakarrik, baiñan, mende aietan an "Euskerarik-bai-Euskerarik-ez" auzian alde batera edo bestera jartzekotan, errezago jarriko nintzake ezezkoaren aldera.

Euskera-orokorki-ezerezkotzat artu duan giro alu batean aziak eta eziak izan geralako, euskaldunok, euskerari dagokion auzi orotan, ezezkora oso errez, ierrezegi!, okertzen bait gera.

Baiñan len, noizbait, edestiaurrean, an euskeraz itzegin zala, bai, ori bildur aundirik gabe esango nuke, Gaiñera, ,Reinosa'tik kilometro batzuk egoruntz dagoan lurralde ura erromatean ez ote zan Euskaldun Autrigoitarrena.?55.

Goazen – Autrigoitarrena izandako landa-barruan beti – gaur Burgos'enak diran lurreutra. Bai bait ditugu or, amaika erritan, bakarti zar aienak izandako leitzak.

Ona, erri oien izenak: Manzanedo, Arg6, Ineinillas, Quecedo, (lauak. Ibero-ibarrean); Goyangos, mendi-tartean iparraldera goraxeago; TartaIe's de Cilla "en Ia hermandad de Cuesta Urria" Madoz'ek esan zigunez; Quecedo, Oña (Oka ibaiaren ibarrean); Tobalina, Soportilla, Obarenes eta Encio.

Begira egiezu berriro amaika erri koxkor oien izenei. Bi bakarrik aurkituko dituzu nabarmenki erdal-izenez jantziak: Manzanedo ta Soportilia. ,Leenagoko izen euskaldunen erderaketak. ote?

Naitanaiez aipatu bearra dugu, Mijangos'ko Andra Mari'ren omenezko Lekaidetxea. Mijangos, naiz Burgos' ko Probintzian, len Autrigoitarrena zan lurrean dago.

---

55' Aipatutako izen oietatik asko antz-aidaturik daudela derizkiot, argi agiri bait dute beren euskal-sustraia: Arroy(uelos), (VilBaren, Kada(1=-0-(t)so, (Vakie)eskusa), (Nalde)erredi(ble=bel), Brizia'k eta baita Fresikla'k ere euskal-tzen baten aldakuntzak izan daitezkealako itxura badute; esanik ez ango eta Errioxa'ko "Arnedo"k; eta "Ebro" bera, "lbero"tik sortutako itza da: erdiaroan "i" agoskatzeko "e" idaztea onurezkoa zalako, "lbero"tik "Ebero" eta ortatik, "e" leguna janez, "Ebro",

Mijangos'ko ori izango litzake Euskalerri Zarreko Andramari'ren lekaidetxerik, eta eta baselizarik, eta aipurik, zaarrena, arri-idatzi batek diona egia ba'litz. Eta egia dala dirudi, antxe bertan aurkitutako arri orrek onako au esaten bait digu: "CONSECRATUS EST (lo)CUS S(an)C(t)AE MAR1AE (a) PONTIFICE ASTERIO SUBD(ie) PR(i.die) N(onas) M{ai)as (jus)SU GL(oriosi DOM1NI RECC(aredi).

Euskeraz.:

"Miren Donearen toki au Asterio gotzaiak sagaratu du orrillaren 16'ean Rekaredo Errege tXIt aintzatsuaren aginduz".

¿Merezi al du, idazki orrek, gare siniste betea?

Badirudi baietz.

Asterio beintzat, 589'ren aurretik ere, Autrigoitarren lurrean Oka'ko gotzaia zala badakigu. Urte ortan egon bait zan Toledo'ko III kontzilioan. Eta Oka'ko gotzai jarraitu zuan, dirudianez 597'an iI zan arte. Ederki izan zitekean beraz lekaidetxe aren sagaratzaillea, .Rekaredo 589'an biurtu bait zan arianikeritik katolikotasunera, eta Bisigoten errege jarraitu bait zuan 60 ' ea.n il zan arte.

Rekaredo'ren aipuak sortzen dit neri alako kezka txiki bat. Egia, bere aita Leobigildo'ren jardunkera jarraituz, gure Asaben aurka gudan ibilli zitzaigula. iritxi ote zan bera, edo beintzat iritxi ote ziran bere gudariak Autrigoien lurraren barrura Mijangos dagoan lekuraftio?, eta egon ote ziran an astirik aski lekaidetxeak eraikitzeaz arduratzen ibiltzeko?

Baiñan errez lurindu daitekean kezka da nere kezka ori. Badakigu ba Toledo'ko 11.1 kontzilioan egon zirala bai gotzai eta bai erregea. Izan zuten antxe alkarrekin itzegiteko betarik aski, eta errez jaso zezakean an Asterio'k Rek.aredo'rengandik, Andramari'ren omenez Mijangos'ko eliz ura egiteko agindua.

Autrigoitarrena izan zan antziña Tiron ibaiaren aran osoa, ibero ihaiaren ertzean Aro'ko in-ira arte. Aran ortan, iru izango dira aurkituko ditugun gobi-duten tokiak: Tosantos, Belorado, Cerezo; eta, ibar ortatik sarkaldera, Casti1seco ta Bilibio, azkeneko au, Donefebzes bakarti ospetsu ura bizitu zan arkaitzaren alboan.

Autrigoni zarretik igaro gaitezen Beroni zarrera, ots, gaurko Lrrioxa'ren erdialdeko lurrera.

Emen, orain Najerilla esaten zaion ibaiak eta ibai oni beren urak ekartzen dizkioten besoek eratzen duten aran aski luzean 6 toki zaizkigu gogoangarrt: Vaivanera, Cogolla (Donemillian'ek eta gero bere izeneko lekaidetxeak sarkaldeko Euskalerriaren erdiaroan ain ospetsu egin zuten eremua), Anguiano, Bobadilla, Camprovín, eta, gero gure errege euskaldunen egoitza ta Euskalerriaren uriburu izango zitzaigun Najera.

Ibero-beera aurrera joz, iregua'ren ibarrean, bederatzi: Torreeilla (Kameroeta'n), Castafiares, V.igera (gure errege zarrek ain maite izan zuten babes-uria), Nalda, Albelda (Euskal-Erreiñuan lekaidetxe anitz onuragarri baten lekua), eta Albertte. Ibarretik ez urruti, ezker-aldera, Medrano ta Lardero.

Beerago, Leza ibaiaren ertzetan, Murillo ta Leza. Eta Iregua ta Leza ibaien arteko lurrean, Clavijo, bertan gertatu omen zan kondairetako borrokaldi artara Santiago, mauritarrak "ezpataz" iltzera, zerutik. "zaldiz ikaragarriki" –"equoque et ense acerrimus"– etorri omen zalako, españizaleek leku txit maitatua56.

Eta azkenik, iru – Arnedillo, Herce ta Arneclo Cidaeos'en uretan.

Len, erromatekoan, Euskaldun Berondarrenak izandako lurralde guzti oietan V mendean bizi zan jendea, eta Leobigildo'z gero, onek asitako gudatearen ondorioz mendietan bizi zana – ta borrokategj ziran zelaietan bizi zitekeana – euskalduna zala., benetan sinisturik nago ni.

V mendean eta V I" aren lenen erdian ez zan ba or Bisigotiarrik bizitu: V'ean. Bisigotak, uriburn Tolosa zutela, Galietan bizi ziralako, Vouille'ko borrokaldi latza galdu ezkero, arrastaka Espafit'ra etorri bear izan zuten arte.

Vrean, naiko lan izan zutelako Ispanietan beren erreiñu berria sendotzen, Leobigildo 568" az gero euskaldunen aurka borrokan asi zan arte. Arrezkero. 711 'an maometarrak bitartean, Errioxa borroka-toki geiago izan zan bizi-leku baino: Euskaldunen eta Bisigoten arteko borroka-

56. Latiñezko itz oiek Españi'ko Elizak Saniiago'ri bezperctan urtero abestutako ereserk itik artuak dira. Ona aapaldi osoa, Eliz esparnarraren goxotasunaren adigarri: "Tu, nos belka cum eingerent, 1 visos es ipso in praekio I equoque et ense acerrimus, 1 mauros furentes sternere": "Gudaz inguraturik geundenean, 1 zu agertu zuian zaldiz eta ezpataz sutsu 1 mauro amorratuei lepott moztuz".

toki; ia errege bisigot orok saiatu bear izaten zuan ba, euskaldunak mende-ratzen. Borroka oiek, berriz, Beroni' n, ots, Errioxa'n batez ere, gertatzen ziran.

Orizalata, epe ortan ere, 568'tik 71 I 'ara doazen 143 urte oietan Errio-xa'n ez zan Bisigotiarrik Gudariak soilki berriro "domuit Vas-cones" edo "Baskoiak menderatu" zitualako ori egi-egin nai zuan errege baten aginduz – etorritako gudariak. Baiñan auek ere oso epe laburrez, ia etorri bezain laister izaten bait ziran beren erregearekin eusko-lurretatik aruntz berbidaliak.

Orregaitik, Errioxa ez zan – ez orixe! nekazari ta eskulangille bisigo-tiarrentzat bizi-leku atsegifiegia. Eta orrexegaitik baitare, V, Vi eta mendeetan ango leitzetan bizitu ziran bakartiak – eta ugari bizitu zirala badakigu ez zitezkean iñolaz ere bisigotak izan, euskaldunak baizik.

Geldi-unerik gabeko gudate luze ura ez zan leizezuloetan bizi ziran bakarti errioxar euskaldunentzat eragozpen aundia, naiz guda, ia urterok.oa izan, udaz bakarrik egin oi bait zan. Orrela, aterraldi ederra izaten zuan negua gudate orok urtero, bi itz oiek "gudatea" ta "negutea", alkarrekin alkartu ez zitezkean itzak bait zituan aro zar aietan. Neguz, beraz, lasai bizi zitezkean bakarti aiek beren leizezuloetan.

Eta, udaz ere, etsaiak agertzerakoan arriskurik usmatzen ba'zuten, aisa alde egin zezaketen basora, beren pertsonaz beste, zer-gorde-bearrik deus izaten ez zutelako.

¿Ez ote ziran, antziña Moises bezala, besoak jasorik, beren leizeetatik borrokari begira, otoiketan egoten?

Emen, Euskaldun Berondarrenak izandako lurretan bizitu ziran bakar-tien artean aipatu berriak. ditugun Kukuda' ko Donemillan, DonefeliZeS, Armenti'ko Doneprudentzio, ta, naiz Iber-Mendien egoaldeko maldan egon Garray edo Saria-aldeko Donesaturio57.

---

57 SATURIO, Soria tzencko urian jaio zala uste da. Oroi, Soria, Frrornatnrrek irasitako Numan-7.ia'ren akboan dagoka, eta ken bere izena Garray edo Garay izan zala, erromatarrek zalant-zan ibilli oi bait ziran orduango euskeraren soiñu ori izkiz ematerakoan. SORTA bera nere ustez izen euskalduni da. "S" ori zeren laburpena izan daitekean jakiten dago koxka. Danadaka, badugu an toki-izen euskakdunik geiago.

Baiñan agoz-agozko iCurriek badamalzkigute beste batzuen izenak ere, Ona Done oien izenak:

- Trebiño'ko Pangua ren gaiñeko mendian baseliz bat duan Formerjo Donea. Ikus nola asten duan Risco'k Done onen berri-emanketa: "Entre *los puebtos mas antiguos y lOrtificados que tenia lct Provincia de Alaba debe ponerse Villa de Treviño que hoy es cabeza de Condado, .1,gregada Castilla"* (Esp. Sagr. 330).

Eta onela jarraitzen du "Bibliotheca Sanetorum"ek: "Santo *tnarlire de tempo immemorabile".*

Kondajrak ametsezko lorez bete du Done onen oroitza-ta, bere bizitzaz deus eskierki jakiterik ez dugu. ¿ K apadozi'n martiri illa, eta andik Pangua'ra ekarria? ITaiotzez españiarra, Risco' k nai duan bezala? i, Zergaitik ez euskalduna?, emen bertan jaioa. Pangua'ko mendietan bakar- ti bizitua, gero erriaren eraspenak donetua, eta azkenean kondairaren geiegikeriak martiriotzaren clizdiraz ornitua?

- Errioxa'n Bafiares'ko Formerio. "Santo *martire venerato a Vafiares tempore immemombile, a circa trenta kins. della Cappella consacrata a S. Formerio di Trevifio.*

• Biak bat: ote dira? Bikoitza izan daiteke erantzuna:

- Baietz., biak, bi tokitan omentzen dan Formerio bat bakarra dirala, Bolandistek uste izan zuten bezala.

Izan ere, Formerio bat beraren erfiktak bi toki aietan mnentzen mendeak joanez, Formerio bakar bat lii Formerio ezberdiñak izan uste izatera iritxi izatea, errez gerta daitekean gauza bait da.

Ezetz. Bi Formerio oiek bi Done ezberdi dirala. Ori uste izan zuan Riseo'k, eta ori uste du aipatzen ari geran Iztegi italiarrak ere: "Certamente *710 ē da identtlicare con Fornerio a Treviño".*

Bigarren au, Bafiares'koa, ulongoa ote zan? Ez dakigu, *"Non si conos- ee aleuna notizia su la aita e sul martirio de S. Formerio a Vafiares".*

, Nere iritzia? Seguruaski an inguru artako semea izango zala. Eta ber- tan lekaide bizitu ondorean erriak done biurtua, eta bere duintasuna goren-- teko Trebirto'ko Formerio bezala martiritasunaren erefiotz-abarrez burun- tzatu a.

- Badu Euskalerriak beste Doneformerio bat. VI mendean Akitani eus- kaldunean bizitua. Ez rlu beste bi aiekin zer Ikusirik. Ez dirudi beintzat. Gaiñera, au bai, ziur izan zan au erriko seme euskaldun bat, erriak gero

donetua Garona (Gauna)' ko Donebitor arabarraren antzera, "Bibliotheca Sanetorum"ek au aipatzen ez duan bezala, ura ere ez bait du aipatzen.

Naiara (Najera)'ko Koluniba Donea, errioxatarren izkeran "Santa Coloma", martiri neskutsa. lzen ortako Done bat badator mozarabitarren donetegian. Orrek, ordea, ez du esan nai Done maitagarri orrenganako eraspena mozarabitarrengandik etorri zitzaigunik. Ezta, Naiara'koa ta mozarabitarren ori biak neskuts bat bera diranik ere. Soilki, zerbait esan nai izatekotan Donekolunba'renganako eraspena gure Asaben artean zarra izan dala esan nai lezake.

Usoa esan nai duan izen ortako doneak, ordea, bat baifio geiago ditugu. Done guzti oietatik ,,zein ote da Naiara' n ospatzen dana?

- Kordoban maometarrek erai] zuten ura, batzuen ustez: mozarabitarren donetegian datorren ura, ainzuzen.

Ura baiño leenagokoa dan beste neskati] bat, Risco'ren aburuz: Galietalw Senona (Sens)'en, erromatekoan, Aureliano inperatore zala, martiri eražlla izan zana. Baiñan, done zarrei-buruz oiturazkoa izan oi dan baiño eskiertasun gutxiagokoak *("oltremodo dubie")* omen dira neskatil senonatar orren bizitzari ta martiriotzari-buruz iritxi zaizkigun albiste guztiak.

Ortaz gaifiera, Najara' ko elizan aurkitzen dan gorpu donea ez daitekeala Senona'ko Kolunba'rena izan, ziur badakigu. Ez da, beraz, egia, Risco'k clioskun au: "que *muchos siglos Divina Bondad se dign6 condecorar czl Obi.spado de Calahorra dandole lei posesion del sagrado v euerpo de esw Santa". (1.c.* 362).

Naiara'ko gorpu donea ,zergaitik ez daitekean Senona" ko Kolunba'rena izan? Onen gorpua Senona' n bertan dagoala badakigulako. Bai bait dakigu. K.olunba Donearen omenez eta "Done onen gorpuaren gaiñean" eraiki zualalll Kiotario errege rrankiarrak lekaimetxe bat 620'gan-en urtean: *"la celebre cola ,ia reate di Sainte-Coloinbe-li?s-Sens".*

,Norena ote da ba Naiara'ko eliz nagusian datzan gorpua? Erriak donetasunez jantzi duan bertako neskuts seguruaski basoan bizitutako bakarti eraspengarri batena (",zergaitik ez?

i

Naitanaiez geratuko zaigu askoz laburragoa ta txiroagoa Euskalerri Zar artako sortaldean lekaidetzaren aurkezpena. Ez bait dago orain arte aurkeztu duguna bezain ikerlariek aztertua

Mintzatu gera Euskalerri Zarraren alderdi artako lekaidetzaz ZENOBI-TARRAK izeneko atalean, Aragoi'ko Iztegi Nagusi orrek dioskun gutxia gogoratuz. Borobildu dezagun orain orduan esana. Baiñan azaldu dezagun aurrena lurralde aien euskalduntasuna, ango gertakizun kristauek Euskalerri.'ko Kristautasun Zarraren edesti batean tokia badutela argi gelditu dedin.

Auñamendi osoa bere luzera ta zabalena osoan V, VI, eta VII mende aietan euskalduna zanik birresan bearrik ez dugu.

Ikus zer idatzi zidan Federico Balaguer Ueska'ko artxibuzaiñak, Uri artako Udalak bertako euskerari-buruz 1349'an emandako aginduaren fotokopia bidali zidanean: "Aurrena 1349 artan euskeraren aurka emandako lege ura geroago ere sarritan izan zala berremana": "se *repite despue:s varias veces hasta el siglo XV11". "Del siglo XV no conozeo nada; lo de los siglos XVI y XVII lo tendre" que buscar en el archivo provincial".*

Beraz, len ere bein baiño geiagotan esan bear izan dedan lez, utzi di tzagun garbi onako xeetasun auek:

[a]: I.349'ko agindu ark adierazten digunez, Euskerak bizirik jarraitu zuala XV mendera arte Ueska'ko Urian bertan.

2[a]: On Xabier Oses Ueska'ko gotzai adiskideak esan zidanez, "egi-zale *betea ta zintzotasun osokoa izateaz gaitiera, Aragoi guzian gai auetaz geien dakian gizona Federiko Balaguer dugulako, .jakintsu oMen idazki batek, baratari edo notario fede-emadle baten kidekoa dalako, siniste merezi* Ortaz, aiztintxe berak esan digun bezala, jakintsu onek "Ueska'ko euskerari-buruz XVI.I mendeko dokumentu bat ezagutzen dala". zalantzarik gabe sinistu dezakegun gauza dala. Eta benetan eskertzekoa,

---

58. Jakintza ororen kabi izan ot diran entziklopedt aundietan ere ez dut ezer aundirik aurkitu. Adibidez, "La Gran Enciclopedia de AragOn", "GER" eta "Diccionario de Historia Fekesiastica de Espana", Naparroa'ko bakartiei-buruz "Gran Enciclopedia Navarra" bezain antza gertatu zaizkit Aragoi.ko hakartiei-buruz. Zurita'k berak, edestilari aragoitar ondo ezagunak, ere ez zigun gai ontaz ezer askwrik Nere kana burutzeko, batez *ere* onako idazle auek izango ditut Enrique Fkirez, Manuel Riseo, eta Fr. RatOn de Hueca. Beren liburuen berri, nere onen sarrerako "Bibliografia"n aurkitu dezakezu_

dokumentu ori Ueska Probintziko artxiboan dagola, billatzen saiatuko dala, eta, aurkitzean, bidaliko didalako ori59.

Naiz Balaguer artxibuzaiñak XV mendeari-buruzko dokumenturik ezagutzen ez, izkuntza bat ain errez ezabatzen ez dalako, oker ibiltzeko durrik gabe uste izan dezakegula logikaren eskutik, bizirik jarraituko zuala mende ortan ere gure Euskerak Ueska'ko Uriaren barruan. Ori uste izan dut nik beintzat beti, XIV'aren erdian indartsu zegoala badakigulako.

4ª: Zorionez, aspaldiz gero nerea izandako uste ori okerra ez dala, eta Ueska'ko Urian bertan XVI mendean ere euskeraz itzegiten zala adierazten digun dokumentu bat billatu dugula. 1561 'ean Uri artako Salerosleen Kofradiak, Uri artako artekariei., Uri artako azokan salerosketak legezta-tzeko idazkietan euskera erabiltzea debekatuz argitaratua.

5": 1561 'tik XVII mendera 39 urte motz besterik ez daudela, asti labur-regia izkuntza bat ezabatzeko, bereiziki euskerak millaka urteren epean erakutsi cluan bezain iraunmen aundiko izkuntza bat ezabatzeko, eta ori Balaguer jaunaren esanari sendoketa osoa ematera datorrela: ots, itzegiten zala, alegia, Ueska'n, XVII mendean euskera.

6": Ueska ren probintzi' ko iparralde guzian, XVI eta XVII mendeetan ez eze XVIIrean ere mintzatzen zala, ez dakit nori jasoa dedan esari onek dasaigunez: "La *inMeTISY1 mayoda del Arago'n nortibMco era euskaldun. Lo era Ueska en el XV y su provincia en el* Une ontan, esaldi orri "y tambitn mucho mas tarde” erasteko moduan aurkitzen gera. XVII'ean itzegiten zala, Oihenart'ek ere idatzi zuan mende ortan bertan argitara eman zigun "Notitia Utriusque Vasconiae" izeneko bere liburuan.

7ª: Motz gelditzen zai gula orain arte esandako guztia. XIX mendearen asieran ere itzegiten bait zan an euskera. Garat'ek 1803'an idatzi zuan ori, Euskalerria Laterri Yare biur zezala eskatuz, Napoleon Bonaparte'ri, au oraindik Lenen Kontsul zala, bidali zion txosten batean. "Une *artan Euskera, Auñantendian Katalaunt'ko mu;araifio itzegiten zaIen"* esaten zion: "los points des Pyrënees par *les* quels il .raut Mire passer les nouvelles d'mareations", ots, "Aufiamendia-zeur *muga berriak nondik igaro bear zuten"* aurkezterakoan (A. Darricau: "La France et le Labourd". Dax, 1906. 63-65).

---

59. Gai guzti onen herri zabalagoa, "Euskerazaintza" aldizkariaren 1999'garren urteko XLV-XLVI zenbakietan argitaratu dut.

Itzuli gaitezen ostera, dakarkigun ildora:

Nola ez?, izan zan noski bakartirik Aragoi' ko lurretan, baifian ez zaigu bakarti oiei-buruz albiste aundirik iritxi.

BITORIO DONEAREN ASSAN' GO LEKAIDETXEA. Ipar-Aragoi'ko lekaide zarrik ezagutuena Bitorian edo Bitorio Donea dugu. Bildu dugu, Done ontaz "Bibliotheca Sanetorum."ek diona, euskal-bakartitzaz itzegin dugunean. So-egiogun orain beste idazti batzuek diotenaren aldetik:

Ueska, Jaka eta Lerida'ko "Brebiario" zarrek dioskutenez jaio omen zan. V mendea, ainzuzen. Bere bizitza kondairaren untzaz bildurik iritxi zaigu: "Ya *en puericia parecia varOn pelfecto por* /a *gravedad de sus palabras V accione s, en que tenian que: admirar y aprender los mas ancianos"* (R. de Huesea, op.c. IX, 347).

Umetatik jakite-zale aundia, mundu-jakintzak bazterturik, teologia ta Idazti Doneak ikasteari ekin omen zion. Eta, laister. lekaidetzara jo omen zuan, bereala santu izena irabaziz. Baiñan *"Ilegando a sus oUos esta alabanzas, concibi6 tanto horror espanto qual suele aprehender el que ha bebido sin soberlo algtM veneno rnortal" (ib),* eta, igeska, Galietara joan omen zan lekaidekide batzuekin.

Galietan misiolari ibilli omen zitzaigun. Baiñan an ere ospetsu egin omen zalako, "huyendo *de la honra que sigue a lcr virtud conocida C 0111-0 sombra al cuerpo,* Aragoi'ko Aufiamendira etortzea erabaki omen zuan.

Urrengo itz auek garrantzi aundiko albiste izango inzaizkiguke, egiazkoak dirala ziurki jakiterik ba'genu, aiztintxe esan dugun bezala Aragoi zar euskaldunean ere bakartirik izan genuala adjeraziko bait gukete:

Bitorio, Mikel Goiaingeruari elizatxo bat eraiki, ta leiza batean jarri omen zan bizitzen, baiñan, bere santutasunaren usalak eta egiten zituan mirarjen miresgarritasunak eraginda, bereala asi omen zitzaion jendea biltzen., eta jende auek *rogaron que, prefiriendo la comodidad ogena a la propia. bot xase del monte a otro lugar mas accesible. /1 este fin le ofrecieron una heredad Ilamado Arasarre en lca ribera izquierda del Cinca"60.*

*"Cerca de crllŕ habÍa 11n monasterio llamado Asanense por razOn dei sitio".* Asa, lateraz Assa zuan toki ark izena[61] . *Los Monges del monasterio Asanense noticiosos de la santidad de Victorian lo eligieron por ,su A bad.*

*Algunos monges a tindo de mayor petfeccUM habitaban fuera del monasterio en eeldas y oratorios que ellos se hablan edificado.*

Orra or, kondairaren agotik Aragoi'ko mendietan ere gure Euskalerri Zarrak bakartasunean bizi zan semerik izan zualako aitorpen argia.

Bitorio, ordea, ez-bide zan orduan bakartitzaren aldeko, naiz bera ere len bakartia izan, eta "a *todos los atraxo y reunk5 en el monasterio, haci - doles ver C011 razones elicaces palabras dulces las ventajas que logra el cenobita con el buen exemple y exorlaciones de sus compafieros, respecto al anaeoreta".*

Lekaidetxe ori gaur Sobrarbe esaten zaion eta lateraz Super Arbem – euskeraz Arbegain esaten zitzaion tokian zegoan.

Esanik utzia dugu, garai zar aietan, (Bitorio'ren Aragoi'rako etorrera VI mendearen lenen urteetakoa da), gotzaiak maiz aukeratzen zirala lekaideen artetik. AIa, Asan'go lekaidetxetik irten omen ziran "San *Gaudioso Obispo de Thratona, Vineencio de Huesca, Eufronimio de Zamora, Aquilino Arzobispo de Narbona, v Tranquilino de Thrrogona".*

---

60. Ibai orrek, antzifia, Euskalerri Zarrean egiten zuan ia bere ibilkera osoa. Gaur, bere izenak ez du euskak-itxura aundirik. Erromatarrek, ordea, SIKORIS esan zioten. Itz ori, katerazko dc.'klinabdetik atera ezkero, SIKORI biurtzen da, ela, era ortan bai, Sik-ori asko urbiI-duko zaigu Euskakerriko izendegira. Baiñan ibai orren oraingo izena ere, ZIN-KA ez da eus-kak-belarrientzat arrotza. "ZINK" edo "ZiN" daramaten izenak ere baditugu-ta. Adibidez: Zink-un, Zink-una, Zink-unaga, Zin-aga, Zink-uria, Zink-unegi, Zin-urria, Zin-aurri.

Zin-tza eta beste asko, gure gaurko abizen eta tokiizenak dira. oraingo ZINKA, antziñako Sikori artatik ote dator? Euskeraren txistu-otsa-dun "Z" maiz "S" agoskatua ez ezê idatzita ere izan daka badakigu. Beraz. edo Zikori > Zinkori > Zinka? alderantziz, Zinka edo Sinka ote da bietan izenik zarrena, erromatarrek Sink-ori, biurtua?

61 Araba'n ASSA bat badugu. Era askoz idatzia izan dana: Asa, Ausa (Arakar.ko Ausi edo Auza-- Gazteku datorkit gogora), Acsa, Dausa. Izen ori ezpairik gabe dugu izen euskalduna, eta euskal-izen askoren osagaiklu ager-tzen zaiguna: Asa-egi ( Bilbao-Abandolo mugarria), Asa-iturri (Ara-ba'ko zehnean), Asa-garbia lErronkaffko mendia), Asagausteostea (Ara-ba'ko Oreiti.n alorra) etabar. Donebitoridk aurkitu zuan lekaidetxea Aisa deritzan aranean zego-an, "pequeño vakle entre los rfos Arangues y Estarrun" (Ma-doz). (' Arangu" "Arango" "Aranko" eta "es" edo "ets" atzizkia euskaldunak dira noski). Araba.n baditugu Arangio derit-zan mendi bat eta Estarrona Izeneko erri bat).

*MuriO San Victorian en el dia 12 de Fuero en el atio selptimo de A thanagildo Rev de los Godos en ESKI fia, que ltte el de 561, a los ochento de su edad, habiendo gobernado el monasterio Asanense doce lusiros".*

Albiste guzti oiek, "Brebiario" zarretatik 1807'an R. de Huesc.a buruiturdunak jaso zuanaren zati batzuk dira.

Baiñan kondaira sortzen asi baiño askoz leenago, Donebitorio il da bereala, bere garaieko Benantzio Fortunato'k ere epigrama bat eskaiñi zion, Euskalerri zarrean ain lekaide ospetsu izan zitzaigun Done aren eriotza goretsz. Epigrarna txit dotorea, VI mendeko oler.karirik txukunena izan bait zan Benantzio Fortunato, "Vexilla *Regis Prodeunt"* eta "Pange *Lingua Gloriosi Proelium Certaminis"* ereserki ezagunen egillea. 609'garren urtean il zana.

Ain goiz ta ain olerkari ospetsu baten luniatik olerki bat jaso izateak, Donebitorio'ren itzala, bera oraindik bizi zala — noraiño zabaldu zan adierazten digu.

Ona olerki motz ori "Monumenta Germarnae Hisorica"tik artua ("Auctores Antiquissimi", IV, 87.):

*Quisquis ab occasu propera,s huc, quisquis ab ortu*
*1111111111S in hoc tumula quod venereris babes.*
*Respice ditatum eaele.sti dote talentum,*
*cuius setnper habet pectoris arce Deum,*
*Religionis crpex vitae deetts, arma scrlcrtis*
*meritis Victorianus adest,*
*dignum opus exercen.s qui fructificante labore*
*eunctis, non soll vi.vit in orbe sibi.*
*Plurima per patriam monachorum examina,fundens*
*lloribus aeternis melltficavit apes.*
*Lingua potens, pietas praesens, oratio iugis:*
*sic* ut farn *tum totus ad astraffiret.*
*Plura salutiferis tribuens oracula rebus*
*saepe dedit signis beata fident.*
*Bis senis re.vit patrio moderamine lustri,s*
*nite Deo placitas pastor opimus ares.*
*Calle sequens recta sacra per vestigia ChriStU711,*
*111117C fruitur vultum quem cupiebat amor.*

"Sartaldetik ator? Sortaldetik`? Baduk obi ontan
zer omendu
Emen, Biktorio Donea, zerutiko _jakintzaz beterik
bere baitan Jainko-eramaille beti izan zitzaiguna;
Erlijioaren gaillurrek.o edertasunean bizituz,
osasun-ereille, merezimendu guztien irabazie,
eta bere ekintza zintzoen bidez zitu on en^aille.
Ez bait zala munduan
beretzako bakarrik bizitu, guztien onerako baizik,
lore zerukoietan xurgatuz erle ezti-emaille langillea.
Anitz lekaidetegiz apaindu zigun aberria.
Itzez, indartsua: barne-biziz oparoa; otoitzean iseka-eziña;
orrelakoa izan zan-da, gaur izarren gaindik jasorik dago.
Bere donetasunaren adigarri dira
une oro banatu oi zituan aolku ugari osansungarriak.
Asaba goxo, amar urtez zaindu zituan ederki, naiz agure,
Jainkoari era bereizian atsegin zaizkion ardiak.
Kristo'ren zidor sagaratua zuzenki jarraituz gero,
yadanik begiz badakus,
maitasunaren eragiñez ain gogoko izan zitzaion
Aurpegia".

Donebitorian'en Assa"ko Lekaidetxea, gure 111 Santxo "Nagusiak" bfrreratua izan zan Xi mendearen astapenean, eta, Aragoi'ko sortaldean, sartaldeko Aragoi'en Peña'ko Donibane'rena bezala, ospe ta indar aundikoa. izan zan luzaro. Bere mendekoa izan bait zituan garai batean berrogeitamar eliz!

Sortu zan lekaidetxe geiagorik Aragoi euskaldunean. Agotik agorako albisteek, hai, oso zartzat jotzen dituzte lekaidetxe oiek, baiñan siniste ziurrik ez dute orrelako al.bisteek merezi. Adibidez:

*monasterio de San Pedro de Taberna„vito en lcr ribera del Esera, trae Su origen del tiempo de los Godos, aunque ignoramos su fundador el afio que loland(5"* (R. de Huesca, 1.e. 389. Bisigobarren garaiekoa izan zala esateko ordea, oiñarri sendorik ez dugu, bere aurreneko albistea, X mendekoa bait da: "Su *existencia en el* arin 987 *nos consta por una donaci/m del rey Don Sancho A.barca, de su mujer Dofia Urraca* y *de sus tres hijos G rda, Ran7iro t Gundisalvo. Firman el privilegio Benedicto*

*obispo de N(ijera, Munio obispo de Aluva, y Sisebuto obispo de Pamplona"* ("Esp. Sagr". XLVI, 2(12). Dakusgunez, bere erreiñuko iru gotzaiak inguruan zituala asi zuan gure errege ark bere Aragoi'ko lurretan ibillaldi ura.

SANTA MARIA de OBARRA: Isabena ibaiaren alboan. Zurita'k dionez, *"antes de lce entrada de* los *moros se edffr*$^{y}$*5",* baiñan aurreneko aipu ziurra, VII í mendeaz gerokoa dugu.

MIREN DEUNAREN ALAON'GO LEKAIDETXEA. Alaon au Ribagorza, ots, Gortza Aranean zegoan, izen ortako beste uri bat bai bait zan Jalon eta Ibero ibaiak alkartzen diran tokian, gaur Alagon esaten zaiona, eta, erromatekoan, Alationa Vasconum. Beste ura, Gortza-Aran'ekoa, orain Noguera Ribagorzana esan oi zaion ibaiaren eskubiko ibarrean zegoan, eta bertako lekaidetxeari-buruzko izparrik zarrena IX mendekoa dugu.

KATALAUNI EUSKALDUNEKO LEKAIDETZA: Zoritxarrez, ez dezakegu aldi z.ar artako lekaidelekaimeetaz nai bezain eskiertasun tinkoz itzegin.

Alare, Ilerda (Lerida)'ko kontzilioak, 546'ean, ematen digu garrantzi aundiko eskiertasun bat: VI mendean, Auñamendiaren sortaldean, lekaidetxerik aski bazaluko eskiertasuna. "Quod *synodo Agathensi.*$^{y}$ *vel Aurilianensis noseitur decrevisse",* ots, "Aga.ta (Agde)'ko eta Aurelia (Orleans)'eko kontzilioek agindu zutena birragintzen duala" esanez asten du ha lekaideei buruzko kanona,

Gero, Kanon berean, onako au erabakitzen du bere kasa: gotzairen batek bere elizbarrutiaren onerako lekaide bat-edo-bat apaiz-sagaratu nai

---

62. izan ziran aurretik Ispanietan AMAR kontzilio: Eibira edo Eliberri'koa, Zakduba'koa, Telodorn uri ontako lendabizikoa. Tarragonaloa, Geronalcoa, Toleddko bigarrena, Bartzclona'koa eta Bragalo biak. Lerkta'n bildu ziran Asabek, ordea, ez zuten AMAR. kontzikio aietatik bat bakarrik aipatu. Gakietako bi baizik. Egia, Narbona, Bisigoten Septimani'n, Bisigoten erreifiukoa zaka. Baiñan Orleans frankiarrena zan; etsai amorratuena; eta Lerida'tik txit urrutikoa! i, Ispanielako amar aiek fekaidetzaz mintzatu ez ziralako ote? Mintzatu ziran ordea!

ba'du, sagaraketa ori egiteko bearrezkoa duala lekaidetxe artako abataren bai men a62.

Bereala, Ilerda'ko kontzilio onek, gotzaien kutizitik babestu nai ditu lekaidetxeak: *"Lekaiderxe bati emandalw ondasunak ez bitza gotzaiak bere eskupera sartu".* Sortzen asia zan noski gotzaiengan aberastasun-naia, orrelako aginduak beste kontzilio batzuetan ere eman bait ziran. Izan ere, ordurako, ari bait ziran aski aberasten lekaidetxe beraiek ere!

Badu Ilerda'ko kontziTioak kanon berean beste erabaki zugur bat, sasilekaidetxeei-buruz. "Ezapaiz edo edozein laikok, berak egindako eliz bat sagaratu nai ba'du, ez bedi – bertan lekaide-talde bat gotzaiak onartutako araudi baten esanera bizi ez ba'da – eliz ori elizbarrutiko ]egeetatik yare jarri naiean

Ona Kontzilio beraren itzak:

*"Si autem ex quisquam a se factam basilicam consecrari desiderat, nequaquarn sub monasteril specie, ubi congregatio non colligitur vel regula ab episcopo non constituina; ea a diocesana lege audeat segregare"* (Ori ere III kanonean).

Jainkoak bizia ba'damait, sasilekaidetxeak eraikitzeko oitura trakets ori urrengo mendeetan nola zabaldu zan agertu aal izango dut. Beroien sortzailleek, orrela, Laterriari ta Elizari. zor zizkieten zergak ordaintzetik yare gelditzea. billatzen bait zuten.

Lekaimeetaz ez digu kontzilio onek deus geiagorik azaltzen, baiñan bai neskuts eta alagurnemeetaz: "viduae penitentes" esaten die auei, eta "virgines refigiosae" beste aiei. Orrela mintzatuz, bai auek eta bai aiek "ordena" edo "talde" sagaratuetan sarturik bizi ziran emakumeak zirala adierazi nai izan zigun. "Thizte *oietako alarguneme edo neskuts batek, iñork indarpean artua izan ondorean, ez ba'du artzailleagandik aldegin*

---

Gerona'kon izan ezik, beste guztiak. Eta ugari gaiñera batzuk. Lerida'k ain bertan zeukan Tarragona'koa adibidez. Baita, gurasoek Eizaren serbItzura eskaiñitako umeen sagaraketaz kege-ematerakoan Toledo'ko Il'a ere. Eta ugari lakduba'koa ta Tokedo'ko lenengoa. Guzti orrek, –1.1erda Euskakerrian zegoan-da – ote du zer ikusirik Euskalerria Iparrarekin Egoarekin baiño askoz kotuagoa egun z.atearek.in? Orrela egon zaka bai bait dakigu. Bestalde, badafteke agian, erreiñu bisgotean Elila ta Laterria oraindik bat egin gabe zeudekako, (ariozakea zan bir oraindik Laterria), bere iparraldean ainbeste euskaldun zituan Tarragonalo Eliz-Probintziaren arremanak, ordurako katokikoak ziran frankiarren Ekizarekin geroxeagokoak baiño sarritsugoak izatea.

*eskomikatuak eta, kristau-gizartetik jaurtiak biak".* Baiñan, jakiña, indarpetutako emakumezko sagaratua indarpean artu duanagandik bereizten ba'da, indarpetzaillea bakarrik izanen da eskomikatua (VI Kanona).

Kontzilioak orrenbesteko ardura artu izateak, lekaidetza lurralde aietan sendoa eta asko zabaldua zala adierazten digu.

Eta, "a pari", ots, "beste edonun bezala", VI mendearen lenen erdian (546'koa bait da kontzilioa) lekaidetxeak lurralde aietan ain ugari ba'ziran, mende orren aurretik bakartiak ere arras ugari izango zirala uste izatera bultzatzen gaitu logikaren indarrak, antzifia-antzilia artan bakartiak izaten bait ziran, ia beti, egiazko lekaidetxeen sortzailleak.

Ez dezagun ordea azturik laga, garai artan, Kontzilio aren lurraldea, ots, Tarragona'ko Eliz-Probintzia, bere iparraldeko erdian Euskalduna zala ia osoki, agian, Lerida Uri ber-beretik asita.

i Nola ez?, kontzilio ura VI mendearen leen erdikoa zalarik, askoz eta askoz geroago, XI mendean *("al voltant de l'an mil)* Lerida'ren iparrean, eta XIV, XVI eta bearbada XVII mendeetan Ueska Urian bertan, eta Ueska Probintziaren iparralde guzian XVII'ean (Oihenart) eta baita XIX'aren astapenean ere (Garat) euskeraz egiten zan da!

ilerda'z g aiñera, Urgel eta Gerona ziran orduan Ipar-Katalauni euskalduneko elizbarrutirik garrantzitsuenak, baiNan zori txarrez ez dugu ango lekaidetzari-buruz albiste ziurrik aurkitu[63].

Lekaidetxe ugarien aipuak bai, baiñan, danak, noiz sortuak izan ziran jakiterik ez dutenak, edo VIII mendeaz gero sortuak. Tamalez, 517'an egin

---

63. Gerona edo Gerunda'ren "G" ere, emen, era goxoan agoskatu bear da: "G" bezala eta ez ".1" bezala. Doinu ori du ba berez. Gaiñera, Gerona. eleneraz idatzirik agertzen zaigu bera aipatzen duten aurreneko idazkietan. Tajakifia da izki ori eleneraz era goxoan agoskatzen dala. Bere etnnologiari dagokionez, ''GER" eta baita "GERO" ere, gure izendian ugari aurkituko duzu iZenen oiñarri kez.: onako auen antzeko izenetan, adibidez: Gero-he (Laburdi'n), Gero-la, (Gero-ola. Bizkai'n), Ger-ano (Naparroa.n), Gera-tegi (Gipuzkoa'n), Ger-eka (Bizkai'n, Ger-efio, ta "O" errez "U'' biurtzen dalako, Ger-enu (Araba'n). Ptokorneo'kere gaurke Gerona'ri GERUNDA esan zion. GERO, Kerexeta'k dionez, euskak-abizena da eta GARO'ren akdakuntza tzan omen daiteke. Bai ote? Era ortan GERO-NA, jatorriz, "GARO-NA" izango litzake; gaztekeraz, "helechal". Itai ote? Oroi beintzat GARONA Euskakerriaren iparreko Ibai aundiaren izena daia, eta baita egoaldean, larruki zarretan, Araba'ko Gauna'rell izena Garona agertzen dala, eta oraingo Logroito' n auzo baten izena *cre:* Las Gaunas dala: "Las Gamnas"; "Garoneta": Gazteleraturik, Heleehrdes"?

zan Gerona'ko kontzilioa ere bakarti ta lekaideei-buruz zerbait esateaz ez zitzaigun arduratu. Bestelakoak izan bait ziran aztertu zituan gaiak. Liturgiari zegozkionak, batez ere.

Mende aietan liturgiaren batasunik. ez zala, esanak gera. Esanak gera, baita, liturgiaren batasunari-buruz, orduango kontzilioen gurari bakarra, eliz-probintzi bakoitzeko liturgia bateratzea izan zala, eta ori ere ez zutela erabat lortu.

Ala, kezka ori agertu ziguten Gerona'n bildu ziran asabek ere VI mendearen asieran, beren aurreneko kanonean:

*"Au da, Meza emateko erari-buruz, Jainkoaren izenean erabaki duguna: Eliz-probintzi Tarrakonentse guzti ontan Eliz Metropolitarrean esaten eta egiten diran era berean esan eta egin bear dirala Meza, Salmodia ta eliz-zerbitzuketa guziak".*

Eun urte t' erdi baiño geiago igaroz gero, VII mendea bere azken aldera zijoala, 675'an, Toledo'ko XI kontzilioa III kanonean agindu bera eman bearrean aurkitu izatea, agindu ori betetzen ez zalako adigarri ziurra dugu.

Gerona' ko kontzilioaren isiltasunak, ordea ez du esan nai an, – erromateko "Zerritani" edo" "Zeritani"en lurraldeko mendietan – V, VI eta VII mendeetan bakartirik eta lekaiderik izan ez zanik. SoiNu auxe da isiltasun orrek esan nai duana: Arazo ori argitzeko, kontzilio ark ez digula balio[64].

GERONA'KO LEKAIDETXEAK. Eliz zar artako lekaidetza zaarraren berri aundirik ez dugu, "España Sagrada"k bere XLIII liburuan aipatzen dituanak, danak VIII mendeaz gerokoak bait dira. Alare, bada ori naiko arrazoia, VIII mendeaz aurretik an bakartirik izan zala esateko.

Guk beintzat oroi dezagun bere abatak ospetsu egin zuan Biklara'ko lekaidetxea. Biklara Gerona'ko lurretan dago. Biklario esan zitzaion len, eta orain Valclara esaten diote,

---

[64]. Zerretiarra? Zeretiarra? Len ere esan izan dugu, euskal-izenak idaztean "R" ta "RR" izkiekin antziñako idazle aiek nola ibilli oi ziran zer izki erabilli jakin gabe. Eta galde ere egin genduan, *ez* ote zan ori, euskaldunen ezpaiñetatik bi izki aien arteko doiñu bereizi bat entzuten zutelaren ondorio. Danadala, Zeretiar aiek Euskalerri Zarreko leiñurik sortaldetarrena osotzen zuten, aien inguruan aipatu oi diran beste leiñuak Zerretiarren sendi bereiziak besterik *ez* bait ziran.

Lekaidetxe aren sortzaillea, Yon, izan zan, eta "Biklaratarra" izenarekin da ezagutua. Portugal'en jaioa omen zan, VI mendean, eta Kostantinopla'n egona, ikasketak egiten. amasei urtez, Andik etorrita sortu omen zuan Biklara'ko Lekaidetxea. Azkenik, 591'garren urtea baño Gerona' ko gotzaia zan.

"Chronica" baten idazlea eta orrek eman dio *dugu* ospe guzia. Guk ere bein baiño geiagotan erabilli dugu Kronikoi ori. Espasa iztegiak "Bielara" itzean dionez, kronikoi ori ariotarrek trakesturik iritxi omen zaigu: *"según el cardenal Aguirre los arrianos lo corrigieron -y alteraron en puntos esenciales".*

AUSA EDO VICH'EKO LEKAIDETXEAK: 8 dira "Españi Sagrada"k aipatzen dituan Ausona ere esan zitzaion Elizbarrutiko lekaidetxeak. Danak ordea IX mendeaz gerokoak!

Atal au bukatzeko aipa ditzagun beintzat orduango gure Aberri Zarrareko Done zarren izenak, aietako bat eta bi baiño geiago, VI eta VTI mende aietan, ezpairik gabe, euskeraz mintzatzen ziran gizakumeak izango bait ziran!:

- Geldi. bitez illunpetan seguruaski sasikoudairen asmakizun besterik ez diralako, Urgel'ko elizbarrutiaren sortzailleak izan omen ziran Tesifon eta Urbizio Doneak.
- Oroi dezagun DONEJUSTO Urgel'ko gotzaia izana, Toledo'ko kontziliora, eta gero Ilerda'kora joan zitzaiguna. Biblia'ko "Abestien Abestia"ri-buruz idatzi zuana: Sebilla'ko Doneisidoro'k aipatu zuan liburua. Baleike berea izatea Donebixente martiriaren omenez egindako "sermoi" bat ere.

- Ezagunak ditugu BIXENTE, ORONTZIO eta BITORIO. bixente, Ueska'n jaiotako diakono martiria; Orontzio, Akitani'n Eliberrrko gotzaia, eta Bitorio Asan' go abata aiztintxe aurkeztu duguna.

Orain ordea, izen bereko beste done batzuen aipua egiten zaigu. Lengo beraiek ote dira? Ez jakin! Baiña ez du axula aundiegirik. Beraieiburuz dakigun guzia "completamente leggendaria" oroen da ba. "Kondaira

orrek dionez Gerona'n ilko omen ziran martiri": "secondo cluesta leggenda avrebbero sofferto il martirio in Gerona" ("Bibliot. Sanet".).

Iru Done oiei beste bat erasten die "España Sagrada"k (XLIII, 254). Martiri berri au emakumezkoa da, azkeneko talde ortako Bitorio orren emaztea, zigorraldi berean erailla eta ura bezain kondairatsua.

- JERMANO, PAULINO, JUSTO, SIZIO. Gerona'ko Brebiario zar batek martiri bait liran aipatzen ditu, baiñan ederki dio "España Sagrada"k (I.e.) *"tan antiguo v cierto es el culto que la Santa Iglesia de Gerona tributa cr estos cuatro Martires como ineiertas v modernas las actus de su pasi6n".* Ez dakigu, beraz, gauza ziurrik done auei-buruz. Ustez aienak ziran 1336'ean Gerona'ko gotzaia izandako Kanprodon'go Arnau'k bildu eta bere katedraleko aldare batean ipiñi zituan ezurrak. Beste zerbait ere egin zuan gotzai onek urte artan bertan: katedralean Karlomagno inperatoreari, Donekariomagnori, aldare eder bat eraiki!

Itz auek "España Sagrada"renak dira: "En *el mismo dia ponen Ios Martirologios antiguos el martirio* de *otras veinte v nueve victimas que ofreciO lcr ciudad de Gerona u Jesucristo: pero es preciso confesar gue no todos los eitados Martirologios hacen menciOn de los ventte v muerTe"* 277). "Bibiotheea Sanetorum"ek, ordea, ez ditu aipatu ere egiten. Laga ditzegun ba guk ere pakean, kondaira gozoen babespeana5.

- FELIS Martiri Donea, Au ere Diokleziano'ren zigorraldian erailla. Diotenez, Afrika'n Szlll zeritzan uri. batean jaio, eta andik, bere fedea aitortu naiez, Ispanietan zigorketa gogorragoa zalako, Bartzelona'ra etorri omen zan, eta emen apostolutza-lan aundia egiñez gero, itxas-ertza-gora lan bera egiñez Gerona'ra iritxi, emen ekintza berean jarraitzeko. VII mendean bere bizitza emanez idatzi zan "Acta" edo "Ekintzak" izeneko liburuak dioskunez, epai-itz zitala jaso zuan Rufino epailleagandik, onen aurrera kristau lez salatua izan zanean: "ut *eum usque ad osa exungularent et longinqui itineris labore consumarent"; "Burni-atzez* ezurrustua bedi, eta, gero, ibitlal-

---

" Espa a Sagrada" izeneko liburu onuragarri onen XLITI au, Antolin Merino eta 7osē de Canal agustindarrek idatzi zuten, eta Madrid'en 18 I 9 [1] an argitaratu.

di luzez akitua". Kondairak dionez, Gerona'tik Gixols'Ico San Feliu'ra 30 kilometroko bidea era negargarri artan egin ondorean itxasondoko uri ortan aurkitu omen zuan eriotza.

Bi gizaseme ospetsuk goretsia izan zan: Prudentzio olerkari baskoiak, eta Sebilla'ko Isidoro doneak

PrudenIzio'renak dira bi bertso polit auek:

*"Parva decus exhibebit*
*ortubus sanctis locuples Gerunda.*

"Felis'en bikaintasuna aurkeztuko du
gorpuzki donez aberatsa dan Gerona txikiak"

Erreiñu hisigoteko Doneisidor sebilIatarrarenak omen dira, berriz, liturgi mozarabitarreko beste auek:

*Omnia tormenta forte preacucurrit pectore,*
*postque poenas et catenas, ungulas et verbera,*
*(:arnea claustra relinquens, migrat ad coelestia".*

"Ontaze-min oro bulartsu jasanda,
zigor eta kate, burni-atz eta zartailluen ondorean
aragizko espetxea utzirik, zeruetara igaro zan"

- PONTZTO Donea. Gerona'lw gotzaia izan omen zana, eta, bai bera ta bai aren ondorengo NARZISO, eta FELIS diakonoa, ziurtasun aundirik gabeko kondaira utsez ezagutzen ditugulako aipatze utsarekin utziko ditugu.

- ERROMAN Martiri Donea. Gurutz bati lau Itzez josirik il zala esan oi da, Baiñan bere nortasunaz dakigun guztia oso berandu, IX mendearen

azken-aldera Berenger Gerona'ko gotzaiak idatzitako eskutitz arras labur batetik datorkigulako, bertan-bera utziko dugu done onen aipua deus besterik esan gabe.6(

IPA.R-EUSKALERRIKO LEKAIDETZA. Zabala ta luzea zan V. Vi eta V1I mendeetan Ipar-Euskalerria, bein baiño geiagotan esan izan dugun bezala. Eta gure liburu onen esparrua, ainzuzen garai artako Euskalerria bait da, pozik sartu gera, ain maite dugun lurralde artako lekaidetza zarraren azterketa-lanera.

Izan ere lantzera goazten esparrua ain zabala ta luzea izanik uste bait genuan gure Apaizgaitegiko Inblioteka oparo ontan nondik albiste-jasorik aski izango genuala: Frantzerazko lztegi aundiak adibidez, liburu onen asierako bibbografian aipaturik dauzkazun iztegi ospetsuak.

Ez zaigu monograft edo "gai-bati-buruzko-idaztirik" ere peitzen. Ezta Eliz Orokor rari-buruzko idatzi na g o mardulik ere.

Barruan alare nere-baitan bildur-ttantta kezka.garritxo bat:

Nik, atal au burutzeko, eskuetan artzera noan liburu oiek danak antzi-artako idazkietan offiarrituak dagoz. Antziña artan ordea, Ipar-Euskalerri Zarra Frankiarren eta Euskaldunen arteko borroka-leku latza zan. Eta ori orrela izanik berri izan ote zezaketen antziñako idAzle aiek, Ipar-Euskalerri artako erlijio-bizitzari-buruz? Ezer ez, segurnaski. Ezer askorik ez beintzat.

Ez dira nere kezkak, arrazoiz-kanpokoak gertatu.

Alare piztu zitzaidan itxaropenaren txinparta, "Dietionnaire d'Areheologie Chretianne et de Liturgie" oparoak bere aurkezpenaren asieran onako au eman zidanean: "TOUS *les £kparteinents frawais, tous les conitë's anglais, tous les diod?ses italiens ont leurs ermites, e17 ckpit dun relief tourment": "Naii* batzuk lur menditsu zakarrekoak izan. Frantzi'ko departam.entu guztiek, Inglanderriko konterri orok eta baita Itali'ko elizbarruti. danek ere, badituzte beren bakartiak".

---

66. Done auek i,euskaldunak? Bai beintzat seguruaski odolez euskotarrok. Eta agian baita euskaldunak ere.

"Iztegi orrentzat Euskalerria ez duk noski "La France" pentsatu nuan. Euskalerri Zarreko departamentuetaz ez bait du deus esaten.

Ez da arritzekoa, antziña artan beintzat, Galietako Merobingiarrentzat, iparraldeko Euskalerri zabal ura, atzerria bait zan, ezpataz menderatu naiean zebiltzan atzerria. Ta, jakiña, atzerri artako bizieraz Merobingiarren idazleek ezer ez zuten jakin

Gauza berdiña gertatu zait beste Iztegi aundiekin eta frantziarrek idatzitako Eliz. Orokorraren edesti-lan luze sakon bikaifiekin. Eta baita monografiekin ere. Adibidez Licuaelco beneditarrek argitaratutako 41 liburuk osotutako "Arehives de la Franee Monastique" izeneko Iar ederrarekin, eta oraindik argitaratu berria dan 4 liburuko "la Franee Religiouse"rekin.

Beti, arazo guztietan, azkeneko begiraldia, "Eneyclopaedia Britannica"ri eman izan oi diot, au baita nere ustez, uste onik aundiena merezi duan idazkia. Oraingoan, ordea, alperrikako ekintza nuan Euskalerri Zarreko bakartier-buruzko berriak iztegi orri eskatzen astea.

Lialwe'ko 41 liburu anen artean, baditu bi Dom I.M. Besse heneditarrak, guretzat arras arduragarriak: Bata, "Abayes et Prieures de 1' Anciene Franee. Provinees Eeelesiastiques d'Auch et de Bordeaux". Bestea, "Les Moines (lekaideak) de l'Ancienne France. Periode Gallo-Romaine et Merovingienne". Ura 1906'ean eta beste au 191 O'ean argitara emanak.

Aurreneko artan Onako elizbarruti auek aztertzen ditu:

- AUCH (erromateko Eltberrt) *episcopale de la troisine Aquitaine, en Gascogne, dans le coint d'Armagnac".* Ez du elizbarruti ontan VI eta VII mendeko lekaidetzaz deus agertzen.

- AIRE (antzifiako Adur edo Atur) *"tres petite ville de Novempopulanie, en Gaseogne, et f'piscopate vers* (gutxi-gora-bera) *500".* Elizbarruti ontan ere aztertzen ari geran aroko Iekaidetzaz, ezer ez.

- BAYONNE, *de Lampourdan orr du pays de Labourd nir Basque, en Gascogne".* Elizbarruti onek guretzat, atal ontarako, garrantzi aundirik *ez* du. Bere lenen gotzai ezaguna, Arsio, X mendearen, azken-aldekoa dalako. Gaiñera Besse'k damaigun elizbarruti ontako lekaidetxerik zarrena, Lahoneelcoa, XII mendekoa da; 'fonde *ou plukk*

(edo obeto esanik) *restattree en* 1164. Aipatzen digu beste bat ere, zarxa-goa: Bidarray' koa "(Mpendant *de Roncevaux (XI s.)."*

BAZAS: (erromateko Basate). "Tres *petite viNe. de lca Novempopula-nie. "Gregoire de Tours pre:tend qu'il avait des ~tiens peu aprēs le temps ou ftsus-Christ avait vecu".* Ori, jakiña, "Kristo bizitu zan garaiaz gero bereala Basate'n kristauak baziralako ori", kondaira utsa besterik ez da; bainan beste onako au, au egia da: "Ce *qui est certain, c'est que cette kglise (de Bazas) c'est tres ancienne", "oso* zarra dala Elizbarruti ori" ;.

- COMINGES (erromateko Civitas Convenarum), *petite viNe ePisco-pale depuis l'an 506* (506' az gero) *en lca Novempopulanie, en Gascoygne, au pied des Pyrene"es* (Aufiamendiaren oiñetan) *vers la source de la Garonne"* (Garona ibaiaren sort-iturrien alboan)67.

Besse'k *ez* du aipatzen, baiña Frajou izeneko bakarti bat elizbarruti ontako mendietan bizitu zala esan oi da. Batean gure azterketa-mugetatik at: VIII mendean.

- COUSERANS (erromateko "Civitas Conseranorum"): "petite *ePiscopale de ka Novempopulanie vers 506* (506' aren inguruan)". Ontan oker dabil, azaldu genuan lez, Turona' ko Gregorio'k V mendearen erdian, 45 1 'ean Donebalerio jartzen bait du uri artako gotzai-aulkian ("Gloria Conf. 84).

Ez damaigu Besse'k elizbarruti ontako lekaidetxe bat bakarrik ere. Baiñan VI mendean Likar, Lizer edo Lizier Donea berrogei ta lau urtez ango gotzaia izan zala esaterakoan, Done onen baseiizatxo bat aipatzen du, baselizatxo ori Auñamendiaren oiñetan zegoala, eta bertan erromes jende asko joaten zala esanez. ote da ori, Done ura, gotzai izan aurretik, Aufiamendian bakarti izan zalako adigarri?

"Likar", gotzai ari ematen zaizkion izenetako bat da. Itxuraz, zaarrena. Eta euskalduna dirudi.. "Lizer" bera ere, Galietako oituren araura "Lizar"en aldakuntza ederki izan daiteke.

---

Oroi dezagun elizbarruti oni-buruzko pitxikeri ttipi bat: 1569'n Naparroa'ko III eta Frantzi'ko IV Enrike'ren sasanai bat, Karlos Borbon, bertako gotzaia izan zala.

- DAX, orain euskeraz Akize, *êpiscopale avant l'an 500„ selon quelque.s-uns; Cependant on ne voit riev de certain jousqu'en 506": "go*tzai-uri 500'garren urteaz aurretik batzuen ustez; ziurki, ordea, 506' aren aurretikorik ezer ez dakigu". Ezta, dirudianez, bertako lekaidetzaren asieraz ere, ez dakizu gauza aundirik, Besse Aita beneditarra.

- LECTOURE (laterazko Lactora, Leetore, Laictora) *Ville episeopale dans an 510 en la Novempulanie".* Lekaide edo lekaimeen aipurik batere ez.

- LESKAR. (Antziña bi izen izan zituan: Laskurra ta Beneharnum)6s. *"Petite ville (.piscopale dans le Be*[g]*ien. Elle est nominee* dans *les "Notices" Civitas Benarnensium":"Beatziurieta'ko* Uritxoa: Benarnetarren Uria esan zion Albistea]: izeneko liburuak"69.

Berriro, lekaide-lekaime-aipurik ez.

- OLORON, "viNe *episcopale de Gascogne, de la Novempopulanie, dans la principaute de Bearn, cruz pieds des Monis Pirenees".* IV mendean Antonino'k bere "Bide-Liburuan" iluro esan zion: "Civitas nuronensium". Ortik sortu omen ziran geroxeagoko Eloro, eta emendik Oloron.

Emen ere lekaideetaz ezer ez,

- TARBES. Antziña Bigorra, Bigorre. *de la Novetnpopulanie, dans le eonu*[5]*. de Bigorre en Gascogne, dont elle est la eapitale sur l'Adour. 1:tr&..he cks le cinquieme "Beatziurieta'n,* Adur ibaiaren alboan Bigorre' ko konterriaren uriburu, Gaskoiria'n: eta V mendeaz gero, gotzai-uri".

(- ELUSABERRI. Len Nobenpopulani'ko Metropoli edo Probintziburu izandako ELUSABERRI'rik ez du aipatzen Besse'k; elizbarruti ura eta

---

68. V, Raymond; "Dietionnaire Topographique du Departement des Basses Pyreinêes". Liburu ontan Bearn esaten zaio, gaurregungo frantzeraz bezala. Euskaldunek Bearno esaten diote,

69. V mendean idatzitako liburu txit ezaguna. Au da liburu orrek lateraz izan zuan izena: "Notitia Dignitatum". Bere aipua, liburu onen askerako "Bibliografia"n.

uriaren Metropolitza VII mendeaz gero Eltberri'ra, ots, oraingo Auch' e-ra, sarturik aurkitzen zalako, bearbada).

- BORDELE'ren Eliz-Probintzitik, ez dugu gotzai-uririk aitatuko, Garona ta Dordoña-arteko lurretan VI eta VII mendeetan, euskera, galdua izango bait genuan, seguruaski.

- BORDELE. Uria bera, Zesaraugosto'ren garaieko Akitani zabala iru zati egiña izan zanean Bigarren Akitani'ko urihuru biurturik gelditu zan. Orduan bai, izanen zuan orduan bere inguruan ezpairik gabe euskaldunik aski, eta baita geroago bere elizbarrutian Garonatik egona.

*"Elle* (Bordele'k) *a eu des pršlats avena* l'an *300".* Geitxo esatea dala derizkiot, Besse Aita, 300'garren urte-aurretik ere gotzai bat izan zualako ori; ezagutzen diogun gotzairik zaarrena, OrientaIis, 3 I4'koa bait da.

Aurreneko aldiz, damaigu Iiburu orrek VII m.endeko lekaidetxe baten izena, baiñan, bere noiztikotasun orrek "kondaira zar bat beste oiNarririk" ez omen dualako, ez digu ezer ask.orako

Izan ere, lekaidetxe ori, Bordele'ko Gurutze Donearen lekaidetxea, dokumentuz, soilki X mendekoa bait da! Ez da gaiñera euskalduna, Tolosa bezala Bordele, naiz Euskalerriaren muga-mugan egon, erromateaz gero, dirudianez beintzat, ez bait da beiñere euskalduna izan, naiz, seguruaski, bere barren euskaldun asko bizi.

- AGEN. (Erromatekoan Aginno). Garona ibaiaren bi ibarretan eraikia zegoan, baiñan bigarren Akitant'ra izan zan sartua. (gotzaiuri) *des an 350".* Oraingoan bai, egia dio Besse beneditarrak.

Zer atera dedan liburu mardul orren azterketa zeatz ortatik? Ezer ez garrantzizkorik, onako iru-lau xeetasun auek garrantzizkoak ez ba'dira:

- Lenengo, Frantzi'ko eliz-edestilariek, liburu ontan aztertzen ari geran VI eta VII mendeetako euskal-lekaidetzaz ezer ez dakitela. Besse'ren onekin gertatu zaidana bera gertatu bait zait eskuetan erabilli ditudan beste liburu guztiekin.

- Bigarren, Besse'k garai artako Euskalerri Zarreko bakartietaz deus ez esatea, barkatu dezaiokegun gauza dala, itxuraz, soilki Lekaidetxeen edes-

tia osotu nai izan zuan ezkero. Alare, lekaidetxe zaarrak, ia danak, bakartiek sortuak izanik, arduraz jaso bearra zuan aien berri, eta baita berai.en izenik ospetsuenak eman ere.,. ezagutzen ba'zituan beintzat. Bainan... aien ezaguerarik ez zuan!

- Mende zar aiek, Euskalerriko barne-bizierari dagokionez, ezer-asko-jakiterik-gabeko mendetik dirala idazle frantziarrentzat. Orregaitik dira oso berandukoak lekaidetzari-buruz ere ematen dizkiguten euskallekaidetxcen izenak. eta albisteak, vIII mendeko bateren batena izan ezik. Berandukoe-aiak Vlll'go bat edo bi oiek ere liburu ontarako.

- Arritzekoa ez dala Frantzi'ko Iztegi aundi ta Monografietan gure bakarti ta lekaideetaz nik ezer aurkitu ez izatea. Garai ontako edestilariek garai artako dokumentuetan eta garai artako edestilariek idatzita.koetan oiñarritu bear bait clituzte beren azterketak.

Baifian garai artako dokum.enturik ez dugu, eta garai artako idazle Frankiarrek deus ez zekiten ez zezaketen jakin ere – Euskalerriaren barrengo gertakizunetaz. Zergaitik? mende aietan – eta baita ondorengoetan ere-- Akitani Euskalduna borroka-leku amorratua zalako: beren iurra yare gorde nai eta lur ura lapurtu nai, ia gelditzeke, gudu gogorrean ibilli ziran Euskaldunen eta Frankiarren borrokalekua.

- Berdin gertatzen zitzatela egoan idazle Bisigotei, gure egoa ere garai artan Bisigotiar lur-ebasleen eta Euskaldun lur-babesleen arteko borroka-leku minkatza bait zan.

Orregaitik ainzuzen naiz gure anakoretitza aro artan ain ederra izan, idazle Bisigotek ez dute lekaidetza artaz deus esaten. Ezta, Sebilla'ko Isidoro, Leandro bere anaia, eta Braga'ko Fruktuoso Suebiarra bezala, lekaidetza-kera guztietaz ain arduraturik ibilli ziran aiek ere.

ldazle onuragarri aien lekukotza beste jakintz-iturririk Izan ez ba'genu, "Europa'ko Kapadozia" Araba'ko mendietan egon zanik ez genuan sekulan jakingo. Jainkoari eskerrak, ez zituan gure gobiak lurrikara gogor batek ondatu.

Agate (Agde)'ko kontzilioak, 506'ean, tokian-tokiko gotzaien baimenik gabe lekaidetxeen sorketa galerazi zuan. Orrek – Tolosa'ko Erreifiu Bisigotaren kontzilioa izan bait zan ura Frantzi.'ren egoaldean lekaideak bazirala adierazten digu. Eta lekaidetxeen sorketan geiegikeriak *ere* gertatu oi zirala.

J3akarti lekaidetxe-sortzailleen aldetik? Ez noski. Orrela izatekotan, kontzil.ioek oiturazkoa zuten lez, kontzilio ark ere bakarti zintzoen goratzarrea eginen bait zuan.

Seguruaski, beren onturrerako lekaidetxeak sortzean asiak ziran ezapaiz kristau aberatsak zituzten Asabek begien aurrean, sasilekaidetxeetaz itzegin zutenean. Baziran ba orduan orrelako lekaidetxeak, Ispanietako kontzihoek ere aditzera eman digutenez.

Laister ikusiko dugu ezaguna dugun aberats batek sortutako lekaidetxe bat. Au zorionez, zintzoa. Ta aintzagarria.

Frantzi'ren egon bisigotiarrena zan orduan. II Alariko zan, Tolosan, bisigotiar aien errege. Errege onek dirudianez, ez zuan gure Asabekin guduketarik izan. Kontzilio artan izan ziran, euskeraren mugako Tolosa ta Bor-dele urietako gotzaietaz gaiñera, Elusa'ko Metropolita eta Ipar-Euskalerri Zarreko beste sei gotzai.

Euskalerriaren zati eder artako lekaidetxe ta lekaimetxeak ere gogoan ote zeuzkaten kontzilio artako gotzaiek, lekaimetxeak lekaidetxeetatik urrun egiteko agindu eta gotzaiaren baimenik gabe lekaidetxe-lekatmetxerik egitea galerazi zutenean? ote zan gure lurralde artan lekaiderik? Baietz esango nuke nik.

517'an agindu bera eman zuan Epona'ko Kontzilioak ere. Aurretik ori bera egin bait zuan 450' ean KaItzedoni'koak!

Esan dedan bezala, Besse'k badu, Ligugelco bilduma ortan bertan erromateko eta ondorengo Merobindarren aroko lekaidetzari-buruz beste liburu bat: "Les Moines de l'Ancienne France. Periode Gallo-Romaine et Merovingienne". Emen bai, emen itzegiten du bakartietaz, baiñan Euskalerri Zarrari-buruz... ezertxo ere ez. Aipatzen duan Bordele-inguruko bakarti ura Garona' z iparrekoa ala egokoa zan ez bait dakigu.

Badu, liburu orrek, izenburu au daraman atai bat: "Topographie Monastique": Atal ortan, Galietako beste Probintzi zarren artean" Prerniere Aquitaine" eta "Seconde Aquitaine" aztertzen ditu. "Toisieme Aquitaine", ots, "Irugarren iparreko gure Euskalerri Zarra, iaipatu ere ez!

Pentsabide zugurrez , Euskalerri ura Frantzia ez zala pentsatzen ote zuan? Ez. Au besterik ez bait da egia: Irugarren Akitani arteko VI eta VII mendeetaz, itieus ez zekiala!

"Gallia Christiana" bera ez zan garai artako Akitani'ko Eliz-Probintziaz oroitu. Tolosa.'koaren berri ematerakoan au du ango lekaidetzari buruzko lenen atala "De Veteribus Dioecesis Tolosanae Monastertis", eta auxe da atal orren astapenean dioskuna: *"In pago tolosano recensentur* 26 *monasteria quae Ludovieus A.quitaniae rex in regno sano aut fundavit oUt imstaura-*

*Sed ubi filerint nullus superest vestigium": "Tolosaldean* 26 lekaidetxe sortu edo berrftu zituan Ludobiko Akitani'ko erregeak bere erregetzakoan. BaDa, aien aztarnarik ez dugu-ta, non zeuden jakiterik ere ez dugu".

"Noizkoa dan ez dakigu" "Zarrak omen dira, baiñan. noiz sortuak, ez dakigu", oietxek izango dituzu idazleek aipatzen dituzten Ipar-Euskalerri Zabal artako lek.aidetxeei-buruz jaso aal izango dituzun albiste tori, labur guztiak. Bein, Besse'k Bearno'ko lekaidetxe batez "lekaidetxe au *probablement* VI edo VII mendekoa izan daiteke" idatzi zigun. "Probablement", baiñan aaltasun ori egiztatzen saiatu gabe.

Benantzio Fortunato ta Turona'ko Gregorio mintzatzen dira Galietako bakartietaz, "reelusi" edo "ertsietaz" eta lekaidetxe zarretaz, baitan Euskalerriko Ipar zabal artako VI eta VII mendekoetaz (itz bakar bat ere ez!, jarraiean esango dedan pittin ori izan ezik:

Turona'ko Gregorio'k, Garona'ren egoaldean dagoan Basate (Bazas)'ko lekaimetxe zar bat aipatzen digu, Nimes'ko Feli.s Gotzaiaren eta

onen illoba omen zan neskatil baten artean gertatutako auzi ez-oso-oso-txukun baten berri ematerakoan. Neskatil ura, bere senargaiarengandik beretztearren, "Basate uriko lekaimetxe batean itxi omen zuan ba." osaba gotzai arek: "apud *Vasatensem urbem Irt monasterio posuit"* (Hist. Frane, VI liburua, I6'gn. zenbakia)°.

Badu aipu orrek garrantzirik guretzat. Felis ori Nantes'ko gotzai VI mendearen erdian izan zalako, mende ortan Ipar-Euskalerrian lekaimetxe bat beintzat ba^g^enuala eskierki adierazten bait digu. Ez da asko baiñan zerbait beintzat bada.

---

70. "Monumento Germaniac Hisiorica. Scriptores Reruni Merovingicarum" Tona. 1 pars pag.

Edestilari guztiek aitatu ta goretsiko dizkizute Turona (ToursYeko Yondoni Martti, Nola'ko Paulino Done bordeletana eta Sulpizio Sebero edestilaria. Azkeneko au beste bi aien miresle aundia.

VI mendean edestilari egokia izan zitzaigun Sulpizio Sebero ori: jatorriz akitaniarra – seguruaski bearnotarra – zearo erromartutako jaun aberats kultur aundikoa. Bere adiskide Paulino Donea, Bordele'tik irtenda Bartzelona'tik-zear Nola'ra joan zanez gero, lekaidetxe biurtu zuan Primuliak'en zuan landa-etxea, eta an gorde zuan bere burua, bere etxeko jendearekin batera, lekaide-bizitza zintzo bat asi naiez.

Primuliak edo Primoliak ori Auframendiren oiñetan omen zegoan; seguruaski Bearno' n.7]

Itzal aundia izan-bide zuan erri bearnotar ortako lekaidetxe orrek. Asko eta askotan goratu bait -zuan Itali'ko Nola'tik Donepaultno'k, eta Yondoni Martti'k berak iratsitako Marmourtier'ko lekaideek ere eraspen aundia izan bait zioten.

Ikus nola damaigun lekaidetxe orren berri, Griffe'k askotan aipatu diogun idazkian (III, 326):

"Or, Primuliak zeritzan erriskan berak eraikia zuan Parrokiaren alboan jarri zan bizitzen Sulpizio Sebero, Paulino'rek.in bizitzearren Nola'raiflo joateko asmoari agur egin zionean. Bere landa-etxe ortan lekaide lez bizitzea izan zan. Atsegin aundiz artu zituan berekin batean bizitzeko – Marmourtier'tik iritxi zitzaizkion lekaideak.

"Ainzuzen, Primuliak'eko lekaidetxean il zan marmourtiertar aietako bat: Klair izeneko apaiz lekaidea, Yondoni Martti'ren mireslerik sutsuena. Ainzuzen, Yondoni Martti bera baiño zerbait lentxeago il zan. An Prninuliak'erko parroki artan izan zan obiratua, eta Paulino'k, Nola'tik, bertso txukunez, "epitafio" edo "obigaitieko" bi bidali zizkion.

---

7L PR1MULIAK: Ez diot izen orri euskal-itxura aundiegirik ikusten, bañan euskalduna du beintzat "AK" atzizkia, Akitani osoan eta Aragoi'ko iparralde guztian eta Gaskuni osoan ain ugaria. Nere uste apalez, AK ori, AKO'ren laburpena izan daiteke: AKO, Galietako izkeraz AKE; ta izkera artan E ori isilla dalako, AK. Ortik, AKO > AKE > AK. Beraz. Artzak, Artza'ko izango, litzake. Armanak, Artnafia'ko, Landak. Landa'ko, etabar.

"Arriturik geldit(uko gifiake Primuliak'en Marmoutier'tik etorritakoen artean onako lekaide izentsu auek aurkitzean: Refrijerius, apaiza, bere lenen gaztarotik Yondoni Martti' ren jarraille izan zitzaiguna; Galius, au ere ikastolank irten bezain laister Yondoni Martn'rengana joan zitzaiguna...

"Oiek heranduxeagokoa zan Bitor. Gudari. ibillia. Bainan Marmoutier'era sartu zan ezkero, Yondoni Martti eta Klair lekaide apaizaren lagun zintzoa. Au erabiltzen zuan Sulpizio Sebero'k Nola'ko gotzai Donepaulino adiskideari eskutitzak bidaltzeko. Yondoni Martti'k izan zan bataiatua! Eta, Klair'en gogo-zuzendaritzapean. lekaidetzaren eredu katu zitzaigun. Paulino'ren eskutitzetako bat, "Anai Bitor"entzako goratzarrez beterik iritxi zitzaion Sulpizio Seberoii: "Bitor *gure analIa, Martin zanaren eta Klair zanaren irudi bizia dugu. Pakearen ,s-ente au, egiaz, zorioneko Martin pakegillearen dugu, era lekaide Klair'enjarraille zintzoa".*

"Lekaide oien artean, eta ara, Primuliak'era, babes-billa urbiltzen ziran arrotzekin batera, an bizi ziran, orain lekaide biUrturik, Sulpizio Sebero'ren m.orroi eta , opu izandakoak ere. Ana bezala maite zuten Sulpizio – nagusi zor zioten era.spenik ganzeke ta Paulino'k esan oi zuanez, aienek oligondoa bezala inguratzen zuten.

"Errez gogora dezakegu nolakoa izan zitekean Lekaidetxe artako bizitza: lekaidetxe guztietan lez, ekintzarik garrantzitsuena, Meza Nagusiaren ospakizuna eta Salmodiaren abesketa. Paulino'k, olerki batean, *Jainkoaren grazia lortzeko ta pekatua otoitzez borrokatzeko Sulpizio'k gautegun bere inguruan biltzen duan atundi sagaratua* abestu zigun.

"Ezpairik gabe, Sulpizio'ren landetxe ark izango zuan bere otoitegitxoa. Alare, parrokira joaten ziran ango lekaideak liturgizko otoitz eta ekintza guztietarako".

Luze joan zaigu lekaidetxe orren aipua. Ez zaigu, ordea, alperrikakoa gertatuko: Aberatsak sortutako lckaidetxcetan – (lekaidetxe zintzoetan! – eraman oi zan bizieraren berri zeatza eman bait digu. Ta, orrelako lekaidetxeak erdiaroko Euskalerrian ere sortu bait zitzaikigun.

Adierazi digu, gaiñera, seguruaski Euskalerrian egon zan lekaidetegi aren garrantzi oroigarria. "Marmoutier bezala, apaiz-ikastola ere izan baitzanTh "Comme *Marmoutier, Primouliac fut ir l'oceasion une (Tole d'Mueation des fils qui se destinaient c't la pretrise"(id).*

Bakartitzaz ere mintzatzen zaigu Griffe bere liburu ortan 329): *"De tres bonne heure, l'amour de lu solitude javorisa ka vie*

*"Oso goiz* ekarri omen zuan berekin eremititza. bakartasunaren zaletasunak"; baiñan Euskalerriko bakartietaz ez digu deus sendorik esaten, onako au izan ezik: Sebastian izeneko bakarti akitaniar bat Nola'ko Donepaulino'k eskutitz batean goresten duala. Bainan, ori gogoratzean ere, ez digu Sebastian ura zer Akitani'koa zan esaten.

Bisigotek bezala, atzerri zuten Frankiarrek Euskalerria V, VI eta VII mendeetan. 13iotzez gorrotatutako etsai baskonitar gogor, tinko, garaitu- "erdi-mamu" bildurgarriz betetako atzerria; eta, jakiña, atzerri artan gerta zitekeanaren berririk ez zuten.

Orain arte geienbat lekaideetaz mintzatu gera. ote zan orduango Euskalerri zabal eder artan lekaimerik?

Ispanietan izan zirala badakigu. Gabetan izan zirala ere bai. ote ziran Euskalerrian ere?

Ez baiezkoaren ez ezezkoaren alde, dokumenturik ez dugu. Baiñan gure iparraldeko eta gure egoaldeko mugaz-aruntzako jendeen artean bat din ba'ziran, i, euskaldunen artean zergaitik ez?

Lekainieak baiño leenago, ugari izan ziran Galietan, Ispanietan, eta Eliz orokor guztian, Jainkoari beren neskustasuna eskeintzen zioten neskatillak eta beren "bigarren neskustasuna" eskeintzen zioten alargunemeak. Ori ere kontzilio beraiek erakutsi digutelako dakigu.

, Izan ote zan orrelako emakumerik Euskalerri Zar artan? Galde orri erantzuteko ez gaude dokumentuz ain antzu. IV mendean orrelako emakumeetaz mintzatu bait zitzaigun Priszilikeriaren aurka Salduba'n ospatu zan kontzilioa. Eta ez bait zaigu zillegi, orduan Salduba'ko Elizbarrutia sortaldeko Ego-Euskalerri osora zabaltzen zalarik, emen orrelako emakumezkorik izango ez zala uste izaten ibiltzea. Ez deza gun gaiftera aztu ain lekaimetzaren mi.resle izan zitzaigun Priszi.likeria beintzat bai, Euskalerriaren iparreko lurretara oparo zabaldu zitzaigula. Eta Prisziliano'ren miresleen artean emakumezkoak gei.n.goa izan zirala.

Ortaz, esan dezakegu noski, "virgines" et "viduae sacrae", ots, "neskuts eta alarguneme sagaraturik" izan zala gure Asaben artean ere

, Zergaitik ez ba Euskaierrian, Eliz osoan baldin ba'ziran?

Bañan... agure basoetan emakume bakartirik ere bai? ijzan ote genuan, Jainkoarekin alkartu nairik eta gizakumeen alde otoitz egin naiez, mendi.-baso urrutien leize-zuloetan bizitzera joan zan neska euskaldun kementsurik?

¸Zergaitik ez? Dokumenturik ez dugu baietz erantzun aal izateko, baiñan orrelako emakume onuragarriak bakartitza asi zan une beretik izan ziran Eliz orokorrean. i¸Euskalerrian zergaitik ez?

Gure mendiak emakumezko doneen onenez eraikitako baselizez beterik daude. Baseliz oietako bateren bat, ote da, antziña an bizitutako eta gero erriak donetutako emakume bakarti eraspengarrt baten aintzarako eraikia izan?72

Tamalez, ikaragarria da gure edesti zarreko dokumenturik-eza. Euskaldunek, Egokoek bezala iparreko aiek, ez zuten idazteko gogorik-eta, dakigun guztia, atzerritarrak idatzitakotik dakigu. Atzerritarrek ordea, Frankiarrek eta Bisigotiarrek, mende zar aietako Euskalerriaren ezagupenik ez zuten.

Orregaitik, antzuak irten zaizkit Ipar-Euskalerriko lekaidetzari-buruz zerbait jakin nairik egin ditudan saiaketa guztiak.

Alare ziur nago an ere, emen bezala, gizon-emakume bakartiak eta lekaide ta lekaimeak izan zirala. Eta auek ditut nere arrazoiak:

- An go ta emengo euskaldunak, oldozkeraz eta jardunkeraz, orotan berdiñak Danak, euskaldunak.

- Emengo Euskalerria ango Euskalerriarekin arras estuki loturik egon zala, Aldaieta ta Buzaga'ko illobitegiek erakutsi digutenez.

---

72. Emakurnezkoen artean asko dira "Manea" izena dararnakitenak. Gaur "Blanca". "Elurteko Andramari"ren izen bat dala esan oi da. Izen ori. Blanca, erdiaroaren oso azpitik agertzen da dokumentuetan. Ez da Izen ori latiñez, "Alba" bait da. Eta luzeegia latiñezko "Nivis" ("Elurraj"tik "Blanca"-rainol«) tartea. Gaiñera, leenik eta ugarenik Blanca izena Euskalerrian agertzen da. Emendik zabaldu zan gure ingurura. ote da Blanca gure erriak donetutako neska euskaldun bakarti baten izena'? "Blanea. Nombre personal vasco" dio Enc. Genl. Ilus. del Pais Vascol ere.

- Emengo Euskalerri Zar osoan lekaidetza ain indartsua eta miresgarriki ugaria izan ba'zan, logika txukunaren bidetik ibilliz uste izateko gauza dugula, ango Euskalerri Zarrean ere berdin gertatuko zala.

- Dokumentuen bidez jakin aal izan dugunez, ipar artan arrakasta aundiagoa izan zuan priszilikeriak. Egoan baiño aundiagoa, itxuraz beintzat. IV mendearen bigarren erdian priszilikeria izan zan ainzuzen Bordele'ko gotzaien eta Elusa'ko goigotzaien arantzarik mingarriena. oroi, lekaidetzari ematen zion geiegizko garrantzia izan zala priszilikeriaren okerrik aundiena.

- Priszilikeriaren aurka bi kontzilio bakarrik egin zirala. Bi oietako bat Salduba'n, Euskalerri Zarraren egoko muga-mugan, eta bestea Bordele'n Euskalerri Zar aren iparreko mugan bertan. Eta orrek zerbait esan nai ba'du, Euskalerri osoa-zear priszilikeriak izan-bide zuan arrera zabala adierazten digula.

- Ta, euskaldunek, lekaidetzari-buruzko priszilikeriaren geiegikeri nabarmen ura ontzat artu izate utsa, lekaidetzari zioten eraspenaren adigarri ziurra dugula, eta ori, eraspen ori, lekaidetzarako zuten joeraren sifiale zorrotza. Eta gizakumearen joerak gizakurnea ekintzara bultzatzen bait du, an ere lekaidetzara jo zuan eta lekaide egin zan euskaldunik izango zala – ta orrelako euskaldun oiek ugari izango zirala uste izateko ere badugula noski eskubiderik aski.

Besterik gabe emen utziko dut Ipar-Euskalerri Zarreko lekaidetzariburuz egin nai izan dedan azterketa. Laburdi, Benaparroa, eta Zubero'ko jakintsuen eskuetan utzi nai nuke, bai bait da gure errialde oietan nere utsak bete dezazkean jakintsu ta idazle bikaifiik. ote da Casenave Zubero'ko gure adiskide maite ta idazle jakintsu zintzoa, lan ortara ausartuko?

* * *

GURE BAKARTI TA LEKAIDEEN ARAUDIAK.: "Liturgia" itzak "Lekaidetza ta Lekaimetzarako Araudiak" dakarzkigu gogora: "Regula ad Monachos", "Regula ad Virgines". Izen oiek dituzte Arelate (Arles)'ko Zesareo Doneak idatzi zituanak.

Nolakoak ote ziran Euskalerri zar artan gure lekaideen Araudiak?

Zesareo Arelatetarrarena aipatu dugu. Sortu ziran mende aietan Araudi geiago: Galietan, Lerin'go Onorato'rena, Arelate'ko Aureliano'rena,

Martsella'ko Jon Kasiano'rena... Baiñan araudi oiek frankiarren artean zeuden VI mendeaz gero zabaldu ta onarturik, VI eta VII mendeetan frankiar-usai nabarmena zekarren, eta mende oietan, ez zitekean "frankiarturik" zegoan deus, euskaldunek onartua izan. Frankiarren eta Euskaldunen artean, mende aietan, soilki gudua bait zan legea.

Baziran Araudiak Ispanietan ere. Adibidez Isidoro Doneak, eta onen anAia zan Leandro Doneak, eta Biklara'ko Jon Doneak eta Brakara (BragaYko Fruktuoso Doneak. idatzi zuten bakoitzak berea. Baiñan azkeneko au Suebiarra zan eta beste iru aiek Bisigotak. Iruak, Euskaldunen arerio beltzak ziran Errietako semeak.

Bestalde, ikusi dugu zeiñen aundia izan zan mende aietan liturgirako askatasuna, eta nola gotzai bakoitza – eta neurri aundian parroki bakoitzeko apaiza – bere eliza-baitan liturgigidleak izan oi ziran. Ba, askoz aundiagoa izan zan lekaidetzarako erregela edo araudiei zegokienez zenobitegi ta lekaidetxeetako ,11-)aten askatasuna. Abata bakoitzak bai bait zuan bere lekaideentzat araudi bat eratzeko, edo, obeto iruditzen ba'zitzaion, izen aundiko beste abataren batena onartzeko eskubide betea. Ikusi dugu Euskalerrian bertan Asan'go Bitorio Donea bere lekaideentzat arau bat idazten, dirudianez, an inguruko beste lekaidetxe batzuetan ere onartua izan zan araudi aspaldi galdua.

Bedi, esaten ari geran guzti au, bedi zenobitegi eta lekaidetegietako Araudiei-buruz esana. Bakartiei dagokienez, bakarti bakoitzak soilki bere burua bait zuan Arau bakarra.

Orregaitik, atzipeturik ibiltzeko bildurrik gabe esan dezakegu, gure gobitegietako lekaide hakartasunzale aien artean ez zuala iñork bere baitan .Araudi baten beartasunari-buruzko kezkarik sekulan sumatu.

## EUSKALERRI ZARRA, ERRI BEZALA, VI ETA VII MENDEETAN KRISTAUTURIK?

## ERAGOZPENAK

Esan dut bi izan dirala Euskalerri Zarreko kristautasuna aztertuz oraiñarte idatzi ditudan liburuak: EUSKAL-KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA eta EUSKAL-KRISTAUTASUNAREN ZABALKUNTZA izenekoak, eta esan dut baitare zer dan eginkizun ortan ikasi aal izan duguna: *anizifiate artan euskeraz itzegiten zutenen lurrera ezzala kristataasuna beste Errietara baino beranduago sartu.*

Badakit, nere esari orren aurka, – bai arkeologiaren aldetik, bai gure inguruko idazle zar eta berrien literaturaren aldetik aurkeztu daitekeala eta aurkeztu ere aurkeztu dala eragozpenik aski.

Eragozpen oien gunera logikaren argia sartzen saiatzen izango da liburu berri ontako atal onen elburua.

Asi gaitezen arkeologiaren maldatik, galde bikoitz oni erantzuna billatuz: ¸Ego-Euskaterrian aurkitu berriak diran illobitegi zarretako ez.ur ugari guztiak, batez ere Buzaga eta Aldaieta'ko illobietan ain naroki aurkitu diran ezurrak, Euskaldunen ezurrak ote ditugu? Eta, orrela i¸antziftako Euskaldun aiek *KRISTAUAK* ote ziran?

Iparr-Euskalerrian aurkitutako IV, V, VI eta VII mendeetako illobien kristautasunak zalantza-biderik ez damaigun bezala, Ego-Euskalerrian aurkitutako iru oiek oiek beren kristautasunari-buruz zalantza-iturri agertu zaizkigu. Bai Irufla'koa eta bai Iruña'ren alboan Buzaga'koa. Baiñan,

batez ere, arabarra, Gaztei z'tik bertan aurkitzen dan Aldaieta'koa, danetan garrantzitsuena.

Beste laugarren bat, au ere Arabalcoa, eta ez garrantzi motelagokoa, oraintxe bertan agertu-berria dan Buradon'goa, zalantza-bildurrik gabe dugu gorputz kristau euskaldunen

Irldia'koa ezaguna zan beste bi aiek agertu aurretik ere. Ta batzuen ustez, illobitegi ori Bisigotiarra omen da, Frankiarra berriz beste batzuen ustez. Ez da arritzekoa iritzien ezberdintasun ori; lrufia'n enda guztietako, jendeak oi ziralako bait dagoz illobitegi artan era askotako, jendeak eortzirik: Erromatarrak, Frankiarrak, Bisigotak, Arabitarrak... eta lruftsemeak.

* * *

BUZAGA, irufta'tik 6'5 kilometrora dagoan Elortz izeneko errixkan aurkitzen da, eta bertan azaldutako tresnediariaren nongotasunari-buruz ez da iñolako zalantza-biderik sortu: dana bait da an, Aldaieta'n bezala, Aufia-mendiz aruntzakoa, ots, Frankiarra, eta, zintzo mintzatuz, Frankiarra ez baiña Akitaniarra.

Jakintzen barrutian izugarrizko iraultza gertatu zaigu Buzaga ta Aidaieta'ko illobitegien aurkikuntza. Ta, bietan Aldaieta'koa bait da askoz bikaiñena ta baliorik aundienekoa, onetaz mintzatuko gera bereiziki, bera aztertu duan Augustin Azkarate Garai-Olaun'en eskutik73.

Alare ez dezaiogun Buzaga'ri baliorik moztu: Aldaieta'n aurkitutako-ari sendotza egokia bait damaio, eta, Aldaieta'rekin batera, Iruña'ko illobi-tegiari garrantzi eta zentzu berria! Ederki Azkaratc'k: •

*"Aldaleta* v *Buzaga revalorizan, cldemas,* uri *yacinnento conocido desde antiguo: la necrOpolis de Pamplona, denominadalranca por unos y visigoda por otros. Habfa restos romanos, francos, aquitanos, hispano-visigodos e islandcos* "74.

---

73. bere idazkien aipua, liburu onen sarrerako "bibllografian' aurkituko duzu.

74. "Waskonia Nosotros los Vascos. Gran atlas de Euskal Herria". Edit. LUR; Bilhao 1995; 49-orrartean.

iruña'ko kultura zabalaren lekuko dira ugaritasun oiek.

Espaffi'tik, ordea, *"lo norpirenaico ha sido visto siempre como algo esporddico y circunstancial que hubo de dejar alguna obvnunente, pero nada, en suma, que fuera estable o definitivo en Ica Pennisula Ibêrica que, no sin cierw complacencia, se ha querido presewar cohesionada religiosa* v *poUncumente bajo el poder politica toledano" (ib).*

Ederki esana!

# ARABA'KO AI,DA I ETA'N JLLOBITEGI FRAN KIARRA?

Len ere mintzatuak gera illobitegi lilluragarri ortaz "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza" izeneko liburuan. Orain, ordea, len esanari zerbait erantsi bearrean aurkitzen naiz, idoroketa berriak egin bait dira arrezkero.

Aldaieta Araba'n dago. Gazteiz'tik, zutenean, amar kilometrotxora. Zadorra ibaieko urtegiak ezabatu duan Ganboa'ko Nanklares zeritzan errixkaren lurretan, urtegi beraren albo-alboan. Ainzuzen urtegi urren azpian gelditu zaizkio illobitegi orri bere obirik geienak, eta an jarraitzen dute eta an jarraituko dute, beren erraiak azterlariei aurkeztu aal izaterik eman gabe.

Obi asko, galdu zaizkigu gainera urtegitik at ere; batzuk, urteen eta mendeen i'garoketak guzia ondatu ta ezabatzeko duan gaitasunaren eragin isillaren ondorioz. Beste batzuk, urtegia egin zan ezkero, bertako gora-beerea ondorioz urtegi beraren ertzean ondatu zaizkigulako.

Aipatu dugun liburu ortan, Bisigotekingo euskal-politika ta gudutzaren aldetik aztertu genuan Aldaieta'ko Orain, kristautasunaren aldetik so-egin nai diogu. Gaiñera, Aldaieta'n illobi berriak ere agertu dira-ta, alderdi ontatik ere naitanaiezkoa izango dugu noski, zerbait-berri emen azaltzea.

Zoritxarrez, egiteke dago oraindik, Aldaieta'n agertutako ezurren antropologi edo gizaiztiaren aldetiko ikerketa.

Illobitegi orrek guretzat duan ikusgarritasunik garrantzitsuena onako zertasun bereizi auetatik datorkio:

Aldaieta'n eortzitako guztiak, itxuraz beintzat, "FRANKIARRAK" izatetik.

- An eortzitako oiek., ASKO izatetik.

- Eortzitako oiek giza-kunde edo seksu eta adin GUZTIETAKOAK izatctik..

- An eortzitako gizonezkoak, danak, GUDARIAK izatetik.

Ango gorpu guztiak kristautasunezko adigarri BAT BAKARRIK ERE GABE eortziak izatetik.

iZENBAT' diran Aldaieta'n illobiratutakoak? Ez da erreza erantzuna, esan dugun lez illobien erdiak baiño geiago, iratik bi, osifieko urpean aurkitzen bait dira, eta beste batzuk, naiz legorrean egon, au ere esan dugun lez, osiñ ortako uren igiketak – eta baita urteen joanak ere – anitz ondatu bait ditu.

Oridalata, "Algtmas *aguellas que han sufrido lca acciOn de las aguas del pamano – se encuentran en ,franco estado de deterioro"* (Azkarate: "Arkeoikoska 1989"; 32'gn. orria).

Illobi aiek aztertzen ari zalarik, urtetik urtera esan oi zuan Azkarate'k orixe bera: "El *yacimiento ha sufrido la acciOn destructora de las aguas mucho* nicľs *de Icr gue Intbierarnos deseado"* (Ib. 1991; 44'gn. or.).

Ikus berriro: "De *una apmvimaciOn hipotetica de los limites de necrOpolis v de una extrapolaciOn al sector de la playa, tambWn hipotetica, de lcr densidad de hallazgos conocidos en el sector del bosque, puede deducirse que son varios los eientos de tumbas* (azpimarraketa nerea) *destruidas por el embalse,, lo cual nos da idea tentendo en cuenta gue Irun queda por excaiyir una parte .sustancial– de las dimensiones e importancia del yacimiento de Aldaieta" (ib).*

Beraz, zori naingarriz, "VARIOS C1ENTOS" dira, Aldaieta'n *galdu* zaizkigun illobiak.

- Galdu ez diran illobietan ere aski zailla da obiratuen zenbakia ezagutzea. "Fosa earntin" edo "obi ugarikoirik" ere bai bait da ango illobien artean, gizakume askoren ezerrez naasiki betcrik,

Obiratuen zenbatekoari dagokionez beste illobi guztiak ere berdiñak ez dira: Batzuk, – gutxi-gora-bera, erdiak eortze batekoak dira, besteak, alderantziz, eortze ugarikoak, eta era ontan antolatuak: beerako zulo aundi baten azpian iru gorputz, garrantzitsuenarena erdian dala; iru oien gai-fietik lurra, eta lur orren gai-ñean beste iru. Eta, gorputz era ortan jarrai-

tuz, badira iru edo lau mailla dituzten dirudianez, sendirik garrantzitsuenek beren eortzek.etarako gertutuak.

iZenbat ote dira ba gutxi-gora-bera, Aldaieta'n eortziak? Badira beintzat eundik gora, aurkituak izan diran illobiak: "Finalizadas *las campañas de excavaciOn han sido un centenar largo los enterramientos exhumados (aunque, en origen, eran muchos mds) con un ajuar y depasito funerarios absolutamente sorprendentes y excepcionales"* (op. c. 54 or.).

Urpeko illobiak ere kontuan arturik, ibai ote Obe guk ere zenbakirik ez aipatzea, ikerlariek beren urteko zenbaki ziurra ematen ez diguten artean. Baifian, edozein moduz ere, asko ta asko dira, ezpairik gabe, Aldaieta'n eortziak izan ziran gorpuak.

¿NONGOAK ziran Aldayeta'ko biztanleak?. Erabilli oi zituzten izkillu, pitxi eta eguneroko ontziak eta gaiñerako tresnedi guztia beintzat, "keraz", ots, "estiloz", Akitani'koa da:

*"La arqueologia francesa di,stingue pelf ectamente unas especificidades culturales propias del territorio aquitano que no se dan o se dan en menor cuanda – al norte del Loira: `"facies franca", "f acies aquitana".*

*"Muchos de los materiales que encontramos en* (tres) *necrdpolis del Pats Vasco Peninsular antes mencionadas,* (ots, AIdaieta'n, Buzaga'n eta Naparroa'ko Iruña), *responderan no a los prototipos estrictamente "francos" sino a rrn mundo "aquitano" que, en estos siglos tarcloantiguos, adquirira un induclable protagonismo tanto frente a lo,s1rancos como frente a los visigodos"* (1.c.,53).

*"Lo de Ahlaieta* y *Buzaga no es estrictamente franco Sino aquitano, "en una 'epoca en que Akitania se va alejando irreversiblemente de los monarcas merovingios".*

*"Nada hay, por el contrario, que las acelque a los cijuares y dep5sitos funerario,s de los cementerios españoles"* (id.ib).

Eta beste orri batean: "El *colectivo inhumado en Aldaieta ha de ser comprendido culturalmente en un contexto franco-aquitano. No existe ni un solo dato que aproxime esta necrOpolis al mundo visigodo o hispanovisigodo. Aqui no cabe ninguna duda"* (azpimarraketak, nereak).

- Badakigu, beraz, gauza bat: Ez zirala bisigotak. Alderantziz, akitaniarrak zirala.

- Akitaniarrak izate orrek, ordea, ez, du besterik gabe euskaldunak ziranik esan nai, garai artako Akitania ez bait zan Julio Zesar'en A.k.itania, Garona ibaietik Alffiamendira arteko Akitania, Zesaraugusto' k Akitani orri Garona ta Loira arteko lurrak erantsiz iru aldiz aundiagoa egin zuan beste Akitani Zabal ura baizik: Loira'tik Autiamendira artekoa. Akitani edatsu au iru pusketan izan zan zatitua: Lengo Akitani zar euskaldunari, Auñamenditik Garona artekoari "Akitania Tertia" (Irugarren Akitani) eta "Novem.populania" (Bederatz'urieta) esan zioten eta Elusaberri izan zuan uriburu. Garona ta Loira artekoa bi zati egin zuten: bata, Adantik'Itxasoaren albokoa, uriburu Bordele zuana: "Akitania Secunda"; bestea, lur-barrenekoa, "Akitania Prima". Bere uriburua, Bituri izan zan, gaurregungo Burges.

Ezpairik gabe, Galitarrak ziran Aldaieta'ko gizakume aiek. Akitaniarrak gainera, zuten kulturari dagokionez beintzat. Bainan Nobenpopulanitarrak, ots, Euskal-Akitani'koak ziranik. esateko, bear aiñako arrazoirik ez dugu.

- Azkarate'k, ordea, – ez bait du uste odolez akitaniarrak ziranik –, onako au idatzi zuan Aldaieta ta Buzaga'koen kulturari-buruz:

"La *germanizachin de los ajuares* ‹*fimerarlos de un territorio no sigmfica, por inerza, su colonizacicin etnica, En general todos los autores se nutestran de acuerdo en apuntar que los* .*francos no eran tan numerosos como para ocupar las sepulturas de los cientos de necr6polis merovinglas que se conocer. en Europa, algunas de ellas con miles de enterramientos. Se trata mds bien de la extensidn de unos hdbitos funerarios al socaire del e:xito militar y polftico del colectivo dominante"* (id.ib).

socaire exito militar"? ,"Coleetivo dominante"? Europa'n. bai. "Cientos *de necr6polis merovinglas"* dauden Europa'ko lurralde oietan bai, "colec...tivo *dominante"* izan ziran Frankiarrak.

Baiñan gure Araba'ko Aldaieta'ra, eta Aldaieta'ren inguruko lurrafdeetara, ez ziran beiñere frankiarrak "al *socaire del militar"* etorrita lurraldearen jabe biurtu; eta, ondorioz, ez ziran beiñere Aldaieta'n eta Aldaieta'ren inguruko lurraldeetan "un *colectivo dominante"* gertatu. Ezta, unetxo bakar batez ere! Askoz gutxiago ia bi mende ongi beteen aro luzez (ib. 62).

Ez beraz, "colectivo *dominante"* izatetik etorri daitekean kulturari-buruzko arrazoiketa orrek, Aldaieta'ko gizakume aiek Frankiarrak ez baina frankiar kulturaz jantzitako Arabarrak zirala uste izateko indar erabakiorra duanik.

Gaiñera, aurkitu dira Aldaieta'n Europa'ko illobitegi Frankiarren adigarririk ziurrenetakoa omen diran iru "fermoirs *d'auniónire"* (eskelarien eltzetxu) *tan caracterÍsticos de lcrs necrOPolis europeas de êpoca germanica" (Ib)76.*

Ederki dio AugustitVek berak, Aldaieta'ko illohitegiak Bisigotekin zer ikusirik ez dualako ori, zalantzarako biderik ez duan egia dan bezala–"aquf *no nabe ninguna duda"* zalantzarako biderik aski gelditzen zaigula an obiratuen endari-buruz: – "antropol6gicamente *ya es otra cuesti6n. En este aspecto todo es posible"* (Ark. 92; 63).

Orregaitik, eta, gainera, an aurkitu diran lurregosizko ontziek emen bertako ontzi euskotarrekin bai omen duten antza ariña, naiko arrazoia iduritzen ez zaidalako, gaitza egiten zait, neri beintzat, Aldaieta'ko ezurrak bertan bizitutako gizon eta emakume Arabarren ezurrak izan daitezkeanik sinistea.

An agertutako tresnedi osoa, soilki frankiarra izatea bera, nere aburuaren alde dagoala dirudi. Izan ere, gizakurne aiek arabarrak ba'ziran, sortuak ote zituzten tresna frankiar – i danak frankiar! – guzti oiek?

Ez da erantzun errezeko galdea:

- :Beraiek egiñak ote zituzten? Ez dirudi sinistekoa. Eta, ori, ez tresnedi guzti ura edertasunez lenen maiilakoa dalako, baizik eta arabarrak egiñak izan ba'lira, izkillu, tresna ta erdegaillu guzti aiek eusko-itxura aundiagokoak izanen zi.ralako.

Gaiñera, ango tresnedi guzti-guztia "kera" frankiarrekoa da. iBai ote ziran, ordea, Araba'ko eskulangille euskaldun aiek, beraiek egindako tresna batzuei, – ots! ango tresna arras ugari guztiei – Frankiarren itxura ain-ain ederki, txukun, egoki, eta yayoki. emateko gauza? Ez dirudi sinisgarri izan daitekeanik.

---

76. "Eskelari ", ots, "eske-egille" cuskeratu dut frantzerazko "aumonier ", gaztelerazko "Ii-mosnero". Errege, Aitasantu, Gotzai, Lekaidetxe ta orrelako gizaundi ta erakunde edo tuzioen izenean eskea egiten zutenci ematen zitzaien izen ori. ontan "aurnoniere" emakeran dago: "limosnera".

· ta tresna ta gaiñerako gauza aiek oro, urtea joan eta. urtea etorri, gaur bat eta biar bestea, ia berreun urte luzez Akitani'tik ekarriak ote zituzten? Zailla, errez sinistea izateko77.

Aidaieta'ko eta Buzagalco izkillu bikain eta tresnedi eder, aberats, dotore, polit ura dana emen euskaldunek egiña izan zala uste izatekotan, naitanaiez uste bearko genuke beste onako au ere: Araba eta Naparroa'ko eskulangille zar aiek Europa guztian onenetakoak zirala.

Baiñan Arabarrak ez baiña Akitaniarrak zirala esate utsaz ere, ez zaigu jakite-gosea aserik gelditzen.

EZer egiten zuten 13':1 gudari akitaniar aiek beren sendiekin berreun urtez Aïdaieta'ko lurretan? Noiz asi ziran etortzen? Zergaitik? Zertarako?

Pentsatu ere egin izan dut, gudari aiek bai, Akitani.'tik etorriak izan zitezkeala; bainan andik etorrita, gero, emen bizitzeko, Araba'ko neskatxekin ezkonduta AidEneta'n geratuak.

Alare aburu au kontuan artugarri izateko, – bi mendeen luzaroan beti berdiña agertzen bait da Aldaieta' ko kul tura –, naitanaizkoa izango litzake, bi mende oien luzaro osoan, emengo neskekin ezkontzeko Akitani'tik gudari berriak etortzen zirala uste izatea! Ontzat zailki artu daitekean gauza.

Geroagoko oien etorri bearrik ez dala – esango dit norbaitek bi mendez Aldaieta'n hizitutako guztiak, aurrena etorri eta emengo neskatillekin ezkondutako aien jatorrikoak izan zitezkeaIako.

Baiñan ain era dotorean tresnedi ura landu aal izateko, yayoki ikasi ote zuten aurreneko aita aiengandik eskulangintza?, eta ikasi ondorean, ikasitakoa, bi mendez ain egoki gorde?

Ori egia izatekotan, ordea, ez ziran noski nolanaiko ikasle erne, yayo ta zintzoak izan Aldaieta'n jaiotako gazteak asaben teknikaz ain ederki jabetzeko eta ain zintzoki. era dotore bikaiñean beti gordetzeko.

---

77. Qri egia ba'litz, Auñarnendia-zearko jendearen joan-etorria uste izan (Jan baino milla aldiz ugariagoa ta sarritsuagoa izan zala esan bearko genuke, eta Ego-Euskaldunen, Ipar-Eus-kaldunen eta Akitaniarren arteko jardunketa, azkarra, erreza eta ia-ia egunerokoa. Agian, ori orrela izan ba'zan, askoz errezago ulertuko genuke, ainbeste mendez Suebiar, Bisigot, Frankiar eta Arabitarrei beti *garaille* aurpegi emateko, euskaldunek nola gai izan ziran. garaille? Bai beintzat beren nortasunik eta askatasunik erabat e7. galtzeko aiña.

Gaurkoz, beraz, ez gera oraindik Aldaietatar aien jatorria ezagutzeko gauza. Zintzo aitortzen digu Azkarate'k "que *faltan estudios antropohigicos al respecto"* (Ark. 92. 63).

Jende aiek Araba'ko euskaldunak izan zitezkeala uste izateko, beraien lurregosia aipatu oi da: zeramika.

Lurregosi orren aldetik kidelasun batzuk agertzen omen dira ba Aldaieta'ko ta Euskalerriko beste baztarretan aurkitutalw ontzi-zatien artean. Baina ez derizkiot ori naikoa dani.k. Aldaieta'ko biztanle aiek Arabarrak ziranik esateko. Lurreziw ontzi-zatitxo oiek izan ezik gaiñerako guztia – alako tresnedi aberats txit ugari guzti-guztia – Akitaniarra bait da!

Gaiñera, lurregosizko ontzi oiek Aldaieta'ren inguruko ontzigille arabarrek egiñak izan daitezke. Naiz antziñate artatik datorkigun jakin ez, ontzigintza zar aren ondorengorik gelditzen zaigu ba oraindik Araba'ko lurralde oietan bertan. Eta ez ainzuzen Aldtneta'tik urruti: Barrundi'n. Aldaieta'tik sortaidera, eta Eiosu'ren inguruan, sarkaldera.

- Baiñan, Aldaieta'ko jende aiek arabarrak ez baiña akitaniarrak ba'ditugu, zer ari zitzaizkigun Araba'n, Akttani'tik ain. urruti?

Badakit, Musulmanen edestilari batek Araba'ko lurrari Galia Comata deitu omen ziola-ta, Araba Waskoni'ko Dukaterriaren zati izan zala dionik badugula. Ortaz, ordea, batere ziurtasunik ez bait dago, nik ez nuke esango, Musulman aren aipu ori„Mdaieta'ko jende ura jatorriz nongoa zan ezagutzera iristeko, ezer asko balio lezaigukeanik.

¡Nongoak ote ziran ba gure Afdaieta'ko jendeak? ¿Auñamendiz aruntz Galietakoak? Ala, Auitamendiz onuntz Araba'koak, ots, Comata"-koak edo, berdin litzakeana, "Wask.oniar-Dukaterriko" arabarrak?

Orra or Aldaieta'ko illobitegtaren mirespen bat. (¡Ia BI MENDE osoz egon bait ziran Aldaieta'n, kulturaz beintzat akitaniarrak ziran jende aiek, gizon eta emakume, beren umeekin, eta, naiz gizonezkoak oro gudariak izan, dirudianez beintzat danak pake gozoan bizitzen!78.

---

7S. Norbaitek uste izan dezake, agian, jende aiek tt7 Akitani koak, ots. Nobenpopulani edo Akitani Zar Euskaldunekoak ba'ziran beintzat.— egoaldeko Euskaldunek Bisigotekingo terako laguntzaille ekarriak izan zitezkeala. Baiñan — orrela etorri ha'ziran beintzat

Eta ona guretzat mirespen ortarako jakinguragarriena dan arazoa: ¸IKristauak ote ziran Aldaietatar aiek?

Erantzun ziurrik ez dugu.

Alare nik, jende aiek kristauak izango zirala esango nuke. Agertuko ditut ortarako ditudan arrazoiak. Baiñan ez zaizkit irakurle danak ain errez nerekin bat etorriko. Anitz illuna bait da arazoa, eta aski gogorrak bait dira nere aitorpen ori errez ontzat artua izateko, aurrera irtengo zaizkidan eragozpenak..

Gaiñera, asi dezagun ataltxo au, borobiiki egi mardul bat esanez: AIdaieta'n kristautasunaren aztarnarik, – ezta txikien-txikienak. ere ez zaigula agertu, orain artean beintzat.

Kontuz ordea! Ezezkotasun ori ez bait da naiko arrazoia jende aiek kristauak ez zirala oiukatzen asteko. Zergaitik?

Lendabizi., an jentiltasunaren aztarna ziurrik ere ezta txikien-txikienik ere – orain artean beintzat agertu ez dalako.

- Gaiñera, Kristautasunaren aztarnarik ildakoen zerraldoetan ez agertze ori arrigarriegia ez dalako. Ez zaizkigu bLt agertzen VI eta VII mendeetalco Merobingiarren eta Bisigotiarren illobietan ere, arrizko zerraldoetan izan ezik. Badakigu, ordea, mende aietako Merobingiarrak V mendearen azkenaz gero, – eta IV mendeaz gero Bisigotiarrak kristauak zirala, naiz azkeneko auek Ariotarrak, Toledo'ko III kontziliora arte.

Leenago ere, erromatean, Bibliako irudiz kristauki landutako arzuri aberatseko zerraldorik geienetan ere ez da, barruan, kristautasunaren aztarnarik agertzen.

Eta gaur bertan, gure ildakoen zerraldorik geien-geienek ere ez dute orrelako aztarnarik barruan eramaten, lepotiko gurutzeak-eta ildakoei. kendu ei.gten zaizkielako.

---

gaitik beren emazte tzi aur guztiekin? bi menderako? Ez dirudi zentzuzko abunta. Gainera Euskaldunek Frankiarren aurka zerablzkiten borrokak ziran Bisigotiarren aurkakoak bezain gogorrak edo gogorragoak? Eta, Aldaietatar eia 11 Akitanietakoak, ots, ezenskaldunak eta orokorki Frankiarrak ba`ziran deituta edo nork bidalita elorri ziran Araba'ko Iurretara? Bisigoten aurkako gudara etorri ba'ziran, eginen zuten ba bisigoten edestilariek gudaketa aien aipua, Baiña ez zuten orrelako aipurik egin. Au da egi borobilla: Bisigoten eta Aldaieta'ku "frankInr"aien artean ez zan beiñere borrokarik zan. i „Zergaitik etorri ote ziran hai? Edo, ,:¸arrazoi ote du Azkarate Garai-Olaun'ek, aidaietatar aiek.AKITANUKO KULTURAZ JANTZITAKO ARABARRAK zirala esaten duanean?

Ez-agertze ori. dalata, eta gure lan oni zuzenki dagokiolako bereiziki Frantzi'ko Merobingiar eta Esparii'ko Bisigotiarren illobietako ez-agertze orren zergaitia azaldu bearko litake orain emen; baiñan azalpen ori egiteko gauza ez naizela aitortu bearrean aurkitzen naiz, irakurle, eta ez dut uste, gaiñera, ori kixaz egiteko gauza danik aurki dezakezunik. Alperrikakoak izan dira beintzat nere saiaketa guztiak, mende aietako idazleek ortaz ez bait digute deus esaten. Ez beintzat eskuratu aal izen ditudanak.

Garai artako gure bi illobitegi aundietan, – Buzaga'n eta A.Idaieta'n kristautasunaren aztarnarik ez ba'da, ugariak omen dira, alderantziz, jentiltasunarenak izan daitezkeanak.

Bai ote? lkus emen Aidaieta'n agertutakoak, Augustin Azkarate'k ondorengo esaldi auetan, jakitera damaigunez ("Arkeoikuska"ren zenbaki ezberdifietatik artuak ditut): (Aldaietaz esango dedanak balio du Buzaga'rentzat

- *"Denticiones de equido y caprido de signo" icaciOn ritual"* (ark. 90, 28).

- *"Otro aspecto en el que kr necrOpolis de Aldaleta manifiesta un alto interes es el referido al de las costumbres limerarlas, dado el grado de diversidad de los ritos que se observan, las posibles munlaciones rituales o la presencia de dep6sitos de buludable significado ctpotropaÍco (denticiones de equidos o denticiones Inunanas rodeando el crdneo de alguno de los fallecidos)".*

- *"Podemos mencionar tambien In diversidad de riws Innerarios que se obsenʸm, bien en Ia orientaciOn de las sepulturas, bien en posicit5n de* los *cuerpos, bien en la presencia de depOsitos funerarios que denotan un intento de akjar influenclas maleficas* (aipatu-berri dituan ortzak, noski. Ez bait du beste "depositorik" aipatzen). *Los resultados, en algthi caso, son espectaculares: individuos inhumados sera cabeza, o con la cabeza separada del cuerpo, esquelews en posiciones ira tencionadamente violemadas, etc". "Aldaleta manifiesta an alto interes en lo»-eferente a las costumbres ftmerarias dado el grado de diversidad de ritos que se abserva".*

Barkatu, Augustin, adiskide maite ta maixu eraspengarria: "Ritos" eta "ritual" itzak bein baiño geiagotan erabilli dituzu. Itz oiek, berenez, zentzu bereizi ezaguna dute: erlijioarekin estuki lotutako zentzua. Neri ordea, zuk

aipatu dizkiguzun oitura oletatik, ez zait iduritzen, danak, jentilkeriari loturik egon daitezkeanik.

Ona emen, zure esakizun oietatik jasota, siniskeri-usain izan dezaketen – edo izan ez dezaketen – Aldaietatarren illobietako xeetasun jakingarriak:

A): Ortzak: ildako batzuen, ez danen, buruezurrak inguratuz agertu diran zaldi, auntz eta gizakumeen ortzak.

Au bai, au siniskerizko jardunkera dugu ezpairik gabe. Baiñan gaurregun ere gure kristauen artean bizirik jarraitzen dutenen senidea.

Adiskide aundia dedan eta gaurregun Euskal-Folklorearen azterlaririk jakintsuena dan Juan Garmendia Larrafiaga'ri galdetu diot gure Folkloreak oraindik orrelako jardunketarik gordetzen ote duan; eta baietz esan dik, ia gaurregungo zerraldoetan diru-txanponak eta mota ezberdiñetako janari ta "apotropaiko" edo "babesgailluak" aurkitzea ez dala gure folklorean gauza arrigarriegia.

Oroi dezagun emen, ildako gorpuak txanponekin obiratze ori oso dala oitura zarra: bere erroalc Erroma'ko jentill-aroan dituana, ta Erroma'ko lenen-kristauen iilobietan ere aurki daitekeana.

Kristau erromatar aien gorpuak, ordea, eta J. Garmendia'k oroiterazi dizkigun gure Euskalerri ontakoak, beren txanpon eta siniskerizko babesgaillu ta guzti, egiazko kristauak izandakoen gorpuak dira. Eta Aldaieta'ko zerraldoetan gorpuekin batera agertu zaizkigun zaldi-auntz-eta-giza-ortz oiek ere ez dute Aldaietatar aiek kristau ez ziranik esan nai.

B): Bururik gabeko gorpuak. Zori txarrez, ez digu esaten zenbat orrelako izan diran aurkituak. Nere ustez, banaka batzuk.

Bi mende luzeko illobitegian gorpu bat, edo bi edo obian bururik gabe agertzea, ez da, besterik gabe, siniskeriaren adigarri. Ori, beste edozer gaLizaren ondorio izan bait daiteke: gudateko borroka baten ondorio, adibidez, edo apentza batena, mende aietako jendeek, naiz bataiaturik egon, len bezain basati ta anker jarraitzen bait zuten beren oituretan: len bezain "barbaro". Liburu ontan bertan "barbarikeri" orren adigarririk aski aipatu bear izan bait dugu!

Oroiterazi bear dugu, baitare, edestia-zear ez dala gauza arrigarria izan biotza – bularretik aterata edo burua – guputik bereizita – ildakoren omenez kutxatilla ederretan sartutik, toki dotoreageetan gordetzeko oitura.




Aidaieta Enterramiento n.[9] 28.

1. Dos puntas de lanza.
2. habna de combate.
3. Cuenca de bronce con borde periado y vaso de vidrio (ambas intactos)
4. ¹ıScramasex- o espada de un solo fdo con su aphque de sujeciön a la cinffira y dos cuchil!os.
5. Henilla arrifionada y agula. escutiforme, mas dos aphques
6. CollaÍ con 51 cuentas de arnbar y cenino de oso perforadc.

D): Burua gorputzetik bereizita dutela agertu diranak. (Oraingoan ere ez digu esan, orrelako oiek zenbat izan diran. Ezta, buru bereizi. oiek beren lepa-ezurren ondoan agertu diran edo ez). Eta agerketa orri zer-esan-nai bat emateko, naitanaiezkoak genituan maku-arteko xeetasun oiek ezagutzea. Berez, buruak bereizita agertzea ez bait da siniskeriaren siñale. Gerta bait daiteke adibidez garai latz aietako apentza baten ondorio izatea. Ta, gerta ere gerta daitekean gauza ban: da, ia milla t'erdi urteren ondorean ezer igarrak bata bestearengandik berez askatu izatea.

bururik gabeko gorpu orrek edo gorpu oiek i„ ez ote zuan, ez ote zuten, burua epaille baten aginduz galdu?

Buka dezagun buru askatuen arazoa onako au esanez: Buru guziak izan ba'lira gori utik bereizirik aurkitu, orduan bai, orduan aitortu bearra izango genuke, lepo-mozketa ura esannai garrantzi txit aundiko ekintza izan zala. Baiñan orrela agertutako buru oiek bat-edo-bi bakarrik ba'dira, ez dezakete esannai ziurrik izan.

Gaiñera, gorputzetik bereizitak.o buruen arazoa izan daiteke Euskalerrian aspaldidandiko oitura zaar baten ondorio. Agertu herria da ba Bizkai'ko Kortezubi'n, Oma'ko Kobaederra'n, Neolitik'Aroko illobi batean, bizirik amazorroan aurrak egon oi diran eran obiratutako gorpu bat.

Eta, au arrigarriena: Millaka urtez czurruts biurturik dagoan Neolitik' Aroko gorputz orri ;burua peitzen zaio! Entzun bera aurkitu diguten ▾▾A *pesar de que el esqueleto se eneuentra casi completo, no se han encontrado i-estos de cabeza que quiz4s nunea estuvo depositada eri lafosa"79*

orren burua bere gorpuarekin zergaitik ez ote zegoan?

Nork jakin!

E): Naita biurritutako egoeran agertutako gorpuak. Tamalez, oraingoan ere ez digu ematen "esqueletos *en posiciones intencionadamente Wolentas"* oien zenbatekorik. Eta ez digu, eztare, esaten biurriketa oiek nolakoak diran. Ta, guzti ori jakitea ere, bearrezkoa zaigu, zerraldo-barruan gorpucn egoera biurritu ori siniskeriaren edo beste zerbaiten ondorio ote

---

79. Juan Jose lbfiez, Lidia Zapata, Jesus Gonzlez: Arkeoikuska 999; 110 or.). Ona zer agertu dan gorpu orrekin: abere belarialeen ezur-puskak eta itxas-karramarroen eta auen antzeko beste itxas-rnozorro batzuen ondakifiak. Jaki izandako piztien ondakifiak.

dan esktertasunez esateko: zerraldoa gorputza baiño txikiagoa izatearen ondorioa, adibidez, nik bi aldiz emengo gudate zipotz artan ikusi izan nuan lez.

Izan daiteke gaiñera erlijiozko zentzurik gabeko oitura utsa. Gaur bertan ere mundu zabalean, asko bait dira gorpuak illobira sartzcko era ezberdifiak, siniskerizko erak. geienetan, baiñan ez naitanaiez jentilkerizko sinispide bateri lotuak.

F): Posibles mutilaciones rituales, ots, gorpuzkiak moztuta azaldu zaizkigun gorpuak. Bainan mozketa oiek "rituales" diran aitortzeko, zenbat diran, eta zer gorpuzki, ta beti gorpuzki berak diran jakitea, ezinbestekoa zaigu. Siniskerarekin zer ikusirik ez duan beste zerbaiten ondorio izan bai daitezke: gudate baten edo epaille batek emandako epai-itzaren ondorio adibidez.

C): Illobi danak ez daudela toki bat beTera begira. Ta? Egia da edestiaurreko gure dolmenetan gorpuak eguzkiaren sortalderuntz begira obiratzen zirala. Baiñan oitura ori asko moteldu zan urteen joanarekin. Illobitegi kristauetan ere ez dira gorpuak zeru-ertzeko toki bat beTera begira obiratzen.

I): Gorpuak ere, illobien barruan, era ezberdiñetan jarriak agertzen dirala. Esan dut gorpuak zerraldoetan onela edo orrela sartuak izateak zer-esan-nai aundirik ez duala, eta ez dut uste zerraldoak illobietan era ezberdiñean sartuak egoteak ere erlijioari dagokionez deus aundirik esan dezakeanik. Orduango gizabidearen arauei jarraitze utsaren ondorio izan bait daiteke. Gaiñera, oraingoan ere jarketa ezberdin oien nolakoa" eta "zenbatekoa" jakin naiko genuke.

Diversidad de ritos funerarios. "Ritoen" ugaritasun ori bera da, neretzat, "Tito" oietatik geienak egiazko "ritoak" ez diralako siñale garbia. "Ritoa", – era guztietako erlijio, jentilkeri, eta siniskeri uts edo superstizio guztietan, zerbait legezkoa, ots, zerbait zerbait sagaratua dalako –beti berdina izaten bait da. Bat, bi, cdo iru motakoa. bearbada; bainan, mota bakoitzaren barruan, beti berdifia.

## EUSKO-JENTILKERI ZARRA GURE KRISTAUTASUNAREN ALTZOAN.

Aldaieta'ko "rito" oiek danak egiazko "ritoak" ba'lira ta "tito" oiek danak. siniskerizko "ritoak" dirala egi ziurra ba'litz ere, aditzera eman dugun lez ori ez litzake aldaietatarrak kristauak ez zirala esateko arrazoi naikoa. Jentiltasun zarreko "rito" askok luzaro iraun bait zuan – eta orain bertan ere bai bait dirau – erri kristauaren gurkeran sarturik! Baita gure Euskalerrian ere!

Gaiñera, eriotzaren inguruko oitura jentillak izan dira, ainzuzen, danetan iraunkorrenak! Baita gure Euskalerri ontan ere!

- Entzunik egongo zera noski, nola. Euskalerrian bertan, toki batzuetan, gizakume bat iltzen zanean, etxe artako leio bat irikitzen zan il-berriaren anitua lasaiki eguratsera irten zedin. Gure beste. erri batzuetan, animart erreztasun ori bera ematearren etxe-gaiñera €gota tella bat jaso oi zan.

- Etxeko abere guztiei ematen zitzaien eriotzaren berri: "Olako il da". Ilketaren berri emate ori, bereiziki, erieei zan egin bearra, erieek sortzen bait dute argizaria, eta erleengandiko argizariarena bait da, illetetan ildakoen animen onerako piztutzen dan argia80.

Etxetik elizarako ibillaldia, eta elizatik illobitegirakoa, ildakoa gizasemek bizkarrean artuta egiten zan eta ez. zan "ritorik" gabea. Beti bide beretik egin bear bait zan, naiz aspaldiz gero bide laburragorik eta egokiagorik izan

---

80. "Argia" eta "Edakoen Anirnak" luzaro euki ditu alkarturik gure erriko iendeak. Bein baiño geiagotan entzun izan dut, edozer eginkizunerako argizarizko arkai edo bela bat piztutzerakoan. onako oparizko-otoitz labur au: 'Animen onerako Naparroa'ko Betelu'n etxekoandre zar bati, elektrik argia piztutzean ere.

- Bide ori sagaratua zan. Ez zitekean bere ertzetan etxe berririk eraiki. Eta ertz aietan leenagoko etxe zarrik baldin ba'zan. naitanaiezkoa zan etxe aien ateak zerraldoaren muturrez ukitu bearra. Ori zan ba ildakoak bere auzokoei zegien azken-agurra.

- Sagaratuak ziran baitare ildakoen onerako egin oi ziran emaitzak eia opariak.

Zeanuri'n. neskatil batek, otarrean ogi bat eraman oi zuan, zerraldoa-ren aurretik

Lekarotz'en, okela, ogia, eta gaztE zarra eramaten ziran.

Seguran, oial beltz apaillez estalitako otar bat ipintzen zan elizaren erdian buruz-beera; eta bere gainean aspit bat eta katillu bat, buruz-beera auek ere.

Oiek bezalako edo oien antzeko opariak eta eskeintzak Euskalerri osoan egin oi ziran. Eta baita gure Erritik at ere: "Ciertas *ofrendas de mentos* yparlos *ricamente bordados responden a ereencias muy extendidas por el mundo: eonstituian oblaciones muy variadas: corderos, hueros y moneda menuda"* (Enc. Gen. 11. P. Vasco.),

Ezin aztuko dugu ildakoen aideek Orexa'n Elizara sartu oi zuten aaria, Orixe'k "Euskaldunak" izeneko olerti-tan berdin gabean ain dotore abestu zuana:

*"Ilkizunetan ari bizkor bat,*
*bizirik, eliz-barnean.*
*"Domine Jesu Christe" entzun arte*
*daukate eliz ataleans.*
*Orduan sartzen operarako82.*
*Eska ifiia dutenean,*
*berela atera, aragi egin,*
*apaizernzat, bazkarian* ".83

81· Naparroa'ko Larraun'en "atale" "atari" da,

"Oparirako" esan hearrean, "operarako" diosku Orlxe'k Larraun'go Uitziarrek esan oi duten bezala. Baiñan ortaz oartu gaitezen "operarako" "opari-rako"tik bereizten dituzten izkiak, "kursiba" edo "esku-idazkeraz" damaizkigu.

Oitura ori bazan beste euskal erri batzuetan ere. Eta naiz opari-gaia ari bat izan ez, adibidez ollo, ollasko edo beste zerbait opaltzeko oitura, euskal erri guztietakoa izan da.

Oitura oietaz mintzatu zitzaigun iztueta, bere "Guiptizeoaco Provin-eiaren Condaira edo Histori.a"n, oitura oiek *"antzifiakoak chit"* zirala esa-nez. Ona oitura oietako bat:

*"Iltzen zanaren gorputzarequin batean eraman oicituzten elizaren ate nagusiaren ondora, batarentzaeo urtar idi galaren galakoa*[s4] *chincharriz beteric, bestearentzat cecor galanta adarretan lore ta erre.*[y] *etae* (i, errose-tak?) *cituela; are ari andia, onec chiquiro gicena, egaztiae,,sagarrac, gaz-tafidc eta beste gauza osca, nor nolako emangurzunaren azpian arquitzen zan, guisa berberean bear ceban erantzun ut,*[y] *aldiaric bague".*

---

83. Taleniiii-arotik datorren aariari-buruzko oitura orrek zenbat aiñako garrantzia duan, iraku-rriko duzunaren ondorengo bertsootan agertzen digu Noiz-beinka edozein aari bil-durtik zalapartarik aski ateratzen omen zuan bñ elizan:

"Itiotz gertatzen izu samarra;
arriek dute Iausotzen.
Apaiz kantari aien orrock
geiago oraindik bildurtzen".

Alare, aaria, elizara sartze ori, gure asabek bear-bearrezko zirimona zuten-da,

ortarako ari otzan bat, agiz,
iduki oi dute errian,
zalapartarik egin ez dezan
orduan eliz-erdion".

Aari otzan ori, mutiko baten eskutik sartzen omen zan elizara eta aldarearen aurrera urbildu:

Garai zalarik atea zabal,
arin pasaz ate-arri,
andre tartetik apaizagana
sartzen dira mutil ta ari.
Mutillak bildur mun egin dio
apaizaren estolari,
ariak usai erdi-bildurrez
aren soiñeko-ertzari".

84. Gaur uztar-idirtk ederren ederrena edo dotoreen dotoreena esango genuke

Orrelako eskaintzak ez ziran gure errian bakarrik egiten. XVIII mendean Gaztelerriko Epai-Batza Nagusiak: "que *quedaba prohibida por indecente la ofrenda del par de bueyes que se Ilevaban al atrio de las iglesias"* aldarrikatu zuan. Baiñan apaizak txiroak zirala-ta, "en *atencian a la cortedad de beneficios del clero",* idi oiek saldu aal izateko, ots, "para *el rescate de dichos bueyes",* eta salketa ortatik jasotako diruarekin gelditzeko eskubidea ematen zaie.85

- Gaur ekintza oiek, geienak beintzat, siniskerizko zentzua galduta, kristauturik aurkitzen dira, baiñan jentiltasun-arotikoak dituzte beren sustraiak: "Creencios *de que el alma„ entre muerte y resurreccian, tiene necesidades y exige* avuda" (ib).

- Illunpetik argira arteko bide miresgarri ortan laguntz'ematearren eskaintzen zitzaizkion – erdiaroan – zaldunaren gorpu illari zaldi bat, gudarako izkilluak, eta pitxi ta edergaillurik aski. Azkeneko auek jainkoaren aurrera era baldarrean ez baiña txukunki. eta era dotorean ager zedin. II Karlos Naparroa'ko gure erregeak debekatu zituan oitura o i ek 1372'an.

- Oitura zarrekoak dira illobitegietako apari eta ildakoen etxeetako bazkariak. Aurreneko aiek Elizak galerazi zituan eta bigarren auek gure Errege eta Batzar Nagusiek: *"Las comidas funerales fueron prohibidas por el mismo* Carlos /1 *en 1383, y por diversas prohibiciones fOrales. El de Navarra impone multas",* baiñan, Naparroa'ko Lege Zarrak, arrigarriki, zigor orotik yare uzten ditu elizgizonak: "Pero *esto no se enthiende con los cl&igos del pueblo y religiosos"* ("Mejoramiento", 21).

Aipatu ditudan 11 Karlos Naparroa'ko Erregea, Gaztelerriko Epai-Batza Nagusia, eta Naparroa'ko Lege Zarra bezala, aipatu nezazke beste anitz agintari, illetak zuzendu naiez emandako legediari-buruz. Ori, illetetako mezak zenbat eta nork, non, eta zer sasiren truke emanak izan bear zuten agindu zuan gure Tolosa'ko Udala aipatzeke!

Izan zan Naparroa'n zentzu zailleko beste lege bat ere: "En *el siglo en Navarra, si Se abria una tumba para trasladar de lugar al ahfunto, sus parientes debian Ilenar primero de trigo Ia tumba abierta y taparla con* /ij.ya" (Yange: "Diccionario de Fueros").

---

Albiste oiek Juan Garmendia Larrañaga Doktoreari zor dizkiot ("IT Kultura Herrikoiari buruzko nazioarteko topaketak". Bilbao 1986. Orr. 83).

"Rito" orren zentzua? , Alkarte bat osatzen ote zuten errian ildako guztien animek? Alkarte ortako animen onerako ote zan obian ipintzen zan garia?

Antziña-antzifia, bazan ildakoak bizitegiaren barruan obiratzeko oitura. Geroago, batez ere leize ta txaboletatik irtenda gure Asabek etxegintzan asi ziranean, ildakoen gorpuak ituzurpean lurperatu oi zituzten: "La vieja *pagarna* vasca *enterraba bajo los ‹tleivs del tejado de Ia ~ia casa pero siempre dotando de luz, un condil, una vela, el lugar de lcr sepultura" (ib).*

Gero, eliza bait da kristau guztien etxe jainkotiarra, elizara aldatu zan Ildakoen obiraketa; eta, azkenean, erri-agintariek ori galerazi zutenean, elizaren atarira ("zimitoriora", ots, *zementeriora),* edo elizaren alboko lorategira.

Aldaieta' ko gorpuak, "por *el runnero* y *.situaciOn de los clavos",* zurezko zerraldoetan izan ziran obiratuak, "En *al,lumas tumbas* (zoritxarrez ez digu zenbat esaten) *el muerto vace sobre huesos de otros depositados (id.ib.).* (Ez digu esaten, eztare, azpiko ezur oiek zenbat gizakumeenak izan daitezkean).

Orrelako xeetasun oiek, ordea, ez dute guri ajola zaigunarako garrantzi aundiegirik-eta, saia nadin orain, Aldaietar aiek kristauak izan zitezkeala, zergaitik uste dedan agertzeko beste zerbait esaten:

* * *

Asi nadin, aurrena, endaz nongoak ziran ez dakigula oroiterazten. (;Frankiarrak? i Lenen – edo Bigarren Akitani ezeuskaldunetakoak.? <:,111 Akitani, ots, Nobenpopulani euskaldunekoak? Araba hertakoak?

Jatorriz "Lenengo Akitani" eta "Bigarren Akitani"ko basa-zokoetakoak ba'ziran, baleike aietakoren batzuk kristauak ez izatea, Garona ta Loira arteko lurralde aietan, ots, gaurko Frantzi'ren "Erdiko Mendite" edo "Massif Central"eko basoetan, III Akitani Euskaldunean baiño beranduxeago ibilli bait zan kristauketa-lana.

Alataguztiz, bi Akitani ezeuskaldun aietan ongi eraturik zegoan gotzaidia-ta, zail gertatzen zait akitaniar aien artean jentil ugari izan zitekeanik sinistea. Askoz zaillago, aiek DANAK jentillak izan zitezkealako ori ontzat artzea.

Bestelakoa izango litzake nere. iritzia AldlUeta'ko biztanleak, sortzez Loira'z iparreko Lur Frankiarretakoak izan balira; lurralde ipartar aietan bai, oraindik atzerag-o bait zebillen ebangelizaketa. Alare, ez, nere ustez, orregaitik Aldaieta'ko jendeak ia danak, eta askoz gutxiago DANAK lak zirala esan aal izateko aiña.

Ta? ¿Euskaldunak ba'ziran?

Bi erara izan zitezkean Euskaldunak: Gure III Akitani Euskaldunekoak ziralako, edo Araba bertakoak ziralako.

- III Akitani'koak ba'ziran, batere kezkarik gabe esango dut baietz, kristauak izango zirala danak, ots?, "moraliter omnes", "esate baterako danak", III Akitani'n ELIZA V medeaz gero ederki edaturik eta erakundeturik aurkitzen zalako, naiz Auñamendiko zokoetan eta Gaskuita'ko basoetako illunbeetan VI eta VII mendeetan oraindik jentiltasunaren aztarnek bizirik jarraitzea badaitekean gauza izan.

Alare, oroiterazi dezadan berriro Akitani Zabal irukoitzaren altzoan, batez ere 1II'a, ots, Akitani Euskalduna zegoala garai artan ERRI BEZALA sakon kristauturik, bere uriburua, Elusa, III mendearen amaieran gotzai-uri eta IV'arenean (ain goiz! - metropoli edo goigotzai-uri egina izateak adierazten digunez.

Oroi, gaiñera, aipatuak ditugun amabi (12) - Tolosa'rekin 13 - Akitani Euskaldun artako gotzai uriak, eta bertan agertutako IV, V, VI, VII mendeetako arkeologi-zitu ugariak illobiak bereiziki. Oroi, era berean, Rin ibaiaren aranetik Auñamendira Galletako krismotrik zarrena, ta Galietako apaizen artean bere-izen-da-guzti ezagutzen dan parrokorik zarrena, ta Galietako illobirik zarrenetakoak, eta Galietako parroki baten - eta basilika baten - aztarnik zaarrenak iAkitani Euskaldun ortan agertu dirala!

- Eta, i, aldaietar aiek Araba bertakoak ba'ziran ¿, zer? Baiezko erantzuna emango nioke nik. galde orri ere. Aldaieta, Asturica-Burdigala izeneko bidezabaletik bait zegoan, eta bidezabal ortatik Deba ibaia-beera itxasoruntz zijoan bidearen alboan.

Ainzuzen bide orrek Eskoriaza'ren gaiñean Aitzorroz'ko lepo garaia igarotzen zuan lekuan Aldatetatik iparrera zuzenean amar kilometrora ager-

tu zaigu, krismoiez ornituri k, V mendearen azkeneko edo VI'aren lenen urteetako ontzi baten puska eder bat, kristautasuna mende aietan Euskaleriko mendi.-bide izkutu oietatik ere ibilli beintzat bazebillela oroiterazten diguna.

Oroi. Araba'n bertan Aldaieta-tik ego-sarkalderuntz zuzenean amairuren bat kilometrora Oka-Aran'go iruña'n agertu-berriak ditugun IV mendeko eta V mendearen asierako krismoiak.

Oroi, naiz egoiderago, Araba'n bertan IV mendeaz geroko eliz miresgarria, au ere bere illobitegiarekin agertu-berria. Agerkuntza arrigarria eta aipatutako beste agerkuntza oiekin, IV mendeaz gero Araba kristauturik zegoalako adigarri bikaiña.

Ta, azken batean, i, zer esan?

Ez dirala agerketa oiek ain arrigarriak onako xeetasun auek gogora ekarri nai ba'ditugu: Ego-Euskalerrian bertan, Kalagurri'k IIi mendean bi martiri (Zeledonio ta Zipriano) izan zituala. Arras aundia izan zala IV mende oso ortan bi martiri aien omenezko euskal-jendearen erromesketa. IV mende ortan bertan Kalagurri' k seguruaski gotzai bat eta eskierki bataitegi bat izan zituala.

Bai bait dakigu, gaiñera, V mendean gotzai. bat – bat beintzat bai izan zuala: Silbano. Eta, – Tarragona'ko Askanius goigotzai rnetropolna ta Erroma'ko Hilarius Aitasantua lekuko ditugularik–, badakigu Kalagurri'ko Silbano onen garaiean gure Euskalerriaren egoaldea – Baskoien lurretik Beroien Errioxa-zear Autrigoien Bureba'rabio, Bureba'ren barruraino, – naroki ta tinko kristauturik aurkitzen zala.

Antziñako Aldaietatar aiek, berriz, Araba'ko Zabaldia'n Zadorra ibaiaren ertzean, oso Gazteiz'tik bertan, ain sakonki kristauturik zeudela badakigun lurralde aietatik urbil bizi ziralarik, Llogikaren aurka jardutea ote dugu, Erri kristau aren erdian bizi ziralarik eta (Azkarate'k uste duan bezala) beraiek ere Erri kristau artako umeak izanik, aiek era berdiñean kristauak zirala uste izatea?

Alderantziz, (arabarrak ez baiña akitaniar euskaldunak edo agian ezeuskaldunak ba'ziran ere) ez daitekean gauza dugula ematen du, gure egoaldeko eta Araba'ren erdiko Zelaidi ber-bereko kristautasun bizkor ura ain urbil zeuzkan Aldaieta'ko biztanle miresgarri aietara iritxi gabe gelditu zitekeanik uste izaten ibiltzea.

* * *

Aidaieta'ri-buruzko nere arrazoiketa guzia, orain arte ezagunak ditugun xeetasunak oiñarritzat erabilliz izan da logikaren araura antolatua. Baiñan asko eta izugarri garrantzitsuak dira oraindik ezagutzeke gelditzen zaizkigunak. Eta, jakiña, oraindik peitzen zaizkigun oiek ezagutzera iristen geranean, agian, orain arte esandako guztia osoki aldatu bearrean aurkitu nindeke. Orrela gertatuko ba'litz ere, ori, egiarenganako eraspenagaitik oso pozik egingo nukean gauza izango litzake.

Ona, zer zaigun ezjakite ortan bereiziki jakingarri ta jakinguragarri agertzen zaiguna:

- Antropologiak Aldaieta'ko ezur legorren azterketafik atera dezazkean ondorioak.
- Aldajeta'n obiratuak bizitu ziran uriaren azterketatik arkeologiak jaso dezazkean emaitzak.
- Arkeologilarien eta antropologilarien lanetik edestilariek lortu dezazketen gure Erri Zarraren ezaguketari-buruzko albiste berriak.

ESPIKULATXE. Agertu bait da illobiaren alboan aldaietatarren uria! Espikulatxe izen-eman dio bera aurkitu duan Agustin Azkarate Garai-Olaun arkeologilari arras jakintsuak, uri ori dagoan tokiari gaur ematen zaion toponimoa edo lurrizena ontzat artuz.

Ez da gure Espikulatxe ori nolanaiko uria. Izugarri aundia baizik.

Erdiaroaz aurretik ere, Burni-Aroaz gero, beti izan omen ditu biztanleak, erdiaroaren barrura arte. Guri, ordea, erdiaroko oiek eta bereiziki VI eta VII mendeetakoak zaizkigu anitz arretagarri,

Ona ba, zearo ezezaguna zitzaigun erdiaroko uri bikain eta galant ortaz Augustin Azkarate'k (Ark.93;71-72) dioskuna:

*"Espikulatxe confOrma un amplio espacio de 13 Hc. apt-oximadamente, rodeado todo de una gran nutralla City0S lienzos se aprecian perfectamente en un recorrido varios cientos de metros. Esta antigua ciudad ya habia desaparecido cuando el reCaudador del monasterio emilianense visitaba las localidades que se citan en el precioso documento de la Reja de San – es lca gran desconocida de la arqueologia alavesa.*

, *Sus grandes dimensiones, el ponte de sus estructuras que – semiacultas en el terreno – se advierten todavÍa, la calzada perfeetomente empedrada que puede .seguirse en el interior del rednto, los numerosas estrueturas urbanas que se aprecian de "visu" en el suelo, su extraordinaria ubicaelOn geoestratica ("teo"* "lurra" da; "estrategica", "gudarako egokia") *rodeada de altas cotas que la ocultatz magistralmew de quienes circulan por las tierras bajas, hacen de este asentamiento uno de los enelaves mas espectaculares de nuestro pasado".*

Betoz len-bait-len uri garden orri-buruz bearrezkoak ditugun azterketa-lan guztiak. Lan oiek bakarrik ernan dezaigukete ango jendeen bizierari ta stnisteerari-buruz.ko berri ziurra.

Lan orrek bakarrik eman lezaioke erantzun ezpairik gabea, seguruaski nere irakurleen buruan erne dan galde kezka garri bati: ¿Aldaieta'n jendea kristaua ba'zan, zergaitik ez da an elizatxo baten aztarnik agertu?

Erantzuna iristen zaigun bitartean, ez dezatela aztu – esan nai diet irakurle kezkatu oiei – Aldaieta'n eliz kristau baten aztarnik agertu ez ba'da, era berean, gurketa jentillen aztarnarik ere ez dala an bat bakarrik agertu.

Baiñan, Aldaetalw illobietan agertu zaizkigun jentilkeri-itxurako aztarnak, naiz jende aien ez-kristautasunaren adigarri izan ez, jentiltasunean sortutako siniskeri ugari agertu esan ditzagun orain itz bi siniskeriari-buruz. Ainzuzen garai artako Erri-Agintariak bezala Eliz-Agintariak sarri agertzen bait zaizkigu siniskeriaz kezkaturik.

# SINISKERIA
# TA SINISKERIAREN AURKAKO LEGEAK

Gauzei, itzei, ekintzei, edo gauza, itz eta ekintza oiek erabiltzeko erari, berenez ez duten indarra, ots, erlijio-itxurako indarra emateari esan oi diogu siniskeri.

Siniskeria, magiaren oiñarria da. Magia berriz "animismo" edo oro-animadun-keriaren ondorioa. Oro-animadun-keria, dan guztia animaduna dala, ots, dan guztiak, naiz abereki naiz landareki, naiz arriki, naiz lurrinki, naiz gertakari bat izan (adibidez gorputzeko edo animeko gaitzak, gizonez-ko-emakumezkoen arteko maitasun edo gorrotoak, tximist, ekaitz, elurte edo ereintzarako giro onak, osasunak edo eriotzak berak...), ots, zerbait dan guztiak, anitua bat baduala sinisten duan sasi-erlijiokera bat da.

Ortik, zerbait orren irudiari egiten zaion guztia zerbait orri ere ger-tatuko zaiola uste izatea. Magizalearentzat, zerbait orren anitua eta zerbait orren irudiaren anitua, anitua bat bera bait dira. Uste au da, ainzuzen, magia esaten zaion siniskeriaren gunea.

Siniskeriak, ots, gauzei berez ez duten tzadiz-gaindiko aalmen-ema-teak luzaro iraun du mendeak-zear kristautasunaren barruan; eta badirau oraindik ere. Bainan ez Euskalerri'ko kristautasuncan bakarrik, ez; mundu guztikoan baizik. Ta, kristautasunean ez ezê baita beste sinispideetan ere. Eta "ateismo" edo "jainkogabckerian".

Ala, adibidez, siniskeriz eta gero Euskalerrian "sorginkeri." esan zi-tzaion "magi beltzez", beterik egon zan Erroma'ko sinispide jentilla. Ain beterik ere! majikeria, ainzuzen, eriotzez zigortu bearrean aurkitu bait zan Erroma'ko jaurlaritza!

Zuk, irakurle, ezagutuko dituzu Euskalerrian, gaur oitura uts biurturik dauden siniskeri oietako batzuk. Beste batzuk, Elizak antziña "bataiatu", ots, "santuen omenezko ekintza" biurtu dituan oiturak dira. Baiñan, danak, jentilkeriaren sabelean izan zuten beren sorkuntza.

Ona, gaur bizirik dauzkagun gure oituretatik VI mendean (Braeara) Braga'ko 1.1 kontzilioak, ain zuzen jentilkeritik zetoztelako gaitzetsi zituanak:

*"Lauro vel viriditate arbortun cuagere domos": "Erefiotzez* eta zugaitz-adar orlegiz etxeak omitzea": "Ornni.v *is obsemilio paganismi est":* ("Ori guzia jentiltasunaren bidetik ibiltzea da"). Euskalerrian orniketa oietarako, lizarra erabilli oi da. Eta karda-lorea, au eguzki jainkoaren irudia dalako. Orregaitik, jentilkeritik dator lore oni. eman oi zaion beste izena ere: "eguzki-lorea". Baitare, jentilkeritik dator – oroanimakeritik bearbada lizarrak, herez bedeinkatua dalako, apaizek benedikatua izan bearrik ez duala uste izatea.

Jentiltasunetik dator, baitare, San juan bezperako sua, Antziña, Eguzki Jainkoaren onenez izan oi zan piztua, gero Elizak San Juan'en omenezko sua biurtu zuana. Bai bait zekian elizak, askoz errezagoa zala antziñatiko oitura jentillak ezabatzea baiño oitura oiek kristau-oitura biurtzea; eta, baita, ori, bere dotrifiaren zabalpenerako askoz egokiagoazala ere. *Traditiones gentilium,* ost, jentillen oiturak omen diralako galerazi zituan kontzilio ark, zerbait egin aurretik illargiari edo izarrei begira ibiltzea: *"obsevare lunam aut stellarum cursum".*

Gaurko Euskalerrian izarrak azturik utzi ditugu. Ez ordea illargia. ,Zenbat ez dira oraindik emen, zerbait aldatzeko, kontzilioaren itzez "ad *segetes aut arbores plantandos",* ots, "ereintzarako ta zuaitz-landaketarako", eta, baita illea moztutzekt3 ere, ilgorari edo ilberari begira oi diran euskaldunak?

Era berean gaitzetsi zuan "signorumfallaciam" edo "sifialeen gezurkeria". Euskalerrian baiño askoz biziago dago siniskeri-mota ori beste errialde batzuetan. Adibidez, "13" zenbakiaganako bildurra, etxetik ezkerreko oiñez ez irten bearra, "suge" itzaren erabilketa kaltegarri uste izatea...

Gaitzetsirik utzi zuan baitare, senda-belarrak biltzerakoan sini.skerizko itzak edo ekintzak. erabiltzea: *"in collectione herbarum quae medicinales Il'unt aliquas obsevaciones aut incantationes adtendere".*

Ori bai ori bi.zi da oraindik gure artean: belar oiek biltzerakoan orrelako edo alako otoitza esan bearra dala..., beste otoitz batzuk atzekoaz

aurrera esan bear dirala..., edo, ez bat geiago ez bat gutxiago, orrenbeste aldiz esan bear ez lau ez bi, iru baizik..., ontarako edo ortarako iru! gurutze, egin bear dirala...

Ta, jakifia, eraherean irten zan kontziliotik gaitzetsirik aztikeri-mota oro.

Siniskeri orri-buruz esanik utzi genuan izen aundiko aztiak izan zirala antziña gure Asa zar aiek. Erromatarren, ustez, beintzat, munduan onenak, edo, onenetakoak! Bizirik diraula dirudi, gaur ere, siniskeri orrek guregan eta gure inguruetan. Ez bait dira gutxi azdkeritik bizi diran andrazkoak eta gizonezkoak; andrazkoak bereiziki.

Ez da au, Euskalerrian dirauten siniskeri guztiak aipatzeko lekua. Gaiñera edozein folklore-idazkian errez aurkitu daiteken gaia bait da: Joxerniel Barandiaran'en liburuetan adibidez, edo, baita, Azkue'ren "Euskalerriaren Jakintza"n ere.

Oraingo Euskalerrian, siniskeri oiek geienak beren jentiltasunezko zentzu guztia gaidurik daukate euskaldunik geien-geienentzat. Orregaitik siniskeri oiek ez dira argumentu Euskalerria gaur kristau ez danik esateko. Baiñan ez ziran, eztare, Braga'ko 11 kontzilioak gaitzetsi zituanean Suebiarrek kristauak ez zirala esateko, naiz beren sorkuntzatiko unai. gaiztoa oraindik galdurik euki ez. Kristautasunak eta jentikeriagandiko ondorioek luzaro jarraitu bait zuten alkarrekin nasirik.

Siniskeriak kristautasunaren zuritasuna zikintzen duten orban beltzak bezala dira. Baiñan soiñeko zuri batean orban beltzak agertzea, ez da kixazko arrazoia, soiñeko ura zuria ez dala esan aal izateko. Urre zikinduak urre jarraitzen duan bezala kristautasun orbanduak ere kristautasun izaterik ez bait du galtzen.

Eriotzari-buruzko siniskerien arloan ona zer debekatu zuan kontzilio Bragatar arek:

LXVIII kanonean: Illobien gaiñean meza esatea eta meza-entzuleei jauna ematea. Ori, berez, siniskeria ez da, baiñan jentilkerizko illetetara jausi aal izateko arriskua zeukan buruan kontzilioak ori debekatzerakoan..

Alderantziz, osoki jentill-itxurakoa da beste kanon ontan debekatuko duana.

LX1X kanona: "non *liceat christianis prandia ad defunctorwn seputcra deferre", "ez* zaie kristauei illobietara janaririk eramatea *"nec saerifitia redere mortuorum deo".*

Aurreneko debekuak ildakoen animeei ere gauza goxoak jatea atsegin zaiela uste duan siniskeri jentilla dauka gogoan, eta, bigarrena, *"ni ofrecer a Dios sacrificios en honor de los muertos"* itzuli du Vives'ek gaztelerara.

Baiñan esaldi orrek idatzirik dagoan eran, itzez-itz beste onako an esan nai du: "Eztare illen Jainkoari sakrifiziorik opaltzea". Gaiñera i ̧zer sakrifizio-mota izan zitezkean kontzilioak. debekatzen zituan aiek? Meza? Ez dirudi. Kristau soillei ez bait zaie meza-ematerik zillegi, eta mintzatu bait da mezaz, onen aurreko kanonean.

i ̧Sakfifizio jentillak ote ziran ba aiek?, eta, ildakoen jainko jentill bati eskeiñiak? Orrela izatekotan jainko" ura zein ote zan?

# EUSKALERRIAREN KRISTAUKETA ATZERATU NAI IZAN DUTEN IDAZLEAK

Erromatekoan, itz ederrak erabilli zituzten idazle klasiko guztiek gure erriaz mintzatzerakoan.

Antziñate artako klasikoen ondorengo idazleen artean IRU aipatu oi dituzte idazle españiar euskal-izena lausotu-zaleek, kristautasuna "inquietos vascones" aien artera ezin zitekeala goiz etorri oiukatzeko.

Mintzatu giñan iru oietaz gure aurreko bi liburuetan, eta esan genuan idazle iru aiek ez daitezkeala, iñolaz ere, Euskalerriaren etsai lez artuak izan, eta aiek idatzi zutenak ez duala gure Asaba zarren izenik zikintzen. Eta klasikoak, alderantziz etsai ez baiña adiskide izan zitzaizkigula, eta zikindu ez baiña argitu ta edertu egin zutela gure Asaben izena.

Esan dezagun berriro gure Asaben aurka mintzatzen asi ziran laterazko idazleek. ez zirala beste aiek bezala Klasik-Arokoak, aro ori bukatu ondorengoak baizik, IV mendearen azkenaldetik onuntzakoak: Barbaritarrek muga guztietatik Erroma'ren inperio-lurretara sartzen ari ziran uneetakoak; Inperio beraren barruan ere iraultza, matxinada ta laterkide arteko guduen erruz, ezertarako cskiertasunik ez zan aldietakoak; ainzuzen gure Euskalerria bere nortasuna babesteko izkilluetara jo bearrean aurkitu zanekoak.

¸Arritzekoa al da une larri aietan euskaldunak, OROSIO' k – iru idazle aietako batek idatzi zuan lez, "urduri", ots, "inquieti", ibilli izatea? Eta ez zuan Orossio'k ori besterik gure Asaben "aurka" (i¸?) idatzi.

NOLA'K.0 PAULINO da iru aietako beste bat, Julio Caro Baroja'k ere atsegink.i. – eta arinki – aipatu ta aizatu oi zuana. Zakarragoak bait dira

– uste izan danez – Euskaldunen aurka Paulin onek, ots, Donepaulino'k!, jaurti zituan gaitzizenak.

Guk, ordea, argi utzi genuan Bordele'n jaio ta Nola'ko Gotzai izandako Olerkari Done onen esaldi aiek ez dutela, Caro Baroja' k. eta beste ainbat idazlek gure Asaben biziera zikintzeko atera nai izan dioten zentzurik. Alderantziz, idazle oiek erabilli nai izan dituzten elbururako, Paulino' ren itzek batere baliorik ez dutela!

Aurkitu berria dut ordea, nere uste orrekin zearo bat egiñik datorren idazki berri bat. Barkatuko dit irakurleak., bai noski, berriro Paulino Doneaz mintzatzen asten ba'naiz. Baiñan ainbeste aldiz jaurti bait digute aurpegira Paulino'ren olerkitxo makal ura, guztiz egokia iduritzen zait aurkitu-berri dedan eder ori oraintxe bertan emen argitaratzea.

Ona bere mamIa:

Olerki ortan Paulino'k bere buruan daukana ez da Aufiamendiko euskaldun jendea; edozein mendiko jende basatia baizik. Ori adierazten omen digu bere onako bertso tinko onek: *Quae regio agreste ritu caret"?,* ots, *al da arau basatiAk ez duan lurralderik"?*

*"Un fuego retOrico"* besterik ez omen da bil bere olerki guzia, eta, bereiziki, ain lardaskatua izan dan eta guk bere tokian ikertu genuan aapalditxo ura.

Ikus idazlan ortako mintzaera ber-bera:

*"Por algtin motivo se ha pasado por alto desde la ediciO'n de Hartel, es decir desde hace 1714S de 111a siglo identificaciOn del "Integer vitae scelerisque purus" que permite ver que Paulino estu remedando en el pasaje en cuesti6n a Horacio (Carm. I, 22) en una oda que, – es para ellos* (Ausonio ta Paulino'rentzat) *ofensivo sefialarlo pues remitente* (Paulino) *destinatario* (Ausonio) lca *conocfan de memoria desde su adolescencia. Oda que sirve 1:.,ualmente de punto de partida a un escritor cristiano, Lactancio* ("Dimin. Inst., 5, 17) *para desarrollar un tema no lejano del de Paulino,*

*"Para Paulino – y propongo al lector que compare los versos de Horacio con los de Paulino los vascones del Pirineo no son màs que el pretexto para desarrollar un juego literario entre antiguo cdumno y maestro. fuego que tiene sus reglas, y exige en este caso, con toda evidencia, destacar con los trazos mas acentuados posibles la imagen negativa elegida para servir de contraste al hombre 'integer vitae scelerisque purus'.*

*"Por que los vascones para esto? Porque los toma de la iront'a que Ausonio le ha dirigido previamente. Pues Ausonio, a su vez, se habia rele-*

*rira a los albergues nevado.[y] dei Pirineo vaseiõn porque escribiendo desde Aquitania a.1 amigo que marcha a Hispania, alude a la mudanz.a, fisica pero tambiën espiritual que le ha ,[y](parado dolorosamente de 6te". Nada naOs y nada menos.*

*"Dicho lo cual, me parece Innv probable que los pa.sos pirendicos dieron cobijo a ladrones miserables de costumbre salwijes86.*

*"Es perfectamente comprensible que Pattlino – que niega explIcitamente haber estado entre ellos – en sa[y] versos como excusa para juego (j, ?) 87,*

*"Ahora bien, no 1O que vea en el estado de los vascone.s pirentrieos un problema, sino simplemente que cr ēl como a ALI5011io (los vaseones) les interesen ni lo rncŕs 17111111)70, es harto dudoso; emea lo es el que tenga algnn intere:;[y] en describirlos como si – subrayemoslo – la poesÍa se rigiera por las miSmas nOrmas que geograffa.*

*La (...nestiOn no es por que Paulino habla aS7 de los vascones. La cuesri4n. es que Ausonio* y *Paulino estan hablando de otra* cosa" ih.).

Ez da gaizk.i esana.

Euskaldunak eta Erromatarrak, paketsu eta aldebietatiko adiskidetasun zintzoan bizitu ziran. Zesaraugusto'ren inperiotzakoan Euskaldunek Akitani'n egindako azken-iraultzaz gero.

Argi utzi genuan ori "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza"n.

---

i"Muy probaNc"?. "Posible" obcto legoke, mundu ontan oso gauza gutxitan ukatu bait teke aultasuna, ots, posibilitatea, Bainan "probaNe" esateko e.ta are geiago "muy probable" esateko, "probak" bear dira. Eta probak. Jauna, or esan duzunaren aurka dagoz. Antziñate artan millaka bidalari ibilli zan gora-ta beera Auñamendia zear. Ez dizu aietako iñor esango an gaizkille bat ere aurkitu askoz geroago, mendean, Aymeric Picaud erromes frankiarra agertzen zaigun arte. Baiñan esango dugu zer uste eman dczaiokegun frankiar Beste toki hatcan esanik utzi dugu. berriz, dokumentuetaz fidatzekotan, ttro zaarrean Erririk pakeisuene-takoa, agian paketsuena, Euskalerria izan zala eta mcndaterik ezarriskutsuenetakoa. agian ezarrisk.ut-suena, Aufiamen-dia.

Sz Berriro nereak dira galde-ikurrak. Ez bait da egia "Paulino niega explieitamente haber estado entre ellos" ori. Paulinol ez du b5 esaten ez "explicitamente" ez "implicitamente" – tapurren artean ez egon zanik ez egon ez zanik. Soilki au esaten du: "Lapur-arte an egon ba'nintz ere Erretorikaren maillan ari bait zan! Eta cz edestiarenean!

Bestelakoa izango da erdiaro guzian Euskaldunen eta beren inguruko Seubiar, Bisigotiar, Fraiikiar, Arabitar eta Asturietako Errege Bisigoten arteko giroa. Ikusi duzu nolakoa izan zan giro ori, liburu onen gai diran "VI ETA VII MENDEETAKO GIROA" izeneko atalean.

Laister asiko zaizkigu aldi oietako idazleak gure Asaben aurka ikaragarrikeriak esaten; eta ez dira geldituko XII mendean Aymeric Picaud erromes frankiarrak. bere agozabaleko zakarkeri.ak aizatzen ez dituan arte.

Ez, arritzeko gauza. ldazle aiek, edo Frankiar edo Bisigotiar edo Arabitar izanik, ots, danak, euskaldunen arerio beltzak izanik, naitanaiez izan bear bait zuten Euskalerria-zikintzaille, beren Erri galant indartsu aiek euskaldun ezin-menderagarrien aurka etenik gabeko guduan sarturik aurkitzen ziran ezkero. Batez ere garai artako idazleak izanik! Garai artan oiturakoa bait zan lagunak zerurairio goratzen eta etsaiak inpernurairio makurtzea. Oro neurririk gabe.

SEBERO DONEA. Arrazoirik gabe gure kristautasunaren atzerazale bezala aipatzea diranetako bat, •- iru aietan irugarrena Sebero ori dugu, Akitani euskaldunaren erdian amar urtez, V mendean, Eliberri (Auch)'ko gotzaia izan omen zitzaiguna.

Sebero, ordea, ez daiteke euskaldunen etsaien artean ipiñia izan:

- Lendabizi, bere "BIZIA"n berak esana lez agertzen dana, berak ez baiña bere "BrZIA"ren idazle 1«mdairagilleak askoz geroago esana dalako.

- Bigarren, Eliberri"ko gotzai izan zanik ere ez dakigulako. Ezta gotzai izan zanik. ere. Are gutxiago, kondairak dion bezala, martiri il zanik. Eztare, ez dakigu, ez nongoa zanik ez non il zanik. Ta, ezer isilik ez uztearren, esan dezagun egiazko gizakurnea izan zanik ere ez dakigula ziur. Entzun "Bibliotbeca Sanctorum" iztegiari:

*"Sebero di Auch: Di questo santo venerato 1111(1 piccoia citth nelle Landes che* (que) *porta il suo nome* (Auch, alegia), *ci* (an) e (da) *rimasta* (gorde) *una vita in tre versioni, assal* (aski) *l'una all'cdtrcr eli casi la piri antica ē stata* (egon da) *redatta* (idatzia) *verosimilmente nel s. XII, ma prive* (usturik dago) *di valore e di credibilita".*

Beraz, iztegi orri jarraitzekotan, Sebero Deunaren kondairak ez du ez baliorik ez sinisgarritasunik. Nere iritzia?

Kondairarik geienak egitasunezk.o mami-apurtxo bat izan oi dutelako..., nik..., izan zala, esango nuke, Erdiaro Garaiean, Eliberri'ko erriak "donetu", ots, "kanonizatu" zuan Sebero zeritzan gizaseme bat, eta Sebero orrek Akitani Euskalduneko jendearekin zer ikusirik izan zuala. Ta ezer askorik ez, geiago.

Olerki zar batek, ordea, aren donetasuna olertiz apainduta, dioskunez, "Sinispidean sendorik eta indarturik, BaskonFra izan omen zan erabaterako bidalia":

Ikus ori bera lateraz:

*"landem firmatum, cuque fide roberatum,*
*partes Waseordoe (mirrus) comslatuer adire".*

Sei lagunekin etorri omen zan, Sortaldetik, Euskalerrira. Lagun oien izenak, Jerontzio, Klaro, Polikarpo, Yon eta Babilo.

lkusi dugu Klaro bat Elusa'ko goigotzai. Donesebero'rekin etorritako Klaro au bera ote zan?

Beste ezertarako ez ba'da ere, balio lezake, beintzat, galde orrek Sebero'ren kondairari sendotza pittin bat emateko.

"Baskoiak neurriz gaindik gaiztakerira okertuak zirala entzun zutelako" etorri omen zitzaizkigun onera, Donesebero eta bere sei lagun oiek: *"Audientes itaque gentem Wascomlin supramodum promptam ad malum".*

Ori, Akitani'ko gure Asabak ain gaiztakeri-zale ziralako ori, ez zuan Sebero Doneak esan, 800 urte geroago Done orren kondaira idatzi zuan frankiarrak Jakiña da, berriz, nolako arduragabekeriz aritzen ziran aldi aietako kondairagilleak.

Oartu gaitezen, alare, idazle orrek ere ez zuala Sebero'ren garaieko euskaldunak jentillak ziranik esan; gaiztoak zirala besterik ez bait du esaten. ,1\1'orbaitentzat izan da noizbait ona, egiñalak eginda ere menderatu ez daitekean etsaia'?

Esanen zuan – idazle ark – Akitani'ko gure Asabak jentillak zirala, ori uste aal izateko arrazoitxo koxkor bat izan jentiltasuna bait zan Frankiar neurriz-gaindiko-kristau aientzat gaiztakeririk aundiena, eta gure Asaba aiek jentdiak izatea izango bait zuan, aien aurka aterrik gabe Frankiarrek zegiten gudua donetzeko ta sagaratzeko aurki zezakean ziori.k. bikaiñena. Ortarako, bai noski, egokiago bait zitzaion. Sebero'k ezi bear zuan euskaldun-jendea "promptam ad idolatriam" zala argi ta garbi esatea, "supramodum promptam ad maium" zala esatea baiño.

Aurrerantzean ere ikusiko dugu euskal-izena-zikintzaille guztiak. – Arabi tarrak baiño geiago – Frankiarrak edo Bisigotiarrak izango dirala.

Eta, mendeak geroago, edo Españiarrak edo Frantziarrak, Espafiiar-rak bereiziki–, antziñako euskal-izena-zikintzaille aien itzetan oiñarriturik, Euskalerrirako Kristautasunaren etorrera al duten guztia atzeratu naiez iku-siko ditugu.

¡Sebero bezala kondaira utsaren bidez ezagututako Done batek ez zuala orrenbesteko esamesarik merezi? Baleike.

Ez dezagun alare aztu Eliz-Edesti bateko gizakumerik. aipagarrienak Doneak eta Donesebero, k.ondairek diotenez Elizak Galietara bidalitako gotzai sortaldetarra "constanter", "etenik gabe", Euskalerrian lan egin zuan egiazko gizakumea dugula seguruaski, naiz bere bizitza elertiz-ko edergailluz apaindurik egon.

JULIO CARO BAROJA. Berea dugu onako aapaldi au: "Puede SO.Y-renerse *que no hubo el mediodia y oecidente europeo nücleo que asinnlara* TIMS *tarde lrl doctrina cristiana que el que hoy representan los vascos de habla en su conjunto.m*

Ori esan aal izateko, geroago ikusiko ditugun beste arrazoi batzuen gaindi autzi.fial«) done au aipatu izan oi du: AMANDO DONEA.

Amando'k berak ez zuan, ez noski, euskaldunen aurka sekulan ezer esan. Bera ez baifia bere bizitza idatzi zuana bait da VI1 mendean Euskal-dunak jentillak zirala esan zuana. Ordurarte, erromateko aroa bukatu gero, itz zakarrik aski esan zan gure Asaben aurka, baiñan artean ez zuan iñork gure Asaba. `leek jentillak ziranik esan.

Amabi dira Amando izeneko Doneak. Bi ordea gure Euskalerri Zar arekin arremanik izan zutenak:

Bat, *SallentS Anlandus,* Bordele'kc.) gotzaia, V mendean Donesebe-rino'ren laguntizarekin "L'hérêsie *priscillianiste qui dêsolait alors*

---

88· Ori esan zuanean Cardk ez zilan Aizorretz'en. Eskoriaza'ko lurrean, a-zaidu berria **dan V-Vi** mendeko iru krismoi daramatzan ontzia ezagutzen.





VIE ET MIRACLES DE SAINT AIVIAND, N° 1 - 11

*de Bordeaux", "Bordele'ko* elizbarrutia ondatzen ari zan priszilikeriaren" aurka borroka larrian ikusi duguna (Dte.Hist.0&). Ecel").

Bestea, guri orain ajola zaigun au, I Martin Aitasantuaren laguna, eta Aitasantu onen eskutitz batek adieraztera damaigula dirudianez„Akitant'n jaioa: "originaire *de l'Aquitaine" (ib),* edo Bibliotheea Sanetorum"en irit- ziz, "nacque (jaio zan) *un luogo* (toki) *imprecisato dell'Aquitania (odier- na Gascogna)".*

*"San Amando, obispo de Maestricht v de Brujas, ine Injo de Sereno duque de Akitania"* irakurri daiteke Espasa iztegian. Oroi dezagun, emen aipatzen dan Akitani ori, Zesaraugusto'k Loira ibaieraiño jaso zuan Akitani zabal ura dala, ibai artatik Auftamendirailio edatzen zana ta irutan zatitua izan zan ura. Amando, ordea, III Akitani'n jaio omen zan Bibl. Sact.-en ustez.

Bainan bere lanik ziurrenak, Amando'k, Galietako ipar-lurrean egin bait zituan, eta, ziurki, iparralde artan gaur Olandarra dan Maestrieht'eko eta, agian. Beljikarra dan Brujas'ko gotzaia ere izan bait zan, eta orduan gotzaiak – bai beintzat geienak – tokian-tokikoak izaten bait ziran, bcra ere lurralde aietan sortua izan zala esan daitekeala derizkiot.

Uste orren alde dagoala dirudi., gotzai izan aurretik lekaide ere izan zaneko bere lekaidetzakera, Galietako iparrelik Irlanda bertago dagoalako, lekaide Irlandarrena bezalakoa izatea, aien jardunkera jarraituz, "par *l'influence des moines irkmdats",* gotzai izan aurreko artan, eta baita gero ere, gotzatuoa utzita, lekaide-mixiolari izan omen zitzaigun ba, "pere- *grinatio perpetua"* edo "etenik gabeko erromesketan" lur ezberdiñetako jendeak ebangelizatuz.

Lekaide-Mixiolari aiek, "soilki lekaidetxeak irasteko artzen zuten atseden-aidi bat". lkus ori, aipatutako Iztegiaren itzetan: *"voyageant ,sans cesse el ne se reposant que dans les monasteres qu'ils fOndent" (ib).*

Ez da au aurreneko aldia Amando Doneaz mintzatzen gerala, baiñan bearrezkoa iduritzen zitzaidan zerbait geiago Done oni buruz emen esatea, bere izena maiz erabillia izan bait da, Euskalerrira kristautasunaren etorre- ra atzeratzeko. .Bereiziki, Auñamendiz iparreko Euskaldtmen kristauketa atzeratzeko.

Batez ere Julio Caro Baroja dugu ortan geien saiatuenetako bat. Ez ezer aundirik lortzeko. Ez duten garrantzia bait damaie Doneamando'ren mixiogintzazko ibillaidiei (Prine. Viana; 122-123 t1971), 7-26)

Adibidez, – *"sobre lcr jecha que se da a los primeros intentos (* azpi marraketa nerea) *de predicaciOn de la rellgi6n cristiana en lcr zona bajo pirenaica occidental"* ari dalarik onako au guri sinisterazi nai digunean: "La *fecha puede colocarse en atIos bastante bien determinados del siglolfril"* (Oraingoan azpirnarraketa berea)

••• Esaldi ortan, – agian jaso lezazkean erantzunetatik bere burua errezago babesteko – Caro'k oso gaizki "determinados" d.amatzkigun gauzak, aztertu nai duan esparruaren mugak dira. i, Zer da ba "zona *bajo pirenaica occidental* ori? (, Basses Pyrenes izeneko departamentu frantziarra bakarrik? Ez dirudi, Doneamando'ren garaiaz ari dalarik. ,I\lobenpopulani osoa? Nobenpopulani'ko Auñamendia? Edo, berdin dana, i, Katalaunt'z onuntzako Auñamendi osoa? Danadala, i, Aufiamendi orren "bajo" edo azpiko lurraldea ere bai? Orrela ba'da, i, non jartzen dio "zona *bajo pirenaica"* orri iparraldeko muga?

Lurralde ortako euskaldunak kristautzeko "lenen saiaketak", *"los primeros intentos,* VII mendean egin zirala, esan digu Caro'k.

Ori, ez da egia.

Caro'ren azterketalurra Nobenpopulani osoa ba'da, ote zekian V mendea amaitu-aurretik Nobenpolani'ren erdi erdian, len ere esan dugun lez, Elusaberri Nobenpopulani guztiko Eliz-Metropoli zala? Eta, u)rrek, ordurako Nobenpopulan n beste elizbarruti batzuk bazirala adierazi nai digula?

- Caro'k aipatu nai ziguna Auriamendiaren sarkaldeko erdia ba'da, oroiterazi dezaiogun, Gaskuria, Bearno ta Bigorre'koez gaiñera, Auftamendiari josirih zeuden Konbenerri (Comminges) eta Kontsera (Couserans) gotzaidun uri zirala V mende ortan, eta, arkeologiaren aldetik, Galietan ezagutzen dan basilikarik zarrenaren aztarnak, Konbenerri'n agertu ta IV mendekoa basilika batenak dirala.

Mende ortakoak, eta V' goak, eta VI' goak dirala baitare an aurkitutako illobi kristauak. Mende ortakoa, IV'goa, baitare, eta lurralde berortakoa, Galietako arkeologian parrokirik zarrena, eta, baita, Galietan parroko baten izen ezaguturik zaarrena ere: Patroklo.

- Ar dezagun ontzat, Caro'k adierazi nai zigun lurraldea oraindik sarkalderago zegoala: Bâ, VI mendearen asieran. Elusaberri

Metropol'Uriaren "menpean", lu iaide ortan 5 elizbarruti. bazirala erantzungo diogu: Leskar, Akize (Dax), Olaron (Oloron), Lektora (Leetoure) eta Bigorre (Tarbes). Zai] gertatzen zait Caro'k ori ez zekiala uste izan bearra.

Soilki Auñamendi'ko malloak eta tontorrak ote ziran Caro' k aipatu nai zituanak? Ez dut uste, berak ",7onti *bajo pirenaica"* bait dio. Bañan ala izan ba'litz ere, oroi beza, Saint Amand onera etorri zala egia balitz ere, Done orren aurretik, – bedi era paketsuan Nola'ko Paulino Doneak bezala, bedi Frankiarren errege ta buruzagiek bezala gudugilie. Amando Done orren aurretik, askok eta askok igaro zituztela Auñamendiaren arrats ta goibideak, baiñan ez. Done arek – naiz euskaldunetaz gaizki mintzatu omen ez errege ta buruzagi aiek, ez aUen edestilarie.k naiz. euskaldunen aurka ikaragarriki mintzatu, ez Auñamendietan ibillitako beste iñork, ez zutela beiñere Euskaldunak jentillak ziranik esan! Ezta, egoaldetiko, Done ta Errege bisigotek edo berauen edestilariek ere.

Amando Donearen bizi-idazlea izan zan ori esaten aurrenekoa. Idazle orrek, ordea, ortan, ez dezake iñoren uste onik irabazi.

Esan dugun guzti ori, dokumentuetan tinkatutako egia dugu. Ortaz gaifiera, egia da baitare, bere iritzia babesteko nketsa aukeratu z.uala Caro Baroja' k.

San A.mando irudimenaren lorategik.o izaki bat ez. baina ezur-ta-aragizk.o gizakumea izan zala egia ba"da ere, eta naiz- bere "BIZIA" kontatzen digun idazkiak – atalik geienetan beintzat – uste on osoa merezi., zearo galtzen bait du uste on ori Amando'ren mixio-ekintzetaz mintzatzen asten danean. Kondairak puntua ta hidimenezko lorez orniturik agertzen digu ba, aren mixioketarako ibilialdiet dagokion guztia, ori guztia geroago idatzia ez bada beintzat.

Ibillaldi oiei-buruz eskaintzen digun guzia ontzat artzekotan, Amando Donea ia Europa osoan ibilli zala sinistu bearko bait genuke.

Orregaitik ziur dakigunaren bidetik irtetzeke, ederki diosku Eliz-Edestiaren Frantzi'ko Iztegi bikain nik ainbat aldiz aipatuak:

*Saint Arri-and a êvangêlise", au les cvna-"es encore paÏennes chi nord de kz Gaule, en particulier les pltanes baSSCS arros"es par* l'Escato". Alegia, "Oraindik jentil ziran Ipar-GaIietako lurraldeak, bereiziki (gaur Belxika'n da g oan) Eskalda'ren bee-ibarreko aiek, mixiotu zituala VII mendearen erdian Amando Doneak"

Jaramon koxkorra damaie Danubto ibaiaz aruntzko Eslabiarren lur zabaletatik asita *("chez les Slaves au dela du Danube)* Auriamendi'ko Euskalerrira arte *("chez les Gascons qui habitent Ies Pyrenees")* Doneamando'k egin zezazkean rrrixio lan guztiei. Ekintza oiek *sont pas tre:'s sflrs","Ez* dirala oso ziurrak", esaten bait *digu.*

Obeki Iztegi italiarrak: *"Dalla "VITA" che pciraltro* (beste alde batetik) *rr terita indiscusso* (ezpairik gabeko) *credito, bisogna* (bearrezkoa da) *probabihnente espungere* (sinisgahe laga) *gli sui viaggi missionari che, essendo ovviamente copiati da quelli dei monaci anglosassoni, oltre a non pertnenere alcuna valutazione cr^y nologico raEZ* (eztare) *topografica, appaiono* (osotzen dute) *un mediocrissitno espediente per tener deseo* (erne) *l'interesse del lettore.*

Itz bitan esanda. Doneamando'ren ibillaldi oiek, "argi ikusi daitekeanez" ("ovviamente") lekaide Anglosasondarrenak eredutzat artuz idatziak dira, eta irakurleren oarmena "`ernai" ("deto") eukitzearren eratutako idazlearen asmakizunak dira, eta. gainera, "oso baldarki asmatuak" dira ("mediocrissimo expediente"), ots, "arras erdipurdiko asmakizunak"; "oso-oso baldarki" asmatuak.

- MANUEL RISCO apaiz agustindarra, XVIII mendean bera bezala agustindarra zan Enrike Florez'en "España Sagrada" izeneko liYrnru bikain mardula osotu zuan edestilari zintzoa..., naiz zearo españizale.a. Nik ez nuke esango Riseo euskaldunak luzaro_ jentiltasunean murgildurik eukitzearen zale Nik ez nuke au besterik esango: bete betean sinisten duala idazle bisigotiar eta merobingiarrek euskaldunen basatikeriari ta gaiztakeriari ta ankerkeriari-buruz idatzi zuten guztia.

Euskaldunek Españi'ko bisigotiarren aurka izandako guduetan ere Bisigotiarren alde agertzen zaigu beti. Zergaitik?

Bei bere ustez Auñamenditik egoaldera dagoan lur guztia Españi'ko erregeen lurra dalako, eta izan ere, naitanaiez, ala izan bear dualako.

Badugu ordea euskaldunok Agustindar jakintsu orri zer eskerturik: Bere "Espaina Sagrada"ren XXXLI liburu oso-osoa, soilki Euskalerri Zarraren edestia emateko idatzi bait zigun: "Tratado de la Vaseonia Antigua". Bainan, ori egitean au izan zuan bere asmoetako bat: "la clefensa de lo que poseyd España desde lo siglos niri remotos" (1.e. 3).

=1=

Gregorio BALPARDA gizaseme ezaguna Bizkai'ko politikan esparnzale sutsua izan zalako, Izan zun, baitare, onako aburu bitxi baten sortzaillea:"

Idazle onen iritziz., kristautasuna arin iritxi zitzaigun Erroma˙ko kultura ere iritxi zitzaigun gure Euskalerriko bazterretara. Baiñan Erroma jausi zanean, era berean ezabatu omen zan Euskalerrian, Erroma'ri eskerrak etorri zitzaigun kristautasuna. Jentilla biurtu omen zitzaigun berriro Iparrean eta egoan gure Euskalerria.

Balparda Jaunari, au esango Moke nik: Erroma jausi zanean Erroma'renak izandako Errietan ez zala kristautasunik ezabatu; eta ona.ko au galdetu: beste Errietan ez, eta Euskalerrian bai? Bizirik jarraitzeko, beste errialdeetan kristautasunak Erroma zutik irauterik eta Erroma'ren babesketarik bear izan ez ba'zuan, vergaitik Euskalerrian bai?

Aditzera eman dezagun, kristautasunaren ezabatze ortatik landa uzten dituala Balparda'k ibero ibaiaren lurraldeak, Kantauri esan oi zaion (eta bertakoek Toloño esaten dioten) mendikatedk egora, Araba'n, eta Naparroa'n beera; lurralde oietan oso sakon sustraitu omen zan bfi erromatarren kultura – eta ondorioz – Erroma'tik.o kristautasuna.

"Tan eatOlicos como los dermis españoles" omen ziran bfi, lurralde oietako euskaldunak.

Aburu ori babesteko arrazoiak? Ikusi dugun lez, baliorik ez duten Amando Deunaren Inixio il7illaldi aiek. Arrazoi murritzak, benetan:.

Aditzera eman dezagun baitare, Ba]parda'ren Euskalerria Ego-Euskalerria dala, gaurko gure Euskalerri labur an, naiz, sortalderuntz, Ueska' ko Aufiamendirairio luzatu a.

Bizkat., Gipuzkoa, ta Naparroa'ren eta Ueska'ren iparraldea, Arabitarrak etorri ziranean asi omen ziran kristau egiten; eta, ori, Arabitarren aurka guda egiteko kristau espahiarrak mendietara bildu izateari eskerrak. Dirudianez, Balparda'k ez zekian españiar aientzat euskaldunak etsai gorrotagarriagoak. zirala ara.bitarrak

Zer arrazoi aurkezten dizkigun, esan zuan ori ain eskier ontkatzeko? Bat bakarrik ere ez! Ez bait dezake. eman ere. Ez da ba oroitzen, moroak etorri ziranean bisigotak euskaldunen etsai amorratuak zirala. Ain zuzen

---

"Historia Critica de Vizcaya y sus Fueros". Lau liburu dira. Gazteiz'ko Apaizgaitegiko Liburutegian dauzkagunak, Madrid'en argitaratuak lauak. Azkenekoa, 1945'ean.

moroak etorri ziranean ere euskaldunak porrokatu naiean borroka gorrian zebiltzan. Irufia'k.o arresien aurrean, uri eder ura ezin arrapatuz. Bisigotek naiago izan zuten ezpairik gabe ordurate baztar guztietan kristauekin eraspentsuak izan ziran moroen artean gelditu euskaldun betidandiko arerio gorrotagarriengana urbildu baiño.

Egia ote da, Erroma jausi ondorean, Araba'ko Kantauri mendilerrotik iparreko kristautasuna zearo ezabaturik gelditu zala esaten duanean, Balparda'k ez zuala, mendiierro orren iparraldera, eta ain zuzen Erroma jausi zanean loratu zan "Euskal-Kapadozi"ko lekaide-talde miresgarria ezagutzen?90

Zakarfas GARCIA VILLADA, Apaiz ffiakitarra, Espafii'ko onenetakoa; "llorado historiador", apaizen adiskide aundiegia izan ez zitzaigun Caro Baroja'ren aitorpenez. Augustin Azkarate'ren liburutik ("Arqueologia", op. e. 3 I ) jaso dut edestilari onen aipu au:

*"Il ario* 1.935 *el P Garcia Vilkadcr en su discurso de ingreso en Academia de la Historia, sostenÍa que Vizeaya y Guipuzeoa no conocian toduda el cristianismo durante en siglo XI.* Egia Azkarate'k Garcia Villada'ri-buruz diona, eta ona orain emen Garcia Villada beraren itzak:

*"De los diez primeros siglos no se encuentra rastm ninguno de cristianismo ni en Guipuzcoa ni en Vizeaya. La suposici6n de due evangelizara el territorio San. Saturnino no descansa sobre 11111gUlla base E I obispo de Pamplona no logr6 ensanehar su di6cesis mas alla de Alsasua San Seba.stidn; y el de Calahorra no penetr6 arriba de Vitoria* y *Encartaciones. Cuando en 804 fimda el obispo Juan, de acuerdo con AlfOnso di6cesi.s de se interna en Amurrio* v *Orduña, pero sin pasar 1116.5' adelante"* ("Organizaci6n y fisonomia de Ia Iglesia espafio-

90. Agirian ipiñi dugun gure artean ezagutu ditugun españiar-nazionalistarik sutsue-netako bat izan zan Gregorio Balparda. Bere lanik garrantzitsuena, Arana Sabifi'en aurka idatzi zuan "Historia Critica de Vizcaya y de sus Fueros" (op.c.). Latxaga dugu Araba'ren sortaldeko lekaide-sail oparoari "La Capadocia Europea" izen-eman ziona. Araba'ren sarkal-deko Gobiaran'en izan zan beste Jekaidetegi ugaritsu bat; au ere Errorna jausten zan garaiekoa. Ernaten duEnez lekaidetegi oiek ez zituan Balparda'k ezagutu.

la desde la caida del imperio visigodo en 711, hasta la tona de Toledo en 1085". Madrid, 1.935, pag. 18).

Gauza bera idatzi zuan gero – eta itz beroick erabilliz bere: "Historia Eclesiåstica de EspailaTh (Madrid, 1936)

Ba, Garcia Villada'k esandako ori, ez da egia. Bxiian egia ba'litz ere ez luke esan naiko lenen amar mendeetan Gipuzkoa'n eta Bizkai'n ez zala kristautasunik izan. Berdin erantzun nezaioke ba nik Aita Villada'ri: "Padre Zacarfas: En toda la pila de siglos hasta 1492, no se encuentra rasgo alguno de existencia de gentes ni en Norte America ni en Sur America". Ori egia litzake, baiñan orrek ez luke esan naiko an jenderik bizi ez zanik.

arritzekoa da XI mendeko lenen urteetan, 1025'ean, Gipuzkoa'ko Jaunak. eta bereala mende ortan bertan, 1042'ean, Bizkai'ko Jaunak izenpetutako larrukiak. nola ez dituan Garcia Villada'k aipatzen.. Larruki oietan zearo kristauturik agertzen bait dira Gipuzkoa ta Bizkai. ote zituan Zakaria.s Aitak ezagutzen? Eta Elorrio'ko Argilleta'n dauden eta 1X mendekoak diran illobi kristauak ere ote zituan ezagutzen?

Gure Lenen-Erdiaroko illarri kristauak arek ez ezagutzea, ez da arritzeko gauza, geroago agertuak bait dira arrizko dokumentu arras baliogarritasun aundiko oiek, eta oraintxe bertan ere agertzen ari bait zaizkigu. Baiñan Bizkai ta Gipuzkoa'ko bi Jaun aien I.arrukirik ain edestilari izentsu batek ez ezagutzea..., ori basi, ori arrigarria izango litzake benetan.

Larruki bi aiek, gaiñera, txit garrantzi aundiko d.okumentuak bait dira gure kristautasunarcn esparrutik at ere: Bizkai'koa, Iffigo Loperena Ezkerra Bizkai'ko lenen. Jaun ezagunaren dokumentua dalako. Gipuzkoa'koa, berdin, Garzia Azenariz Gipuzkoa'ko lenen Jaunaren dokumentua izateaz gaiñera, GIPUZKOA izena ematen digun aurreneko dokumentua dalako91.

Baiñan gure Eliz-Edestiarentzat dira bi larruki zar oiek gitxi benetan aberatsak. Bai Bizkai'n eta Bai Gipuzkoa'n, eta emen batez ere, Kristautasuna ordurako eta aspaldiz gero – ederki zabaldurik eta sakon erroturik zegoala, erakusten bait digute.

---

91. Larrukian 1PUZKOA ikusiko duzu. Garzia Azenariz'en emazteari, batzuetan Gala eta beste batzuetan Gaila de WUTXA esaten zaio. ortako "TX" oiek "TZ"ren doñua emateko idatziak ote? Orrela Gaita gipuzkoarra zala esan naiko luke "Iputxa" itzak: Giputza zala: "Iputza",larrukiaren idazkeraz "Iputxa". Gaur bertan "Giputxa" esan oi dute bzkaitarrek. Gaila'ren eta bere alabaren larrukiak ere baditugu bat baino gelago. Ez dagerte, Gipuzkoa`ko kristautasunaz„ kezkarik!

Garrantzi. aundikoa da, baitare, Bizkai"ri dagokionez, "Bizkai'ko Lekaidetxeak. oro edozein morrontzatik yaretzeko". Euskalerri osoko Erregea zan Gartzia "Naxeratarrak" 1051"ean izenpetu zuan larrukia. ¸Zergaitik ez ote du Garela Villada'k irugarren larruki berau ere gogora ekarri nai izan? Au ere ote zitzaion ezaguna?

Bazuan beintzat dokumentu oiek aipatu bearra. iru dokumentu oiek, – mendearen asierakoa aurrenekoa, eta mendearen erdikoak beste biak – XI menderako kristautasuna Gipuzkoa'n eta Bizkai'n askoz leenagotik biztanle guztien – bai beintzat "moraliter omnium", "esate baterakO guztien" – sinispide bakarra zala, zalantzarak.o bide aundirik uzteke adierazten bait digute.

Arrizko dokumentuei dagokienez, esan dugu ez zezakeala Garela Vt-Ilada'k azkena agertutakoen jakiterik izan, baiña anitz arritzekoa da Elorrion aurkitzen diran Argineta'ko lllobien berririk ez izatea; auek, bai, auek ezagunak bait ziran leendik!

- *"La suposiel6n de que evangelizara el territorio San Saturnino no descansa sobre ninguna base ildida.*

Egia diozu Aita Garela Villada: Yondoni Xatordi Tolosa'ko gotzaiari da g okion guzia, ez bait da EDESTIA. Soilki KONDAIRA bait da. Baiñan *"que no descansa sobre ninguna base sMida"* ori, ori ez da egia. Yondoni Xatordi'ren kondatraren oinarria, beste edozein kondairarik zintzoenarena bezain trinlcoa bait da. Are geiago, edestilarien ustez, kondairen barrutian sendoenetakoa eta sinesgarrienetakoa!

Egia: Yondoni Xatordi Trufia'ra elorri zalako ori, Euskalerrian gorde oi dan kondaira da, baiñan ez "base s()Iida"rik gabea,

- Yondoni Xatordi, Sortaldetik etorrita, Tolosa'ra bizitu zan.
- Tolosa, Euskalerriaren muga-mugara zegoan eta agian oraindik euskaldunez inguratua eta bere arresien barruan ez noski euskaldun-talde ederrik gabea.
- Yondont. Xatordi, Tolosa'ko, gotzaia izan zan.
- Tolosa ta iruña "bitartean" beste gotzairik urbillena, Tarragona'ko Yondoni Murtux (Fruktuoso Donea) zan.
- Bi gotzai oicn artean zegoan Euskalerri osoa.
- Bi aien erantzukizuna zan, beraz, Euskalerriaren ebangelizak.eta.

Tarragona'ko San Fruktuoso'k, irabazi zuan, bere eginkizuna betetzen saiatu zalako ezpairik gabe, euskaldunek oso gutxiri – Apostoluen aroaz gero soilki lau Doneri iñolaz ere Euskalerrian lan bereizi aundia egin zutelako, eman dien izenkera maitetsu goxoa (MURTUX Donefruktuoso'ri) eta eraspenezko izengoiti aitzakorra YONDONI.

- Euskaldunen aldetiko esker onaren jabe egin zalako Tolosa'ko San Saturnino'k ere irabazi zituan, bai izen maitekorra (Xa.tordi) eta bai izengoiti eraspentsua ere: YONDONI

Ez litzake beraz arritzekoa, bietatik bat Irufta'ra etorri izatea. Bazuten zergaitik etorria, Euskalerria beren ardurapean zeukaten gotzai bakarrak ziralako. Bazuten nondik etorria, Tarrako-Oearso bidea Yondoni Murtux'ek; Orreaga-barrena zetorren Asturika-Burdigala Yondoni Xatordi'k, Tolosatik bertan, eta erosoa.

- Irufia'ra etorriak izatekotan, Zein ote dugu benetan etorri zitzaiguna? Zalantzarik gabe esan daiteke: YONDONI XATORDI. Artu bear zuan bide zabala Erromateko inperio osoan biderik ederrenetakoa ta
koa bait zuan, eta, orregaitik, bere ibillaldia Yondoni Murtux'ena baiño laburragoa, eta batez ere errezagoa, ziurragoa, eta atsegiñagoa.

- Bera da gaiñera, Yondoni Xatordi, eta ez Yondoni Murtux, agoz-agozko yakintzak, Iruña'ko apostolu bezala, mendez-mende aurkeztu duana.

- Egia da, arrazoi guzti oiek ez dutela kondaira edesti biurtzen, baiña bai kondaira orri oiñarri sendorik aski ematen diote.la.

Gaiñera, zuk zerorrek ere, Aita Zakarias, askoz oiñarri atdagoko kondairak eraspengarritzat eta ia-ia oso-osoan egiazkotzat artu oi dituzu bein baino geiagotan. iAztuak al dituzu, adibidez zure "Historia EcleskIstica de Espafia"n Espafit'ko kristautasunaren astapenaz mintzatzerakoan Santiago'ren etorreraz, eta Zutoitzeko Amabirjifiari-buruz eta geroago ere beste done espafitarrei-buruz – idatzirik utzi zenituan itzak?

*- El obispo de Pamplona no logrd ensanchar su didcesis mas allci de Alsasua y San Sebastian.*

Arantzaz jositako sasitegira sartu zera, Zakarias Aita: garai antziñatsu aietako gure elizbarrutien mugaz ezer iez bait dakigu!

Orren ziurki ("no logr6", "no penetro") mintza aa] izateko, inondik eta nola jakin duzu zure esaldien bidez sinisterazi nai diguzuna? Au besterik ez bait da zuk aurkezten diguzue arazo ortaz dakigun guztia:

- Ipar Euskalerriak III mendeaz gero Elizbarruti bat bazala, eta V'ean eta batez ere VI'ean Eliza dotore Erakunde billakaturik zegoala, eta garai aietako illobitegiek adierazi digutenez, Aufiamendiz onunzko euskaldunok Egoarekin arremanik ez genuan bezala, txit aundiak zirala Iparrarekin izan genituanak_ utsa izan zala emen egoaizearen eragiña; oparoa, alderantziz iparraizearena.

- Ego-Euskalerrian ere, aipatzen duzuN garia baiño askoz leenagotik, – dirudianez IV mendean bertan eta ziurki V'ean – izan zala gotzai bat: Kalagurri' koa.

Itxuraz, Kalagurri · ko gotzaiaren mendean egon zala gure egunotako Ego-Euzkadi guzia. Baita, jakiña, Naparroa ere.

- VI mendekoa dala iruha'ko gotzaigoa.

- *"El obispo de Pally21017a no logr6 ensanchar sar dioeesis tnas cdla de Alsasua* v *San Sebastian"* ezin esan daitekeala, ortaz deus ez dakigulako. Ori lortzeko I.rufia'ko gotzai batek sekulan saiaketarik egiu zuan ere ¡ez Nait dakigu'

- Beraz, *"rio logr6 ensanchar su diticesis 117(iS allci de Alsasua San Sebastidn"* errezegi esan duzula. Ez bait dira danak zure abunt berekoak: *"Por el lado occidental di6cesis de Pamplona) Ilegarfa a comprender a toda o cast toda Guipuzcoa v tal vezVizeava antes de la creaci6n de la di4-cesis dc* Alava", ots, Armenti · koa (Ene.Genillus.Pais Vasco. "Obispos" itzean. 468 or.) Baiñan aburu ori ere zurea bezain oiñarririk gabekoa da92.

- IX mendean, Araba'n, Armenti'ko gotzaigoa sortu zitzaigula.

---

92. Sortalderuntz hai, asko luzatu zan Iruña'ko elizbarrutia, H Paskual Aitasantuak ( 1099-1118) Salduba (ZaragozaYk.o uritik oso bertan dagoan Kastillar ere barruan artuz, antziña ]bero 1:riaren iparraldean Baskoiena izandako lurralde guztia eman bait zion bulda baten bidez. Orrek, nere ustez, X11 mendean Salduba '(ik sarkalderuntz oso kilornetro gutxira lbero ibaie-ralflo euskera itzegiten zala esan naiko luke. Kasfitlar urixka baten eta oro larra dan zelai guren zabal baten izena Aragoi'ko apaiz batek esan zidan berak Kastillar ori Kastell.ar idatzirik ikikusi duala: Kastel-lar = Gaztel-lar. Izen ortako Larrea, Alagon eta ia Salduba beraren artean, aitz.ezko orma bat eratuz, goitik beera jeisten da ibaiaren erizera.

- Edestilariek diotenez Armenti'ko gotzaigo ori, naiz orrela mintzatzeko jakinbide ziurrik izan ez, Arabitarren mendean eze.rezturik zegoan Kalagurri'ko gotzaigoaren jarraipena izan zala.

- Ortaz, uste izatekoa dala, Bizkai ta Gipuzkoa bezala Araba ere, ordurarte, Kalagurri'ko gotzaiaren lurra izan zitzaigula. Eta, ori egia ba'litz oker asi zitekeala Iruña'ko gotzaia bere agintea *"mds clllŕr de Alsasua"* luzatzen.

- Seguruaski, IX mende ortaz gero Gipuzkoa ta Bizkai Armenti:ko Gotzaiaren lurrak izan zirala, XIII mendean Armenti'ko gotzaigoa ezereztu zan arte.

XI mendean agertzen dala aurreneko aldiz Donosti'ren aipua, Euskalerri'ko Santxo erregearena ote dan edo ez ote dan 1014'ko larruki batean; baitan aipamen ortan ez dala esaten Donosti Irufia'ko elizbarrutikoa danik93.

- XII mendeaz gero Gipuzkoa'ren zati Bardulitarra (Oria ta Urumea ibaien aran biak) Irufaa'ko gotzaiarenak izan dirala XIX mendera arte. Ez dakigu zergaitik. Baiñan Bee-Erdiaroko oiturak gogoratuz, zjurki esan dezakegula dirudi, irufla'ko gotzaigoaren zabalketa ori, Euskalerriko Erregeen ekintzaren ondorioz izanen zala, eta, ez, *"porque el obispo de Pamplona logrO ensanehar dkieesis mds crllci de Aisasna r San Sebasildn.*

- XI eta XII niendeen arteko urte oietan, guk zergaitik jakiteke, Gipuzkoa'ko zati. Baskota, au da, Urumea ta Bidasoa bitarteko lurraldea Naparroa'ko Bidasoa'ren aran guztia bezala – Baiona'ko Gotzaiaren mendean agertzen zaigula, XVI mendearen erdira arte`,'.

---

Bai, Santxo berari leporatu oi zaion 1027'ko larruki baiean. bainan larruki ori, eskier, apocritba da, ots, errege arrena ez dana: beraz, balio eskierrik gabea.

Naparroa'ko Iv Felipe (Españi'ko Ifa) izan zan V Pio Aitasantotigandik lurralde aiek Irufialw gotzaitegira bein betirako sartu zituana, ortarako, kalbintasunera jausteko izan zezaketen arriskua aitzakitzat Da aurreiritzi okerrik gabe egia esatekotan, aitortu bearra dugu, Frantzi'n katolikoak eta ugonote kalbindarrak erlijio-gudu gogorrenean zebiltzanean, ez zitzaiola benetako **arrazoiri** k pcitzen. Oroi Naparroa'ko erregiña bera. 1111 Yone, kalbindarra egin zala!

- *"Cuando en 804 funda el obispo Juan de acuerdo con Alfonso H dkicesis de Valpuesta se interna en Amurrio y Orduña, pero sin pasar mds adelante".*

Bere erronka ariñegi orri-buruz. Zakarias Aita iñakitarrari esan?

- IX mendearen asieran, 804' ean sortu zala Araba'ko sarkaldean, Composita gaztelerazko Valpuesta'n – gotzaitza berri bat.

- Sorkuntza ortaz gero elizbarruti ortakoak izango zirala, Oka Mendien egoaldeko maldetatik asita, Euskaldun A.utrigoitarren lurrak, naiz, agian, Orduña ta Amurrio'tik tparralderakoak ala izan ez.

- Sorkuntza orren aurretik Ibero ibaiz iparreko Autrigoitarren lurra nongo gotzaiaren esanera egon zan ez dakigula: Oka'ko gotzaien esanera? Kalagurri' koena?

- *"Que* – Valpuesta'ko gotzaia *se interna eri Amurrio y Orduita",* badakigun gauza dala. Batflan ez dakigula "sin *pasar mas adelante"* gelditu zalako ori, egia dan edo ez.

Ta, naiz ala izan ba'litz ere, ez dakigula zergaitik "sin *pasar mis adelante* gelditu zan. i Autrigoien lurreko iparraldea beste elizbarruti batekoa zalako? *i Kalagurri koa* ote, Zakarias Aitak berak, itxuraz oartzeke, *el obispo de Calahorra no penetr6 arriba de Vitoria y las Encartaciones* esatean aditzera eman digun bezala? Irufia'koa agian? Armenti' koa bearbada? agertzen. da ba Bibere zeritzan Araba'ko gotzai bat IX mendean.

Ez dut nik erantzuni.k. Baiñan ezta beste iñork ere.

- Danadala, Orduña ta Amurrio'z gorako lur Autrigoitarra emengo edo orko edo ango gotzaiaren mendekoa izan, badakigu beintzat "antigiledad tardia" edo "aro zarreko azken garaia"z gero, kristaua zala, arkeologiak eskier erakusten digun lez.

- XIII mendearen lenen urtean, I200'ean, ezerezturik gelditu zala Armenti' ko gotzaigoa. Bere elizbarruti guzia Kalagurri'ra aldatu zala. Beraz, len ere elizbarruti ori dana Kalagurri'koaren zati izan zala, uste izatekoa dugula. Eta, itxuraz, ori adierazten digula, baitare, Bizkai, Araba osoa, eta Gipuzkoa'ko Karistiarren lurra (Deba ibaiaren arana) XIX mendera arte Kalagurri'ko gotzaiaren esanera egon izateak`'. Azpimarratu dezagun or-

---

Agian norbaitek, 1317.kai'ko Autñgoien lurra, gaurko Enkarterri-lurra, Gazteiz'ko eliz-barrutia sortu zan arte, Kalagurri'koa ez baina Santanderloa izen zala ipiñiko dit oztopo, Ar-risku aundiEk gabeko oztopoa, Garan aipatzen duan garaiean ez bait zan, (askoz

dea, azkena esan dugun ori, uste daitekean gauza besterik ez dala. Armenteko gotzattza Kalagurekoaren jarraipena izan zala esateko ere, Inork ez bait du kixazko arrazoirik ematen. ote da itxura geiagokoa, Kalagurri arabitarren mendera jausi ezkero, Araba gotzairik gabe gelditu zalako bertan gotzaitza berri bat sortu bear izan zala?

Ez naiz oroitzen non baiñan nonbait irakurria dedata uste dut, gure Arbasoen kristautasunaz beste zerbait gogorragoa. eta arrigarriagoa CSall zigula Zakarias Garcia. "Cuando la voluntaria unida de Guipuzcoa a Castilla" kristautasuna ez zala oraindik Gipuzkoa'ra urbildu. Esan dedan bezala, ez bait naiz ziur oroitzen izugarrikeri ori GarCia esana dan edo ez, ez diot garrantzi geiagorik eman nai96.

Baiñan, ausardikeri aundi ori edo orren antzeko beste zerbait, ainzuzen Garcia Villada'rena ba'litz bezala ari izan zitzaigun Lekuona'tar Imanol onako itz auek idatzi zizkigunean97:

"Gauza oiek (Euskaldunek Kriseaurretik ere jainko bakar bat – eta Gurutzea bera – gurtzen zituztela) gure artean esaten ziran.

---

geran-go, Xabier Arriaga gotzai zuala 1755'ean sotuko zan) Santander'ko el zbarrutirik. Ta, orduan ere, Gordejuela Kalagurri'rentzat gelditu zan.

96 "La voluntaria (?) entrega a Castilla" ori XIII mendean gertatu zan. 1201'garren urtean Gaztela'ko VIIIAlfornso`k gudaz Naparroa'rt ekin zion, eta ala artu zuan Gipuzkoa, Naparroa'ko V11 Santxo, ez daki iñork zergaitik edo zertarako, Afrika'ra joana zalaz baliaturik, baiñan 1204'ean, iltzer zegoala. kontztentzitiko clarnuak "Jainkoak osasuna biurtzen ba'dit, itzuliko diot Naparma'kuenegeari "Ponte Araniello" (i, Arnedillo?)'tik "Fontem Rapidurn" (Olatarrabi)'raiiio, artu diodan guztia", agindu zuan. Ez zan errege gaztelarraren itz ori sekulan bete. Z.kinkeri orri csaten dio Garcia Villada'k "voluntaria entrega de Guipuzcoa a Castilla Zugurrago ibilli zan erdiaroko trobalari Proventzatarra,

Seinnor Ren de Navarra,
ben sapebas (jakin zazu) certarnent
que tu perdes la terra e ton eretament (ondarea),
qu'el rei Alfons que
tens por leial parent (lengusu zuan)
es intrat en Navarra
ab gladi (ezpataz) *e* ab foc (su) ardent.

97. "ldaz-lan guztiak", 111. 386 - Gaz-teitz'en. 1978'an.

"Erdalerrian. XVIII gizaldian bertan, A. Florez eta A. Risco irten ziran esaera oien kontra. Eta XX gizaldian, gu geurok ere, histori-kritika estuxeago baten argitan, asi gelan gauza oiek gauza geiegitzat baztartzen.

"Bañan orain berrogeiren bat urte, A. Villada jesuitak zenbait gauza ex.ajeratu berak ere gure antziñako kristautasunaren aurka esan zituanean XII-XIII gizaldi arte, noski, kristautu gabe bizi izan giñala-ta esanez–gure artean sortu zan reakzio berri bat. Gogoan det, nola, Repubiika-garaian, gerra-aurreko urte batean, Seminarioan, Saturraran' go oporraldnako eratu ziran itzaldi batzuek, A. Villada' ren tesisaren kontra. Itzaldi, ez gaizki eratuak, Don Jose Migel Barandiaran'en ardurapean; aren ardurapean, oraindik apaiz-gai ziran batzuek egin bait zituzten itzaldi aiek: Don Andres Mañarikua batek eta gure anai Martin'ek, eta Don Txomin Irigoyen'ek etab.

"Bafian, gero etorri zan gerrak – dilubioak, besteak esan zuaN bezala – c=auza (-Tuzti oiek Zearo itzalita utzi. zituan".

Iru-lau oarpen Zakarias Garcia buruzko solasaldi au amaitu aurretik:

- I936'ean, Españi'ko militarrak beren Jaurlaritzaren aurka gudaz jeiki ta bela, Madrid'ko anarkistek koldarki erail zuten Garcia Villada'k ez zuala, azken aldi ontan arkeologiak eman dizkigun eta oraindik gelditzeke damaizkigun argumentuen ezagupenik izan.

- Bigarrena: Alare, bere denboran aski jakiñak ziran xeetasunen araura, ez zitzaiola, edestizti edo istoriologiaren aIdetik, mintzatu zan bezain arinki mintzatzerik zillegi.

Irugarrena, naiz ura ain arinki mintzatu, arritzekoa dala idazle espafii.-zaleen artean izan duan arrakasta.

- Laugarrena, berak dagian bezala IX, X, XI, XII eta XIII mendez Euskalerriko mendi-lurrak jentil jarraitzen zutela uste izatea zillegi ez zaigun gauza dugula, bai bait ditugu gure lekaidetxeetan, VIII mendearen erdiko dokumentu bat: eta beste mende oietakoak pillaka; eta orrenbeste ta orrenbeste dokumentuetan ez bait da orrelakorik uste aal izateko zirriku txikienik ere aurkitzen. Alderantziz, dokumentu oiek, zearo kristauturik aurkezten digute gure Euskalerri au.

J. ORLANDIS, Españi'ko bisigotei-buruz idazki ugariren
Onek ere kristautasuna berandu iritxi zala Euskalerrira, uste izan du. VI mendean eta baita aski geroago ere "e y identemente" oraindik kristautu gabe aurkitzen omen zan gure Erria. "Ebidentzi" ori nondik sortzen zaion? Berez euskaldunak. atzerritik datorkien ororen etsaiak. dirala ta beti orrelakoak izan omen dirala uste izatetik.

Arrazoiketa motela, noski. Motelegia!. Azaldu bait dugu gaiNera "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"z eta "Zabaikuntza"z argira eman ditugun bi liburuetan, euskaldunak itxiak. ez baina zabalak izan dirala. Eta baita zabalegiak ere!

J. M. LAKARRA. Onek ere estuegi alkartzen ditu "erromartzea" eta "kristautzea". XI mendeaz gero ere, luzaro bizitu omen ziran alkarrekin kristauak eta jentillak gure Euskalerri ontan. Eta bakean bizitu ornen ziran gaiñera.

Ondo egiztaturik utzi genuan bere tokian, erromartzea eta kristautzea ez zirala toki guztietan bata bestearen besotik Alderantziz Erroma'ko Inperiotzarraren mugetatik at ere, ederki zabaldu zala kristautasuna: Asi' n, adibidez, Pertsi'raifio, eta Pertsi' z aruntz, iTxina'raifio!. Afrika'n, Abisini'raifio; eta Europa'n bertan Gotiarren artera eta Gotiarren bidez beste barbaritar batzuetaraifio.

Arkeologia aztertzerakoan aipatu bearko dugu zeiñen arrigarriki nago zabaldu zan Euskalerri'ko mendi-tarteetara Erroma'ren kultura, eta nola ez zan emen, askok uste duten bezain antzua gertatu.

Lakarra' ren uste osoa, uste utsa besterik ez da: berak ere, dokumenturik ez zezakean aurkeztu-ta, uste utsa bezala argiro eman zuana. Ta, Arkeologiak erakutsiko digu nola uste orrek ere beste uste askok bezala, erdia baiño geiago ustela duan.

Claudio SANCHEZ ALBORNOZ' ek "una zona de Euzkadi" IX eta X mendeetan oraindik osoro jentilla zala diosku. Zergaitik? Iru edestilari. arabitarrek, euskaldunen aurkako borrokak aipatzean Euzkadi'ko eskualde artan "maiyuak" bizi zirala idatzi omen zutelako.

"Maiyus" itzak – frantzeraz "Madjous" idatzi zuan Dozy'k. eta berdin Levi-Provenzal'ck "su-gurtzaille" esan nai omen du; "edo, berdin dana, sasijainko-gurtzaille": "adorateurs du c'est a dire, idolatres".

Edestilari Arabitar aiek, Euskalerrian sua gurtzen zuten jendeak bazirala esan nai omen zuten, eta orregaitik ainzuzen dio Klaudio Sa'nehez Albornoz españizale gartsuak, iru idazle arahitar aiek aipatzen dituzten urteetan, ots, 8 1 6' garren, 825' garren eta 975' garren urteetan "Auñamendian ipiñi omen daitekean *"una zona de Euzkadi"ko* jendeak oraindik jentillak zirala: "maiyus", "su-gurzaillek"98.

Auxe besterik ez diot esango On Klaudio jakintsuari:

Urte oietan, oraindik Aufiamendian euskaldun jentillak aurkitzea, arritzeko gauza ez litzakeala izango. Baiñan ori eskier esateko, idazle arabitarren aipua ez dala naiko arrazoia.

Bainan "maiyus" aien auzia sakontxeago jorratzen asi aurretik, nere aburuen etsaia dan beste idazte batez nai nuke mintzatu.

MARIA JESUS RUBIERA DE EPALZA: Irukoitza da, Andre onek, Gazteitz'en 1984'an ospatutako "Edesti-Azterketa-Batzarrean" aurkeztu zigun ustea99:

Araba antziña artan lurralde yarea izan zala. Bi edo iru aldiz esaten duan lez, "independiente".

- Araba'k, bere yaretasuna, Asturietalw IB Alfontso'ren erregetzan galdu zuala. Ori esateko, Errege orren losintxarako Sampiro gotzaiak idatzitako "Kronikoia" artzen du arrazoitzat.

---

98. SánchezAlbornoz'ek.bezda, Arabitarrek "maiyos" edo "maiehus" batzuk ikusi 011141 zituztelako uste du G. Martinez Diaz'ek ere, gure mendietako jenclea erdiaro garaiean oraindik jentilla zala: "Creo que (mayus aien arazoa) habria que relacionarlo con los vascas, todavia paganos, de las montañas guipuzcoanas o vizeaMas" (op. c. 127). Martinez Diaz onen iritziz, Tbn 1-Tayyan idazle arabnarraren "Yabal al Mayus" edo "Mayus-Mendia" Aizkorri edo Gorbeia izan omen daiteke.

99. "Alava y los Alaveses en los Textos Arabes medievales". La Formackin de Alava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga ( I 332-1982). Ponencias. Congreso de Estudios Hist&icos. Vitoria 1984.

- Arabarrak jentillak izan zirala III Alfontso ark menderatu zituan arte: "Los alaveses fueron paganos hasta su sometimiento por Alfonso III" (ib, 391 orr,). Ori, orren borobilki, oles-eg.i.teko oiñarri bakarra, Sanchez Albornoz'ena bera: Arabitarrek aipatu dituzten Maiyus aiek. Alabaiña, Sancbez Albornoz'ek *ez* zuan sekulan ain orokorki arabarrak garai artan jentillak ziranik. esan. Dakusgunez, ez zaio Maria Jesus andreari ausardirik peitzen.

Guk, ordea, onako au erantzungo diogu, eztiki, gure Maria Jesus orri:

Araba'ko askatasunari dagokionez.:

Baietz, Araba, III Alfontso'ren aurretik Laterri yarea izan zala, Maria Jesus berak aditzera eman digun bezala. Ori Sampiro'ren Kronikoiak berak ere aitortzen digula:

*"Adefonsus filius Domini Ordonii succesit in regno. Hir fuit vir undique partibus Jatis exercitatus. Irr ingresione regni annos gerens aetatis filIus quiden perditionis Veremundi, ex partibus Galaeciae venit ad inquietandum regnum sibi non debitum. Rex vero Adefonsus (111'ak) haec audiens secessit in partes Alavensium.*

Euskeraz: "Alfontso, Ordoño Jaunaren semeak, artu zuan erregetza. Gizon guduzalea, ta zori on eta txarretara oitua izan zan. Erregetzara igotzean, Froila Beremundo'ren seme madarikatua etorri zitzaion Galizi'tik, ez zegokion erregetza arrapatu naiean. Orduan (111) Alfontso erregea Araba'ko lurretara joan zan igesi"

Beraz, Maria Jesus, 1I1 Alfontso len II'a bezala bere erreifluan len II'ari. bezala – arazo larriak sortu zitzaizkionean, berea ez zan "erreiñu" batera, ots, atzerrira, iges egin zuan. Badamaigu Sampiro'k atzerri orren izena: Araba.

Aitorpen bera egingo digu III Alfontso'ren Araba'tik Asturietarako itzulpenaren berri ematerakoan: *"Ipse vero nefandus a Senatu Ovetensi ectus est. Haec audiens Rex ad propria remeavit"*: *"Froilan* gaiztoa Obeto (Obiedo)'ko Senatuak il zuan. Ori entzutean. Erregea "berera", "ad propria", itzuli zan".

"Ad propria" ori, ("ad propria remeavit"), norbait atzerritik aberrira itzuli zala adierazteko, aspaldiz gero tajuturik zegoan esaera zar bat zan, eta, Sanpiro'k ainzuzen ortarako erabilli zuana.

III Alfontso'ren ondorengo Araba'ri-buruz ere, Araba'k Laterri yare izanez jarraitu zuala esango dizugu, Maria Jesus; eta zuzen zabiltzala Alfontso'k Araba'rik artu ez ote zualako bildurra agertzen duzunean. Araba noizbait Asturietako errege bisigoten mendeko izan ote zan edo izan ez ote zan kezkatsu ibiltzekotan ere, soilki Araba"k.o Gobiaran'ez eta Bizkai'ko Enkarterriaz sortuko bait litzaiguke kezkaren bat.

Baiña gaurko Euzkadi'ren sarkalde-lerroko lur aiek iñoiz Asturietako errege bisigoten menpeko izan ziran edo ez, – eta izan ba'ziran ere zenbateraiñoko astiz izan ote ziran – ziurki jakiterik ez dugu.

Ezezkoaren aldekoa izan naiz ni beti. Eta, ikus, zergaitik:

Baiezkoaren aldeko arrazoiak, soilki, bi auek diralako: Sebastian gotzai errege-goxatu-zalearen "Kronikoia". Eta IX mendearen asieran Asturietako 11 Alfontso'k Araba'ko Gobiaren'en Yon gotzaIari Composita" (BaipuestaYko elizbarrutia sortzen lagundu izatea.

Araba'n ordea 111 Alfontso, Muña bere amaren aldetik bertako semea zan: euskotarra eta baita euskalduna ere seguruaski, eta Asturietatik iraultza baten ondorioz jaurtia izan zanean, Araba'n amaren aideen artean luzaro bizitua.

Ez da beraz arritzekoa Asturietako Erregetza birr-artu ondorean ere, Araba'ko txoko artara itzuli izatea. Amaren aldetik bere aberria bait zuan lurralde ura; eta, an, bere erreifiutik iges etorri zanean, maiteki izan bait zan aiton-amon, osaba-izeba, gaiñerako aide oro, eta errikide danen aIdeti k artua; eta Araba'ren askatasun osoari eskerrak bizi izan bait zan an, ain ziurki ta yareki, Asturietako bere etsaien aldetiko arriskurik gabe!

Ez. Ez zaio, beraz, Alfontso Balpuesta'ko Gotzaigoa sortzerakoan Araba' ri askatasuna kentzera itzuli zala uste izaterik

Ez da gaiñera, uste ori ontzat artzeko, kirtenik eman dezaigukean dokumenturik.

Badaiteke gaiñera, zentzuzkoa izango litzake-ta, ainzuzen II Alfontso une artan, elizbarruti berri baten sorkuntza bezain gertakizun aundi baterako, bere aideek eta berak "maixn" esaten zion Yon gotzaiak deiturik Gobiaran'era etorri izatea.

Eta badaiteke, baitare, berak elizbarruti berriari eskeiñi zizkion lurretatik batzuen-batzuk amaren aldetik bereak zituan lurrak izatea.

Eta ala. ez ba'ziran ere, eta naiz bera Gobiaran' go errege izan ez, bazuan Alfontso :Mufia'ren semeak une artan an egoteko arrazoi mardul galantik. Berak, eta baita bere errikide ziran Gobiarandarrek ere. Onako au, ainzuzen: An gertatzera z.ijoan eginkizun aundiari zor zitzaion aipua era egokian ematea.

Elizbarruti berri aren sorkuntzarakoan, Errege bat orduan an egoteak (oroi artean ez zala oraindik Euskalerrian erregerik) al zion alako gertakizun garrantzitsu ari dizdira eder bikain bereizi bat ematen? Batez ere Errege ura Iurralde artako erdi-semea ba'zan?

Ta, abere etorrera orren bidez omenketa ori amaren aldetiko aiton-amonei, gaiñeko aideei, eta bere erdi-erritar guztiei ez al zegoan Errege ura bearturik?

II Alfontso'ren etorrera, beraz, ez da Araba Asturitarren mendean zegoala esateko kixazko argumentua.

Errege Bisigotak, – eta Errege Bisigotak, ;"Reges Gothorum"! izan ziran odolez eta gogoz Asturietako erregeak beren probintzi eta lurraldeen jaurketarako ta eskiertasunerako, konteak izendatzea zuten eginkizunik. garrantzitsuena. Gaifiera, ofl zuten ainzuzen beren erregetzaren adigaillurik sendoena. B, Asturietako errege bisigotek *ez* zuten sekulan Araba'rako konterik izendatu. Ezta bat bakarrik ere!

Asturietako kronikalarick ez zuten, beiNere, Euskalerriaren barruan gertatzen zanaren jakintz-apurrik izan.

Gaiñera "hoc *tempore populantur Sopuerta to Karrana"* ori, ederki izan daiteke kronikoi. zar aren orrietara geroago sartua; naiz kronikoi osoa latiñez idatzia izan, SOPUERTA ez bait da latiñezko itza, "SO" latiñezko aurrizkia eta "PUERTA" latiñezko itza ez diran bezala. Subporta bear zuan latifiez. Sopuerta, erromantzea da. Baiñan XI mendearen lenen erdian, Sampiro'ren garaiean, oraindik erromantzerik ez zan; eta askoz gutxiago IX'an eta X'can, Sebastian bizitu zanean, edo lenen erdian, I Alfontso'k Sopueta ta Karrantza "jendetu" omen zituan artan.

Izatez, bai "SO" aurrizkia eta bai "PUERTA" itza. XI I eta X.V mendeen artean izan ziran erromantzera sartuak. Aurreneko aldiz XII mendearen erdiko "Mio Cid" poeman ela XIII mendeko Gontzalo Bertzeo tarraren olerkientan egertzen zaizkigu, .Martin A.Ionso'k bere "Diccionario

Medieval Espailoren li liburuko 1529' garren orian dioskunez. Aburu berekoa da Corominas ere, bere Iztegian.

Pozik azalduko dut emen, Maria Jesus berak ere izan zuala "Kronikoi" orren egiztasun osoari-buruz alako kezkatxo pittin bat. Auxe da ba III Alfontso'k arabarren lepotik lortutako garaitzaz idatzi ziguna:

*"La victoria de Alfonso III sobre los alaveses debtO tener muchos puntos oseures ya que el parralO de Icr crOnica de Sampiro en que .se habla de lcr su7aisi6n de los alaveses por Alfonso 111 estd copiado literalmente de Sena Isidoro cuando relata del rey vistgodo Suintila sobre los vascones, como In han demostrado los profesores Barbero y Vigil".* ("Sobre Ios origenes de la Reconquista" liburuan)100.

*"Hemos visto que en el pacto entre los nutsulmanes del caudillo Badr los alaveses no figura ningthi tipo de clero y de hecho no aparece un obispo de Alaba hasta el t'dtimo cuarto del siglo IX. Las inentes arabes nos van a confirmar que los alaveses no eran cristianos hasta esa epoca"* (ib.388).

Maria Jesus: Musulmanen eta arabatarren arteko itun ura egiazkoa ba'litz ere, alako itun ura burutzeko musulmanen aurrera apaizek zertaz agerturik ez zuten;

IX mendera arte arabarrek gotzairik ez izateak ez du arabarrak IX mendera arte jentillak ziranik esan nai. Aurrena kristaudia izaten bait da, "komunitatea", eta gero gotzaia. Komunitate batentzat izendatzen bait da gotzaia. Ez da, beraz, aurrena gotzaia ta gero komunitatea izaten, alderantziz baizik. Eta, orregaitik ainzuzen, IX menderal«) arabarrak komunitate kristau sendo bat osatzen zutelako sortu zan ArmentPko zai tza.

---

100. Antziñateko urteen sarean irakurlea .?aldu ez dedin Asturietako Alfotso erregeei-buruz, onako au oroiterazi nai make: I All'ontso, españiarrernzat "El euskaldunen etsaia, VIII mende-koa izan zala (739-756): Il Alfontso "El Casto", Muña euskaldunaren semea.. VIII mendearen azkena ta IX'aren asierakoa (791-846), eta 111 Alfontso "El Grande", euskal-dunen etsaia au ere, IX mendearen bigarren erdikoa ta X'aren asierakoa (866-910). Esan dezagun Muña Baskoiaren semea goretsiz, gudalburu trebea izan zala, kristau zintzoa., politikari esnea, ela adimen zabaleko errege yakintza-zalea: "Veneiô repetklas veces a los arabes, y tomo a Lisboa en 797. Fundõ el Santuario de Compostela en el mismo sitio en que fue hallado el cuerpo del apOstol Santiago. Se mos[r6 habil politica aliandose con Car[omagr10. Fuelm gran r,, CellaS protector de los trovad0res provenzales y aialanes. fue trovador (12amCin Sopena, " zteg a"an).

Eta, leenago, baita beste gotzai bat ere, mendean bertan: Bere egoitza non izan zuan ez dakigun Abere "Araba' ko Gotzaia". Gotzai onen izena, Kukulla'ko Donemillan'en lekaidetxean 87 1 'garren urteko larruki batek (Jamaig,u.

Eta, azkenik, au jakiñarazi nai nioke erarik goxoenean gure Maria Jesus'i: Kronikoi zarrek ez ezê, idazle españizaleek ere Euskalerriaz ari. diranean ez dutela uste on beterik merezi.

Orregaitik, Maria Jesus, zuk zerorrek, 1Il Alfontso'k Araba garaitu eta Eylon "arabarren kontea zirudiana" – "gui videbatur comes eorum – katez loturik Oveto (Obiedo)'ra eraman zuala Sampiro'k esaten duala gogoratueraziz gero, ain txit ederki idatzi diguzu:

*"El videbatur de la crOnica nos indica que Eylon no era un conde como los que conodan los A.stures".* Ots: Asturitarrek Euskalerriaren barren-politikaz ez zutela usmorik. ere!

A1 ta. I11 Alfontso'ren garaitza ari-buruzko atal guzti artan iesaldi ori, "kontea zirudian Eylon'i-buruzko esaldi ori, omen da Sampiro'k berak bere arioz sortutako esaldi bakarra: parrafo "Sebilla'ko Isidoro'ri lapurtua omen da ba gaiñerako guzia", guk ere laister ikusiko dugun lez.

Ona, Maria Jesus, gertakizun ura Sampiro'ren izkietan: "Nuntius ex Alavis *en quod intunnterant corda eortun contra Regem. Rex vem haee audiens, illuc ire clisposuit. Terrore culventus eius compulsi sunt, et subito iura debita cognoseentes supplices colla el submiserunt, pollicentes se regno, et ditioni eius fideles existere, cnt quod imperaretur efficere. Sieque Alavam optentam proprio imperio subjugavit. Eylonem Pero, qui comes illortun videbatut: fierro vinctum sectun Ovetum atraxit."*

Euskeraz: "Araba'tik, gure kuskuslari bat etorri zan. arabarrak Erregearen aurkako asrnoetan ;ebiltzala esanez. Ara joatea erabaki zuan onek. Ura bazetorrela jakitean, arabarrak ikaraz dardarka; bat batean ("subito") oartu ziran erregeari zor ziotenaz; ta aren aurrean lepoak makurturik, itz eman zuten erregeari ta erreifivari leialak eta agindu oro betezaleak izango zirala. Aiek orrela menderatuz gero bere agintepera sartu zuan Araba".

Ori, Maria Jesus, .komeri ori, zuk zerorrek ez duzu sinisten! Ezta Sampiro errege losintxazaleak ber-berak erea

Bizkai'ko Enkarterriari dagokionez, auxe besterik ez diot esango Maria Jesus'

Gure Enkarterrieta Asturietako zati izan zala uste izateko, berriro, dokumentu bakarra, Sebastian'en "Kronikoia" dugula. An aipatzen dira ba enkart-erri bi, VIII mendeko 1 Alfontso errege asturiarrari loturik: Sopuerta ta Karrantza.mi

"Kronikoiak", ordea, ez duala, bi erri oiek I Affontso'k irasi zituanik esaten. Soilki errege aren garaien iratsiak izan zirala, esaten bait du; iratsiak, ainzuzen 743' aren inguruan izan zirala: "hoc tempore populantur Sopuerta et Carranza".

"Populantur" orrek VIII mende artan zer esan nai zuan ziur ez dakigula. Ederki esan zezakeala, agian, leendik bazan erri bati "legezko nortasun bat" ematea, – eta, askotan, itxuraz, ori dala, ainzuzen, esan nai duana. Gauza bera uste izan daitekeala "conditur" itzaz ere.

Berez, "populare" "erritarren ornitzea" da, ots, "erri bat jendez betetzea". "Kronikoiak" ordea, ez diosku Karrantza ta Sopuerta biztanlez betetze ori I Alfontso'k egiña izan zanik. Soilki, aren denboran izan zirala "biztanletuak". I Alfontso'ren eragiñez? Ori dala dirudi Sampiro'k berreun urte geroago adierazi nai izan zuana. Berandutxo idazle errege-zuritzaille ari usteon borobillarik emateko.

Len ere esan diodan bezala, dokumentu zar aiek ez dutela sinisgarritasun geiegirik merezi, birresango diot Maria Jesus'i: Asieratik errege bati atsegin emateko idatziak. izan izateaz Gaiñera, geroago ere, beste errege batzuei begiak gozatzeko, bein bairio geiagotan aldatuak izan diralako.102.

---

101. Sehastian'en eta Sampiw'ren Kronikoiak biak batera eman daitezke, onen lana, aren "Chroniea'ren jarraipena izan bait zan. Au, Sampiro, II Bermudo'ren baratari edo notarioa aurrena eta gero Astorga'ko Gotzaia, 1041'ean il zan. Ura. Sehastian, 990'tik laister il zan, Salarnanka'ko gotzaia izan zan, eta IlI Alfontso'ren lagun eta adiskide aundia. Orregaitik, badugu Sebastian'en Kronikoia errege onek idatzi zuala uste duanik ere. Egokiagoa dirudi erregearen aginduz, idazlea gotzaia izan zala uste izatea. Sebastian'ek X mendearen azken laurdenean idatzi zuan bere "Chronica", III Alfontso gaztea zala.

1e2. "Sopuerta ta Karrantza 1 Alfonso errege hisigot Asturiarrak arrapatu orren zitualako, ekintza orrek gure alderdi aietako euskaldunen kristauketan eragiñ aundia izan zuidaren ustekoa da J.A. Garcia Cortazar COrganizaci(m territorio AlaVa" op.e. 151). Baiña bere uste ori ezertan oiñarritu gabe.

Gure mendeotako idazleak ere askotan izaten dira. arinegiak eta ausar-
di Adibidez Sanchez Abornoz bera:

Ala adibidez Claudio S.Inehez Albomoz berak, arabitarrek gure mendietan ikusi omen zituzten "Maiyus" aietaz mintzatzerakoan. Au da ba, gai ortaz Sanchez Albornoz'ek idatzitakoari-buruz "Encyclopdie de rislam" iztegi frantziarraren iritzia: "Trovail tres *discutable et aux conclusions foru fragdes de historien espagnol non arabiscun Cl. Sanches Albornoz".* Euskeraz: "Arabiar-gaietan jakitun ez dan Claudio Sancbez Albornoz edestilari espailiarraren lan ori, oso bada-ez-badazkoa izateaz gainera, anitz. abum aulegiez betea ere bada"103.

Alare, Claudio SLInchez Albornoz'en bidetik ibilli dan G..MARTNEZ DIÍEZ'en ustez, "Madchns" (sie) aiek Bizkai ta Gipuzkoa'ko euskaldunak izan omen daitezke. Berak dion bezala: *"cabrIa relacionarlos con los vascos, todavia paganos, de Guipuzcoa* v *Vizcaya".*

Alberto CAÑADA FUSTE ere (op.c.:1,141.) Sanehez Albornoz'en miresle dalako, "Maiyus"en oroitza egiterakoan, euskaldunen kristautasuna atzeratu naiez agertzen zaigu. Ona bere itzak: *"Conociendo el sentido que los escritores arabe.s dan a lcr palabra maiyus, podemos afirmar que se estan refiriendo* (825'eko gudaz mintzatzerakoan) a *unas gente.ʸ no cristianas, quiza residentes en montatias situadas muy al interior de Alava (la Galia Comata) y que hacen pensar en lo tardio de la total evangelizaci6n del Prais Vasco. Concluye el relato de Ibn Hayyan con la afirmaci6n de que lca compafia se conoci6 en lo sucesivo con el nombre de expedicic5n de victoria (Gazwat al-Fath)".*

Begi-eman dezaiogun, orain, euskaldunak omen ziran "Maiyus" suGurtzaille aien auziari:

---

1{.)3 Yakintza-lan bikaiña. ta mardula, 1960'-ean Olandalo Leydc'n argitaratzen asita 8 liburu atera dituana baiña oraindik N izkian dabillen iztegi aundia. Ain gogorki epaitua izan dan Sanehez Albornoz'en edesti-lanak izenburu au darama; "Akbar Maymuas. Cuestiones Históricas que Suscita".

"Maiyus" aiei-buruzko albistea idazle arabitarrengandik jasoa dute aipatu ditugun idazle egunotako oiek. Eta gero, albiste ori erabilli dute Euskaldunak IX eta X mendeetan oraindik jentillak zirala uste izateko

So dezaiegun ba auen iturri izandako beste idazle arabitar aiei:

Onako auek dira, aspaldi artan Euskalerriaz mintzatu ziran idazle arabitarrik garrantzitsuenak:

- Arib lbn Sad. Andaluziarra. X mendekoa.

- Ibn Hayyan. Kordobatarra. XI mendekoa. *"Indiscutablement le plus grand hishyrien de tout Ie moyen dge hispanique tant de cdte musulman que du cdte chrMen"* (Encyclopedie de I'islam): "Ezpairil gabe Españi'ko erdi.aroan, bai musulmanen artean eta bai kristauen artean ere, edestilari.rik aundiena". 1.076'ean il zan. Bere lanik garrantzitsuena, "Muktabis", galdua. Ale bat, bere eskuetan izan omen zuan Levi-ProveNarek 1950'ean. iBai ote?

- Ibn Al-Athir, 1234'ean il zana. Mosul'en jaioa. "Kamil" izeneko bere liburua, "the last among tbe major general histories" omen da, ots, arabieraz idatzitako edesti-liburu aundietan azkenekoa" (Enc. Brit. 11, 538).

- Ibn Adari cdolIbn Adhari edo lbn Idari. Marrokiarra XIII mendearen azken-aldil«m.

- AI Nuwayri, Al-Nuwairi, edo E1-Nuwairi. 1332'an il zan. "Fuente de historia" omen da, B. Estornes Lasa'k bere iztegian dionez. "EncycloOdie de l'Islam"ck (I, 614, a) dioskunez, edestiaz, lutelesti edo geografiaz eta izadiztiaz, ots, "histoire naturclle"z, idatzi omen zuan. Bere edesti-lanetan 1bn Al-Atir'en jarraillea omen da.

Albar Maymua edo Akbar Madgmua. X mendeaz geroko edestilaria. Españi'ko islatudarren edestia – Tarif'ck, bere onenez Tarifa esango zitzaion arkaitzpean oiNak ipiñi zituanetik IiI Abdcrraman'en erregetza arte – idatzi zuana.

---

(104. "Liburu onen 60 torno guztiak galduak di.-ra": "Tous Ies 60 volumes sont perdus. Son grand admIrateur ibm Bassam nous an a conservC des passages si nombreux et si erendus (...)que il devient possible de reconstItuer une grande pertie du texte perdu": "Aren miresle izandako lbm Bassam'ek aipu ugari ta luzeak — gorde zizkigulako, galdutako liburuaren zati aundi bat birreratzeko gai aurkitzen gera" (Enei, de l'Islam, 812.). Ibn Bassam'en "Dhakhira" izeneko Iiburuaren ale bat Izango zan seguruaskI Levi-Provenzal'ek eskuetan euki zuana.

- Abd-al-Rabman ibn Jaidun, edo Ibn Khaldum. Tuniziarra XIV mendekoa.

Al-Maqyari edo al-Majgari, A frikarra,"the last great historiari": "arabierazko azken edestilari. aundia" (Ene.Brit). XVII mendekoa. Bere. edestia Islamdarrek Españi artu zutenik Granada galdu zuten arte doa.

Jatif al-Udri, eta aI-Aggari, anaiak. Batek esana, sarritan beste biek, edo beste oietako batek, birresan oi zuten anaiak. Ez omen dira garrantzi aundiegikoak.

- Eta egillearen izenik gabeko beste bi idazki: "III Abderraman'en Krontka" eta "Kalifen Jauregiko Annales edo Urtetik Urterokoa".

Iker dezagun, al dugun zintzoen, "Maiyus" miresgarri aien arazoa. i Zer ote da, ain iraulia ta birriraulia izan dan albiste orren barruan egia?

- Esanik geldi bedi beste ororen aurretik, ALDIZ bakarrik aipatzen dala "maiyus" itza, euskaldunak izan omen zitezkean jendeet erantsia: 816'ko guduan, eta 825'ekoan. 975'an egindako aipua lengoen birresaketa utsa besterik ez bait da.

- Euskaldunak izan omen zitezkean jendeei "Maiyus" su gurtzaille esanez aurrena idatzi zuana, Ibn Hayyan izan zan, "erdiaro osoko edestilari españiar guztien artean aundiena".

Ibn Al-Athir'ek ere mintzatu zan borroka artan. Aipatzen ditu Ibn Hayyan'en jende aiek berak, baiñan "maiyus" zirala esan gabe.

.Beraz, ondorean, euskaldunak izan omen zitezkean "Maiyus" aiei-buruz zerbait idatzi duten guztiek, Ibn Hayyan izan dute albiste-iturri bakarra.

- Au da Ibn Hayyan'ek emengo "Maiyus"ei egindako lenen aipua, Bernardo Estornes Lasa'ren Ene. ilus. del Pafs Vaseo'ko "Alava" itzean (372 orrian} ikusi dezakegunez: (Maku-artekoa, nerea izango da)105:

*"Campafia contra Belasko. Connenza su cr6nica Ibn Huy van. diciendo que el año 816 Ine la campaña de Abd Al-Wahid Ibn Mugit* (lbn Mugik)

I()5 EstorneS Lasa'k Uvi ProvenÇal isparnsta ospelsuari darraikio ("Histoire de l'Espagne Musulmane" I. 175-178), baiñan ez itzez-itz. Adibidez, bi gudaldi, 803'koa eta M6koa batean damaizkigu. Pittinkeri auek ordea ez dute liburu ontarako garrantzi aundiegirik.

*contra el enemigo de Dios Belask (Belasko ezpairik gabe) Al Yoloski* (Balaski, agian) *sefior de Pomplono. La batalla tienen lugar en Oron, cerca de Miranda de Ebro o orilla del Oroncillo que seda el rio Arun de que habla Icr Cr6nica Nojerense. Derrotodos* (Kristauak), se *habrian retirodo a un desffiadero, proboblemente el de Pancorbo donde se hallaban las fueros de Alfonso 11 el Casto* (Muña euskaldunaren semea). *Uno vezcrllŕ se defendieron, como dice 1bn flayyan, tras de dos abruptos v barraneos, obstruyendo sus occesos con maderos v troneos que los musulmones no pudieron franquear Lo crOnica citada 110S do la noticia de que la batalla duró tres dias v que murieron nutchos, entre ellos Garsia Ibn Lubb* (Luppo seguruaski; euskeraz, Otso) *hijo de la hermano de Bermudo tŕo materno de Idfrrs* (Ildefonsus. Beraz, Alfontso'ren lengusua)„Sancho *el mejor caballero de Pamplona,- v Solum el mejor cabollem de los Mochus* (sic). *Pero Ibn Adhari ofiade que 'aporecieron cristianos por todas partes v se aproximaron los muchedumbres v gue ocomparon ala orilla del rio Aran. Dio lo vuelta vencedor Abd Al-Karin el* dut 7 *de* Tiene las trazas de haber surrido una derrota".

Bai, noski. *"los musulmanes no pudieron Iranquear"* ura gogora ba'dakarkigu.

Baiñan ez da ori emen ajola zaiguna. Maiyus'en arazo-barruan argiegiten astea baizik. Eta arazo orri-buruz, au besterik ez da, aurrera jarraitu aurretik esan dezakeguna: itxuraz beintzat, "Maiyusak" eta Euskaldunak jende-mota ezberdifiak zirala, edestilariak bi jende-mota oietako zaldun illik bikaifienak ain argi bcreiztean. bi jende mota aiek beraiek ere ederki bereizten bait ditu.

Asieratik ori jakin aal izatea, ez da noski gutxi. Baiñan jo dezagun aurrera:

Ta, baitare, jarrai dezagun oraindik Estornes Lasa'ren entzule, Ibn Hayyan'en "Maiyus"ci-buruzko bigarren aiputaz jabetu gaitezen:

*"825: Ataque tnusulmon a Alabo, dirigido por Uboyd Dice Ibn Ilayvan que Ilegaron al pie de uno montafia llamada Chabol-ol-Machus, montafia de los adoradores del fuego donde tuvo lugar un violenthimo convote que (irob6 con Cca derrota de los cristianos"* (1.e.372 or.).

825'ko gudu artaz ari dalarik, ona zer idatzi zuan Ibn-Al-Athir edestilari aundiak., Estornes'en itzulpenean: "Abdelonsus *reunta la gente de su*

*paÍs y pedfa auxilio al Señor de los Baxkonex v a las gentes de aquellas tierraS' que le eran veelnas".*

Kezka aundirik gabe sinistu dezakegu, Ibn-Al-Athir'en *"aquellas gentes que le eran vecinas"* oiek Ibn-Hayyan' ek aipatu dizkigun "Maiyus" aiek zirala. Baiñan noren "veeinas" ote ziran? Baskoien Jaunarenak? AIa Alfontso erregearenak? Itxuraz azkeneko onenak.

Guretzat ajolarik gabeko arazoa, jende aiek aren edo onen auzokoak izan, zerbait izatekotan *argi agertzen bait da, esaldi ortan,"Maiyusak " eta Euskaldunak jende ezberdiñak*

- Non ote zegoan "Maiyus" aien lurraldea? ? Nere ustez Pisuerga ibaiaren goi-ibarrean. An nonbait; Gaztela'ren lenen uri-buru izan zan Amaya uriskaren inguruan: "Harto era Castilla pequeño rineOn - cuando Amaya era cabeza e Hitero eI moj6n."

(, Nere uste orren oiñarria? Ibn Al-Adhari'k esan digunez, jende aiek Alfontso'ren auzokoak izatea. Egia esan, *"las gentes de c.iquellas tierras"* Asturitarren eta Baskoien auzoko ziran era berdiñean, Amaya' ren lurraldea bien artean aurkitzen dan ezkero. Baiñan beti ere, Ibn Al-Adharif ren aapaldi orren araura, bi erri ez berdin ziran Euskaldunak eta auen auzoko izan zitezkean "Maiyuak"

Ez ziran beintzat "Maiyus" gurtzailleak – ikusi dugun lez – Araba'ren iparraldeko mendietan bizi, batzuek nai izan duten bezala. Ezta Autiamendi'ren basoetan ere. Baskoiak ziran ba mendi ta lurralde oiek danak, eta ikusi bait dugu Baskoiak eta "Maiyuak" enda ezberdifieko jendeak zirala.

- "Maiyus" aiek euskaldunak izan ba'ziran, esanera zuan ori Ib Hayyan'ek, eta esango zuten aren ondorengo edestilariek ere Euskaldunen aurka guda-egiteko arrazoirik sendoena ematen bait zien Kordoba'ko agintariei euskaldunak jentil su-gurtzailleak zirala esatearekin. Jakiña da ba musulmanek, ots, "Ala'ren serbitzariek" jentilkeriari dioten gorroto beroa; jakiña da jentillen aurkako gudua Gudu Donea clutela; eta jakiña da baitare, Ala'ren Agintaritza munduan zabaltzeko, jentillen aurkako Gudu Done ori egitea dala egin dezaketen gauzarik donetsuena.

Berdin Asturietako kronika-idazleek, beren erregeek. euskaldunen aurka izan zituzten borroka zitalen berri ematerakoan. Ez aztu, Asturietako erregeak, batez ere lenen erregeak – Bisigotak zirala; odolez eta izpirituz,

buruz eta biotzez. "Reconquista" esan oi zaion gudate artan beren elburu nagusia ez zala erlijiozkoa izan, politikazkoa baizik: Bisigoten Erreiñu zarra bere osotasun betean BERBIZTEA!!!, ortarako Erreiñu aren etsai guztiak porrokatuz. Orregaitik ez zetorkien gaizki euskaldunak sugurtzailleak zirala esatea.

Eta, eztare ez aztu orain Arabitarrak Erreifin aren etsai billakatu ba'ziran ere, askoz etsai zaarragoak eta gorrotagarrtagoak zirala Asturietako Errege Bisigotentzat betiko euskaldun menderakaitz aiek. Orregaitik, naitanaiez, borrokaldi asko izan bide zan Autrigoitarren lurretan Asturietako errege Bisigoten eta Euskaldunen artean. Egia kronikalari bisigot asturitarrek ez dituztela aipatzen, geienak beintzat. BaiNan beren Errege maite aientzat aintzagarriegiak gertu ez ziralako, seguruaski.

Ezta, gaiñera, aztutzekoa, Asturietako Errege Bisigotek, beraiek benetako kristauak izanik – beren gudate politikoi artarako laguntzarik aundiena Elizarena izan zutela, ots, Gotzaiena, Errege aiek bezala kristau zintzoak izanik, bisigotiar stusuak ere baziran Gotzaiena.

Ori da milla aldiz aipatu ta gotaipatutako "Reconquista" aren egiazko ikuspegia: Elburu nagusia: Ispanietako lurrak oro Erreiñu Bisigot Berpiztuaren altzora biltzea: Orren ondoriorik garrantzitsuena, Kristautasuna Erreiñu aren Erlijio Bakar Berripintzea, ortarako arabitarren islamkeria ta Eeuskaldunen jentilkeria (i !) erabat ezereztuta.

Baiñan gotzai asturitar kronikalari bisigot aiek ez dizute beiñere esango Euskaldunak jentillak ziranik. Ez dizute esaten "su-gurtzailleak" ziranik ere.

Ala izan gotzai aiek beren Erregea ta Erreiñu Bisigota zenbaiteraiño maite zituzten badaktzu-ta, Errege ta Erreiñu aien gudagintza zuritzeko, euskaldunen jentiltasun ori oiuka.tu gabe geldit uko zirala, ,uste al duzu?

Aregeiago: garai artako oldozkeraren araura. Jainkoaren izenean egiten zan gudua, gudu santua zan, Erreifiu Kristau batek egin zezakean gauzarik sagaratuena: mundua sasijainkoen menpetik yaretuta Egiazko Jainko Bakarraren esanera jartzea. Errege Kristau batek ez zezakean deus ederragorik egin. hudimenaren begiez so-egiezu orain, irakurle, beren Kronika idazten ari diran gotzai aietako edozeifii: Euskaldunak jentillak izan ba'lira, euskaldunak "su-gurtzailleak" izan ba'lira, ori esanez, ain osoki. maite

zaituzten Erregeen eta Bisigoten Erreiñuaren aintza zeruetara jaso zezaketela ikusi ondorean, ori esateke, gelditu zitezkeala uste al duzu? Nik beintzat ez!

Itzuli gaitezen arabitarrek emen nonbait ikusi omen zituzten Maiyus'en auzira.

Agian, norbaitek, nik orain arte Maiyus'et-buruz azaldutako guztia nere uste utsa besterik ez dala esan dezake, ots, "Maiyus" aiek euskaldunak izateak Euskalerriko lenen kristautasunarentzat arazo larria gerta daitekealako, nik asmatutako uste utsa dala, naiz nik, nere uste ongi arrazoiturik agertu. Galde au egingo diot ori esan clezakeanari:

Azkenean, "suteen inguruan" ikusitako aiek Euskaldunak zirala agertuko

"Su-piztaille" izatea gauza bat bait da; beste bat, ordea, "su-gurtzaille" izatea.

Dirudianez, errez biurtzen bait zuten maometarrek "gurtzaille" "supiztaille" ikusten zuten oro.

"Maiyus" itzez, aurrena, Pertsi'ko Zoroastrotarrak izendatu zituzten. Egia da, Zoroastrotarrak su-gurtzaille zirala; obeki esanez, eguzkiaren irudi zitzaien suaren bitartez eguzki-gurtzailleak zirala, eta, ziurki, jentillak zirala. Geroago, ordea, izen ori bera ezarri zieten "Nor-mans" edo "Ipar-Gizonei", ots, "Bikingoei": Su-Gurtzailleak; Maiyus.

Izugarriki ausartak izan ziran goi-erdiaroan Eskandinabi'tik txalupa luze arifietan, aizeari lagunduz arraunlari, ia urtero borrokalari etorri oi ziran "Iparkume" gogor aiek. Izugarriak izan ziran Lurrat'itxasora sartuta itxaso orren ertzetan musulmanei eta bizantziotar beraiei egin oi zizkieten kalteak. Aundiak„ Andaluzi˙ko lurretan egindakoak ere. Ez txikiagoak Asturietako Erreifiu Bisigotari, batez ere Galizi'n egindakoak. Bada "SaIve Regina" otoitza an sortu zala, eta ainzuzen, Iparkumeenganako bildurrak eraginda, orduan sortu zala esaten duanik.

Mai yus izan zan Andaluzi.' ko musulmanek gaizkille aiei ipiñi zieten izena.

BaiNa Euskaldunoi ere maiz eraso ziguten itxaslapur kementsu aiek. Itxasoz, jakina, baiñan bein beintzat, baita egoaldetik ibaiez ere.

Gutxi gora beera 859'garren urtea: 1 Gartzia Enekorena zan Irufia'n errege. Taffilla'tik beera, musulmanena zan lbero ibaiaren aran zabal osoa. Iparseme aiek, Ispani'ren sortaldeko itxasaldea ondatuz gero, beren txalupa ariñetan arraunka, ibero ibaian gora aurrena eta Arga ibaiaz gora ondorean, iruña'ren al.bora iritxi zitzaizkigun.

Entzun orain Ibn Hayyan edestilariari, Estornes Lasa'k bere Iztegian damaigun gaztelerazko itzulpenean: Aurrena, Iparkumeek bi zati egia omen zuten beren ontzidia, txaiupa batzuk Ugarte Balearetara bidaltzeko, eta, *luego, los restantes barcos de los Mayus siguieron subiendo hasta VaraF al ple de Pamplona e hicieron algaras contra los BASKUNIS, mataron a muncho.s e hicieron pri,s ionero a su .Rey Garsiya ibn Wannaco (ibn Wannaco ori Enneko'rena da). El re,sfate .se jijo en 70.000 piezas de oro. Por diferir,y e el pago de parte, quedaron en rehenes sus hijos O sol-taron,*

Gertakizun orren berri bai omen dakarre Al-Kutiya'k eta al Idris'ck ere. I3a irufialdean bertan Erregea baitu ziguten Iparseme aiei ere Maiyus dasaiete edestilari oiek.

Iparkume aiek germaniarrak ziran, ots Ariarrak. Europa'ra agertu ziranean ariar aiek, Pertsi'ko Zoroastrotarrek bezala, Eguzkia zuten Jainko. i,Gordetzen ote zuten oraindik aien seme ziran Iparkumeek jainkoaren irudi lez sua piztu ta sua gurtzeko oitura zaarra? Bai. beintzat, dirudianez, urtean. bein "solstizio" edo ekaiñez. Gorde bait dugu euskaldunok ere Ariar zarretatik datorkigun, naiz gaur kristauturik Yondonianarren ornenez ekaiñ-gau oro sua piztutzeko oitura.

Ekaifiez landa ere, ,lainkoa gurtzen zuten guztietan ere, Ipartar aiek ,sua piztutzen ote zuten? Baleike.

Eta ote da su aiek piztutzen maiz ikusiak izan ziralako irabazi zutela andaluziar inusulmanengandik Maiyus izengoiti pinpiriña? Baleike, baiñan ez dugu ori ziurtatu lezaigukean dokumentu bakar bat ere.

Alataguztiz, ote da Asturietako H Alfontso erdieuskaldunaren gudariekin eta Araba-aldeko euskaldunekin alkarturik, Musulmanek ikusi omen zituzten Maiyus aiek lparreko Gizon basati aiek zirala? Ez. Ori, ezin egia izan daiteke. Lendabizi ori gertatutzat artzeko, are geiago, ori gertatu zitekeala uste utserako ere, arrazoi-apurfio txikienik ere ez dugulako, eta, gaiñera, euskaldunen eta ipartar aien artean, gudan ezpataz alkar iltzeko beearrezkoa dan "alkartasuna" besterik sekulan izan ez zalako.

Ta, beste ororen gaindik, ote da, iñork, gudate artan, maiyus'ik ikusi zuanik?

Bai, noski. Baietz dioten edestilari arabitarrak eraspenik aundienaz artu bearrak dira. Batez ere Ibn Elayyan eta Al-Adhari, eta bi auen artean bereiziki Ibn Hayyan, ain edestilari bikaiña izan zalako: "en *soixante volumes"* idatzi zuan edestia *ouvrage le plus importcmt de toute l'historiographie musulnume de Peninsule",* ots, "Erdiugarteko edesti-idazkidi musulmaneko lanik ederrenaren" egillea omen dugu 131 bera.

Baiñan Ibn Hayyan XT mendeko idazlea da. 988'an jaio zan Kordoba'n, eta I076'ean zan. Ez zan beraz borrokaIdi aren lekuko izan. Eztare, ez zituan borroka artako berriak an borrokalari izan ziranen ezpaiñetatik entzun. Bestek idatzitakotik, edo agoz-agoko iturrietatik jaso zituan. Gaiñera, esan dugu, bere 601buru guztiak galduak dirala, eta liburu oietan egon zitekeana lbm Bssam izeneko beste idazle baten bidez ezagutzen dugula. Ta, orrela iristen zaizkigun albisteak, jakiña, beti galtzen dute bitartekorik gabe izan zezaketen indarraren zati galanta bat.

Ibn Hayyan'nek berak erabilli zituan iturriak ere ez zaizkigu ezagunak. Seguruaski, bere aurreko idazle kordobatarren paperak. Idazleak, ordea, ez dira borroketara joan oi diran gizonak izaten. Alderantziz, borroketan ibillitakoen ezpaiñetatik jasotzen dute gero idatziko dutena. AIa jaso zuten "Maiyus" aiei-buruzko albistea ere.

- Beraz, seguruaski, Tbn Hayyan'en "mayus" su-gurtzaille aiei buruz dakigun guztiak, berreun urte leenago borrokaldi artan egon zan gudari bat edo batek esandakoa – edo, agian, idatzitakoa – du bere iturri bakarra. Badakigu. ordea, Tito gudarien eta salerosleen solasketa iturri duten albisteetaz zer idatzi zuan: alegia, oso uste on gutxi merezi dutela.

Au izan daiteke edesti guzti onen egiazko oiñarria: Borroka gogor ari zanean, edo egitasun geiagokoa dirudianez borroka asi aurretik, "mendi baten albora iritxi ziranean", ori bait da, dirudianez, Ibn Hayyan'ek esan nai duana su-galda batzuk ikusi zituztela gudari maometarrek.

- Kristauen kronikoietan, len ere esan dugun ez da su aren aipurik agertzen. Ez zan, beraz, su ura, garrantzi bereizi aundiko sua izango.

- Maometarrek ez zuten Euskalerriaren barrungo gauzen jakite ziurrik izan. Ez bait zuten izan, ortarako askoz era egokiagoan aurkitzen ziran asturitar ber-beraiek ere!

- Maometarrak, beti, errez ikusi oi zuten jentilkeria beren aurka borroka zegiten etsaiengan, auek Ala'ren gudarien aurka borroka egitean Ala ber-beraren aurka ari bait ziran borrokan. mendi artan une larri aietan – larriak bait dira beti. borrokaidi baten aurreko une guztiak – su aiek ikustean, su ura, sua jainkotzat zuten jentill batzuk piztua izango zala uste izan zuten, Su Jainko ari, une larri aietan, laguntza eskatu naiez.

Eta su aiek ikusi zituzten gudariek edo gudari aien esanak jaso zituztenetakoren batek, mendi ari Su-Gurtzailleen Mendia izen eman zioten: "Chabal-al-Machus".

Baiñan "Chabal-al.-Machus"ko SUI aiek benetan ikusiak zirala egia ba'-Litz ere..., ,zer ote ziran ba alako su mh-esgarri aiek?

- Mendi ori Euskalerriko mendi bat izatekotan, z ,oraindik Urtzi-Gurtzaille jarraitzen zuten euskaldun jentil batzuek Urtzi Jainkoari laguntza eskatzearren 1.Jrtzi'ren dan Eguzkiaren omenez ekaifiean ("udako solstizioan") piztutako suak ote ziran? Baleike, guduak antziña uda iristerakoan asten ziralarik, borroka ura ekaiñean gertatua izatea arrazoiziwa bait dirudi.

Ez dirudi ordea, iez orixe!, IX eta X, XI ta XII mendeetan jentiltasun zarraren ondarrik ain era galantean, gure Asaben artean geratu zitekeanik.

Asieran jentiltasunezko zirimoni izan zan. ek.aifieko su-piztutze ark, – oifiaztarrien aurka aizkora txabola-aurrean mingaifia-gora duala ipintzeak bezala jentilkeriaren adigarri lez ez baiña, siniskeri utsezko oitura lez irauten ote zuan XI mendean?

Badaitekean gauza: gaur bertan, naiz erri-oitura utsa bezala, bai bait diraute oitura oiek gure artean. Badirau, baitare, asieran jentiltasunezko zentzu berekoa izan zan lauburuak ere. Eta, – ,zergaitik ez? ordurako Erri bezala osoki kristauturik zegoan Euskalerrian, musulmanek ikusitako su aiek, – bedi au solasaIdi legor onen goxagarri lez esana ote ziran Yondoniane Batailariaren omenez yadanik piztu oi ziran ekaifieko suak?

- Baiñan erlijio-mundutik at ere izan zezaketen beste zio bat mendi aren gai.fieko suck. Izan zitekean ba, garai artako euskaldunen telegrafia. Gure artean, ez dakit nondik etorrita, aski sarturik bait dago, euskaldunek antziña mendi-tontorretako su-galdea bidez alkar aditzen zutelako sintspena.

Ta, sinispen ori zergaitik ez daiteke egiazkoa izan? Gure asaba aiek sua-bitartez-mintzalari uste izatea dez al dago, beintzat, logikarik

zintzoenaren argira, aiek, kixazko beste arrazoirik gabe su-gurtzaiile jentillak biurtzea baiño txukunago pentsatua? Batez ere, Euskalerritik. at beste lurraldeetan ere, gudateetan-da, sua, urrut-adierazgaillu lez sarri ibillia izan dan, eta oraindik ere ibillia dan ezkero.

Buka dezagun bi galderen bitartez antziñako "Su-Gurtzaillen" auzi au:

I": Euskalerrian edo Euskalerriaren inguruan erdiaro garai guzian, iñoiz iñon, Erri bat osotuz, "Su-Gurtzaillerik" izan ote zan?

Ez.

2ª: Gudate artan sua piztu zuanik izan bazan ere, tsu piztaillc aiek i,egiazko su-gurtzaieak ote ziran?

Ez.

- Lendabizi, Su-Gurtzaille aien lurrak "veeinas" zituzten ezkero, hai lurralde aiek eta bai lurralde aietako jende su-piztaillea Asturitarrek Arabitarrek baiño askoz obeki ezagutu bear zituztelako, eta alare, Asturitarren kronikoiak ango "su-gurtzaillerik" sekulan aipatu ere ez dutelako.

- Bigarren, Ibn-Hayya'ni eta onen jarraitzaillei sinistekotan "sua gurtzen zuten" gizakume aiek IX mendekoak ziralako. Eta mende ortan kristauturik zegoalako "Su-Gurtzaille" aien lurra. (Amaya'ren ingurua nere ustez, "Su-Gurtzaille" aiek Erri bat zirala egia Kristauturik baitare Autrigoiena izandako Bureba ta Miranda'ren ingurua. (Bai bait dirudi, Ibn Hayya'n bere idazkeraz adieraztera damaigula dirudianez, or nonbait egon bait zala "Su-Gurtzaille" mamulwi aien lurra).

- Eta irugarren, esan dugun lez, VIII mendekoa bat mende orren lenen erdikoa ain zuzen– baiñan IX, X, XI eta XII mendeetako dokumentuak asko ta asko ta asko ditugulako. Eta, jorra nola!, "Su-Gurtzaille" aiek Ibero ibaiaren lur autrigoitarekoak izatekotan, bereiziki aien lurralde ortako gauzetaz mintzatzen diranak: Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeko larrukiak; eta Balpuesta'ko Gotzaitegiarenak.

Bñ, dokumentu oiek ez zuten jakin, beren lur ortan, ez beren lurralde orren auzoan – ez beste iñon jentil su-gurtzaillerik bazanik; ez iñoiz izan zanik. Ez bait duzu dokumentu guzti oietako bat bakar-rean ere su-gru-ketaren aipamen txikienik aurkituko!

su aiek... gau ozkirrietan gudariek soilki beren buruak berotzeko pizmak izan ba'ziran zer?!

Ondorioa: "Maiyus" edo "Su-Gurtzaille"en arazo guzti ori, dagokion otarrera jaurti bearra dala: ipuien otarrera. Orixe ban da "Su-Gurtzaille" aien arazoa: Ipui utsa: fahula. Bai heintat aien jentiltasunart dagokion alde-

Beraz, dakusazunez, arri txit labaillean ipintzen ditu bere oiñak "maiyus" aien ipuia Euskaldunen talde bat "los Vascongados" – Xl! mendean jentillak zlraia esateko oifiarritzat artu nai duanak.

Jarrai dezagun, ordea, aztertzeko gelditzen zaizkigun idazleetaz mintzatzen

Klaudio Sanehez Albornoz izan da Euskalerria bi Erri egin nai izan dutenetan ospetsuena. Jaun onen ustez, I I Alfontso'k laguntzarako deitutako "Baskoiak", erromatean bezala, XI mendean ere, soilki naparrak ziran: "Los Vascos". Eta, "maiyus" su-gurtzailleak, Araba, Gipuzkoa ta Bizkai'n bizi omen ziran beste euskaldunak: "Los Vascongados".

Edestilari izentsu orrek, Sarkaldeko iru Eusko-Laterrietako euskaldunak, ots, "Los Vaseongados" aiek, Naparroa'ko "Los Vascones" euskaldunen semeak zirala uste izan bait zuan, Naparroa'tik sarkaldeko iru aue-tara leenago etorriak.

Gaur, ordea ez du iñork orrelakorik sinisten. Eta, izenkelari-buruz, gauza eskier jakiña da, askoz leenagotik ere "baskones" izena, Akitani'ren muturretik Araba'ren sarkaldeko muturrera, euskaldun guztiei ematen zitzaiela. Lekuko, Muña bera, neskatii arabar "baskoia", ain zuzen I Fruela'rekin ezkonduz gero, auzi ontako II Alfontso erregearen ama izan zana.

- Azken batean, ote zegoan "Maiyus" su-gurtzaille aien lurra? Iñork ez dakian gauza: Ibn Hayyan'ek ez bait du esaten "Maiyus" aiek Euskalerrikoak ziranik. okerki, "Cantabria" eta gaur arte Santander esan oi zaionaren ego-mendietan? i, Palentzi'ko Probintziaren iparraldean?

Zegoan tokian egon, oso lurralde txikia izan bear zuan, ematen duenez, "maiyus" nie.n lurra. BaInan non zegoan ez dakigu. Ez jakiteko, – adieraztera emanikk utzi dugun lez su aiek gurtuak izateko piztuak ziran, eta, ondorioz, su aien piztailleak su-gurtzailleak ziranik ere ez bait dakigu!!!

J. GONZALEZ ECHEGARAY. Bere azterketa Kantauri'ren, ots, oraingo Santander'era, kristautasunari-buruz izan zan VIII mendean, Arabitarrengandik igesi etorri ziran kristau jakintsu kultur aundik.oek. erromartu ta kristautu zuten Kantauri. Ona bere itzak:

*"Este MiS1110 proceso sucediO mucho mas lentamente en el Pais Vuseo, donde la enngraci6n desde ka meseta apenas tuvo importancia, como sera ala exptesamente la cr6nica de Alfonso y asi podemos supo-ner que Inienttvs Cantabria y las Encarnaciones de Vizcaya eran va cris-tianas en el siglo habia zonas de* Vizcaya v *Gipuzkoa que permane-cieron practicamente paganas hasta bien entrado el siglo Xl.*

Gonzalez Echegaray'k esan. duGun ortasl nere iritzia?

- Errezegi ipintzen duala bere "Cantabria", VIII mendera arte, kris-tautze oroz antzu. Eta errezegi jartzen duala V in'ean zearo kristauturik.

- Enkarterri ta Bizkai arteko Nerbion ibaia zabalegia egiten digula. Ez. bait da ibai ori Enkarterriko kristautasunart Bisk.ai'rako igaroketa eragoz-teko bear bezain zabala. Aisa egin. zezakean jausi ori VIII m.endean bertan Enkarterriko kristautasunak.

- *"Hasta bien entrado el siglo Xr* ori orren. borobil jaurti aal izateko, arrazoiak bear dirala, eta berak ez duala arrazoi bat bakarrik aurkezten.

- Naiz berak esan ez, 1969'an idatzi zuan "hasta bien entrado el siglo Xi" orren azpitik, Garcia Villada'k 1935' an. esan zuan "Vizcaya y Guipuzcoa no conocIan todavIa el cristianismo durante el siglo XI" ura dagola.

- Ez ote zituan Gonzalez Echegarayk., – eta berriro .lengo galdera es ote zituan Gonzalez Eehegaray'k ere XI mendekoak. diran Gi.puzl.oa'ko eta Bizkai'ko Jaunen larruki ospetsuak edo Argifieta'ko illobi zarrak ezagu-tzen? Sinistu ez daitekean gauza.

A.. BAR.BERO y M. VIGIL. Auek ere Kantauri, ots Santander, izan dute, batez ere, beren ik.erk.eten esparru. Baiñan Kantauri'tzaz idaztean, Kantauri berandu kristautu zala diote. Torrelabec'a'n, kantauritarren sasi jainko bati IV mendean, ainzuzen 399'an eskaiffitako aldare-arri bat agertu omen da ba, eta ori omen da ba K.antauri oraindik erromartu gabe zegoala-ren adigarri ukaeziña: Zergaitik? .Entzun. beraiei:

*que en el giro 399 se pudiera erigir pnblicamente U11 ara a un dios pagano en. el norte de la Penfilsula, despues de lcas leyes dictadas en el arro 390 por Teodosio contra cualgttiera religit5n que no fuera prueba no solo Ia eseaSrSillla dij nsiOn. del cristianistno en sino unnbiefil la dificultad en que se vetan los* funcionarios *imperiales para poner en ejecuci6n la legislaci6n*

Eusk.alerria, berriz, Kantauri baino askoz gutxiago erromartu omen zan. Ori adierazten omen du, beintzat, bere gizarte-kera ta bere izkuntza gorde izateak. Uste izatekoa omen da, beraz, kristautu ere Kantauri baiño beran duago kristautuko zala.

Zer erantzun dezaikiet bi Jaun eraspentsu auei?:

- Euskaldunek beren gizarte-bizitzako oiturak gorde izatea ez dala Erroma'tik urrun bizi izatearen adigarri, erromatarrek ez bait ziran erri ezberdiñetako oitura oien aurka indarrez ibil-zale.

- Gaur ez duala beren arrazoiketak .1(-)7=l'ean izan zezakean aiñako indarrik)[oó] Arrigarria bait da, arrezkero Euzkadi'ko baztar auetan agertu zaigun erromateko aztarnen kopurua. Izkuntza bera dugu, Eusk.alerria zenbateraiño erromartu zalako adigarri portitza.

Ain zuzen, Euskalerriaren merezimendurik lilluragarriena, naiz ainbeste erromartua gelditu, bere nortasunarik galdu ez izatean bait dago!!!

- Kantauri'l«) sasijainko bati eraikitako aldare-arri. bakar bat, naiko arri ez dala, bera oiñarritzAt artuta teori sendo bat eraikitzeko. Askoz arri geiago bear dirala ortarako.

- 390'ean inperatoreak emandako lege bat, bederatzi urte geroago, 399'an ainzuzen, Kantuari'n bete ez izateak arritzen barkapena eskatuz gero au esan nai nieke: antziña artan, noiz eta IV mendearen azkenean gaiñera! ots, inperioaren azken-aro naasi artan inperio-barrengo gauzak zeiñen astiro ta baldar ibilli ziran ez dirala bear bezala kontura-tu.

Izan ere, Inperio barruan gauzak oker ba'zeHtzan, zer esanik ez nola i.ritxiko ziran iristen ba'ziran ere – Kantauri bezala inperioaren ertzeko

---

1QÔ. "OrÍgenes del Crisnan ismo en CaniaLuin". Santander. 1974. Aiparnen au ere, esandako liburutik A. Azkarale'ri artua dut.

zokoetan zeuden lurraldeetara Erroma'tiko lege eta agindu eta edozein niotako albisteak.

Birr-aipa dezagun Julio Caro Baroja'rena dugun alako aapaldi ausart ura: "Puede *sostenerse que no hubo en el mediodla occidente europeo nacleo que asimilara nu'is tarde la doctrina cristiano que el que hoy representan los vascos de habla en su conjunto".* Ori esateko aurkezten dituan arrazoiak:

Len aztertu dugun, Amando Deunaren "Bizitza". Esanik utzi dugu liburu ortan mixiokuntzari dagokion guZia kondairazko lorez beterik dagoala, eta, orregaitik, sinisgarritasun sendorik ez duala.

- Aymeric Picaud Frankiar erromesaren liburua: Baiñan Frankiar erromes au XII mendekoa da, eta bere tokian agertuko dugun lez, frankiar amorratu ark euskaldun gorrotatuen aurka esan zuanak ez du Amando Deuna'ren mixioketak baiño uste on aundiagorik merezi.

- Baiona'ko Leon Donearen kondaira ere aipatzen du, baiñan egia esateko, iñoiz BaIona.' n Leon izeneko Done bat izan zanik ere ez dakigu. Ain aula bait da, sendotasunez, Done orren kondaira! Gaiñera, kondairak, du esaten euskaldunak ez baiña Bikingoak izan zirala Doneleon iI zutenak?

- "Jentillei-buruzko" kondairak ere jetzi nai izan ditu gure Caro Baroja onek., moroak Euskalerrira urbildu ziranean beintzat oraindik gure Asabak jentillak zirala esateko. Toki batzuetan jentillen lepotik esegiten diran kondaira.k beste toki. batzuetan moroen lepotik esegiten omen dIralako.

Esegite bikoitz ori egia dala esango diogu Caro Baroja'ri, baiña ori, moroak Euskalerriaren egoaldean zeudenen garaiean euskaldunak oraindik jentillak zirala esateko ez duala batere. balio. Seguruaski kondaira oiek moroei leporatzen zaizkien tokietan len jentillei erasten bait zitzaizkien.

Zergaitik? Leendik zetozen kondaira zarretan ez-kristauei jentillak esaten ba'zitzaien VIII, IX, X, eta XII mendeaz gero antziñatiko kondaira oietako jentillei moroak esaten asteak deus arrigarririk ez dualako, moroak bait ziran, ainzuzen, arrezkero begien aurrean zeuzkaten jentillak. Oroi dezagun. gaiñera, jentillaje gaiztoa izan zirala gure Asabentzat moro aiek, lau mendez ia urtero-urtero aien aurka borrokan ibilli bearrean aurkitu ziralako.

Gauza ziurra ez dala nik aurkeztu dedan aburua? Ez noski. Baiñan ezta On Julio'k esaten duana ere. Eta bata bestearekin kidatu ezkero, eskiertasun geiagokoa da nik esan clutana, ark esandakoa baiflo[07.

On osaba, On PIO BAROJA ber-bera ere atal ontan bertan aipatu bearra izango dut. zanIan aipuginlza ori Lekuona'tar Imanol'en eskuetan uztea izango zait egokiena: Onela idatzi zuan ba gure irakasle eraspengarri ark eleberri-idazle donostiar ari-buruz:

"A. Villada'ren ari artan, gure artean gizon bat izanda, postura arri asko ta asko lagundu diona: Don Pio Baroja bere eleberrietan,

"Pio Baroja'k bi slogan ditu batez ere bere bidean:

"1) Euskalduna oraindik ere oso jentilla dala bere ideietan (folklore).

"2) Euskaldunaren kristautasuna oso berandukoa dala.

"Lenengo postura, batez ere bere liburu "Jaten de AltzateTh azaltzen du (antziñako teatro-modura egiña da liburua, bere koru ta alkarrizketa etab.): eta bigarren postura, gure kristautasuna berandukoa dala, alegia, nunean-nunean bere nobelatan azaltzen da. Nobelatan olako gaiak askotan ukitzen ditu berak, bere burua pentsatzalle entsayista agertuaz.

"Baroja'ren argumentua gai ontan, askotan, arte-kontuan ofiarritzen da: gure erlijio-artea oso berandukoa agertzen dala, alegia. Itz bitan: Arte Gotikoa bai, bañan Arte Romanikorik ez degula. Orren garbi ez bada ere, beti ortara joaz eta ori aditz.era emanaz. Eta ainbeste aldiz egiten du insinuazio ori, irakurtzallea, senti gabe, ortara jartzen da azkenean: Romanikorik *ez* degula... jakiña, Gipuzkoa'n: Nafarroa'n eta Araba'n bai bait dago naikoa. Gipuzkoarrok – eta berdin Baztandarrak – beranduko kristauak gerala, Gotiko-kristauak gerala: XIII gizaldikoak nunbait.

"- Zer erantzun bear diogu Baroja'ren argumentuari?

"- Lenengo-lenengo *riego supositum* biribil bat. Oraingo gure Romanikoaren "asko-gutxiak" ez du ezer esan nai, ez du zer ikusirik, leen izan degun edo ez degun Kristantasunarekin.

"Arte-estiloak, artu-ta-utzi litezken eta egiten diran gauzak dira: modak bezela. "Orain daukagun artea" ez da zeatz-zeatz "len izandako

---

Inz. Nik liburu onlan On Julio'rena clutana, bere "Los Pueblos del Norte' (139 orr.), "Los Vascos" (267 orr.) eta "Prineipe de Viana" (1971. 7'garren orritik) artu

gauzaren" errañu ta sefiale. Arte-estiloak aldatzen dijoaz beti: zaarra utzi ta berria artu... artarako egokiera.rik izan ezkero.

"Orain Romaniko bat ez bagendu ere, orrek ez luke esan naiko leen izan ez degunik. Oraingo Gotikoa, bere izatez eta histori-legez, Romanikoaren, leen izandako Romanikoaren ondorengoa Leku askotan K.atedral Rornanikoak deseginda, Gotikoak egin dituzte. Baroja'ren argumentuak, beraz, ez du balio.

"Salarnanka'n, Katedral Gotiko berria egin zuten, leengo Ronianikoa botatzeko asmoan, gero, damututa, bota ez bazuten ere. Erroma'n San Pedro'ren Eliza Barrokoa dagon lekuan, beste estiloko Basilika zaarragoa zegoan. Oraingo Barrokoak ez du esan nai leen, an, beste Basilika Romaniko bat izan ez zanik. Balio ez duan argumentua darabilki Baroja'k.

"Leengo zaarrak bota egiten dirala, esan degu, berriagoak egiteko egokitasunik izaten danean: egokitastmik edo bearrik.

"Orixe gertatu da Gipuzkoa'ko Romanikoarekin. Eta ortan dago, ainzuzen zuzen, Gipuzkoak Araba' rekin eta Naparroa'rekin duan aldea. Araba'n eta Naparroa'n, Gipuzkoa'n ez bezela, Eliza – Elizatxo Romaniko ugari dago. Araba'ko eta Nafarroa'ko zenbait erritan erri txikitan batez ere oraindik ere leengo Eliza Romantkoak irauten dute, alde batetik ez bait dute aundiago berri baten bearrik sentitu, Gipuzkoa'n, erriak aunditu alean sentitu dan bezela; beste aldetik, Gipuzkoa'ko errietan, industriari eta nierkatariketari esker, aberastasun geiago izan da, eta orrekin batean Eliza berri aundiagoak egiteko tentazio geiago sentitu. Guzti orrek eragin dio gipuzkoarrari – eta berdin baita bizkaitarrari ere – leengo Eliz Romaniko txikiak bota, eta berri aundiagoak egiteko. Berdin gertatu baitzan Araba'ko ta Nafarroa'ko erri aundietan – Iruña'n adibidez eta Gazteitz'en An ere noizbait izango ziran Eliza Romanikoak, gaur Gotikoak dauden lekuetan: eta berdin esan bait dezakegu, Logika jator-jatorrean, Gipuzkoa'ko erri geienentzat,

"Baifian buruzko explikazio guzti oiek utzita, goazen orain begiak erakusten dutena ikustera.

"Orain arte, Baroja'ri "bentaja bat emanda" ari gera jokuan, kontzesio bat eginda: Gipuzkoa'n Romanikorik ez degula, alegia, askok, Mbestigazio on bat egin gabe, uste izan duten bezala.

"Egia, ordea, besterikan da. Gaur oraindik badugu Gipuzkoa'n Romani.k.orik. Ez dala ezik Romani.ko aundi, monumentala; bañan

Romaniko jator, bai. Guk emen darabilkiguN kontua ez bait da aundi-txiki-kontua", "bai-ala-ez-kontua"

"Ez dala, ezta, Araba'n eta Nafarroa'n bezin ugaria. Bañan gure kontua, berriz ere, ez bait da "asko-gutxi-kontua", urri-ugari-kontua, ez-kontua" baizik, jatortasun kontua, alegia.

"Eta ala da, izan ere. Gipuzkoa guztian-zear badugu Romanilcorik aski, "muestra" bezala: leen izandako ugariagoaren muestra ta testigu bezala: Romaniko zaar, romaniko berri, danetatik; romaniko jator. "Nuestra", ori bai; puska, zati; ez Eliza oso, leio ta ate

"– Non? galdetuko dezute.

"– Gipuzkoa'ko alde guztietan. Ez Nafarroa'ko mugetan bakarrik – Nafarroa"ko kutsu bereizi bat bailitzan –; dala Berastegin (atea), eta berdin Elduain'en eta Berrobi'n, eta Ernanin eta Urnieta'n; eta berdin Tolosan eta Abalzizketa'n, eder apain askoak; eta Ugarte-Amezketan, zaar askoa... Guzi oiek or bait dauzkagu ezkutuan gordeak bezala, ate Romaniko jator askoak, naiz ta Romanikoaren azken-aldekoak, ate bizkar txorrotxdunak.

"Bañan ez Nafarroa'ko mugetan bakarrik; Baita Araba-aldeko Zegaman ere kapitel-urbedeinkatuontzi biurtu bat San Bartolome Andueza ko Ermitan; eta berdin baita Bizkai-aldera begira dauden Aretxabaleta'n eta Garagartza'n-eta, apain askoak; eta Bedofia' n eta Bolibar'en leio politak.

"Bañan baita Gipuzkoa erdi-erdian ere: Azkoitia'ko adibidez, eta Albistur"ko Santa Marina'n, eta ltxaso'n eta Zumarraga'ko Antigua'n.

Zer geiago?

– Danak ez dirala arku txorrotxdunak, ots!, Romanikoaren azken-garaikoak. Badaudela arku jator birilhidunak ere: or. Ugarte-Amezketa'koa, eta Azkoitia koa eta Garagartza-Mondragoe'koa.

"Itz bitan: ikusten dezuten bezala, Gipuzkoa'ko Geografia osoan arkitzen ditugu Romaniko izandakoaren testigu jatorrak; apalak, baña jatorrak".

Azkenik, Lekuona'k, Asti"arribi'ko elizatxo zaar batean berak ainzuzen aurkitu zuan zaldi-perra-itxurako leioa aipatzen digu. Mozarabea omen dana. XI mendearen asierakoa. Ots, gutxi-gora-bera 1000"garren urtekoa. Erromanik-era sortu-aurrekoa.

PIERRE NARBAITZ euskalduna da. Maite du Euskalerria. Bein baiño geiagotan jaso ditut bere aitorpenak. Aspaldi eta atsegiñ aundiz irakurri nuan bere "Le Matin Basque", ots, "Eusko-Egunsentia", izen-daraman edesti-liburua.

Baiñan badu liburu ortan beiñere atsegiña izan ez zaidan esaldi bat. Auxe: *"11 ne sera pas surprenant que me`me au milielr du IX'e siecle une grande partie du peuple basque fut demeur& pai˙enne": "Ez* litzakela,

arrigarri gertatuko IX mendean Euskalerriko zati aundi batek oraindik -jentiltasunean jarraitzen zuala jakitea" (133 orr).

Bai, Pierre, bai: neri beintzat, IX mendean, euskaldunen zati aundi batek (azpimarraketa oiek nereak dira) jentil jarraitzen zuala entzute utsa, anitz arrigarria gertatzen zait gaurregun, azalduko dudan lez. Agertzen ari zaizkigun dokumentu guztiak zure iritzi orren aurka bait datoz.

ESTEPA DIEZ: Euskalerriaren kristauketa berandutu-zale izan zaizkigun edestilari guztiak, dena gogor batera sarturik ibilli zaizkigula dirudi: Euskalerrira kristautasunaren etorrera atzeratzearren, nor izan ote daitekea arrigarrikeririk aundiena esateko gauza.

Dema ortan, iñolako zalantza-biderik gabe C. Estepa DÍez izan da txapeldun, I 980'ean Itali'ko Espoleto'n eman zuan itzaldi batean esandakoari eskerrak. Garcia Villada'k ere ez bait zituan ain ziurki ta ain borobilki jaurti, ark Espoleto'n esan zituan gauzak.

Ark an esan zuan ori, Sotomayor edestilari ezagunak dakarki bere i.dazkietako batean. Gure liburutegian, naiz eliz-edestilari españiar ospetsu orren beste idazki batzuk izan, ori, ainzuzen, ez dugu.

Liburu ori italieraz idatzia da: "Settimane di Studi del Centro Italiano sull'Alto Mediocvo".

Zorionez, ordea, badakar A. Azkarate Garai-01aun'ek (Arq. Crist. op.e.36), eta arkeologilari bikain onek or idatzi zuana birridatziko dut nik orain eta emen:

*"C. Estepa Dlez, en ei contexto de lcr XXV1II Settimane de Spoleto sobre Cristianizzazione Ecclesiastica delle Campagne Medioevo; expansione e resi.vtenze, aventnra fechas bastante tardÍas para la cristianizaciOn del Pais Vasco. Opina que, si bien pudo comenzar en el siglo*

*VIl con lcr misiOn de San Amando, fue en rineas generales un fenOmeno bastante posterlot:*

(Eta ona orain emen .Estepa Diaz'en itzak): "Lo *que parece cierto es que en torno a I200, cuando Guipuzcoa se incorpora al reino de ann no se habla cumplido este proceso de cristianizaciOn Nos eneontramos ante un caso lfinite en el ambito de lca cristiandad, un* caso *semejante al de la cristianizaciOn tardIa de las zonas orientales del mundo cristiano: pinsese por ejemplo* en *los siglos XIII y XIV de Prusia y Lituania... (.., ). La cristianizaci6n del Pal,s Vasco es un lenOmeno en la poblaciOn de habla euskera bastante tardio v las primeras obras escritas en euskera son catecismos que proceden del siglo XVI".*

(Orrerairlo, Estepa'ren itzak. Onela jarraitzen du Azkarate'k): "Esas *palabras jneton pronunciadas en la discusiein que siguir5 a las palabras de M. Sotomayor sobre PenetraciOn de en los medios rumles de la Espata tardorromana y visigoda. Sotomayot; uno de los mejores especialistas actuales sobre la Historia de la Iglesia, no considerf5 necesario – por la que se deduee de las actos publicadas – realizar ninguna puntualizaci6n o correcciOn al respecto".*

Guk, zer esan?:

- Sotomayor'ek *"ninguna inunualizackin ni correcciOn"* ez egin izateak, ez duala bera Estepa'rekin bat zegoanik esan nai. Izan ere ez bait zezakean orrelakorik deus egin, edesti-lanei dagokien zuzentasunaren araura, bestek esaten duana beste orrek esaten duan bezala jaso bear bait da. ¡Alataguztiz oartxoren bat erantzi zezaiokeala? Ez zegoan ortara beartua, eta ori egin ba'zuan, gaiñera, txukuntasunaren, ots, elegantziaren aurka egiña izanen zuan.

¡Azkarate bera ere Estepa'rekin bat agertzen dala? Itxuraz, orrela dirudi esaldi osoaren azkeneko itzak idazteko erabilli duan eraz. Baifia oroi, asieran, argi esaten duala, Estepa'ren jardunkera "aventura" bat izan Zala: "se aventurO",

- Ta..., Estepa' ri? Zer?

I" gauza, auxe: Arrigarria dala Doneamando'ri damaion garrantzia. Ikusi bait dugu bere Done orren Bizitzak aren ebangelizaketalanetaz dioskuna ez dala, bere gaiñean ezer ziurki eraiki aal izateko, oiñarri sendoa.

Arrigarria da, benetan arritzekoa, Estepa'k ez ezê. beste "euskal-kristautasuna-beranclutu-zaleek" ere, Caro Baroja'k adibidez, – oni jarraitzen bait dio Estepa'k, – beren aburuak babesteko egoki gertatzen zaienean kondairei ematen dieten garrantzia! Donamando'ri, eta, bere bizitzaz ezer ez dakigun Baiona'ko Doneleon'i adibidez Caro Baroja'k berak.

XIII mendean Gipuzkoa oraindik jentilla zala esatera ez dala ausartu, baiñan ori dala aditzera errian nai izan duana, Gipuzkoa'ren kristautzea "un caso lñnite en el ambito de Ja cristiandad" izan zala esaterakoan, eta Gipuzkoa'ko kristauketa XIII eta X.IV Prusi eta Lituani'rekin kidatu duanean. Lituani, eta batez ere Prusi XIII mendean ia zearo jentilla bait zan.

3ª: Gaur ez duala iñork XIII mendean Gipuzkoa'n eta Bizkai'n oraindik jentiltasunak ain bizkor jarraitzen zuanik esaten, ordurako, aspalditik – oso aspalditik – aski kristauturik zeudelaren lekuko bait dira XI mendearen asieran Bizkai'ko ta Gipuzkoa"ko Jaunak!

Bizkai'koa, Enneko Lopez "Ezkerra", dokumentu arras ezagun baten bidez, lzpea'ko lekaidetxea Armenti'ko gotzaiari aurrena – eta Kukulla'ko Doneminian't gero – eman ziona. Eta Gipuzkoa'koa, Garsia Azenariz. An bereiziki. Argi bait dagerkigu berak Peña'ko Yondoniane Batailariaren Lekaidetxeari Salbatore. Deunaren 011azabar ko Lekaidetxea emateko idatzi zuan dokumentuan Gipuzkoa'ko kristautasunaren zabalkundea.

Baditugu XI mendeko Gipuzkoari eta Bizkai'd-buruzko dokumentu geiago *ere,* eta zer esanik ez XII mendekoei buruz. Naikoak. bai Gipuzkoa ta bai Bizkai bi mende aietan kristauturik zeudela jakiteko. Guzti gaiñera, onen urrengo liburuan aztertuko clugu.

Esanik utzi dedala uste dut, aurreragoko mendeea dagokienez ere, badugula V1.11 mendeko larruki bat Kukulla'ko Donemillan' go Lekaidetxekoa, eta, – lekaidetx.e ortakoak eta Balpuesta'ko GotzaitegikOak asko ta asko IX, X, XI, XII, XI11 eta urrengo mendeetakoak ere, eta larruki oietako bat bakarrean ez dala agertzen aro aietako Euskalerrian jentillak bat bakarrik ere izan zitekealako kezkarik. Baiñan guzti au ere, onen ondorengo liburuaren gai izulgo dugu.

Euskalerriaren kristaliketa atzeratu-zale cliran idazlerik ezagutuena.k aipatu ditudala iduritzen zait. Badira geiago ere, bainan berdiñak dira, batzuek geiago besteek gutxiago, erabilli oi dituzten arrazoiak:

- Ibero ibaiaren bi ertzetako euskaIdunak aski goiz kristautu zirala, erromartu ere goiz egin ziralako.

- Mendietan bizi ziranak ordea sekulan bear bezala erromartu ez ziralako edo IX' era, edo X'era, edo XI mendea-zear, XIII'era sartu arte, jentil jarraitu zutela: sasijainko gurtzailleak zirala: "m.aiyus", arabitarren izkera pinpirifican.

- Araba'ren eta Naparroa'ren gerri-aldeko euskaldunak V menderako, nolabait erromarturik zeudelarik, zerbait kristautu ba'ziran ere. Erroma jaustean beren erromartasun oro galdu zutela-ta, len bezain basati biurturik, beren kristautasuna ere osoki galdu zutela. Eta jentiltasun zarrera itzuli zirala..

Orregaitik, Amando Doneari, moroengandik igesi etorri zitzaizkigun kristauci, eta Asturietako errege Bisigot katolikoen eragiflari. eskerrak asi zala, eta VII mendeaz gero asi zala, Euskalerriaren benetako ebangelizak.e-ta,

Zer erantzun?

- Baietz. Euskalerrian mende oietan asko edo patxi izatea gertatli zitekean gauza dala.

- Baiñan, – adierazi nai izan cliedan lez ori ziurtu naiez aurkezten dituzten arrazoiek, bear aiñako sendotasunik ez dutela.

- Alderantziz beren joera orren aurka agertzen dirala orain aurkeztu daitezkean eta bere tokian nik ere aurkeztuko ditudan arrazoi guztiak.

# EUSKALERRIAREN GUZTIETAN JENTILTASUNA BIZIRIK.

Ona, bein berriro len ere rnaiz aski egin izan du g un galdea: "Aruzifiako VI eta VII mende larri aietan jarraitzen ote zuan, oraindik bizirik, antziñagoko jentilkeriak Euskalerri Zarrean'?

Eta betik.oa izan bearko du orain ere galde orren erantzunak: Jarraitzen zuala esateko, dokumenturik ez dugu. Ezta, ez zuala jarraitzen esateko ere. uste izatekoa da, Euskalerriaren inguruko lurretan gertatzen zanari. so egiNez, inguru aietan gertatzen. zan bezala, naiz. Erri bezala Euskalerria Erri, kristaua izan, gure mendietako zokoetan bizirik jarrai zezaketela jentilkeri zarraren az.tarnek.

Gure inguruetan jentilk.eriak baziraula esateko dokumenturik aski bai bait dugu. Kontzilio beraiek, beste guztien gaindik garrantzitsucnak. Ona ba, emen, kontzilio aien mintzoa:

VI mendea oraindik naiko gazte zaiarik, 533'an, gogor jardun zuan Aurelia tOrleansYko kontzilioak bere XX kanonean, "jentilkerira itzultzen ziranei-buruz" edo "de *is qui ad idola redeunt"* ari zala. (""Atta Con", op.c. 1175).

- VI mendea aurrera zijoala, 572'an, eta Sarkaldeko beste muturrean, gaurko Portugaren ainzuzen, Bracara (Braga)'ko II kontzilioak Inzaro eta aski asarre itzegin zuan, oraindik "supersticiones *paganas",* ots, "ientikerizko siniskeriak" onartzen eta gurtzen zituz.tenen aurka, LXXI, L'XXII, LXXIII, LXXIV eta XXV kanonetan.

Kontzilio ori, siniskeriaz mintzatzerakoan aipatua dugu; baiñan, emen, beste onako au agertzera bearturik aurkitzen gera: LXXI kanonean, *"lustratione.s paganorum"* "jentillen txauketak" gaitzesten dituala, eta, LXXIII'ean *"iniquas observationes agere kalendarum" "kalendetako",* ots, illero, illaren lenen egunetako jai zipotzak ospatzea.

Jai jentillak, erromatarren jentiltasuneko jaiak, ziran jai oiek, bere zertasun osoan.

Mende orren azken aldera, 589'an, "Españi-beti-Katolikoa"ren maitaIeentzat badio zerbait benetan mingarri Toledo'ko III kontzilioak bere XVI kanonean lege-dagian agindu onek: "Episcopi *cum judicibus idola dextruant, domini Idolotriam servis probibeant": "Gotzaiek,* epailleekin batera, apurtu bitzate sasijainkoen irudiak, eta nagusiek eragotzi bezaie sasijainko-gurketa beren jopuei.".

*"Dextruant idola":* Besterik gabe badakigu, zalantzarako aaltasunik gabe, Españi'n eta Septirnani'n (Galietako Lurrarr Itxasoaren ertzean) sasijaikoen irudiak bazirala.

Baiña, kanon ortan bertan badiosku beste zerbait ere: sasijainkoen arras ugari zirala.

Garrantzi aundikoa deritzait kanon ori-ta, Vives'ek gazteleratzen duan eran emanen dut, nik, itzulpena egiterakoan, laterazko itzen zentzua zerbait aldatu ote dedalako kezkarik iñork izan ez dezan (azpimarraketak nereak izango dira):

*"Por estar MUY ARRAIGADO en casi toda España v lcr Galla el sacrilegio de la idolatrIa, con el consentinnento del glorio,sisimo rey ordenO el .santo concillo lo siguiente: Que cada obispo en su diOcesis en uniOn con el juez, del distrito investiguen minuclosamente acerca del dicho sacrilegio, no retrase en exterminar los que encuentre* v *a aquellos quelrecuentan tal erro);* salva *siempre la vida, castiguenlos con las penas que pudieren, y, si clescuidasen obrar asI sepan ambos, obispo v juez, que incurriran en las penas de excomuniOn, y si algunos señores descuidaren este pecado en sus posesiones, y no quisieren prohibIrselo a sus siervos, sean privados tambien ellos, por el obispo, de la comunl6n".*

"Salva siempre la vida". Urruti zeuden oraindik Inkjsizioaren denborak. "Saerilegium" esaten dio kontzilioak irudi-gurketari, maite bait

zuten itz ori Eliz Bisigotaren kontzilioek gurketa oker orren antzera zuzen-ki egiazko Jainkoaren aurka dijoan pekatu oro izendatzeko.

- Urte berean, 589'an, Septimani'n Narbona'k.o kontzilioak bere XV kanonean, argi-argi jentiikeri utsa besterik ez dan oitura batez itzegiten digu, eta ez zirala gutxi, diosku, oitura makur ori zintzo batez zebiltzan kristauak. Ona bere itzak:

"/Id *nos pervenit quosdam de poputis catholicae fidei execrabili ritu de quinta feria, quae dicitur lovis, multos excolere et operationem non facere". "Entzunik* gaude sinismen kristaueko erri batzuetan ostegunez, Inpiter'ena esan oi zaion egunez ainzuzen, asko dirala, oitura galgarriz, lanik egiteke egun ori jai-egun lez ospatzen dutenak" (azpimarraketak, nereak).

Zigorra: Jupiter-gurtzailleak gizon edo emakume yareak ba'dira, es-kornikapena, eta, urte batez, penitentzigilleen saillera jaurtiak izatea, saill. ortan *"limosnez eta malkoz, Jainkoaren barkapena lortu dezaten".* Ta, jupi-ter-gurtzadleak jopu edo mirabeak ba'Iira, eun zartaillu-kolpe jasan bear izatea.

Kanon orren aurrekoan, XIV'ean, agindu gogorrak eman zituan aztien eta aztizaleen aurka: "Aztiengana *joaten dana eskomikatua bedi, eta diru, isundua; azti beraiek, salduak bitez, (venundentur), eta salketan aterateko dirua, tximei emana badi los*

- Ia-ia VIII mendean, 681'garren urtean, ikaraturik mintzatzen da Tole-do'ko kontzilioa oraindik begien aurrean dakusan jentilkeriaren aurka, Eta bein betirako okerkeri ori Espatii'tik ezabatzearren, Itun Zarreko araua – *"Orren gatztakeri aundi bat egin dezakean gizona, edo emakumea, uritik aterako dituzu, atorira, eta, emen, iltzen diran arteraiño arrikand«) dituzu"* – gogoratuz, kontzilio ark, Esparn'n ere indarra erabiltzea erabaki zuan.

---

Ez dezagun aztu erromateko "esklabutza" ezereztu ondorean, "servitudo", ots, "varetasu-nik morrontza"ren aroa sortu zala kristaudian, eta aro ortan orrelako morroi eta nes-kameak saltzea oiturazko gauza izan zala kristaudi guzian, "Distingue tempora"!

BaiNan Asaba kontziliokide aiek iñori gaitz egitearen zale ez omen ziralako, – soilki *"in terrore delinquentium",* ots, "obengillei ikara sartzeko bakarrik" Itun Zarreko lege ura gogoratu ondorean onako au erabaki zuten XI kanonean: "non *mortis sententiam promulgamus",* ez dugu eriotzako zigorrik agindu nai, baiñan *ctamnamus* gaitzesten ditugu "cultores *idolorum, veneratores lapidum, accensores faculartan, et excolentes lOntium vel arborum".* (Berealaxe emanen dugu jentilkeri oien euskal-itzulpena).

Gaitzespenaren atzetik, zigorra: sasijainko-gurtzaineak jopuak *(servi)* ba'dira, zartailluz *(verberibus)* zigortuak bitez, eta gizakume yareak *("ingenui.")* ba'dira, bizi guztirako eskomikatuak eta aI dan tokirik makurrenera erbesteratuak.

Ez zuten dirudianez, Toledo'ko XII kontzilio ark nabarmenaren aurka emandako agindu, gaitzespen eta zigorketek, zitu eder aundirik lortu, 693'an Toledo'ko Asabek XVI kontzilioan, batzar orren 11 atal luzean, beste XII kontzilio ark gaitzetsitako jentilk.eri beraiek birgaftzesten bait dituzte bein berriro, "cum *consenst.«te ferventissimo iussu religiosissimi domini nostri Egicani regis": "Egika* gure errege jaun txit jainkozalearen oniritziz eta bere agindu sutsua betez".

Gogoragarriak dirala iduritzen zaigu, kontzilio bi aiek gaitzetsitako jentilkeriak azpimarratzea.

Aipatu ditugu VII mendeko gertakizuak aurkezterakoan Toledo'ko XVI kontzilioaz mintzatu geranean, baiñan emen, bakoitza zerbait geiago zabalduz, berriro oroitzea merezi dutela pentsatzen dugu:

- "Sasijantko-irudien gurketa": *"cubores idolorum",* (jentilkeriak ez baina jentilkerigilleak izan bait ziran kontzilio ark. zuTenean gaitzetsi zituanak: SASIJAINKO-IRUDIEN gurtzailleak)

- *"Veneratores lapichun", "arri-gurtzailleak":* ez dirudi arri auek arrizko sasijainko-irudiak diranik, auek onen aurreko gaitzespenaren gai izan bait dira. Oroi gure etnologiko "sanson-arri", "erroldan-arri", "jentill-arri" eta oien antzeko beste arriak, "ortzi-gaifietiko-arriak", adibidez; eta offlaztarria arrizko aizkora bat dala, Iurpera 7 arrabete sartzen dala, eta, gero urteko arrabete bat igoz zazpi urteren ostean lur-gaiñera irtetzen dala" uste duan siniskeria". Orrelako arriak. dira noski kontzilio ark kanon ortan gaitzetsi zituanalc.

---

ffi9. Gure artzaientzat ori izan dira gure mendietan agertu diran edestiaurreko arri-aizkorak: Ofiaztarriak ots "ortzitiko suzko-arriak",lurpean aztuta arrizko aizkora biurtuak.

- "Argi-piztailleak", "accensores *facularum".* Azterturik utzi ditugun "Maiyus" aiek datozkit gogora. Aurrera jarraitzeke, onako au argitu nai nuke:

Nik ez nuala esaten sua gurtzen zuan jentillik izan ez danik. Bai bait dakit, etorrita? Sarkaldean, Eguzkia, sua piztuz gurtzeko oitura indeuroparrek ekarri zutelako, antziñA artan sua gurtzen zuten jentillak izan zitezkeala. Auxe da, soilki, nik esaten nuana: euskaldunak, jentil su-gurtzailleak ez zirala. Ez beintzat musulmanek gure mendietako suak ikusi zituzten aroan.

kontzilio au ez da su-gurtzailleetaz ari, argi-piztailleetaz baizik: gaur kristauak Doneen irudien aurrean bazala, sasijainkoen omenez argi-ontziak piztu oi zituzten jentilletaz. "Facula", latera.z, "argi txiki bat" bait da: "tea pequefia", Raimundo de Miguel'en lztegian.

*"Excolentes sacra fontium",* "iturri sagaratuen gurtzailleak". Gaur baditugu Euskalerrian done baten izena daramaten iturri sendaketa-miragarri-egilleak: len sasijainko baten izena eraman zuten iturriak ditugu: iturri sagaratuak. Beste iturri batzuen clonetasunaren oroitza, toponimian geratu zaigu. Naparroa'ko Betelu' n iturri batek "Iturri Santu" izen-darama. Antxe bertan beste batek "Dama-Iturri": gaur azokan sal-gai aurkitzen dan ura.

Berez "sacra fontium", "iturrietako gauza sagaratuak", illuM bearko litzake. Iturrietan gure rolkloreko "maitagarri" ta "laminen" antzeko jainkemetxiki asko bizi oi dalako siniskeria arras zabaldurik dago mundua-zear.

Guk ere gure toponimian "lamiffiturri" bat baiño geiago badugu: Gaur, zentzurik gabeko toponimi; atzo, jentilkerk eta VII mendeetako Euskalerrian ere. bai'? Jentilkeri, ez; siniskeri, bai, erantzungo nioke nik galde orri Kristautasunaren barruan siniskeri. biuturik jarraitzen zuan jentilkeria: jainko ta jain.keme txiki aiek baziralako siniste sendoa, ez; baiñan zerbait izango ote ziralako bildur izkutua, bai.

-*"Zugaitz-gurtzailleak", "excolentes* arborum". Euskaldunek jainko txikitzat eukitako zugaitzen oroitza etnologiak gorde digu. Usterik nago, nere baitan, "Erramu-Igandez" elizara bedeinkapen-billa gure erriak eramaten duan ereñotza, erefiotza naitanaiez eta ez beste edozein zugaitz-adar – len bereiziki sagaratua izan zan ereñon_ jentiIla bera dala, naiz gaur jentilkeri-usai orotik arazturik egon.

- "Jentilkerian ugari eta garrantzi aUndIkOak izan ziran "£tuguratores" ("aztiak") eta *"praecantatores",* gazteleraz "eneantadores", ots, gaurregungo "ipnosiiari komerigille" eta auen antzekoak.

Eta, azkenean, "danak aipatzea neketsuegia izango litzaigukeen beste jentilkeri asko" ere bai: *"nudtaque alla quae perlongunt est enarntre",* izan ziran gaitzetsiak.

XII kontzilioak emandako aiek bezalakoak dira XVI onek agindu zituan zigorketak, agindu oiek zintzo betetzea gotza i en, Laterriko epailleen eta, azkenik, errege beraren eskuetan

Ona zer dan kontzilio ark agindua:

- jentilkeriarekin zer-ikusirik izan dezakean gauza ororentzat, ezabaketa orokorra: "Por *tanto, todo sacrilegio de idolatn'a, v cualquier cosa en contra de Ili Santa que los hombres necios eselavizados por el culta del diablo practican, por intervenciOn del obispo o del juez, donde quiero que se deseubra alguno de estos sacrilegios„sean arrancados de raft, v una vez arrancados, sean aniquilado.y.*

- Morroi, mirabe, jopuentzat eta ortako jendearentzat: "Y (gotzaiek eta epailleek) *castiguen con azoks a todos aquellos que cotwurran a un lwrror de esta naturaleza, y cargandolos con cadenas, los entreguen a sus seflores, siempre que estos prometan mediante , uramento que ellos los tan cuidadosamente que no les sea posible en adelante cometer tal crimen"* (azpimarraketak, nik).

Jopu oien jabeentzat: "Pero *si los dueños no quisieran recibir bajo palabra a los mencionados reos, entonces estos* (zigortutako jopuek) *.senln presentados delante del rey por aquellos que les impusieron el castigo, para que ka dignidad real tenga libre lacultad de donarlos, v los duerws de ellos, a los que hablendo sido denunciados los errores de tales siervos, hayan diferido el eastigo, sufrirein la pena de excomuniOn,* y *sepan que perdieron todos sus derechos sobre aquel siervo al cual no quisieron castigar".*

- Gizakume yareentzat: "Y *si fueran acaso personas libres* los *que estuvieron complicados en estos ermres, serein eastigados con la pena de excomuniOn perpetua enviados a un severo destierro".*

Oroi dezagun ostera berriz, 694' ean, Afrika'tiko islamdarrak Espaifi'ra sartu-bezperan, Toledo'ko XVII kontzdioak V kanonean dioskunez, gotzai

askok *("plerique .mcerdoles")* bazutela "niissant *pro requiem deltmctorum pro vivis celebrare"* edo "bizientzako ddakoen mezak emateko oitura", eia oroi dezagun, baitare, nola kontzilio ark oitura iguingarri ori magikeri jentillaren aztarna lez gaitzetsi zuan.

Urte bete leenago, 693'an, Toledo'ko beste kontzilio batek, X.VI'ak, II kanonean "de *idolorum cultoribus"* ots "sasijainkoen gurtzailleetaz" ari izan zan mintzatzen eta aien aurka legeak ematen eta zigorrak eratzen. ¡Toledo bertako kontzilio zarraren erabakiek zitu aundirik ekarri ez zutelako adigarri ziurra!

Jentiltasunaren aipuak aurkituko dituzu VIII mendean ere. Ona, jarraian, iru-lau adibide garrantzitsu:

787'garren urtean, asieran Prudentzio gure olerkariaren bertso bat aipatuz, Liptinas'en (gaurko Estinnes urian), Karloman "Errege-Jauregiko Etxezain" zala, aren zaintzapean, "sub Carlomanno Maiore Domus regiae", bildutako kontzilioak, "Nimida" izen omen zuten basoetak.o jainkemetxikien ("silvarum Nimidae vocatae") gurketa gaitzetsi zuan 110.

Norbaitek, bearbada, Germania orduantxe ainzuzen izan zala Donebonifazio'k ebangelizatua-ta, "Nimida" aiek germatharren "parnaso" edo jainkotegiko jainkemetxikiak zirala esango dit, eta kontzilio germaniar ori emen zertaz aipaturik ez huala, Germani orduantxe ebangelizatzen asiberria izanik, an oraindik ia gizakume guztiak jentillak izatea naitanaiezkoa zalako.

Ez ba. Germania, orduan, bikoitza zan, eta mota bikoitzekoa:

Bata, gaurko Alemani'ren erdialde ta sortaldekoa, orduantxe ainzuzen Bonifazio Doneak eban gelizatzen zuana, ia osoki zan oraindik jentilla.

Bestea, Rin ibaiaren. aran guzia, aspaldidanik Erroma'k bere zati bat zuana. Aspaldidanik baitare, zegoan ebangelizaturik. eta VII mendean Galietako beste edozein lurralde bezain kristaua zan. Lyon'go Ireneo

itr. Emen nipatzen dan KarIomanno ori Kariornagno'ren anaia izan zan: Biak, Pipino "Laborra"ren semeak eta Karlos "Marter en billobak. "Major Domus" aiek zer izan ziran esana naizela uste dut: Aurrena Erregearen jauregiko ekonomi-zathak, poItki-poliki gero Jauriaritzako Lenen Jaurle eta azkeanean egiazko Erregeak.

Donea eta Afrika'ko Tertuliano ditugu lekuko, 1i mendeko bi idazle ospetsu auek, H mende artan "quaefundame *sunt Ecele,s'ioe","Gerrnani'n* lorturik zeuden Elizak" aipatzen bait dituzte (Ireneo'k) eta Kristo'gan sinisten zuten "germanortun *gentes"* edo Germanietako Erriak (Tertuliano'k).

Eta, VIII mendea azkeneruntz zijoan garaieko kontzilio au. Germani katoliko ontaz aritu zan mintzatzen, ez, beste Germani oraindik geienbat jentilla zan artan. Zergaitik diodan ori?

]'go. jentillentzat kontzilio bat eratzea, orduan Eliza-baitan oiturazkoa ez zalako.

- 2'gn. Kontzilioko izkera osoak ori adierazten dualako.
- 3'gn. Basoetako "maitagarriak" gaitzetsiz gero, oraindik Germani'n gurtzen ziran Erroma'ko sasijainkoetaz miNtzatzen dalako:" "De *sacris Mereurii vel Jovis", "Merkurio'* ren edohpiter'en omenezko sakrifizio edo eskaintza sagaratuetaz", "Deftriix *quae fiielunt kvi vel Mercurii","Jupiter* eta Merkurio'ri eskaintzen zaizkien jai-egunetaz".

iBai ote zan VIII mendeko Euskalerrian orrelako jentilkeri mardulik? Utzi dezadan geroxeagorako batez ere onen urrengo libururako – galde orren erantzuna.

Germani'n ez eze', bizirik jarraitzen zuan jentilkeriak Erroma' ko Urian bertan ere VIII mendean oraindik, Germani'tik Done Boni fazio'k 741'ean Zakarias Aitasantuari idatzi zion gutun batek eta Aitasantuak ari erantzun--emanez 745'ean idatzitako beste batek aditzera damaigutenez:

Bonifazio'k onako au esaten dio Aitasantuari: Erroma'n jentilkeriak-bizirik jarraitzen duala, eta "juxta *ecelesiom Sancti Petri","Kepa* Deunaren eliz-ondoan bertan", urtarrilleko "kalendetan", ots, "lenen egunetan", jentiltasun zarreko jaiak zarata aundiz gauregun ospatzen zirala ("Atta Conciliorum Regia", 1878).

Zak.arias Aitasantuak, bere erantzunean, ailzaktrik ipintzeke oso-osoan damaio Bonifazio'ri arrazoia, baiñan jentilkeri zikiñ aiek Aitasantutza artu zuan une ber-berean debekatti zituala dasaio. (1.c.745).




Distribuci6n geograiea de los conjuntos rupestres. (L.A. Monreal iimeno)

Badantzut irakurleak dagiden galde kezkagarria: Ez ote zuten oien antzeko jentilkeriek VI, VII eta VIII mendeetako Euskalerrian. oraindik bizirik jarraitzen?

Betikoa izango du nere erantzuna:

- Beren sorkuntzatiko jentiltasuna galdurik siniskeri uts bezala, bai. Gure egunotan ere bai bait diraute!

- Beren jentilkerizko indar osoan, Euskalerriaren baztarretako tokiren bat edo batean...., baleike. Eskierki ezetz esateko dokumenturik ez bait dugu. Baiñan baietz esan aal izateko ere ez!!!

Azken-aipatutako kontzilio auek, danek, Galietan eta Ispanietan jentilkeriak bizirik irauten zuala esaten ba'digute..., eta biotzean, VI mendean, Benito Donea "jentillak kristautzen" ikusi ba'dugu..., eta Amando Doneaz mintzatzerakoan "Dietionnaire d'Histoire et de Geographi.e Eccle'siastiques"ek ez ezê Frantzi'ko iparraldean eta Belxika'n. jentillak VII mendean asko ta asko zirala esan ba'digu..., [1] i arritzeko gauza izango al litzake Euskalerriko zokoetan ere VI, VII, eta VIiI mende aietan jentiltasunaren ondarrak oraindik bizirik jarraitzea? Ez noski.

Baiñan ori eskierki sinistu aal izateko ere dokumenturik ez dugu.

Alataguztiz, naiz dokumenturik izan ez, jenfiltasunaren aztarnek oraindik an-emen bizirik zirautelako ori beinbetirako ontzat arturik, eta orain arte egin aal izan ditudan azterketa-lanetan oiñak beste onako bi zeaztasun auek ere egia.. dirala eskiertzeko gai izango naizela aurre-agindu nai nuke:

- Mende aietan, Euskalerriko bazterretan oraindik jentillik ba'zan ere, Frantzi'ko Españi'ko eta Europa'ko erririk geien-geienetako bazterretan baiño geiago ez eta, bearbada, gutxiago zirala ere sinistu daitekeala.

---

111. Amand au miiieu du Vt1 sieele, les contre'es eneore pffl'ennes du nord de la Gaule, en particulier les plaines basses arrose'es par l'Eseaut". Alegia, "Oraindikjentil ziran Ipar-Galietako lurraldeak, bereiziki (gaur Belxika'n dagoan) Eskalda'ren bee-ibarreko aiek, mixiotu zituala VII mendearen erdian Amando Doneak". Doneamando'ren "Bizitza"n, mixioketari dagokion batere uste onik merezi ez duala esanak gera. Besterik da ordea Galietako iparralde artan egin zuanari-buruz. An ez bait zan mixiolari ibilli. Alderantziz, an, bertako gotzaia izan zalako, denbora-alda ugari luzez bertan geldi egon eta bertan bizi-bearrean aurkitu bait zan.

Mende aietan, Euskalerria, ERRI BEZALA, kristauturik zegoala; Europa'ko beste Erriak bezain kristautua; eta, beste Erri aietako batzuk baiño sakonago ta zabalago kristautua.

Bi izango dira agindu ori betetzeko erabilliko ditugun arrazoiak: gure Lekaidetza eta gure Arkeologia. Aurretik, ordea, egin dezagun Toledo'ko azken kontzilioaren aurkezpena:

694. Toledo'ko XVII eta azkeneko kontzilioa, Leokarli Neskuts Deunaren elizan. Oraindik Egika dago Bisigoten errege-aulkian, eta oraingoan ere an doa kontziliokideen erdira, Asabei eta konteei, "emen dakartzuet nere asmoen idazkia", esanez.

Kontzilio artan bi kontziliokide mota ikusten ditu erregeak, danak "gure goitasunak aginduta etorriak": "Asalm txit doneen" kopurua, eta, "Asaba txit doneen" artean, VIII kontzilioaz gero gerta oi zan bezala, "gure jauregiaren dizdira zeraten gizon aintzatsuen talde u g aria", *"illustre aulae regiae decus et magnificorum virorum numerosus conventus quos huic honorabili coetui nostra interesse celsitudo praecepit",* ots, konteak eta aundiki aitorrensemeak.

Idazki edo, erregearen itza erabilliz "tomo" aren asiera ez zitekean dan baiño parregarriegia gertatu: Onela dio ba erregeak:

*"En el nombre del Seflor el rev Flavio Egika* [112], a Los *santlsimos Padres reunidos en este concilio: No puede expresorse ni con largos diseursos con* que.*fervor del cm-az6n y con que litego lcr sublimidad de nuestra semndad se ilbrasa encendida en el amor de la santa religi6t1", ots, "gure biotzaren noluko berotasun kiskalgarriz eta nolako gaidaz gure bikaintasun--olda-ezifiaren goitasuna (".serenbatis notrae sublimitas") erlijio doneaganuko maitasunex su arturik erretzen dagoan, daiteke itzaldirik lu eenen bidez ere, era egokian clgertu..."*

Alperrikako izenondoko edo adjetibu alu guzti oiek eta beroien antzeko beste guziak euskerari iguingarri zaizkiolako, Vives'en gaztelerazko itzulpenaz eman nai izan ditut. Ele itz-arro-borobil-aunditsu-zale ortan ez bait dira ain isekagarriak gertatzen.

Kontzilioak, ez?, erregearen eskari guztiak onartu zituan.

---

Flavius, izen erromatarra. Esan dugu len ere ezaguna dala Barbaritar guztiek — eta bereizik Bisigotek Erroma'ko inpertoari beti gorde zioten mirestasuna.

Alare, ongi irabaziak dituzte gure txaloak XVII kontzilio artako Asabek, kanon arras bikain bat eman zutelako: a: Kontzilioaren aurreneko iru egunetan soilki sinispenari eta animazaintzari-buruzko gaiak eta, "au rrean ezapaizarik gabe", *"nullo ,secularium intetposito",* aztertu bear dirala agintzen duana.

Arras gogoragarria zaigu kontzilio artako V kanona, bertan magikeriaren aztarnarik okerrenetako bat agertzen zaigulak.o. Kanon ortan, bizientzako illen mezak ematea birdebekatzen da.

„Zergaiti.k orrelako mezak ematen ote ziran? *...non ob is pro quo ipuin offertur sacrij ipsius sacrosancti libaminis interventu, mortis ac perditionis incurrat periculum".*

Auzia zearo astuna ta arras larria dalarik, naiago dut, irakurlea atzipetu nairik nabilleIa iñork esan ez dezan, kontzilioak lateraz dion ori, nik neronek euskeratuta ez baiña, gai auetan ain yayoa ta ezaguna dan Jose Vives'ek gazteleraturik aurkeztu:

*no por otro motivo sino para que aquel por el cual ha sido ofreetdo el tal sacrificio incurra en trance de muerte V ele perdieldn por lca eficacia de la misma sacrosanta oblaciOn".*

Ori egiten zutenak gotzaiak ziran, eta ona gotzai rnagizale oientzako kontzilioaren zigorra, Vives'en itzulpencan:

*"Determitul la crsomblea de todos nosotros que si tzlgthl obispo, de ahora en afklante, se descubriese haber practicado tales cosas, sea depuesto del grado de ,su tanto el mismo obispo como tambin aquel que se sepa haberle incitado a practicar tales maldades, sujetas a Icr prisi6n de un evilin perpento, .se les negard la sagrada comuni6n todos los dias de su vida, excepto en el Uhimo trance de la misma".*

Zenbat ote ziran magikeri gaizto orrek kutsuturik zeuzkan gotzaiak? "Multi", "asko" erantzungo dizu kontzilioak berak. Ez zegoan noski magikeria gaizki sarturik VII mendearen azkeneko urteetan Españi katolikoaren altzoan. Orrelako gauzak gotzaiek egiten ba' zituzten , zer ez zuten ba erriko gizaseme landerrek egingo?

Baiñan gotzai majizaleak asko, "multi", ba'ziran, kontzilio artan *"plerique Spaniarum et Galliartun pontlf ices",* ots, "Ispanietako ta Galietako gotzairik geienak" zeudelarik, naitanaiezkoa da. noski an, gotzai kontziliokideen artean, bat baitio geiago magikerizl«) pekatu ura egiten zutenetakoak izatea..., kontzilioak darabilkian itzak, ots, "sacerdotes" itzak, "apaizak" esan nai duala ontzat artzen ez ba'dugu beintzat.

"Sacerdotes" itz orrek, ordea, garai zar artan beti, eta batez ere Toledo'ko kontzilioetan, "gotzai" esan nai du, "presbyteri" bait da apaizak adierazteko erabiltzen dan itza: "presbiteri", "be.reterrak".

Naitanaiezkoa dugu, beraz, meza magi-tresna lez artuta, zikinkeri ura egiten zutelako kontzilioak batera zigor elizkoiaz – eriotz-onera-arteko eskomikaz – eta Laterriaren aldetiko zigorrez – ill-arteraifioko erbesterake-taz – gaitzesten zituan "sacerdoies" aiek apaizak ez baiño gotzaiak zirala aitortu bearra.

Zoritxarrez, Toledo'ko XVII kontzilio onek ez digu ematen an izan ziran gotzaiei-buruz, ez zenbatekorik, ez nongokorik, ez izenik. Ez dugu beraz, urte artako gure Euskalerriaz deus jakiteko biderik.

Nik, ordea, euskaldunen eskuetan zegoala esango nuke, bereala Euskalerriaz jabetu naiean gure Asaben aurka borrokan ikusiko bait dugu Errodrigo Bisigoten azkeneko erregea, 709' garren urteaz gero.

Esan dezagun, amaitzeko, Egika'k aurkeztutako "tomo" artan onako bi gauza auek ere eskatzen zutzaizkiela kontziliokideei: Juditzen gaitzespena, kanon batean eta, beste kanon batean Errege-Erregifien eta beren sendiaren babespena.

Eskari oiei erantzuterakoan, gogorra, kontzilioaren, juditzenganako mintzaera, eta ez hi.guiña "Ziksilo erregiñ aintzagarria", "gloriosa *domina Cixilo regina"* eta bere "seme-alaba goxo-goxoak", "dukissimos *proles"* era gaiztoan erabilli dezazkeanaren aurkako gaitzespena: "sit *perpetuile anathematis tdzione danmatus et a pagina caelesti clbrasus, atque cum cliabolo eiu,sque acrioribus suppliciis alligatus", "bedi* zeruko liburuaren orrietatik ezabatua, eta betirako ondamenaren zamapean deabruekin batera bedi auen oifiazeketarik ikaragarrienetara galdua".

Arrezkero, oiturazko gauza egin zan ain arinki jendea inpernuetara bidaltze ori, eta apika aurkituko duzun erdiaroko dokumentu bat orrelako gaitzespen zakarrik gabe.

709. Errodrigo, Bisigoten errege berria. Laister izango dugu Euskalerriaren aurka borrokan, gure Asabei Iruña kendu nairik.

710. 1 Lupo Eudon – uste danez aren semea – dugu Baskoni'ko eta Akitani'ko Duke berria. "Eudon, *por su poderfo -y energia, por su compeiencia y dinannsmo, recibi6 el caltlicativo de "El Grande", aludiendo tambithl a sus extensos dominios.*

*"Fue algo asf como una espercurza que se cutnple, como 1111 hombre pmvidencial, y asÍ fue en cierto modo, porque al aqur siguiente de su nom-*

*brannento como duque de Aquitania V Vaseon.ia invaden los musuhnanes Europa y llegan a chocar con sus dominios. Vasconia v Aquitania iban a ser en lo sucesivo el parachoques europeo"* (Estornes Lasa op.e.

711. Urte ortan sartu ziran Arabitarrak Espafii'ra, Errodrigo errege Bisigota Irufia'ri erasotzen ari zala. Joan zan Errege au, dirudianez zaldizko gudari-talde arin batekin, gudaroztea Iruña borrokatzen utzita, atzerritar etorri-berri aiek menderatzera. Orrelako gauzak len ere gertatu izan ziran Andaluzi'ko itxas-ertzean-da, ez zion noski. oraingo oni garrantzi aundiegirik eman.

Oraingo ontan ordea bera izan zan garaitua; eta borroka artan galdu zuan Nola?, iNork ez daki. X mendearen asierako III Alfontso'ren "Kronikak" dio, Portugal'eko Biseu'n illobi bat aurki. berria zala, eta illobi orren gaiñeko arri-olak itz. auek zeuzkala idatzirik: "Hie requieseet Rudericus ultimus rex Gothorum": "Emen datza Errodrigo, Godarren azken-erregea".

Ofiaztarrien azkartasunez menderatu zuten Arabitarrek Españi, eta Euskalerriaren mugetaraifio laister iritxi ziran. Etsai berri oien etorrerak zearo aldatu zuan Euskalerriaren eta Espain'ren eta Europa beraren giroa. Orregaitik, edestiari dagokionez, 711'garren urtea da VIII mendearen amaia.

Ikusi dugu zeiñen latza izan zan gure A.sabentzat VII mende gogor ura. VI eta mendeetako gogortasum ortan sendotu zan. gure erria, Ederki idatzitako itzak onako auek:

*"Ciertos pasajes de Venancio Fortunato referidos a los vascones, pasajes que, por muy solnados de retarica v u5picos que se quieran, no signffican menos la aparician inaugural, en el escenario hisu5rico, del vascan discolo y dificil que durante generaciones habitara el imaginario erudito pedodo tardoantiguo y altomedieval, llenando de zozobras v recelos a los rectores de las patrias cristianas"* [13].

Gogortasunezko giro artan sendotu zan, era batean, Euskalerri Zarreko Eliza ere.

---

Koldo Larrañaga Elorza: "Obispado PampIonês en Epoca Visig(itica". Hispania Socra XLE X (1997), 287.

# EUSKALERRIKO LEKAIDETZA

Lekaidetza monaeato" kristauen artean anakoreta edo bakartiengandik asi zan.

Kristautasunetik, at, lekaidetza, bada beste erlijio batzuetan ere. Ondo ezagunak dira lekaide Budatarrak eta beren lekaidetxeak. Bazan judutarren artean ere. Esenitarrengan bereiziki. Eta lekaidetzaren antzeko zerbait izan omen zan Grezi'ko pitagoratar klasikoen artean. Eta bada musulmanen artean ere.

Bakarti edo anakoreta bezala ospe aundikoak dira indi'ko "Induismus" edo Indutasunekoak. Buda bera bakarti bat izan zan. Bakarti izan ziran Israerko profeta batzuk; Elias adibidez, eta Eliseo. Bakartia izan zan Yondoni Batailaria ere.

Kristauen artean III mendearen bigarren erdian eta IV'aren astapenean sortu zan. Orduangoak bait dira Ejito'ko Donepaul "lenen bakartia", eta Antonio Abata Donea, Atanasio Alexandri'ko Metropolita Deunaren adiskide ta lagun aundia.

Izugarriki zabaldu zitzaigun anakoretitza Ejito'ren egoaldeko Tebas uri ospetsuaren inguruan, ots, Tebaida'n; eta eta Palestina'11. Europa.'ra, inperatore artozaleak Alex.andri'tik bein baiño geiagotan erbesteratu zuan Atanasio uri artako Patriarka eta teologilari txit ezagunak berak ekarri zuan, Erroman emandako itzaldi ta ekintzen bitartez eta eleneraz idatzi zuan eta berealaxe latifieratua izan zan "Antonio'ren Bizitza" izeneko liburuaren eragiñez.

Baña beste bide bat ere izan zuan anakoretitzak Europa'ra sartzeko. Afrika'tiko bidea.

Afrika'tik ere azkar igaro bait zan Ispani'ra. Ainzuzen Ispanietan aurkitu zuan bakartitzak bere apostolurik gogorrenetako bat, naiz ;--Ipostolu au egia esateko, apostolu baiño geiago sasiapostolu izan: Prisziliano erejea. Ereji. asko leporatu zitzaizkion gizon orri, baiñan zalantzazkoa ez dan bere ereji bakarra auxe dala ematen du: Bakartitza edo Anakoretitzari geiegizko garrantzia ematea. Eliza baitan beste ororen gaindik ipintzen bait zuan bakartitza, Baita. liturgiaren gaindik ere.

Prisziliano IV mendekoa zan. Prisziliano'ren aurretik ere izan zan Ispanietan bak.artitza. Mende orren astapen berean bakartitzaren aipua bai bait dagi Iliherri edo Eibira, (orain Granada)'ko Kontzilioak.

IV m.endean Euskalerrira bakartitza oparo sarturik geneukala dirudi. "Dirudi" esan dut; deus eskier esateko argumenturik ez bait dut. Baiñan bai, ala dirudiala esateko! Bat, Euskalerrian eman zitzaion ongietorria eta bere irakasketak emen .izan zuan arrakasta.

Oroi goraxeago aipatu ditugun "Dietionnaire d'Histoire et de Ge:',ographie Catholique"ren itzak: IV mendean (385'an) lepoa moztu zioten Prisziliano'ren irakasketak, ots, I'h ffi[5]sie *priscillianiste* <u>*clesolait*</u> *alors de Bordeaux": "Bordele'ko* elizbarrutia agortzen ari zan keria". Eta "ereji indartsu orren aurka borroka egiteko Doneseberino'ri laguntza eske deitu bearrean aurkitu zan Bata zeritzan Bordele'ko Gotzaia". Ori Bordele'n! Euskalerriaren mugan!

Oroi, ordea, an baiño geiago errotu zala priszilikeria Iparreuskalerri Zarraren erdi-erdian, ots, Elusa'n, Iparreuskalerri Zar osoaren Metropoli-Urian: "De *cette c poque* /'on *soit que la* <u>*plus grande partie*</u> *de lrr population d'Elusa aclhe:·ra au priseillionisme":"Badakigu* garai artan Elusa'ko biztanle geien-geienak priszilik.erira sartu zirala" (ib. Azpimarraketak, nereak).

Alako arrakasta arrigarri bat ez litzake ulergarria izango, ordurako Euskalerrian bakartitza erroturik eta euskaldunengan hakartitzarako zaletasuna arras zabaldurik egon ez

Prisziliano'ren aurka, soilki bi kontzilio egin ziran. Gaurko Euskalerri Ontan ez zan oraindik uri gotzaidunik-eta, ez bait zitezkean emen kontzilio aiek ospatu. Baiñan zerbait esan nai digu noski bi kontzilio aiek Euskalerri

---

[14. Dirudianez, bere lekaidetzari-buruzko geiegizko zaletasunarekin, uste dan bairto geiago nlhaidu zan gure artean eta gure inguruan, BordeIc ta Salduba arteko lurraldeetait.

Zarreko muga-mugan egiñak izatea: Euskalerria ia arresi ber-beretaraiño iristen zitzaion Salduba edo Zalduba'n, aurrenekoa; eta euskaldunak. duba'k bezain bertan zeuzkan Bordele'n bigarrena [115].

Zer pentsa dezakegun? Ba, nere ustez auxe: Bordele ta Salduba'ren arteko lurretan, ots, Euskalerrian. ez zala priszilikeria jostaketarako gauza izan. Batez ere onako au burura ekartzen ba'dugu: Sakinba'n priszilikertak INdar aundirik artu zuanik ez dakigula, baInan urian bezala bere inguruetan ere artU zigula uste izatekoa dala, kontzilioaren izkera] aditzera damaigunez. Eta aro berean Bordele'n bai, izugarria izan zan Bordele'n artu zuan indarra. Alare, Bordele bertan artu zuan indar aundi ura ez zala gure Elusa'n, gure Iparreuskalerriko Metropoli-Urian, artu zuana bezain aundia izan. Esan daitekeala, beraz bi kontzilio aiek bereiziki Euskalerriarentzat eratuak izan zirala, eta orregaitik egin zirala egin ziran tokian.

Orregaitik, ez dabiltz nere aburutik urrun, azkeneko aro ontan gure erdiaro garaieko bakarti euskaldunei, naiz egiazko arrazoirik gabe, priszilikeriaren kezka jaurti nai izan dietenak:

Egia da, edestilari oiek dioten bezala, Elizaren Jerarkia, Kostantino'ren pakeaz gero "burgesiartu" egin zala. Baiñan ez da egia bakarnak basamortuetara jerarki. orri uko egiteagaitik joaten zirala 116.

---

115. Zuragoz,a'ren antziñako izenaz nere beste liburuetan mintzatua naiz. Nere ustez izen ori euskalduna da: Salduba edo Zalduba. Nik Zaktuba erabiili izan dut, orrela, gaurregungo enskaidunontzat, esana izateko, errezagoa gertatzen dalako, eta oso-oso maiz euskeraren "Z" ziztu-c-ns-duana idazle atzerritarrek "S" entzun eta "S" idatzi oi dutelako. Baiñan dokumentuetan "S" agertzen bait da, dokumentuei bear zaien eraspena gordetzearren, "S"z idatziko dut emendik aurrera nik ere: Salduba. Ez du orregaitik bere enskalduntasunik galduko, "SAL"z asten diran itz euskaldunak nai dituzun aiña aurkituko ban dituzu iztegietan.

116. "...interpretando (Azkarate) el feninneno eremitico (arabarra) como el reflejo de una confrontact(in con lajerarqufa eelesiastica, como una blisqueda ele refugio en aquellos lugares donde no Ilegaba el poder de la Iglesia, justamente en las zonas de fronteras con mundo no eristianzado". (Margarita Fernandez Mier. "Archivo Español de. Arqueologia, 71, l 998, or. 314-315). Ez dut uste Ez. Mier'ek itz oien bidez A. Azkarate Garai-Olaun'en oldozkera zintzo darnaigunik. Azkarate'k, gainera, ez du sekulan Araba'ko gobalegielatik iparrera Ftuskalerri osoa "mundo no eristainizado" izan ziteketunk esan.

Egia da Salduba'ko kontzilioak liturgi-egunik aundienetan eliza utzita bakartasunera izkutatzen ziran apaizak eta kristauak gaitzetsi zituala, baiflan erdiaroko bakartiak ez ziran bakartasunera asti batez bakarrik baztartzen, bere bizitza guztirako baizik eta orrelakoak ez ditu Salduba'ko konizilioak gaitzesten. Alderantziz era ortako "anakoretitza" kristaudi guziko kontzilioetan izan zan goretsi.a. Oroi gaiñera gotzaiak, ugari, anakoreta oien artetik atera oi zirala.

Egia da – ez mende auetan baiñan bai geroago gotzaien eta lekaidetxeen artean borrokak sortu zirala. Baiñan baita lekaidetxe beraien trtean ere, alkar-ezin-konponketa gizakume ta gizatalde guztien jatorrizko obena bai dugu.

Baiñan VI, VII eta VIII, mende aietan ez zan oraindik gotzaien eta bakartien eta lekaideen artean alako berrizuketarik izan. Alderantziz, maiz aski, kristaudi osoan, bakartien eta Iekaideen artetik aukeratzen ziran gotzaiak, eta, ikusiko dugun len, mirespen gozoz begira oi zion gotzaidiak bakartitzari, eta, bakartitzari baino geiago, lekaidetzari.

Orregaitik ainzuzen alako arreta ipini zuten lekaidetzaren zainketan.

IV mendearen asierako iliberri edo Elbira'ko kontzilio izentsu artaz gero Ispanietan eta Galietan VIII mendearen azkena-arte ospatutako kontzilio danak aztertuak dizkizut eta zuk ere beste orrenbeste egin nai ba'duzu, apika aurkituko duzun lekaidetzaz mintzatzen *ez* dan kontzilio bakar bat.

Eta, aitortu bearra izango duzu, kontzilio aietan lekaidetzaron oncrako eman ziran aginduak arras egokiak izan zirala.

Bada kanon bat Elizak lekaideen eta lekanneen biziera zenbateraiño maite zuan ulertzeko arras egokia: Sebilla'ko II kontzilioaren X'a: Ona, kanon ori, Vives'ek gazteleratua:

*"Determinamos de condm acuerdo gue los cenobios recientemente creados en la provincia 13ffica, del mismo modo que aquellos que son antiguos, permanezcan firmemente asentados con una total absoluta seguridad. alguno, lo que Dies no quiera, de entre nosotros o de los obispos que han de sucedemos"* (asmo txarrez lekaidetxe oietako bat ezereztera ausartuko ba'litz) *".sea anatema* y *permanezca extraño al reino de Dios, ni le apmvechen su fe r buenas obras para la salvaca5n por haber cerrado el camino de una vida tan santa y tan sublime. Todos los obispos de lcr Be"tica* ,, s*crspeİ idany retiren la comuni6n a* Y *restaurardn el*

*nwnasterio derruido con* SUS *bienes, para que lo que uno impiamente asol6 todos lo restauren pladosamente"* (Op.e. 170).

"Ez bere sinismenak ez bere ekintza onek ez bezaie salbamena lortzeko balio". Bada, noski, zerbait esatea!

Lau motakoak ziran mende aietan beren bizi osoa Jaungoikoari eskeintzen zioten kristauak: Neskutsak, Alargunemeak, Bakartiak, Lekaide-Lekaimeak

NESKUTSAK. Beren anitua ta gorputza bizitza guztirako, baiñan lekaimetxeetara bildurik abateme baten esanera jartzeke, Jainkoari eskaintzen zizkioten neskatillak. Egiazko bakartiak ziran, beraz, naiz basoan ez baiña, geienetan beren etxeko gela batean itxirik Baziran ]au bost adiskideekin alkarturik, etxe batera izkutatzen ziranak. ere.

Era ortako neska oiek elizaren erakunde bat ziran, Elizak onartuak izanez gero artzen bait zuten bere nortasun bereizi ura: arrezkero, itzaren zentzu kristau beteaz, "Neskutsak" esaten zitzaien: "Virgines"; "Puellae Deo dicatae": "jainkoari eskaiiiitako neskak"; Eliza-baitako Erakunde bat osotzen zuten.

Neska aiek neskutsen erakundera sartzeko, bazuan Elizak zirimoni bereizi bat: "buru-zapiaren jazketa". Eta zirimoni ori-zear igaroz gero *ere,* bazuten neskatil aiek "abittu" edo "soiñeko done" bereizi. bat

Eta ez zeuzkan Elizak azturik. Ala, gizonezkoen kutizitik aien neskustasuna babestera zetozten 744'ean Soisson'go kontzilioaren IX kanona eta Germani'k.o kontzilioaren erabaki. bat. Berdinki, neskatil jainkotiar aietaz jarduteko, aurkitu zuten betarik aski VI eta VII mendeetako ainbat eta ainbat kontzilioek.

Ala, VI inendean, Bisigoten Elizak, "alargunei edo neskatillei neskustasunean bizi nai izatea eragozten diena eskomikatu) eta elizatik. at jaurtia bedi", agindu zuan Toledo'ko III kontzilioak X kanonaren bitartez: "si *quis vero proposito castitatis viduae vel virginis impedierit a sancta communnione pribetur et a lindnibus eclesiae habeatur extraneu.v".*

¡ Euskalerri Zar artan, bere soiñ eta anitua osoki Jainkoari eskeintzen zizkion "neskutsik." izan ote zitzaigun? Baietz uste izatekoa da, nai.z dokumenturik ez-ta, izan zirala ziurki esaterik ez.

Alare, baietz uste izatekoa dala, esan dut, neskustasunarako joera Eliza baitan bere sorkuntz-une berberaz gero, ugari ta sakonki zabaldurik egon bait da mendeak-zear. Era ortako neskutsak izan ziran lenen mendeetako Neskuts Done guzti aiek, eta aietako asko beren neskustasuna ez galtzeagaitik il ziran martiri.

Orra ba nere aburua: Euskalerri zarreko kristaudi zar ura Euskalerritik landa.ko kristautasuna baiño mottelagoa zala, eta gure neskatillak kristaudiko beste neskatillak baiño koldarragoak zirala. uste izateko, arrazoi bat bakarrik ez dugu. Oietaz mintzatu zan gaiñera Salbuduba'ko Kontzilioa!

Elizak neskuts aien eskeintza ez zuala txantxetan artzen ikusteko, eskaintza ura urratzen zutenentzat kontzilioetan legeztatu oi. zituan zigorketak ditugu adibiderik egokiena.

Kontzilio batean neskuts aien aipurik zaarrena Iliberri. (geroago Elbira eta azkenean Granada)'ko kontzilioarena dugu.

kontzilio arek, 300Sarren urtearen Inguruan gogorki zigortu zituan bere XIII kanonean, "Jainkoari neskustasuna eskeifliz gero, eskeintza ori urratuta, aragikerira jausitako emakumezkoak", ots, "Virgines *quae se Deo dicaverunt, si pactum perdiderint virginitatis, et eidem libidint servierint".*

Orrelako oiei, damutzen ba'ziran, komunioa eman zezaiekeala, dio kontzilioak, baiñan soilki eriotzako orduan; eta soilki *"pekatura bein bakarrik "sernel" – jausi ba'ziron"* eta geroago "bigarren aldiz erortzeke, beren bizi guzia ilduma edo penitentzi eginez igaro ba'zuten": "ornni *tempore vitae suae egerint poenitentiam et abstineant se coltu"* (XIII kanona; Vives, op. e. 4), baiñan bein baiño geiagotan jausitako neskatxari, eriotzako orduan ere ez.

Ona emen Kanon ori, Vives berak (1.e.) gazteleratua: *vfrgene.s consagrados a Dios, si quebrantaren el voto de virginidad, y continuaren viviendo en la misma liviandad„thl reparar en el delito que comenten, no reeibirdn la comunicin ni aun al fin de su vida* (nec in finem eis dandam ense communionem). *Pero si las tales mujeres, seducidas, o habiendo sucumbido una vez a lu debilidad de la carne, hicieran despue"s penitencia todo el tiempo de su vida v se abstuvieren del acto cornal, recibiran comuniOn al fin de su vida, porque aparece haber tropezado 111. s bien ocasionalmente"* (mako-tartekoa nik sartua).

Gogorra, neska gaixo aiei ipjñi zitzaien zigorra. Orrelakoak, izan ere, izan bait ziran, 11 mendeko montanisten gogorkeriaz gero, mende aietako Elizaren. oiturak. Gaiñera, kontzilio ura bereiziki izan zan gogorra. Gogorkeriaren rnaldaz beera, erejiaren zulora jausi ez ote zan ere oldoztu izan bait da!

Ez zuan, kontzilio ark, orrelako jausketarik egin. Baiña, aren kanoiak irakurtzean laister sortzen da gure baitan kezka bat: ,geroxeagoko priszilikeriaren gogorkeri petrala ez ote dugu kontzilio artako gogortasunaren jarraipena?

Danadala, guri auxe zaigu orain axota: 1V mendearen asieran, erdiaroan lekaidetzaren apostolurik aundiena izandako Atanasio Donea Sarkaldera eldu baiño askoz lenago ere, ugari zirala gure egoaldeko mugatik aruntzako lurretan Jainkoari beti neskuts bizitzeko eskaintza egiten zioten neskatxak.

*"Claro esta que estas vfiwenes pu dieron entregarse a necesidad de wtirarse a la soledad y de hacer vida propianiente monústica; pero no se e.vciu-ve itneipretacifin de vida anacore"tica o cenobftica"* (Llorca, op, *e.* 619).

Nik, nere aldetik., oraintxe bertan Salduba edo Zaragoza'ko kornzilioa aztertzerakoan ikusi dugunaren argira, onako auxe esango nuke: Bordele'n eta Zalduba'n bezala Euskalerrian ere izan genituala soin-da-anitua bere burua osoki Jainkoari eskaiñi zioten neskatxak, ela Salduba ta Bordele'ko aiek bezala gure neskek ere, alkartasunean bizi edo bakartasun osoan bizi, "ordena" edo "Elizak-berak-onartutako-alkarte" bat beintzat osotzen zutela.

Zenbat izan zitezkean gure "Neskuts" aiek? Ez dakit. Baina guk uste baiño askoz geiago, seguruaski, bestela priszilikeriak gure Asaben artean alako arrakasta lortu izateak ez bait luke azalpen-biderik izango. Ezta priszilikeriaren aurkako bi kontzilio bakar aiek egiteko, gure goiko eta beeko mugak ukitzen zueden bi uri aiek aukeratu izateak ere117.

111. Euskalerriko priszilikeria dala-ta, bearrezkoa dut Martin Olazar Euskerazaintzako Lendakariak bidali didan oar onen berri eemen ematea: "Ez dakit nondik, baiña entzun dot nik antx.iñafik, Prisziliano'ren jarraitzaWeak Darango'n izan Ori orrelan li buruan aszertu litzake". Egia. Baiñan ezin izan diot albiste orri offiarri sendorik aurkitu. Bearbada, albiste orren bidez, Durangdko "kictista" edo "akwrregonzale" ospetsuak priszilikeriz- edo z,ikinduxeak ibilli zirala adierazi naiko da. Aiek, ordea XVI mendekoak izan ziran! Gaiiiern alperTegonzaeen enaskeritik bertago egon ziran priszilitarren zorrozkeritik

ALARGUNEMEAK. Neskuts aiek bezalA Elizaren erakunde bat ziran bere bizitza guzia., kastitate osoan b i zitzeko, Jainkoari eskaintzen zioten andre alargunek. Eta erakunde ortara sartzeko, bazuten neskuts aien antzeko zirimoni bereizi bat. Eta, neskuts aiek bezaia, bazuten auek ere beren "soiñeko donea".

Eraspen aundiz so zegien mende zaar aietan neskuts aietaz edo alargunetaz ari diran kanonak, Bisigotiarren eta Merobindarren k.ontzilioetan izango dituzu. Toledo'ko X kontzdioko k.anonen artean adibidez: "De *professione et veste religiosartun viduarum", "Alargan* jainkozaleetaz eta beren soifiehoaz". Eta. V'a: "Soirkko doneaz jantziak izan diran alargunemeek *("quae religionis beste litissent indukte"):"soifieko ori uxteko agertu dezazketen aitzaki e...veusationes") guztiak, bitez, ointzor artuak izan".*

Margunak eta neskutsak batera artuz lege-gintzan aritu zitzaizkigun k.ontzilioak ugari

Euskalerri Zarrean ere izango zan noski orrelako akirgunik. Alargun jainkozale oien erakundea Eliza bera bezain zarra bait da. Oroi Paul Doneak Timoteo'ri esandako "honora ['iduas *quae sunt"* ura: "Egiaz alargun diranak omendu itzezu".

Lekaidetxe ta lekaimetxeak sortu ziranez gero ere jarraitu zuten Eliza--baitan, bakoitza bere etxean-edo Jainkoari eskeifinik bizi ziran neskutsen eta alargunemeen "talde" sagaratu bereizi oiek. ederki bereizi zituan biak 61.5'tean Paris"ko V kontzilioak bi "talde" aietako bakoitzari kanon ezberdniak zuzenduz:

- XII'a lekaide ta kkaimeei: "De *monachis et monialibus vagis septa monosterif per episcopos revocandis",* ots, -aruntz-onuntz munduan dabiltzan lekaide eta.lekaimeak beren lekaide-lekaimetxeen esparrura itzulierazteko gotzaiei" aginduz.

- Xlira neskutsei eta alargunemei.: "De *viduiss et quae rejecto relŕgioraŕs habitu nuptias ineunt, exconununicandis".* Alegia, "eskomikatuak izan bear dutela beren abittua utzi, eta ezkondu egiten diran neskatil eta alargunemeak".

- BAKARTIAK. Egiazko Lekaidetza sortu aurretik, "anakoretak", ots, mundutik "igeseginzaleak" baso, mendi, ta lekaroetara "ana *koreo"* edo "iges egin" da, bakartitzara, ots, bakoitza bera bakarrik bizitzara"' jo zuten eta oraindik ere jotzen duten gizon-emakumeei esan oi zaie anakoretak: bakartiak118.

Eta V11I mendeaz geroko eusk.allekaidetza Claro bikaiñak ere beste sorkerarik izan zezakeala uste izateko arrazoirik ez bait da. bildurrik gabe aitortu aal izango genuke, ortarako dokumenturik ez bA'genu ere, Euskalerri zarrean oso goiztik loretu zitzaigula gure basamortuetan bakartitzaren lore miresgarria.

Gure bakartietaz balio lake Teodoreto Ziro'ko gotzaiak Siri'ko bakartien ugaritasunaz idatzi omen zuanak: *obispo historiador les compara, por su nthnero,* a lcrs *innumerables Ilores que brolan cada primovera en los eampos, donde cY lelo* arra *exhala su perflune carocierfstico"* (lgnacio Petia, op.c.24)

Oroi, IV mendeko Prisziliano'z mintzatzerakoan, aiztintxe esanik utzi duguna. Len ere zabal aztertu genuan gai ori "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" ta "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza" izeneko liburuetan. Badugu ordea doktnnentu geiagorik:

- KUKULLA'KO MILLIAN DONEA bera lendabizi; gero, .Braulio Salduba'ko gotzai doneak idatzitako Done aren "Vita" edo "Bizitza", ru txit ezaguna, Millan il da 60 urte geroago idatzi zuana.

Millan V eta VI mendeetako Donea dugu. Kukulla (Cogolla)'n jaio zan 474'garren urtearen Inguruan. Gaztetan artzai izan zan; eta txistulari yayoa eta txistu-jozale aundia bere artaldea larreetan zaintzerakoan. Beti eraman oi zuan txistu ori berekin. Gazterik sortu zitzaion bakartitzarako zaletasuna, Ta Ibero ibaiaren alboko Bilibio izeneko arkaitzetan. Araba'ko Buradon mendiaren aurrean, bakartasun osoan bizi zan Donefelize'rengana joan zan bakartitzarak.o irakasle billa. Eta arekin urte batzuk emanik. Kukulla'ko mendietara itzuli zan.

Ez dakigu orduan ere txistu ura berekin eraMan zuan. Donebraubo'k ez bait digu ortaz detts esaten. Bere santutasun-dizdira order luze zabaldu

---

Iru mailla izan dira mundutik "anakoreo" edo "igesegite" ortan: bakartiak; zenobitarak; lekaideak. Monreal Jimeno'ri jan-aituz, danei esango diet "lekaide".

zan-da, egunetik egunera, bere itza entzun naiez, jende geiago urbiltzen asi zitzaion. Omenketa ortatik igesi, Distertzio esan oi zaien mendietara urrundu zan, eta an bizitu zitzaigun 40 urtez bakartasun gorrian.

Urruntasun artatik ere iritxi zan bere santutasunaren aipua Taraz.onako uriraifio, ta Didimo gotzaiak Tarazona'ra etorrierazi zuan; eta, bertan, apaiz sagaratu, eta Kukulla'ko parroko izendatu.

Parroko izanda ere, biotzez eta bizieraz bakarti lez ibilli zan beti. Eta beretzat diruak baliorik ez bait zuan, parrokiaren ontasun guztiak ia, tx.noen artean banatu zituan. Ainzuz.en beste apaizek aren jardunkera ori gotzaiari salatu zioteiako, ez zan parroki artako ondasun danak ezabatzera iritxi.

Deitu zuan beregana Didimo-gotzaiak. Gogorki mintzatu zitzaion. Eta eliz-kargu guztiak kendu zizkion.

pozik, Kukulla-Mendiko leitza batera bildu zan, eta an igaro zituan bere azkeneko urteak biziera ]atzean. Eundabat urte zituala il omen zan. Bertzeo'ko Gontzar ek abestu zigun aren ediotza:

"De .seiscientos e doize corrie entoz la era
quando muri6 San esto es cosa vera".

Leitza artan bertan izan zan bere ikasleek obiratua. Eta bereala sortu zan, leitza aren inguruan, gero izen aundia izanen. zuan lekaidetxe bizkor bat.

FELIZES DONEA. V mendeko bakartia. Donebraulio Salduba'ko gotzaia da anakoreta onen berri ere damaiguna. Gutxi dakigu bakarti oniburuz. Ibero ibaiaren lurretan, nonbait Aro deritzan urian edo uri orren alboan jaio zala, eta Donemillan'en irakasle izan zala, bakartitzarako jakintzaren n-akasketan.

"Vir santissimus", "arras gizon donea" izan zala Donebraulio'k idatzi zigun.

SATURIO DONEA. *"Eremita deirrintica Numanzia"* i. an omen zan, Bffiliotheea Sanctorum"ek dioskunez.

Numanzia lai.erazko izena da. Erromatarrek , Nurria Pompilio'ren omenez? izugarrizko borroka baten ondorean ipiñi ziotena. Garat edo Garrai zuan

bere egiazko izena. Erdiaroan oraindik bizirik jarraitzen zuan izena, Naparroa ta Gaztela'ren arteko mugei.-buruzko larruki batean agertzen danez.

Orregaitik sartzen dut Donesaturio euskal-bakartien izendegira, V, VI, mendeetan Garai'n eta Iber-Mendien kate osoan euskera izango bait zan agian oraindik ango biztanleen izkera.

493'an jaio omen zan Donesaturio. 36 urtez izan omen zan bakarti, Sori'tik ez urruti Duero ibaiaren ertzeko leitza batean. An artu omen zuan ikasle bezala, maixutza billa joan zitzaion Armenti'ko Prudentzio gaztea. Eta ikasle onekin urte batzuk bizitu ondorean il omen zan, eta Prudentzio'k ratu omen zuan leiza artan bertan.

PRUDENTZIO DONEA, V edo VI mendeko bakartia. Armenti'n jaio omen zan eta 15 urte zituala joan omen zan Saturio Donearen billa. Ura izan zuan bakartitzarako irakasle. Bakartasun-zale gazteak bakartasunean zaartutako maixu baten billa joate ori oiturazko jardunkera izan zan bft antziñate artan.

Donesaturio'ren gorpua eortziz gero, bakartasunean biziz jarraitu zuan. Zazpi urte omen zeramazkian bizitza artan; bein, mi xio1ari bezala, Kalagurri'ra joan zanean, eta an, entzutera alderatzen zitzaion inguruko jende guztiaren mirespena lortu omen zuan.

Kalagurri'tik Tarazona' ra joan omen zitzaigun, an eliz-gizonen beekoenetan katedralaren serbitzura lan egiteko. AIa iritxi omen zan eliz artako goidiakono edo "archidiaeonus" izatera.

Gotzaia il zanean, bera izan zan, erriaren eskariz, Tarazona'ko gotzai sagaratua.

Bere ekintzarik gogoratuena, Osma urira joan, ango asarreak ezabatu, ta uri artako pakea lortu izatea dugu.

Laturtze-mendian izan zan obiratua.

Soilki agoz-ago gorde zan, luzaro, azkeneko bi Done auen oroitza, baiñan bai Saturio eta bai Prudentzio egiazko pertsonak izan zirala zalantzan ipintzerik ez dago. Ots, ordea: Beren bizitz, eriotz, eta eriotz-ostea edertzeko kondairak sorturiko 1oreak, politak bai, baiña ez dira batere sinesgarriak.

IV eta V mendeetaz gero ere luzaro jarraitu zuten bakartiek gure baso eta mendiak garbai edo penitentzi ta otoitzen dizdira zerukoiaz edertzen.. Noiz arteraiño ez dakigu. Agoz-ago etorritako albisteek Gauna' ko Bitor Done arabatarra XIII mendekoa izan zala dioskute.

Eusko-Edestirako sena bereizia izan zuan imanol Lekuona' ri Gazteiz'ko Apaizgaitegian bere irakasketa batean entzuna naiz, gure mendietan antzifta bakarti asko izan zala, eta gure mendi oien artean santu baten izena darama-ten oietako batzuek, izen ori, mendi oietan bizitutako eta erriak santu egin-dako bakartien izena izan dezaketela.

Elizak mirespen aundiz eta eraspen guztiz onetsi ta lagundu zien bizitz anigarriko bere seme aiei. Ikus, adibidez, 646'ean Toledo'ko VII Kontzi lioak V kanonean dioskuna:

„. au agintzen dugu: Bizitza done baten gurariz beren etxoletan gor-derik bizi diranak *(eos quos propriis reclusos santae vitae ambitio tenet) "asmo* done orrengandik datozki.en merezimendu beraiek babesturik, eta santutasunaz apaindurik aurkitzen diralako, *(quosque eiusden sancti pro-positi et merna luvant et probitas ornat),* Jainkoagandiko graziarekin eta gure aldetiko laguntzarekin *("Dei auxitio et nostro ,favore),* lasai. ta bildurrik gabe jarrai dezaketela: *("quietos et tutos existere").*

Ori bai: kristandiak bakartitzari zion maitasuna loituz, zintzo ibiltzen ez ziran bakartientzat, badu kanon orrek berak zigorra: beren izkutuetatik atera-ta urbillen zegokean lekaidetxean izan bear dutela itx.iak, ango abataren esa-nera.

Baifian ez da egia Eliza bakartitzaren etsai izan zanik. gainera, izan zitekean etsai? Esan dugun lez, gotzairik bikaiñenak bakartitzaren mende aietan bakartiengandik aukeratzen ziran-da? Oroi dezagun Euskale-rrian Doneprundentzio armentiarra. Eta gure iparraldeko mugatik ez urruti, Turona'ko Martin Donea, euskaldunek kuttunki Yondoni Martti izendatu zutena.

- ZENOBITARRAK. "Zenobio" ("Koinobion"), elenerazko "koinos" ("alkarrekin") eta "bion" ("bizitza") itz bietatik datorren izena da, eta "alka-rrekin-bizi-lekua adierazi nai du. Eta ori izan ziran zenobitarrak: "Bakartiak", geiago edo gutxiago, baiñan bakartiak izatez utzi gabe alkarrekin bizitzea asi ziran bakartiak. Alkartasunik gutxien zutenek bazuten beintzat aginmen aun-dirik gabeko buruzagi bat, eta bazuten, baita, otoiketarako elizatxo bat ere.

Ejito'n sortu ziran, eta Pakomio Donea (287-347) izan zuten eratzaille. Laister oartu zan au, bakartien bizierak arrisku asko zuala ta antmaren eta gorputzaren osasunerako gaitz larriak ekarri. zezazkeala. Orizalata sortu zuan

1V mendearen asieran bere lenen "zenobioa", esparru baten barruan bakarti-talde bat

Oso begi onez ikusi zuten gotzaiek Pakornio'ren asmakizun an, eta ugari zabaldu zan mundura. Eta laister iritxi zan Euskalerrira ere, idurt dezakean bezala Araba'ko gobietan bizitu ziran bakarti aiek zenobitarrak zirala egia ba' Iitz] [1]

Gure Euskalerri ontan ere eta bere ingurua.n, Pakomio Ejito'n bezala, bakartiak izan ziran seguruaski gure zenobt-sortzailleak. Bai beintzat Donemillian. Ikusi dugun bezala, zenobi gille izan bait zan Kukulla'ko mendian beregana etorri zitzaizkion bakartasun-zakekin. Berdin, Bitortano edo Bitorio Donea Oska Weska)ren Auriamendietan dagoan Asan izeneko tokian.

*"Vittoriano abate di Asan. Proveniente probabilinetne e dopo rrrr breve ,seggiorno* (egonaldi) in *Francia (Langedoc) arriv() in Spagna de se. V e si ferm6 ad Asein, dandosi a kr vita anacoretica. Presto* (azkar) *perO* (ordea) In *circandato* de *dicepoll accorsi* (etorriak) *al richiiHno della di e qindi* (orregaitik) *decisc (erabaki* zuan) *di fOndare monastea)* ("eenobio" legoke obeki) *consacrato a S. Martino. Parechi (batzuk) dei suoi discepoli diventarano* (billakatu ziran) *vescovi e .sono venerai come santi, ad es.* (adibidez) *s. Gaudioso vescovo di Thrragona* (Tarazona bear luke) *e s. Vicenw vescovo di Huesca"* Sanet.).

Gotzaiak ugari bakartien artetik irten zirala esan dugu: orra or esan dugunaren beste bi adibide: Ueska'ko Bixente ta Tarazona'ko Gaudioso.

Eta Ueska'z ari geralarik – oroi orduan Salduba'ren gaifietik Aragoi guzia Euskalerria zala – emen Antonio Duran Gudiol edestilari aragoita-

---

119. Araba'n antziñako lekaide bakartasun-zaleek iriki zituzten "gobak" eta "gobiak" esan oi zaie. Ta, azkeneko izen ori gure toponimira sarturik dagoalako, "gobia" itza izango da nik geienbat erabilliko dedana. Eta, euskeraz. Gobi-aran esango diot, gaurregun arte beti Val-de-Gobia edo Val-de-Gobea esan oi zaion gure aran "Gaurregun arte". GAUBEA bait da orain Euskaltzaindiak eman dion izena. ¿ Ez ote daki Arantzazu-osteko Euskalezaindi gaixo onek erdiaroan "0" izkia "AU" idazten zata, eta, orregaitik, "Gaubela" ori "Lobea" dala? Gauza berchtla egin du Llodio (Araba'ko erririk nagusienaren izena) Laudio biurtuz, izen ori erdiaroko dokumentuetan LHAUDIO agertzen dalako. daki erdiaroan "All" "0" zan bezah "L1-1" "LL" zala? Beraz, "Lbaudio=Liodio ckdako, Llodio izan da beti gure eusko-uri langille orren izena.

rrak, "Gran Enciclopedia Aragonesa"ren Monaeato" itzean Idatzitako aapaldiok:

*"El anocoretismo aparece en* Arag6n *en la mitad del siglo V "como estrategia de penefraci6n*

*"Floreci6 en Arag6n en epoca vi.vigoda* v *durante la dominaciein musulmana. Se tiene notieias de eremitismos en Vaidonsera, de Noeito, de Ataršs, Wd de Basa, Ribera del Vero entre Alquezar* v *Lectna v otros".*

Zoritxarrez iztegi orrek ez digu dokumenturik agertzen. Agoz-agozkoa jaso besterik ez bait dagi.

*"El paso del eremitismo crl monaquIsmo debiO de iniciarse a principios del s. VI por obra en gran parte del abad Vietorion del monasterio de Ase-in Jimdado entre los aflos 507* v *511. Vietorfan eseribi6 una Regla Monóstica que no ha Ilegado hasta nosotros".*

Aldi berortakoak dira lurralde aietan Alaon'go Andramari ta Donekepa; eta, an, inguruko, Donemikel; eta Asan' go Donemartifi'en zenobitegia; eta Urbez Doneak Serrablo'n bakarti bizitu; gero bertan iratsi zuana; eta, baita, – esan oi danez – Ribagorza'n Seira'ko Donekepa'rena, Nueno'ko Donekepa'rena eta, agian, Val d'Ontsera'ko Donemartifi'ena. Guztiak gaur Ueska esan oi zaion probintziko lurretan, ots, bete-betean orduan Euskalerria zan lurrean.

Itzuli gaitezen ordea aro ontako gure Euzkadi'ren Araba'ko zoko bedeinkatu batera, VI eta VII mendeetak.o gobiak edo gobak, ots, aitzurrez bakartasun-zaleek irikitako leiza arras ugariak aurkitzen diran zokora.

Egia esan, bi dira Araba'n gobi-duten zoko maitagarri oiek. Sortaldean bat, Naparroa'rekingo muga-aldean. Sarkaldean bestea, oraingo Burgos probintziaren alboan izen-egoki-dun Baldegobian: "Val-de-Govia" = "Gobi-Aran.".

Bi txoko oiek dira, arras politak izateaz gainera, basatiak, oso basatiak, batez ere sortaldekoa, txit baztartu ta izkutua, paketsua, mundutik at Jainkoari begira otoitzean jarduteko berdifiik gabeak.

# ARABA'REN SORTALDEKO "GOBTAK"

Asko ta ongi ikertu ta aztertuak izan dira. On Joxernigel Barandiaran'ek edestiaurreko aztarnak aurkitu zituan gobi aietako batean, zulo aietako batzuk oso zarrak izan bait daitezke, naiz geienak bakartiek beraiek iri.kiak izan.

Gaba oiek sakonkien aztertu dituzten jakintsuen artean, A.ugustin Azkarate Garai-Olatin eta Luis Alberto Monreal Jimeno ditugu danetan ontaragarrienak[120].

Idatzi zuan Latxaga'k ere bi oiek leenago gabi oietaz; eta ainzuzen berak, Latxaga'k, asmatu zuan Araba'ren sortaldeko gobidiarentzat (angoak dira ba ugarienak) anitz izen polit egokia: "Europa'ko Kapadozia". Europa osoaren bitxi bait dira, ugaritasunez eta bikaintastme,z, Araba'ko Gobiak!

Neroni ere zabal mintzatu nintzan gure gobietaz "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza" izendatu nuan idaztian, Gobi oien aurretiko bakartiak V mendekoak, eta agian baita IV'aren azkena aldekoak zirala iruditzen bait zait.

Orregaitik, emen, bakarti aien euskalduntasuna babesteko korapillotxo batzuk askatzeari emanen diot nere arreta guzia. Ta emendik aurrera i ,zenobitar? aiei "lekaide" edo "bakarti" esango di.et maizenik, gure bakarti aiek zenobitar" izateko bearrezkoa dan "abata" edo "agintari" bat izan zutenik ez bait dakigu.

Aurreneko korapillo askatu-bearra: Araba'ren ertza bietako lekaide aiek, antziña artan, i,zenbat ziran?

---

120. Bien idazkiak nik erabilli dituanAk – liburu onen asierako "bibliografian" aurki dezazkezu.

Ez da erreza erantzuna:

- Mendeak-zear ezabatutako gobiak asko ta asko dirako, len gobiak zenbat izan ziran ez bait dakigu.

- Leiza batean lekaide bat baino geiago bizitzea gerta izan zttekean gauza dalako.

- Leizetatik at ere, arriz, abarrez, eta Jurrez egindako txaboletan de asko bizitu izatea, era berean dalako errez gextatu izan zitekean

Euskal-etnografiak badu gaiñera ortarako babeski eroso ta egint'erreza: zugaitz-adarrez eta zotala esan oi zaien lur-zatiz eratua: ikazkiñek eta basa-gizonek lurrean zugaitz-adarrak mutturrez gora – A – kako baten antzera sartuta, k.anpotik – adar oien bizkarraren aurka zabalki ta zelaiki zotalak belar eta guzti bata bestearen gaiñean 11 iñiz eraiki O1 zutena: euriarentzat egokia, eta, belar biziari eskerrak, lur eze biziz eratutako zulo bat bezalakoa eBela neguz, eta, udaz, ozkirria.

Dakusazunez, aurreneko korapilloa, gure gobietako lekaideen zenbatekoari dagokion korapillo ori askatzea ez zaigu erreza gertatu. E Errezagoa izango ote zaigu bigarrena, gobi beraien zenbatekoari-buruzkoa?

Eztare, mendeak-zear, ekaitz, elur, eta lurraren harrenera sartutako uraren eragiñez, eta gizakumeon enaskerien erruz, edo industri-ekintzen ondorioz, goti asko erabat ezereztu bait dira. Sarkaldeko goti batzuk dauden malda, adibidez, ondarrobi biurtua izan dalako, uste dan baiño geiago bait dira galdu ditugunak. Gaur bertan ere, erarik negargarrienean aurkitzen da gure altxorrik aberatsen ori.

i Zenbat. ote dira ba, guztira, Araba'ko gobiak? Osorik edo ia osorik iritxi zaizkigunei jausirik daudela argi ezagutzen diranak eta maldaren uztarnek an len gabi bat izan zala adierazi nai dizki etenak alkartu ezkero, eundik gora ziurki, eta ia eun da berrogei ta amarretik *ez,* urruti, bearbada.

Zer aldil«)ak ziran an bizitutako lekaide aiek? Ori bai, errez askatu dezakegun korapilloa dugu: Leizak, bakartien bizi-leku bezala, bertan agertutako ugarien kerik adierazten digunez, VI eta VII mendeetakoak ezpairik gabe. Ortan, zalantzarikge, batera datoz ikerle guztiak.

Leiza aietako batzuk. an lekaideak bizitzen asi baiño zarragoak dirala badakigu. Baiñan, ango lekaide asko, bakoitzak bere leiza iriki aurretik egurrez eta zotalez egindako txaboletan bizitu ziran – eta ]eiza guztiak iriki ondorean *ere* leizek ar zezazketenak baino geiago ziralako egurrez eta zota-




Igiesias de "Sarracho". Albajna. Condado de Treviim
*(Scg17* Alherto *Monrecil y Jestis M. Mon;-e.ol)*



Vano geminado. Complejo alto de "Santorcaria ¯ de Laño. Condado de Tre \Ino.

# ARABAKO «GOBAK»





Inscripciones de la iglesia superior de "Las Gobas" de Laño. Condado de Treviño.

lez craturako bapcspeetan bizituz jarraitu zuten jakiterik ez dugu. Nere ustez bai, "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza"n egiztatu nal izan nuan *lez*.

- ;Nongoak ziran? Bertakoak. Euskaldunak. Sarkaldeko gobiak Autri goitarrena izandako lUrrean daude. Sortaklekoak Bardulitarrena eta Baskoiena izandako lurren muga-mugan. Beraz, ameskeri oro azturik utzi-ta, bildurrik gabe da aitortu-bearra lekaide aiek, Araba ta Bureba'ko Autrigoi, Errioxa'ko I3erondar, Araba'ren sortaldeko Bardulitar eta Naparroa'ren egoko baskoien semeak zirala: Euskaldunak.

Badantzut irakurleren baten galdea: Orain arte esan oi dan bezala ote ziran bisigotak? Ez.

Badugu nasketa aundia sortu digun esakizun bat: "Esas cuevas son, etertamente, de epoca visigoda". Ori bai, dokumentuen argiTa, leiza aiek eta bertango biztanleak "bisigoten aldikoak dira ezpairik gabe", naiz leiza bat edo beste zaarragoak izan, baiñan ez dira Bisigotak. Ez daitezke izan *ere:*

- Dokumentuen aurretikoa izatea badaiteke Araba'ko hakartitza, pris-zilikeria ikertzerakoan ikusi genuan Baiñan V mendean emen Bisigotik ez zan. Galietan zeuden Tolosa uri-buru zutela.

- VI mendearen bigarren erdira arte, ots, Leobigildo gure aurka gudan asi zan arte Bisigotak ez ziran gure Euskalerrira alderatu. Naiko km izan zuten Galietatik Klodobeo Frankiarrak ostikoz Espafii'm bidali zituanez gero, anai-arteko borroken artean beren erreiñua sendotzen.

Eta Leobigildo'z gero ere, Baskoien egoaldean, Berondarren Errioxa'n eta Ego-Autrigoien lurretan ez zan sekulan Bisigotak erabat bizitu. Gudariak soilki, eta auek ere oso epe laburrez: Euskalerriari erasotzera etortzen ziranean bakarrik. Baiñan laister izaten bait ziran emendik uxa-tuak, gudari aiek ez ziran iñoiz ere emen oiñak ziurki jarri aal izateko gai izan. Gudari ez zanik, ots, artzai, nek.azari, arotz, zurgin, meatzari eta gai-ñerako langille bisigotarik ez zan iñoiz gure lur aietan bizitu. Soilki, eta soilki borroka-aldietan gudariak.

Ta, esan bearrik ez da izango noski, gudari aiek ez zirala mendi-zokoe-tan otoitz egiñez bizitzeko asmoz etortzen.

- Baskoien aurkako "limes" esan oi zaiona aipatzen dute espaifi-zale batzuek. "Limes" erromatarrek muga arriskutsu baten luzaroan eraiki oi zuten gaztelu-ta-torre-kateari esan oi zioten.

Baiñan Euskalerrian ez. zan sekulan orrelako katerik izan. Ez dute beintzat Erroma'k.o edestilariek aipatzen. Ez zan bearrezkoa ere, emen Erromatarrak, Krist'aurreko II mendeaz gero Euskaldunekin pake goxoan bizitu bait ziran. Geroxeago, .Krisr aurreko I mendean, Sertorio'ren gudatea, ez zan bil Erroma ta Euskalerriaren arteko borroka izan, erromatar bedaien baitan anaiarteko gudua baizik. Baiñan gudu ortara ere sartu egin ziran euskaldunak, txoroak bezala ajola ez zaizkigun arazoetara sartzeko beti izan dugun oitura madarikatuari jarraituz. Gaiñera, sartu ere batzuk alde batera eta besteak beste aldera sartu ziran, gure-artean-alkar-onartu-ezin-ori betiko oben nabarmena bait dugu.

- "Limes" oiei-buruzko aburua. zutik gordetzeko, 1 Alfontso errege Bisigot Asturiarrak Euskalerrian arrapatu omen zituan uriak aipatzen dituz- Uri aiek omen ziran limes artako gazteluak. Baifian:

- I Alfontso, VIII mendearen bigarren erdikoa da, orduaN gure gobategietan bakartirik *ez* zan garaiekoa. Eta, gaiñera, aren ekintza oiek ez dakigu zenbateraiñoko egiaztasunarekin idatzi zituan, X mendearen sarrerakoan, Sebastian gotzai errege-losintxalariak.

- Euskalerriko "limes" ura osotzen omen zuten uri aiek erromatekoak ziran, eta ez zituan iñork gudatetarako sortu, lanerako ta bizitza paketsu atsegiñerako baizik; uri aberatsak ziran. ;Nola gaiñera aberatsak! Batzuk, meazkiak urtuz, azokarako beren diru bereizia ots, "akufiatu", aal. izateko aiña!

Gaiñera uri aiek ez zitezkean beiñere gobietako bakartiak euskaldunengandik babesteko uri-gaztelu biurtualc izan. Zergaitik? Uri aiek Ibero-Ibaiaz aruntz daudelako, eta ibero ibaiaz onuntz, berriz bakartien gobiak, bisigoten arerio beltzak ziran euskaldunen turretan.

- Norbaitek, agian, "limes" ura bakartiak arabitarrengandik babesteko zala, esan dezaidaket. Ez ba. Arabitarrak gobategietara urbildu ziranean gobategietan bakartirik ez bait zan!

Gobategiak, Bisigoten gartekoak izan ziran. Baiña:

- Azkeneko aurkikuntzek – Buzaga'koek eta Aldaietalcoek. – erakusten diguten bezala, erabat buruan sartu bearra dugu Euskaldunen eta Bisigoten artean ez zala batere arremanik izan. Ego-euskaldunek ez zutela izan beren egoaldeko jendeekin ezpata ta gezien bitartekoa beste arremanik! Iparraldekoekin, bai. Akitaniarrekin ainzuzen, bai; naiz Frankiarrekin Bisigotekin bezala beti borrokan Euskalduna izaki Akitani zaerra!

Euskalerriaren egoaldeko muga, soilki borroka-gogor-odoltsu-leku izan zan; ta Euskaldunen eta Bisigoten arte.k.o alkarrizketa, soilki gudutegietako karraixtz, oifiaze-marruz, eta gorrotozko aien-otsez, egin zana.

Ez, Bisigotak ez zitezkean Euskalerrira etorri. Ederki Agustin Azkarate k, Bisigotek bein da berriro erasotzen zigutela oroituz gero, Latxaga'ren itzak erabilliz: "Los *vascos impiden la invosiOn, Se mantietzen firmes oute el peligro".* Gorrotozko giro artan, jakiña, *"todo lo visigodo serÍa rechozado radicalmente por el peligro que representabo".* (Azkarate op.e. 492).

Beraz, bisigotak ez zitezkean etorri gure niendiotara. Eta ez ziran etorri. Ez zuten etorri-bearrik ere! Bazuten ba bakartasunean bizitzeko beren lurrean bertan bakartasunik aski, Bisigoten Españi ura, urietatik :it, ia guzia bait zan bakartasun utsa.

Ziurki, zalantzarik gabe, eskiertasun osoz ausartzen naiz onako au esatera: Gobietak.o lekaide aiek Euskaldunak izan ziran.

- Bisigotasun-zaleen azkeneko arrazoia, auxe izan oi da: gobi batzuetan perra-makoa agertzen dala eta idazkera — bateren baten ustez — bisigotenaren antzekoa dala. Ez dio ajolik. Perra-makoa ez da jatorriz bisigotiarra. Bazan leenago ere Afrika'n. Eta andik Espaili'ra; eta — agian Bisigotak onera borrokalari alderatu aurretik — Espafit'tik gurera, bai. beintzat gure egoaldera etorri izatea badaitekeala iduritzen zait, Prisziliano berriro eta Prisziliano'ren aurreko Iliberri (Eibira, Granada)'ko kontzi.lio ura birgogoratuz. Guzti ori, egoaldeko aizea, bisigotiarren aurretik, Euskalerrira errez eta azkar iristen zalaren adi g arri bait da.

Eta zorioneko perradun-mako-kera bisigoitiarrei ostua izan ba'genu ere ,zer? Euskaidunok *ez,* dugu etxegintzarako gure kera edo estilo bereizirik tzan..Erbesteetatik etorritako erak erabilli izan ditugu. Ez dugu, eztare, gure idazkerartk izan. Atzerrietako idazkerak erabilliz idatzi izan dugu: Iberitarrena erabilliz aurrena, eta gero, Europa'ren sarkalde guziak bezala, Erromatarrena gure-biurtuz. Orrela ari bait natz idazten oraintxe bertan ni neroni.

- :¸Nolakoa ote zan gure leizetara bildu zan jendea'? Gizarte-mailla danetako eta kultura-mota guztietako jendea urrundu zan, Kristaudi zabalean, baso ta lekaroetako zokorik izkutuenetara garbai-toki egokien billa.

Uste izatekoa da beraz,- Euskalerrian ere gizarte-mota guztietakoak izango zirala gure basoetara baztertu ziran gizakumeak: attorrenseme, eta erri landerrekoak, kulturakoak. eta, geienak, kristaudi osoan bezala, kultu-

rik gabeak; apaizak eta eza aizak. Apaizak ziran seguroaski, gobietan idazkiak utzi zizkigutenak. Baiñan ango ume-lana diruditen beste marrazki batzuen egilleak ez ziran noski kultura aundiko jendeak izango.

Eadatorkit azterkari batzuen irriparrezko galdea: ¿Aitorren semealc eta kulturazko gizonak VI eta V1l mendeetako Euskalerrian?

Ta, ¸zergaitik ez? i¸Gure asaben etsai gorrotatzaille sutsuak izan ziran Bisigoten eta Frankiarren idazleek Euskalerria basapizti utsen lurra zala esan zutelako? Beste arrazoirik ez bait dute gure Asaben izena gaur oraindik zikindu naiean agertzen zaizkigunek.

Baiñan ez du oietako gure VI eta VII mendeetal«) gure Asabak munduko bi gudarozte indartsuenen aurka alako denbora luzez, goian-bean muga guzdetatik.o etenik gabeko gudu gogorrean beti garaille irtetzeko gauza, batere kulturik. gabe nola izan zitezkean azaltzeko saio txikienik ere egingo.

Araba'ko Gobiak bakartiz beterik aurkitzen ziran aroan, aien aideek Frankiarren eta Bisigoten, eta Bisigot auen atzetik mundu osoarentzat ikaragarrizko arrisku ziran Arabitarren aurka lortutako garaipen luze etenik gabea bezalako mirari arrigarri bat, ez bait dezake buruzagi. yayo eta aien esanera gudari erne ta auen serbitzura era orotako langille trebe, argi, bikain, ugariz beterik ez dagoan. Erri batek lortu.

Ez du, ez, oietako iñork gogora ekarriko, nola laister IX mendean, Europa'ko kultura erarik makurrenean aurkitzen zanean – Kordoba kultur-kabt bikaifieko gizonik garaieneko bat Euskalerrira etorri zan, eta, nola, ta zenbateraiño, gizon ori Doneeulojio alegia – euskal-lekaidetxeetako kulturak affiturik utzi zuan.

- Euskalerria erri atzeratua, ezjakiña, ta basati utsa agertu nai izate ori, idazle espaiiizaleen seta izan da aspaldiz gero. Oso erreza da arrazoirik gabe ari izan dirala agirain ipintzea. Antziñate artan Kordobal«) Eulojio Doneak gure lekaidetxe basa-tietan aurkitu zuan kulturaz arriturik idatzi zigun ezkero edestia-zear gure aldeko dokumentuak urteen etorreran gero ta geiago bait ditugu.

- Ta..., betiko galdea datorkit burura: Baiñan Euskalerri'ko gizaseme aien antzera, ote genduan basamortuetara baztertu ziran gizaalabarik izan.? Bai noski! Gizonak bezain trebeak eta ausartak izan bait ziran kristaudi osoan emakumeak. Ez zituan ezerk ikaratu. Gizonez.koen biziera latz guztietara sartu ziran. Ez ziran noski makalagoak. izango gure emakumez-

koak. Gobategletan eliz bikoitzak agertu zaizkigu. bikoitz oietatik, bat gizonezkoentzako eta bestea emakumezkoentzako izan ote ziran eratuak?

LURPEKO ELIZAK: Otoitzerako bazuten eliz txukunik gure gobjetako bakartiek. Gobi beraiek. bezala lurpean irikitako elizak. Miren Neskutsarena adibidez Faido deritzan erriskan. Guztira, amaikarenbat eliz bai, Araba'ko gobategietan, eta baita berrogeiren bat ere Naparroa'ren egoaldetik. Ibero ibaia gora Euskalerri Zarreko gobategietan. *"Camidad que debe incrementarse ha que por diversas* VíaS ,ʸabernes *que se utilizaron adem4s como oratorios algunas estancias cuya planta v estructura no responden a las tipologlas usuales en los templos* (orrela adibidez Korro'ko Donibane' n eta, auek Errioxa'n, Arnedo'ko Donetirso' n, eta Erza'ko elizatxoan) lo *que debe ponernos alerta sobre todo crl tratar de aquellos grupos en los que aparememente no existe definida".*

Ez da ez gaizki esana Monreal Jimeno'k, aipatutako bere liburuaren 237'gn. orrian dion ori dana. Ori berbera esaten digu geroxeago ere: "Una *simple iglesia a veces litneionci como nncleo monastleo pot*ʸ*lue el asceta o aseetas vivfon en ,su interior En otros casos la 4,Y lesia pudo ser rupestre, v las celdas hechas con materiales elimeros que rio han dejado huella"* (Monreal *Jimeno,* "VII Semana". op.c. 242).

Badira eliz guiti oien artean —ez dakigU zertara.ko – bi aldare, eta bana iru ere dituzten elizak: Eta, esan dugun bezala, badira eliz bikoitzak ere: aitzaren maldan bata besteren gaiñean anzurrez irikiak, edo bata bestearengaindik oso bertan, edo bata bestearen saietsean, edo buruz-buru, ots, absidez-abside alkartuak.

Araba'ren sortaldeko gobietan, eliz bikoItza da, Faido'n, aipatu dugun Miren Neskutsarena, eta badira eliz bikoitzak Lario'n eta Albaina'ko Sarratxo mendian.

Eliz bikoitz oiek i, zertarako ziran? Irukoitza izan daiteke galde orri errian dezaiokegun erantzuna:

Bakartiak ugaritu ziralako lengo bakarra txiki gelditu izatea. Baifinn:

Ori ontzat artua izateko, aurretik bi eliz aiek garai berekoak ez ziran jakin bearko litzake.

Gaiñera, gogoan gorde bearra dugu bakarti aiek ez zeudela gu gaur bezain liturgiari lotuak. Bizitegi zuten leiza bera errez izaten zala besterik gabe eliz bezala

Bi elizetako bat bakartientzat ta bestea erriarentzat irikiak izatea. Ala, adibidez, bi elizak bata bestearen gaiñean dituan Faido'ko Miren Neskutsarena; goikoa beekoa baiño txikiagoa dualarik, goiko ura izan bait. zezakean bakarttentzat; eta erriarentzat beekoa. Ederki gordeko bait litzake orrela bakartien bakartasuna.

Baiñan bakarti aiek bakartasunari ain uztarturik aurkitzen ziranik, ez dakigu. Aregeiago, liturgia erriarentzat igandeetako ekintza bakarrik izaten zala gogora ekartzen ba'dugu.

Bestalde, erriko jendea igandeetako liturgira bakartien etizetara joatearen aldetik, eragozpenik ez. legok.e, bakarti zar aiek, kristaudi osoan, beren zaiñetan bait zeramakiten apostolutzarako leia.

Bigarren eliz ura parroki ote zan? Ez dakigu. Baiñan ArabaTik at, Euskalerri Zarrean, izan ziran parroki-lana *egin* zuten arkaizpean bakartiek. zulatutak.o elizak bat baiño geiago.

Bada irugarren aalpen edo posibilitate bat ere: goraxeago, ainzuzen, aipatu duguna: bi eliz aietatik bata lekaideentzat eta bestea lekanneentzat egiña izatea. Izan bait ziran Eliz Orokorrean LEKAIDE-LEKAIMETXE-AK, gizon-emakume bakartasunzaleak alkarrekin bizitzeko sortu oi ziranak: "MONASTERIA COMMUNTA", "MONASTERIOS MIXTOS", "MONAS-TERES DOUBLES".

l Izan ote zan gure gobietan orrelako bakartitza bikoitzik? Braulio Salduba'ko gotzai Donea lekuko, Kukulla'ko Donemillan'en tzan zala badakigu. bItan ote zan Araba'ko gobategietan ere?

Elizak beti ikusi izan zituan kezkati sekso edo kundebiko egoi.tz oiek. Orregaitik, lekaideen gelak lekaimeenetatik urruti egotea eta aien eta auen otoiztegiak ere bereiziak izatea nai izaten zuan: eliz bat Iekaideentzat, beste bat lekaimeentzat.

Ona zer dion "Regula Communis" edo "Araudi orokorrak" bere XV kanonean, "qualiter *monasteria virorzatfa ae puellarum se eustodire debeant"* edo "lekaide-Iekaimeen alkarrekingo etxeen zainketaz" ari "Plactlit *sanctae comnumi regtdae rat monachi cum .wroribus uno monasterio habitare non audeant, neque oratorium commune habere presumant" (P.L.* LVII,I 122): Euskeraz: "Ez bitez lekaideak lekaimeekin etxe batean bizi.tzera ausartu, eztare otoiztegi bakar bat bera erabiltzera".

Gure 'gobategietako eliz bikoitzak dakarzkit burura "otoitegi bat" ez erabiltzeko agindu orrek [121].

Argi-argi lekaide-lekannetegi naasi oien aurka dagerkigu "Araudi Orokorra" bere XV kanon ortan. Bide ortatik zebillen Kristaudi guzian Eli z Orokorra ere, baifian alare, *monachisine double constituait une practique tres jrc.5"cuente en Orient et 'on trouve de{ja Ptcib1 e en Espagne par canon du concille de du 6.11":*

Euskeraz: "Lekaide-le.kaimetza bikoitz ori txit zan oiturazkoa Sortaldean, eta 61 I 'an Sebilla'ko kontzilioaren XI kanonean dakusgunez, ordurako bazan Españi'n ere" ("Die. Hist. Geo" XIX, 220).

Bai ote zan Euskalerrian orrelako "monasterio mixto" edo lekaide-lekaimetegi alkarrekingorik? Izatekotan, bere bi elizekin, aiztintxe aalpen edo posibilitate bat eman diogun Faido'ko Miren Neskutsaren eliz bikoitza izan genezake lekaime-lekaidetegi aien aztarna, goiko eliz txikia lekaimeentzat eta beekoa lekaideentzat zituala.

Egia da gure bakarti zar aien leizak aurkitzen diran Araba'ko bi deak gaur bertan ere aski leku baztartuak eta basatiak dirala. Baiñan auek bezain baztartuak, latzak, eta gogorrak, dira Kukulla'ko mendiak. Alataguztiz an lekaideekin batera garbaigintzan lekaimeak ere izan zirala eski.er badakigu. Kristaudi osoan izan bait ziran emakumezkoak gizonezkoak bezain ausartak.

Ortik, ordea, ez dezakegu gure gobategietan emakumezkoek eta gizonezkoek zenobio bikoitz baten eran bizi ziranik atera.

Sebilla'ko kontzilio ark ere, ez du Iztegi. Frantziarrak aditzera eman digun bezain argi lekaidetegi-lekaimetegi naasirik aipatzen. Soilki, "lekaimetxeak lek.aideen zaintzapean ipintzen ditu "De monasteriis num a monachis tueantur".

Ona Vives'en. itzulpenean kanon orren sarrera: "Decretamos *que monasterios de religiosas jUndados en lcr provincia Bffica sean regidos por el consejo -y administraci& de los monjes".*

Izkera ortatik beintzat ez. dut uste Andaluzi'ko lekaidetegi aiek zak izan zirala atera daitekeanik.. Atzipeturik da nere ustez iztegi eder

---

121. "Regula Communis' ori Brakara'ko Fruktuoso Deunak idatzia izan balitz bezala argitaratu 71.1a1) Miguek bere "Patrologin LatinaTh. 099-1930). "Regula" ori norent dan ez dakigu, bainan Fructuoso'rena ez dala,

ori. Ez diot esan nai, ez litzake agian egia izango ta, Andaluzi'n alako lekaidetegi bikoitrik izan ez zanik; soilki, ori oiñarritzeko bere aipuak naiko baliorik ez duala esan nai diot.

Alare, azken-itza irakurleak berea. dezan, kanon osoa emanen diot emen, luzea dalako laburpenaren leiaz. soilki Vives'en gazteleraz. Zerbait kako-tartean ba'du, nik sartua izanen du:

*Cdtton XI: "De los monasterios de las virgenes. Que sean pmtegido.y por los monjes. En un unde·chno lugar decretamos por coman acuerdo que los monasterio,y de las religiosas fundados en la provincia Be·tica sean regidos por el consejo v administraciOn de los numf es:* ("monacorum administratione ac praesidio") "Pues, *entonces buseamos medidas saludables para las virgenes consagradas a Dios, cuando designamos para ellas padres espirituales, los cuales no solamente podran avudarlas con su direecian, sino tambic'n echl icarlas con su doctrina, guardandose sin embargo esia precanciOn acetra de los monjes: que apartados de cualquier trato particular con ellas no tengan permiso habitual para acercarse a la porteria* (nec usque ad vestibulum habeant accedendi permissum).

*"Ni tampoco podrón* nada *respecto* a *que toca a lcr re forma. de la.y costumbres, ni el abad, ni aquel que estu al frente de ellas, sin contar con la que gobierna a las vÍrgenes de Cristo, es conveniente para ellos hablar a soks con la superiora, sino en presencla de dos o tres hermanas, de tal modo que las visitas sean raras* yla *conversacian muy breve.*

*"Queremos pues que esta muy lejos de los monjes lo que s610 el nombrarlo es una maldad, el tener famillaridad con las vlrgenes de Cristo, sino segan lo que los preceptos de las reglas y de* los *cdnones previenen, muy distatues* v *separados, confiamos solamente ala direccian de los monjas a estas, ordenando que sea elegido un nunije muy probada que .se encargara de admitastrar las fincas de las religiosas, tcmto rasticas como urbandy, construir los edificios, y si necesitan alguna otra cosa proveerla cont Orme a las necesidades del monasterio, para que las ,y iervas cle Cri,yto, solfritas iinicamente del aprovechannento de sus almas, se entreguen solamente al canto divino v se consagren aS us tareas.*

*"Ciertametne, aquel que ha sido consagrado por el abad debe ser aprobado por el obispo..*

"Y *ellas, a vez, tejeran los trajes necesarios para aquellos corventos de los cuales esperan protecci6n y de los que, como ha sido dicho, van*




"Sarracho" I y 2. Iglestas.




Varios: A) Grabados del "Barraneo de Venta" Urarte. B) Antropornorfo de "Sarracho" (Albainia).
C) Grabado de "Gurtupiarana" 2 (Urarte). D) Cueva colgada de "Santorearia" (Laño).




Iglesia superior de "Las Gobas" de Laño. Conciado de. Trevifio
(Segtin L. Alberto Monreal y Jesds M. Monreal)



Iglesia superior de "Las Gobas" de Laño. Condado de Trevitio
(Seguin L. Alberto Monreal y M. Monreal)



Cueva 2. Igiesia. Sec ción trartsversal hacia 1i cabecera.



Cueva colgada de . Condado de Tı

C -31 3 r

r -/

"Fartalds de Cilla. San Pedro.




Tartalds de Cilia. "Cuevas *de* los Portugueses". (Croquis). Burgos.

*a reeibir los frutos del trabajo y ayuda en ka* *[Iesti6n de los negoeios.* Y *si alguno de los que viven eu* tos *monasterio.s despreciaren esta ordenaciOn, o La desculdaren por ura cierto abandono o inercia„sepan que su tibieza soberbia serci castigada con la pena de excomuni6n".*

GIzan ote genuan !3'1 guk Euskalerrian lekaidetegi bikoitzik? Bikoitza izan bear du, naitanaiez, erantzunak ere:

- Bai! Izan bai genuan Kukulia'n

- bakarrik? Seguruaski, ez! An izan ba ziran uste izatekoa da Euskalerri Zar aren beste bazterretan ere izango zirala. Bat bait zan Erria: Euskalerria. Eta Erri bakar orren altzoan jite berekoak bait ziran an, or, eta emen, Erri bakar orren u Me ak.

Danadala, beste gai batera igaro aurretik., onako au aitortzera bearturik aurkitzen gera: Gobien artean aurkitzen diran elizak, eliz geiegi dirala gure egunotara iritxi zaizkigun gobietan bizi izan zitezkean lekaideentzat.

Baiñan gorde dezagun gogoan Monreal Jimeno'k esan digunaren bidetik: Len gobiak orain baiño geiago izan zirala; lekaide asko eta, berdinki, baita lekaime asko ere, inguru artan lekaimerik izan ba'zan txaboletan bizitu izatea badaitekeala eta, orregaitik lekaideak – eta lekaimeak agian – ugariagoak izango zirala: eta, azkenik, eliz aietara erriko jende soilla joatea ere izan daitekean gauza dala.

SENDI BAKARTASUN ZALEAK. Ez Bisi gotiarren ez Merobingiarren kontzil.ioetan ez dut sendi lekaidetza-zale oien aipurik aurkitu. Baiñan "Regula Communis"en kanonetan lausorik gabe dagerkigu lekaide izateko lekaidetxeetara sartzen ziran sendi osoak izan zirala eta aski ugari izan zirala gaiñera.

"Regula Communis" ori, eta Fruktuoso Donearena, – bai bait du onek ziurki berea dala badakigun Araudi bat Julio Campos eta Ismael Roca'k aztertu dituzte ongienik eta sakoneniki [22]. Oridalata, Campos'en itzulpene-

---

r22. " Santos Padres Españoles II, San Leandro San Fruetuoso San IsIdoro. Reglas Monãsticas de la España Visigoda. Los Tres Libros de las Sentencias". B.A.C. 32 , Madrid, l97 I .

an emango ditut nik "Regula" aren VI kanonean dakuskigun albisteak, guretzat benetan arrigarriak:

- *"Cuando llegara algtaen con su mufer o hijos pequeños, es decir, menores de siete anos, estd detenninado por la santa regla eonu'in gue tanto los padres como Ios hijos se entre ¦ulen a jurisdieek5n del abad, quien por sŕ mismo dispondra razonablememe para ellos con toda solicitud que deben observar".*

- *"No han de tener potestad alguna de su cuerpo ni preocuparse del ahmento o del vestido,.. de bienes o casa de campo que yct abandonaron",* edo, berdin dana, senar, emazte, umeek, Iekaideak bezala bizi bear dutela.

- *los padres han de estar pendientes de sus hijos ni sus hijos de sus padres, ni se han de entretener en mutuas cymversaciones, excepto Sr lo permite el abad. Sin entbaw) los tiernos pequefiitos que todavia se entretienen con juguetes, tendrdn licencia por piadosa coneesian, para acudir a su padre o madre cuando quieran, con el fin de que no vayan a caer los padres en el vicio de lca murmuraciOn por causa de ellos, poque suele haber mucha nutrmuraciOn en los monasterios con motivo de esos parvuliws".*

(Sendi osoak lekaide biurtze ori aski zabaldutako gauza zala adierazten digutelako azpimarratu ditek nik itz oiek)

(Ume txiki oiek ere, betirako sartzen ziran lekaidetxera. Orregaitik, zaindari bat ipintzen zitzaien eta umetxo oiei. lekaidetza erakustea zan za dari orren eginkizun nagusia):

- *"Los parvulaos deben ser cuidados por ambos padres hasta que conozcan algan tanto ka regla, v en ella han de ser instruldos para que tanto los niños como las nirias se sientan atratdos:al monasterio donde habran de habitar.*

(Nere azpimarrazketa oiek, mutiko ta neskato aiek ere beren gurasoek bezala lekaidetzara edo lekaimetzara betirako sarturik gelditzen zirala adieraztearren egiñak izan dira).

(Zazpi urtez gorako urnerik ez du kanon orrek aipatzen. Agian soiñez eta adimenez aski aziak eta eziak zirala iduritzen zitzaiolako).

*"Deben ser instruidos tambien por otra parte* (ume txiki aiek.) *de modo due sin bendiciOn y permiso no han de Ilevar nada cr Ia boca".* Zaindariaren eginkizuna da, baitare "que *no hagan rri digan nada presein-*

*siendo de la regla* v, *desde luego no etngan en mentira, hurto o perjurio. Si fueren cogidos en alguno de los delitos predichos, sin demora set*[yr]*in costigados con la vara".*

Lekaidetxeetan unerik izaten zala, gauza jakina da. Baita, geienak beren gurasoek Jainkoari betirako eskaifiital«mk zirala, eta sekulan lekaidetxetik irtetzerik izango ez zutela.

Ikus, liburu ontan bertan, 633'an ospatu zan Toledo'ko IV kontzilioaren XLIX kanona: "eis *ad nnindum reverti intercludimus (Witum",* ots, "ume oiei mundura itzultzeko zirriku guztiak isten dizkiegu"), eta 656'ean ospatutako X'aren VI'a: "sub *aeterna districtione huisce observantioe observire cogontur",* ots: "inpernuko sua izango dutela zigor, mundura itzultzen ba'dira" [123].

Alderantziz, II'ak, 106 urte leenago, umetatik apaiz izateko eskeiñiak izan ziranei. beintzat, 18'garren urtea betetzerakoan, ezkontzeko baimena, eta, bein ezkondurik, edo munduan ezapaiz bezala bizitzen jarraitzeko edo, naiz ezkondurik egon, apaiz sagaratuak izateko eskubidea eman bear zitzaiela agindu zuan.

llzan ote zan gure gobategietan orrelako unerik ela orrelako sendi bakartasun zalerik? Galde bikoitza da ori:

- Gure gobategietan aurtxo txikirik ez zala beiNere izan, bildurrik gabe esan daiteke. Umeak artzen zituzten lekaidetxeak bakartien zulo ez bajfia lekaidetxe sendo ederki eraikiak eta umeen bearkizunei erantzuteko – orduan lortu aal zitekean eran – ederki gertutuak izaten bait ziran. Gure gobategiak, alderantziz, basati-leku gorriak ziran.

Ori orrela izanik kontzientziko kristau batek ez zezakean gure gobi oietan bizitzeko eta bertan azia eta ezin izateko aurtxo txikirik artu.

Alare, Monreal Jimeno'k aurkitu omen ditu alkarren alboan iru illobi, eta beren neurrien araura batek gizonezkoarena, besteak emakumearena ta

---

123. Arras jakingarria iduritzen zait kanon au, garat artan lekaidetxe edo lekairnetxeetara eskaifiiak izaten ziran urnetxoen zor-ia ezagutzeko. Baitan, luzeegia izateaz gaiñera, lihum onen gaiari zuzenean ez dag-okiolako, *ez* dut emen emango. Ona, alare bere erdialdeko rnuiña: "Si en cualquier t,-".poca de la minorfa de edad, los padres, uno de ellos, o los dos dieTen ts sus hijos de uno o de otro sexo, la tonsura de la relgiOn o el Mbito propio de una religi6n ‹religioni clebinun vestern>, no les será Ifcito en modo alguno a las hijos volver a tornar otra vez eI hLThito seglar... y seran obligados a seguir esta observancia bajo pena eterna".

irugarrenak ume batena izan zirala ematen omcn du. Baiñan iru illobi oiek ala ba'lira ere, geroago, VIII mendearen asieran bakartiek gobietan bizitzez utzi ondorengoak izan omen daitezke.

- i, Umerik gabeko senar-emazterik, izan ote genuan Euskalerriko gobategietan? Ez dakigu.

- Eta, – Kristaudi osoan bakartitzaren barrutian gizonezkoak bezain kementsu ibilli bait ziran emakumezkoak. , gobietatik at gure baso ta eremuetan bakarti emerik. izan ote genuan? Erantzun ziurrik beintzat ez dugu galde kilikagarri onentzat. Baiñan Done emeen izena daramaten tokiak bai bait ditugu, eta, baita, ongi toki bakartsuetan alako Done aien omenez eraikitako baselizak ere , badaitekean gauza izango litzake izen oiek, edo beintzat izen oietako batzuk, an garbaigintzan bizitu ziran eta erriak donetu dituan emakumeenak izatea.

BESTE ERA BATZUETAKO BAKARTIAK: Leitza ta txaboletan bizitu ziran bakartietaz, mintzatu gera. Baiñan izan zan Kristandian, bai orixe, beste era batzuetako bakartirik ugari. Ona ezagutuenak:

- "STATIONARIF edo "zutegonleak": *"monjes que se condenaban a la inmovilizackin absoluta. Se imponfan como regla ei estar siempre de pie sin hablar ni alzar los gjos, sin extenderse para dormir"* (Ignacio Peña. op.e.25).

Lo artzean, lurrera ez etortzeko zugaitz bati lotu oi zioten besarpetik beren gorputza. Biziera orrek gogorturik, ibiltzeko gauza ez zala amaitu omen zuan Karres'ko Abraan'ek bere bizia. Gure artean orrelakorik bai? Ez dakigu, baiñan euskalduna ibilkaria izan da beti: "inquietos vascones", "vasco levis"; nere liburuak irakurri ba'dituzu, esakizun oiek ez zaizkizu ezjakiñak gertatuko.

- Beste batzuk toki batean geldik egon bearrean, IBILLI egiten ziran .iñoiz eta iñon gelditzeke, salmoak abestuz eta otoitz-aldi luzeak egiñez. Ala Mesopotami'ko R.abban Yozedek. Lo, oI baten aurka bizkarra zerbaitxo bat etziñik egiten omen zuan; beti, ordea, oiñak lurrean zituala, bere soiñaren azta edo pixuak, oroki, olaren gaiñean ez baina lurrean ezarririk zeuzkan oiñen gaiñean jarrai zezan.

Euskalerrian, orrelakorik? Ez dakigu, baiñan badaiteke gure artean orrelako Jek.aiderik izatea. Batezere lekaideen artean bertsolaririk ba'zan, —eta oroi, antziña artan euskaldun danak zirala bertsolari badaitekean gauza dugu, ..Euskalerri Zar osoan bertso-kantari mixiolari-lanetan basarriz-basarri eta uriz-uri ill arteraiño bideak-zear ibilli zan lekaderik ugari agian izatea,

- "DENDRITA" edo zugaitz-adarren artean egindako txabola batean edo, batere babesik gabe, zuganzaren adarretan, bertan geldi, bizi oi ziran bakartiak. Auek ere, lurrera ez jausteko, zugaitzari lotuta egon oi ziran. Mend.eak geroago orrela igaro omen zuan bere biziaren azken-aldia Padua'ko Andoni .Doneak.

Ez eidazu galcletu emen "zuganzetako lekaideri.k.' — edo lekannerik — izan genduan, zer erantzun ez dakik-eta. BaiNan bearrezkoa izanen zuten ausartasunik ugari, zugaitz batean bizitzen asteko, inguruko bertsolari ziri--sartzailleek pakean t)zitzen utziko ez zietelako. Satiri-zalea bait da. gure erri.k.o jende landerra: zirikalaria.

- "BOSKOI" edo 'Larrerazaleak.". Izen ortako bakarti aiek, ordea, abere-talde bat ez baiña beren burua zan larrera eramatenn zutena, abereak bezala larrean billatzen zutena janez bizitzeko: *a la intemperie en lcl campffla caminando a cuatro palas como los animales* v *alimeindndo-se de hierbas que padan a la manera de las ovejas" (ib).*

Sortaldeko gotzai bi, Yakob eta Lazaro, lanetik izan omen ziran go-tzai-aulkira jasoak.

Ez dakigu, eztare Euskalerriko larreetan orrelako belar-jalerik izan zit-zal gun. Baterenbat izan ba'genuan, beste iñon ez bezalako merezimendua zor izango zitzaiokeala aitortu bearrean aurkituko euskaldunek ongi jateari dioten maitasuna gogoan arturik.

- "YPERTHROI" edo, lurra bean eta zerua goian, elurte otza gaur eta bero kiskalgarria biar, bizi guzia landetan eta mendietan estalkirik gabe igaro oi zuten bakartiak.

Ezaguna da auen. arteko Abba Ismaei. Zeraman penitentzi edo garbai-bide gogorra geiago gogortzearren, asmakuntza au gogoratu omen zitzaion: *"cuando helaba se ponla a lcr sombra y en meis Inerte Cankilla buscaba*

*el ardoz del sol".* Ta, asmo berak eraginda, Rama'ko Moises aitz baten gaiñean jarri omen zan bizitzen. Eta, Yon izeneko beste batek, udaz kerizpe-ematen zion zuganza bota om.en zuan lurrera.

Asko omen ziran orrela bizi ziran bakartiak: "Podla *citar muchos en nuestms regiones, en Icrs montafia.s y en* las *llanuras, tan numerosos que es nunierarlos, v rrraz aun escribir sus vidas",* esaten omen du Siri'ko bakarti guztien edestilari izan zan Ziro'ko Teodoreto gotzaiak 124.

"RECLUSI", lateraz; **euskeraz. Batzuk,** osin legorren beean, beste batzuk illobi-utsik-gelditan, edo arrizko orma sendoz, naita, artarako egindako etxola estuetan bizitu ziran bakartiak.

Etxola oietako batzuek ez zuten goian estalkirik: "el *sol les tostaba en verano* Vel *histo les torturaba en invierno".*

Ala bizitu omen ziran. Teodoreto'k dionez, Siri'n Alepo uriko Andre b.. Biak, aitorrenalabak: Zira ta Maranna.

"Reelusi" oietako batzuek, eliz edo baseliz, baten alboan egin oi zituzten beren txabolak. "Ermitaños" esan oi zaie gazteleraz. Euskeraz, "padar" esan zaio, baselizetan zaindari lez bizi izan Ilari.

Bakarti oietako bat berak arriz egindako zokobazter artara sartzen zanean, kanpotik isten zioten atea, arriz egindako ormaz, eta an gelditzen zan bere bizi osorako gizon –ieño emakume! – ura, ematen zioten janaria jasotzeko leiatil txiki bat besterik ez zuala. Iltzen zanean, goiko estalkia altxatuz ateratzen zuten gorpua, txabol ura goian estalkidunetak.oa ba'zan.

Euskalerrian? Bai. Orrelako lekaiderik izan genduan guk ere seguruaski. Bearbada, eure gobietako bakartien artean ere, asko, bere leitzatik sekulan ateratzen ez ziranak genituan.

Orduantxe, eta geroago ere bai, lekaidetxeetako ta lekaimetxeetako garbai.zaleen artean ere beti jarraitu du lekaidetegi bertako baratzaren barruan edo inguruko mendietan tx.abol batzuk eraikita, txabol aietara joanda an itxirik bizitzeko, lekaide edo lekaimeen oiturak.

Euskalerrian gaurregun arte iraun dute baselizen alboan eraikitako etxeetan bizi izan diran padar edo ermitazaintzailleak. Padar oiek errez izan daitezke antziñako "ermitari" aien jarraipena.

---

174. Teodoreto V mendekoa Bere gotzai-uria, Ziro, goi-I r-raren iparraldean zegoan. Gaur Sirik Turki'rekin muga egiten duan tokian.

Arras maite izan zituzten kristauek alako bakarti aide: jai-eguna izaten zan aietako baten ertsiketa:

"STILOY", ots, "Stylos" edo zutabe baten gaiñean bizitzen ziran bakartiak. Simeon Donea da, arras ugari izan ziran zutabezaleen arteko Donerik ezagutuena. Zutabezale aiek, maiz aski, *ez* ziran egiazko bakartiak izan, bai bait zuten beti jendea beren zutabearen inguruan, baiñan bai mixiolari bikaiñak, atertzeke saiatu bait ziran jende ura ebangelizatzen. *"Predicador )." misionero, San Simeon ei Estalita catequizuba pueblo dos veces a/ dice, por lcr Mafialla v por la tarde (* ib).

Ori, "estilita" guztiek egin oi zuten gauza da.

Ezpairik gabe esan dezakegu gure artean ez zala "stilita"rik izan, Europa'ra ez bait zitzaigun orrelako garbaikerarik zabaldu. Zutahazale bat bakarra dugu Europa'n ezaguna: Galietako ipar-sortaldean, gotzaiaren aginduz negu gorrian otzak erdi illik zutabetik jetxi zuten ura.

- "SALOI" edo "Txoroak. Perta'ri emango diot itza: "*Fueron los mds desconcertames anaeoretas sirio.s". "Para practicar lcr humildad y ei desprecio de si miSMOS vagabundeaban de dŕcr por los pueblos haeiendose pasar por debiles mentales o poseidos del demonio. La noche consagraban a lcr oraciOn solitarja e intensa.*

Simeon Donea, adibidez, Edesa'ra iritxi zanean meza ematen ari ziran eliz batera sartu omen zan. "Pmvisto *de un tirabeque v de nueces c.ffient() SH punteria hacia el altar apagando una a una las velas. Despues subi6 ¡udpito y comenz6 a bombardear a las mujeres con los proyectiles que quedaban".*

Geiago oraindik: Ardosaltzaille batek lana eman zion, mutil trakets ura ain eroa izango ez zalako ustean. *"Shne6n, para huir de kr vanidad* y *hacer catnbiar a su amo de parecer, se propuso algo Durante kr noche se filtr6 en In alcoba donde dormia la mujer del comerciante* y *se hizo sorprender por el marido".* Ederki berotu zion noski. larrua nagusiaren makillak. Makilketa artatik, andre gaixoari., ŕ ez ote zitzaion zerbait iritxi?

Emen orrelako garbai-zalerik ez genuala izango, zalantzarik gabe aitortu dezakegu. Jardunkera ori eusko-oldozkerarekin uztartu eziña bait da. Alare iñaki Done loiolatarra bere otoitz ezagun batean, –"ser do con Cristo humillado, abatido con Cristo abatido" ez dabil oldozke-

raz, ill-ondorean donetua izan zan Simeon "Eroa"ren oldozkeratik ain urruti, naiz jardunkeraz onek bezalako geiegikeririk arek sekulan egin ez.

Basarnortnetako bakartiek zer jaten zuten? Oso-oso gutxi. Ia ezerez! *"Es sabido que en el prinntivo monaeato se daba una importancia exagerada ala privaciOn de alimentos. Asi, Policomio* y *Azepsimas tornaban una refacci6n por semona, los domingos. resto de la semana lo pasaban con el estOmago en huelgolbrzosa"."En* huelga de hambre" esanda ote legoke obeki?

Nola lortzen zuten zer jana? Beti geldi egon bear zutenek, ematen zitzaienetik, edo, ortarako ainzuzen, izaten bait zuten ikasle bat onek eramaten zienetik. Besteek, zeuden tokitik ez mobitzera bearturik ez zeuden aiek, bizi ziran bakartasunean aurkitzen zutenetik.

Ta emen, Euskalerrian? Gure gobietako lekaideek ez zuten nondik eta zertik jateko eragozpen aundiegirik. Arrairik naiko bazuten beren ibarreko errekatxoetan, eta baita pago, aritz, arte ta ametz-ezkurrik ugari... eta basaabereak. Baiñan ikusi dugun Iez, bakartien otorduak ikaragarriki. txiroak izaten ziran, eta barau-aldiak ugari eta luzeak.

,Zenbat bizitzea ziran? lñork uste dezakean baifi.o geiago. Euskalerrikoen berririk ez dugu. Zori txarrez Euskalerria dokumenturik-ez-eko Erria bait da!

;Zer egiten zuten? Otoitz eta garbai. Salmoak abestea zuten anitz gogoko. Orixe bera izanen zan gure gobietako biztanleen ariketa. Ta, ortaz gainera, euskaldunak bait ziran, eta aro artan euskaldun oro bait zan bertsolari, eta euskaldunok beti izan bait gera bertso-zale sutsuak, gure bakarti aiek, ezpairik gabe jaikoaren aintza abestuz bertsoketan ere igaro zuten asti luzerik gozoro. Eta Donemillian'ek bezela Jainkoa txistu joz goresten ote?

Eta... i,garbitasunaz zer? "La *higiene? Hada sonrefr a los ascetas!* Emakumezko bakartia zan Melani *"se vanagloriaba de haber Ilegado a edad de sesenta años sin que el agua hubiet*[y]*l tocado su tara sus pies".* Teodoreto Ziro'ko gotzaiak onela marrazten digu Sinai mendiko maldan bizi zan bakarti bat: "de *aspecto primitivo, cubierta la cabeza con una eabellera hirsula y grasienta, la* [g]*ara arrugada, los miembros momilicados y vestido de urz pingajo tefido con horas de pahnera"* (op.e. 101).

¿Itxura ortakoak ote ziran gure gobietako bakartiak? Ez dakit...Baiña ez noski ur garbi, ozkirri, goxorik bertan ez zutelako, bizi ziran arantxo politten erditik bi lats eder bait doaz arrain guragarriz beterik.

– ¿Eskulanik egiten al zan bakartien munduan? Ez daiteke bat bakarra izan galde orri eman dezaiokeagun erantzuna. Lendabizi, bakarti guztien biziera berdiña ez zalako, eta, bigarren, lurralde guztietako onurak ere berdiñak ez ziraiako. Ejito'n bai, otargintza besterik ez ba'zan ere, bearrezkoa bezala zuten eskuz lan egitea. Siri'n ez. "El *monakato sirio es ante todo instituciOn contemplativa". "El trabajo, 1701' consiguiente, y toda actividad tendiente a desviar al monje de la presencia de Dios, era desestimado como Incompatible cnrt lcr contempla 6n.*

¿Gure gobategietan zer? Euskalduna beti izan da langillea. "Langille ona zera" entzun aal izatea du euskaldun batek geien atsegin zaion gauza. Bainan... gure gobategici berr-ikustaldi bat egin ondorean... ez dakit ba nik zer esan. Ezezkora alderatuko nintzake ni. Gainera. ¿zer lan egin zezaketen an? nekazaritza? eiza? arrantza? baiñan bakartiek ez zuten ez arrairik ez okelik jaten, eta soro lancluetatiko janaria baiña atsegiñago zitzaien sekulan aitzurrak zauritu ez zituan larre basatietako zitu basatiak. Eta – otarra egin, otarra ezegin, otarra birregin ostera otarra birr-ezegiteko,– Ejito'koek bezala alperrikako lanean aritzeko zaletasun aundirik euskaldunak sekulan izan ez du.

¿EUKA.RISTIARI ETA BESTE SAKRA.MENTUEI-BURUZ ZER?

Asieran beintzat *"la espiritualidad sacramental parece haber estado descuidada. El hecho de vivir solos propensos a 1171 radicalismo de huida de la sociedad les separaba naturalmente de de sus sacramentos". "En Stria habia a.scetas que recibtan la C01111.1111617 una vez al otros una vex cada dos aflOS "* (ib).

Egia esan, gai orri dagokionez ez zan berdiña bakarti guztien nolakotasuna: naiz batzuk apaizak izan, ezapaizak bai ziran geien-geienak. Apaizak beren lurpeko-elizetan edo beren etxoletan ari izaten ziran sakramentugintzan.

Arazorik larriena, apaiz orogandik urruti, ickaroetan bizi ziranentzat izan oi zan. Noizeanbein, pazkoazkoan adibidez, apaiz bat saiatzen omen zan aiengana, – eta aiek onenaantr – urbiltzen.

Orrelako arazorik ez zuten gure gobietako bakartiek. Bai bait zuten elizarik aski beren gobien artean.

- TA? aGURE GOBATEGIETAKO LITURGIA? ,Nolakoa ote zan sakramentugintzarako gure apaiz bakartasunzale aiek erabilli oi zuten liturgia? Ez dakit. Baiña ez dut uste orrek geiegi kezkatul«) zituanik. Orduan aundia bait zan liturgiaren alorrean askatasuna.

Liturgia, zirimoniez eta otoitzez eratutako zerbait da. Eta, liturgiaren barruan otoitza bera ere zerbait bikoitzez, osoturik a gertzen zaigu: azalez, eta mamiz. Azala, erabilli oi duan IZKUNTZA da, eta, mamia, izkera orren bidez Jainkoari zuzentzen dion OTOITZA.

Liturgia Jainkoarekingo ariketa dan ezkero, bere mamia du zatirik garrantzitsuena. Nere uste apalez, euskalliturgiaren mamia, garbia izan da beti. Baita priszilikeria gure artera ainbeste sartu zanean ere, prisziiikeria ez bait zan, guk dakigunez beintzat, Euskal-Elizaren otoizkerara sartu. Salduba'ko kontzilioak aditzera damaigunez, erriko jendeen eta apaiz batzuen maillan gelditu bide zan. Ta, mailla ortan ere, ez dut uste gure euskaldun priszilikeri zale otoiketaren mamia zizkindua izan zanik, priszilikeriak, dirudianez, ez bait zuan sinispidea bera zikindu.

Ortaz, ordea, mintzatuak gera. Alare gelditzen zaigu gai jakingarri bikaifiik, liturgiaren mamiari-buruz: onoko galde onen erantzuna billatzen saiatzea, adibidez: zar aren mami, ots, liturgi aren otoitzen mamia berdiña al zan Euskalerri'ko elizbarruti guztietan? i,Nork asmatua?

Mamiari-buruzko galde orri, geroxeago erantzungo diogu.

Orain, Liturgi zaar aren azalez, ots, liturgi arek erabilli zuan IZKUNTZAZ zerbait jakin naiez, beste onako galde bikoitz oni erantzuten saiatuko gera:

,Zer izkeraz mintzatzen zan Euskal-Eliza Jainkoarekin ari zanean?

LEi ote zuan beiñere Euskalerriko Elizak bere liturgian Jainkoarekin euskeraz itzegin?

Ez dut uste.

Nere ustez latiña .izan. zan bait zan beti. Euskal-Elizaren liturgiako izkuntza. Eta Euskalerriko elizak ez zuan sekulan bere liturgian euskerarik erabilli.

Agian.., agian... III mendearen asieran, orduan emen, Lyon'go irenco'k eta Kartago'ko Tertuliano'k aditzera ematen dutela dirudianez –,

baldin kristaurik tzan ba'zan. Eta, Tertuliano'k Ebangelioa zabaltzeko erazi--buruz idatzi zuan ura: *"Christum irr diversis praedicatur",* ots, "Kristo izkuntza ez berdiñen bidez aldarrikatzen zalako ori, orduango elizaren liturgizko otoizketara aldatzea zillegia ba'litz.

Ori zillegi balitz bai. ehangelizaketa bezala elizetako otoizketa ofiziala ere toki ez berdifietako elizetan iz_kuntz ezberdiñetan egin oi zala esatea gi agian, esan genezake, bearbada, gure Euskalerriko elizetan otoitz agian-agian... noizbait..., 1.1 mendetik IV'erako garai artan euskeraz *egiten* zala.

Ez ordea gure antziñako lekaidetzaren aroan, ots, IV, V. VI. eta VII mendeen aroan. Ordurako izkuntz sagaratua biurturik bait zegoan eta latiñez egiten bait zan Sarkalde osoan liturgia, IV medearen bigarren erdiaz gero Erroma'n bertan ere egin oi zan bezala.

Ordura arte elenera izan zan ba Erroma'ko liturgiaren elea. "Elenera. bait zan munclua-zear izkuntzarik oiturazkoena": *"etalt la langue internationale lei plus courante". "Eleneratik* latifierak.o igaropena, IV mendean egin zan Erroma'n, 360'gn. eta 380'gn. urteen arteko epean": "Roma *passa progressivement au latin entre 360 et 380",* cliosku Dictionnaire d'Histoire et de Geographie Ecclesiastiques" iztegiak. Eta "Dietionnaire Encyclopedique de la Liturgie"k (1,335), *"dans l'Eglise romaine le passage de la langue greque (ì lcl langue latine se fut sous le pape Damase* (366-384)".

Aburu berdiñekoa dugu Oxford'eko H. Chadwick ere: "The *Roman Church changed from Greek to Latin abom 370. The eanon of the latin mass as used in the* 6th *eentury was alreadv clase to the form lt has since retained".* Euskeraz: "Errorna'ko Eliza 370 urtearen inguruan igaro zan Elenerati.k Latifiara. VI mendean an erabilli oi zan mezaren otoi nagusia (kanona) arrezkero erabfilitakoaren itxura aundikoa izan zan" (New. Eneye. Brit. IV, 541)

Ordura arte, IV mendearen lenen erdian ere *lengua de Occidente mis empleada corrientemente en todas partes file el griego";* eta *"durante largos afios lct lengua cristiano del Occidente el griego"* izan zala egia ba'da (F. Pz. Castro. GER,IV,171), "durante largos años" oietan, zer izkuntza erabilli zezakean Euskalerrian liturgiak? Ez beintzat Elenera, naiz ori izan Erroma'ko liturgiaren izkera, emen sekulan ez bait zan elenerarik mintzatu. Euskera? Ez, Latifia.

Urrutiegi luzatu du eta zabalegi edatu clu Perez Castro'k mingaiña, IV mendean Afrika'n eta Ispanietan eta Galieetako zatirk aundienean Lattiña bait

zan erri erromartuaren izkuntza. Baita III eta ll'ean ere. Latiñez idatzi zEran Kartago'ko Tertul iano' etik erako- urteetan.

Eta neurri aundiz Ispanietara Afrika'tik etorri zan kristautasuna-ta, mintzatu zan latiñez Efiberris (Eibira- GranadaYko kontzilio izen aundiko ura IV mendearen asieran. Latina. zan Sarkaldeko lejtoen elea. Lenoen lurralde zan berriz Tl eta tII mendeetan Galietako iparra, barrua, ta ego-sarkaIde guzia.. Eta gero,. IV mendean, Erroma'ren latinezko pitxtrik dizdiratsuenetakoa izan zan Galia dana.

Guri, ordea, EUskalerrira Galietatik eta ispanietatik etorri zitzaigun kristautasuna. Ta, apostolu aiek, latiñez mintzatuz etorri zitzaizkigun. Gure urietara etorri zi.ran bereiziki, ainzuzen aspaldi ezkero ederki crromarturik zeuden urietara. Gure uri aietan, ordea, kultura pittin bat zuan guztiak ezagutzen zuan Ala, latiña ondo ezagutzen zuten uri oietako euskaldunek, latiñez entzun eta latiñez aditu zuten latiñez aurkeztu zitzaien Kristo'ren sinispide berria.

Beraz, latiñez jaio zan elebidun ziran Euskalerriko uri latin-mintzailicetan kristautasunaren landare berria. Latiñez bazekiten euskaldunak izan ziran Euskalerriko lenen kristauak, eta, ez da arritzekoa-ta, latiñez egin oi zituzten, bere apostolu latindun aiekin batera, elizetako liturgi-otoitz eta ariketa guztiak.

